Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak

Jurgi Kintana Goiriena eta Karmele Artetxe Sánchez (arg.)

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 2002

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

«Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da»

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Jurgi Kintana Goiriena, Karmele Artetxe Sánchez

ISBN: 84-8438-8438-027-0
Lege-gordailua: BI-1631-02

Inprimategia: RGM, Bilbo
Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti
Hizkuntza-zuzenketen arduradunak: Jaione Agirre eta Jose Ramon Etxebarria

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 faxa. 944790546
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Zabaltzen: Portuetxe, 88 20018 DONOSTIA

Aurkibidea

Sarrera, Jurgi Kintana eta Karmele Artetxe 7

ARKEOLOGIA

Megalitismoaren inguruko hausnarketak: eraikuntza, erabilera eta erritualak, Jose Antonio Mujika. 13

Paleopatologia: gure arbasoen gaixotasunak, Lourdes Herrasti. 45

Hiri-arkelogia Euskal Herrian. Definizioa, eztabaida eta problematikak, Belen Bengoetxea 61

ERDI AROA

Euskal mediebalismoaren zenbait alderdi: lorpenak eta hutsuneak, Jose Angel Lema 75

Emakumea XVI. mendeko gipuzkoar leinuen gobernuan: ikerketarako abiapuntuak, Oihane Oliveri 93

ARO BERRIA

Biografia. Metodo zahar baten berragerpena eta ikerketa berriekin dituen harremanak, Alberto Angulo. 111

Giza bazterketa Euskal Herrian XVI eta XIX. mendeen bitartean. Ikerketen berri, David Zapirain 123

Conversa *izenekoak eta Lapurdiren eta Gipuzkoaren arteko harreman komertzialak Aro Berrian,* Xabier Alberdi 135

ARO GARAIKIDEA

Historian barrena: historiografiaren arazoak, Joseba Agirreazkuenaga 155

Euskal abertzaletasunaren historiografia, Ludger Mees 169

Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: hurbilpen historiografikoa,
Iñaki Zabaleta, Idoia Fernandez, Arantza Uribe-Etxebarria, Pauli Davila. . . . 193

Berrezarkuntza garaiko (1876-1923) historiografia Hego Euskal Herrian. 1988-1998 bitarteko produkzioaren azterketa bibliometrikoa eta kualitatiboa (gizartea eta politika), Mikel Aizpuru 209

Sarrera

Euskaraz idatzitako historia-produkziora gerturatzean, maiz sentitzen dugu erdaraz baino eskaintza apalagoa daukagula. Eta ez soilik kopuruz; sarri askotan baita kalitatez ere. Puntako liburuak, artikuluak eta hitzaldiak, ingelesez, gaztelaniaz, frantsesez eta gainerako hizkuntza handietan egin ohi dira. Badirudi, euskaraz atzean geratzen garela. Nobedadeen berri jakin nahi badugu, ematen du erdarazko eskaintzara jotzea beste erremediorik ez zaigula geratzen.

Ahulezia hori gogoan, euskaraz ere historia-arloko azken ikerketen eta joeren berri ematea pentsatu genuen. Izatez, urte asko dira UEUren Historia Saila goi-mailako ikerketak euskaraz lantzen ari dela. Oraingoan, historiaren aldi eta arlo desberdinetako hainbat espezialista bildu ditugu, guztien artean euskal historiaren inguruko azken ikerketen eta berrikuntzen panoramika zabala eskain diezaguten. Historiaurretik Aro Garaikideraino, eta hiri-arkeologiatik paleopatologiaraino, oso handia da bildu ditugun adituek jorratzen duten lan-esparrua. Horregatik, irakurleari hain ikerketa-ildo desberdinen artean ibiltzen laguntzeko, "bisita gidatua" ere eskaini nahi izan diogu. Hain zuzen, puntako zenbait artikulurekin batera, garai desberdinei buruzko azken ikerketak zertan diren azaltzen diguten balantze historiografikoak ere jaso ditugu. Era horretara osatu dugu eskuartean duzun lana.

Liburua, arkeologia-arloko hiru artikuluk irekitzen dute. Hasteko, Joxean Mujikak megalitismoaren inguruko bere ikerketen ondorioak bildu dizkigu. Mujikak, urtetan zehar hainbat trikuharri eta tumulu industu ostean, ikuspegi berriak eskaintzen ditu megalitoen fenomenoak Euskal Herrian dituen ezaugarriez. Hurrengo artikuluan, Lourdes Herrastik, paleopatologia izeneko ikerketa-ildo interdiziplinarrari heltzen dio. Arkeologia eta medikuntza konbinatuz, iraganeko gaixotasunak ezagutarazten dizkigu. Ondoren, Belen Bengoetxeak hiri-arkeologia zer den azaldu eta ikerketa-mota berri horren inguruan hausnarketa egiten du, Euskal Herrian garatzeko abiapuntuak proposatuz.

Bigarren gai-blokea Erdi Aroan zentratzen da. Jose Angel Lemak abiatzen du, Euskal Herriko mediebalismoaz balantze historiografiko zorrotza eginez: ikerketa-ildo desberdinak, azken joerak, gabeziak... Segidan, Oihane Oliverik eskuartean darabilen ikerketaren abiapuntuak azaltzen dizkigu: emakumea Erdi Aroaren amaierako Gipuzkoako leinuen gobernuan.

Horrekin hirugarren gai-blokera pasatzen gara, Aro Berrira. Hemen, Alberto Angulok, bibliografiaren azken urteotako bilakaera azaltzen digu. Bibliografia, itxuraz genero historiko klasikoa bada ere, susperturik eta zaharberriturik datorkigu, eta, Angulok argitzen digunez, lan-ildo emankorra gertatzen ari da Aro Berriko ikerketetan. Garai berean baina bestelako arloan, David Zapirainek pertsonen bazterketa-fenomenoa lantzen du. Nazioarteko historia sozialaren eta antropologiaren ikuspegiak geurera ekarriz, balantzea eskaintzen digu gai honen inguruan Euskal Herrian egin denaz eta egiteko dagoenaz. Bloke hau amaituz, Xabier Alberdik, Aro Berrian Gipuzkoaren eta Lapurdiren artean izan zen merkataritza-harremana aztertzen du, lehen eskuko iturriak baliatuz.

Laugarren eta azken blokean, Aro Garaikideko lau artikulu bildu ditugu. Aurrenik, Joseba Agirreazkuenagak gogoeta egiten du historiaren izateaz: postmodernismoak diziplina honen izaera kolokan jarrita, Euskal Herrian historia nola erabili eta ulertu den azaltzen digu, baita aurrera begira dituen erronkak planteatu ere. Bigarren artikuluan, Ludger Mees-ek, euskal nazionalismoaren historiografia errepasatzen du. Aurreneko lanetatik gaur egungo egoeraraino, zehatz azaltzen digu zer ikertu den, nola ikertu den eta oraindik zer dagoen eginkizun. Ondorengo artikulu kolektiboan ere, ikergai baten balantze orokorra egiten da, hezkuntzarena kasu honetan. Idoia Fernandezek, Arantza Uribe-Etxebarriak, Pauli Davilak, eta Iñaki Zabaletak hezkuntzaren Euskal Herriko historiaz gaur egun arte landutako guztia errepasatzen dute, bilketa ezin zehatzago batean. Amaitzeko, Mikel Aizpuruk, Borbondarren Berrezarkuntza-garaiaz dagoen historiografia lantzen du, baina ez era tradizionalean, baizik ezohiko metodo kualitatibo eta kuantitatibo berritzaileak erabiliz.

Liburu hau historia-arlokoa izanik, ona izan daiteke liburuaren beraren historia ere labur-labur azaltzea. Abiapuntua, UEUren Historia Sailak 1999an Biarritzen antolaturiko udako ikastaroan dago. *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian* izenburuko ikastaro hartan, hainbat aditu izan genituen hizlari. Aurrerago, beren ekarpenak idatziz biltzeko eskatu eta bertan esandakoa hobeturik idatzi ziguten. Haien testuek osatzen dute liburu honen muina. Hala ere, ikastaro hartako hizlari guztiek ez zuten beren gaia idatziz jasotzerik izan, eta tamalez ezin izan ditugu Óscar Álvarez Gila, Luzia Alberro, Enrique Dominguez eta Lidia Zapataren ekarpenak sartu. Bestalde Agirreazkuenagak, Biarritzeko hitzaldia, 2000. urteko azaroan Donostian UEUk antolaturiko *Historialari Euskaldunen I. Topaketetan*, osatuago aurkeztu zuen, eta azken bertsio hori jaso diogu. Aurrekoarekin batera, Ludger Mees-ek ere, gure ikastaroko gai bera izan zuen hizpide 2001eko abenduan Iruñean Geronimo de Uztariz Institutuak egindako ikastaroan; eta aurreko biekin batera aritu zen bertan Mikel Aizpuru, nahiz 1999ko ikastaroan ez parte hartu. Hortik Aizpururen artikulua jasotzea egoki iruditu, eta lortu.

Hola, bada, diziplinartekotasuna, gai berriak, azken ikerketak, ikuspegi aitzindariak eta metodologia orain arte erabili gabeak azaltzen dira liburu honetan. Artikulu hauek irakurriz, Euskal Herriaren historiaz irudi bizi eta berria erdietsiko duzun itxaropena dugu.

Azkenik, argitaratzaileok eskerrak eman nahi dizkiegu liburuaren zuzentzaileei, Jose Ramon Etxebarriari eta Jaione Agirreri, liburuari forma eman diotelako, eta Nekane Intxaurtzari, maketatu baino gehiago egiten duelako.

Jurgi Kintana Goiriena eta Karmele Artetxe Sánchez
Zamudion, 2002.eko otsailean

Arkeologia

Megalitismoaren inguruko hausnarketak: eraikuntza, erabilera eta erritualak


Jose Antonio Mujika Alustiza
Euskal Herriko Unibertsitatea

1. TRIKUHARRIAK: LEHENGAIA ETA ERAIKUNTZA-PROZESUA

Hilobi hauen eraikuntzari buruz egiten diren azterketetan alboratuta edo, gutxienez, sarritan gehiegi sakondu gabe gelditzen den gaietako bat lehengaiarena dugu. Bere inguruan dauden hainbat faktorek (harriaren ugaritasuna, harrobiaren urruntasuna, harrien neurriak eta formatuak —harlauza/harkoskoa—, erauzteko erraztasuna, etab.), neurri handian baldintza dezakete trikuharri baten eraikuntza-lana eta tipologikoki klasikoa izan zitekeen hilobia eraikitzea eragotzi, eta, beste hainbat kasutan ebazpen berri batzuk bilatzera behartuz. Gai honen azterketan, ganberen ezaugarri txikienak ere (ziur asko bere garaian eraikitzaileentzat hain garrantzitsuak ez zirenak) kontuan hartu izan dira helburu sailkatzaile bati jarraituz; baina ahaztu egiten da hilerrien gaur egungo egoerak askotan ez duela zerikusirik egin ziren garaikoarekin. Alde batetik, kontserbazio-egoerak, eta, bestetik, gizakiak beharrez edo nahita egin dituzten aldaketek mugatu egin dute arkitekturaz eta erritualaz lor zitekeen informazioa. Antzeko ezaugarri arkitektonikoak dituzten egiturek kronologia eta, ziur asko, erritual ezberdinak edukitzea gertatzen da; eta kronologia eta erabilera berekoak tipologikoki ezberdinak izatea ere bai. Horrela, denak tipologikoki trikuharri soil luzeak izan arren, Aitxu (Ataun-Idiazabal) eta Atxurbi (Ataun) tradizio dolmenikoko Brontze-Aroko zistek ez dute zerikusirik Zorroztarri (Idiazabal-Segura) edo Napalatza (Idiazabal) bezalako trikuharriekin. Bestalde, ditugun datuen arabera, Igaratza Hegoa (Aralar) bezalako trikuharri poligonalak, Otsaarteko trikuharri soil laburrak eta Zorroztarriko trikuharri soil luzeak ez lukete aldaketarik izango erabileran.

Azken aldian induskatutako Mandubia-Murumendi eta Altzania-Ataun-Burundako megalitotegietan, gai honen inguruko informazio interesgarria lortu ahal izan da. Lehenengoan, basaltoak dira nagusi, baina bertan badira kareharri eta kareharri tupatsuen azaleramenduak, eta hauek aukeratu zituzten Trikuaizti I, Mandubi Zelaia eta Larrarteko ganberak egiteko, tumulua basaltozkoa izan arren. Trikuaizti Iean ganberako harlauza handiena basaltozkoa zen, baina, egitura hori osatzeko, kareharrizko harlauzatxo batzuk erabili zituzten. Ondoko Trikuaizti IIan,

berriz, gure ustez, erdiko egituraren zantzu bakarra arbelezko harlauza puskatu bat izan genuen. Ez dugu zalantzarik azken hauek trikuharriak zirela esateko, nahiz eta horiei buruzko artikuluak argitaratu genituenean, lehengaiak ezarritako mugen eta kontserbazio-arazoen ondorioz (batez ere Trikuaizti IIan), tumulu gisa sailkatu.



1. irudia. Trikuaizti I trikuharriaren atal ezberdinak. A: Ganbera. Bertan eta bere inguruan jaso ziren gezi-puntak, geometrikoak eta lurrontziak. B: Bertako tupa-geruzak. C: Tumulua inguratzen zuen peristalitoa edo harri-zirkulua. A eta C tartean zegoen paleozoruan aizkora bat jaso zen. D: Tumuluaren oinarrian mihiztatuta jarrita zeuden harlauzek eratzen zuten egitura. E: Harri koskorrek eratzen zuten une luzekara. F: Harri-zirkulutik kanporantz erorita zeuden harri koskorrak (Mujika eta Armendáriz, 1991).

Lehengaiaren ezaugarri fisikoek eta estrukturalek garrantzi handia izan zezaketen egituraren eraikuntzan eta morfologian. Harkaitz-mota batzuek, basalto--azaleramenduek adibidez, sarritan neurri txiki edo ertaineko harkoskoak eskaintzen dituzte ia soilik, eta gutxitan, harlauza-itxurakoak. Horrela, Trikuaizti I eta II hilerrietan (Beasain) aurkitutako basaltozko harlauza handi samar bakarra (110×100×10/20 cm) ganbera eratzeko erabilita zegoen. Gainerakoak, tumulukoak, ez ziren inola ere egokienak hilotz ugari gordeko zituen esparru luzexka bat antolatzeko, erabili beharreko harkosko-kopurua nahiko handia zelako eta gainera horien forma ez-egonkorra (oinarririk gabekoa, luzera eta zabalera txikikoa) egokiena ez zelako. Hala eta guztiz ere, aukeratu ziren kareharrizko harlauzatxoak (34×28×3; 24×22×3 cm-koak) erabiltzea ere nahiko harritzekoa da, ez bada, hasiera batean, gaur egun baino era sendoagoan (zurezko egituraren batez?) jarrita zeudela, eta neurri handiagoak zituztela.

Argi dago azken hogei urteotan, basaltoa nagusi den lurraldeetan induskatutako trikuharrien ganberak egiteko beste lehengai bat (kareharria edo kareharri tupatsua) erabiltzen saiatu zirela; eta hori bera ikusi zen mende honen bigarren hamarkadan Elosua-Soraluzeko megalitotegiko Agerreburu trikuharrian (Aranzadi eta Barandiaran, 1922). Baina, hemengo beste hilerri batzuetan kontserbatzen ziren ganbera-zatietan ikusi ahal izan zen ezen, horiek osatzeko, dirudienez, soilik basaltozko harlauzak erabili zirela. Gainera, hauetako batzuk neurri nahiko handikoak ziren, ondorengo trikuharrietan ikusi zen bezala:

Aizpuruko Zabalan (basaltozko hiru harlauza zeuden: 2,10×1,70×0,25; 0,53×1,30×0,12 eta 0,80×0,30 m-koak), Iruiyan (1,80×1,70×0,20 m-ko harlauza bat zegoen), Irukutzetan (1,50×0,40×0,30 m-koa), Keixetan (1,40×0,90×0,25 m-koa), Keixetako Egiya Hegoan (2,30×2,10×0,35 m-koa).

Megalitotegi hau kokatzen den mendizerran bazituzten harlauza egokiak basalto-azaleramenduetan; baina harrigarriena trikuharri batzuen erdialdean (Aizkoin, Atxolin txiki, Iruiya, Keixeta, Kutzebakaar, Maurketa eta Pagobedeinkatu), ustez ganberaren bolumena handitu nahian bertako "harkaitza" hondeatuz egin ziren zuloguneak ditugu. Gaur egungo metodologiari jarraituz berrinduskatuz gero, ganberaren inguruko informazio gehiago lortuko genuke noski, baina agian ez genuke izango ziurtasun osoa zulogune horien jatorriaz. Horrela, horiei buruzko indusketa-txostenean Urrezuloko Armurea (Idiazabal) aipatzen da antzeko gisa, baina ez dugu zalantzarik, bertan egindako indusketari esker eurek ere bazekitela hemen zegoen zuloa urre-biltzaile batzuek hondeatutakoa zela. Horregatik, ez litzateke baztertzekoa zulo horiek ere horregatik agertzea, Irukutzetako trikuharriko alboko harlauza batean esaldi hau margotuta baitzegoen: «sepultura hallada en 1878». Hemen lanean aritu zirenek, ziur aski, ez zekiten trikuharri bat zenik; baina aurkitutako hezurrei esker, bazekiten hilobi bat zela. Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da badaudela harlauzaz egindako ganberaren ordez zulogunea duten hilerriak. Errioxako Portillo de los Ladrones-en (Viguera) 16 bat metroko diametroko tumulu baten erdian zulogune erdiesferiko bat zegoen, 2 m-ko diametrokoa eta metro bateko sakonerakoa, eta "katilu" horren barnean hezur-errausketaren arrastoak zeuden (López de Calle eta Ilarraza, 1997).

Tumuluaren eta ganberaren eraikuntzan aipatzen ditugun lehengai-aldaketak, ez dira soilik ezagutzen basaltoa nagusi den lurraldeetan, baizik eta baita beste osagai geologiko batzuk dituzten tokietan ere. Kare-haitz ugariko tokietan, ez da batere harritzekoa izaten, urrunegi joan gabe dagoen hareharri-azaleramenduren batetik erauzitako harlauzak aprobetxatzea ganbera osatzeko; adibidez, Ausokoin, Arantzadin (Aralar), Artzanburun eta Aizkorritxon (Aizkorri). Kareharrien gaitasuna ezberdina izaten da erakuntza-lekuaren ondorioz, eta honen osteko orogenesi eta higadura-prozesu fisiko-kimikoen eraginez. Batzuetan estratifikatua izan daiteke (Andia, Urbasa edo Entzia mendizerretan ikusten diren Tertziarioko kareharriak);

beste batzuetan, berriz, geruzak urriak izaten dira (Aralarko edo Aizkorriko kareharri jurasiarretan adibidez), eta beste hainbat kasutan masiboa eta trinkoa (Behe Kretazeoko kareharriak) izanez. Kareharrien ezaugarri orokorrek joera hori baldin badute ere, garbi eduki behar da ezen, trikuharri bat eraikitzerakoan, tokian tokiko inguruneak eskaintzen zizkieten bitartekoetara (hurbileko geruzetako hareharrietara, etab.) egokituko zirela.

Kareharriak trinkoak edo masiboak zirenean edo geruzak urriak, nola lor zitezkeen harlauza egokiak ganbera osatzeko, garai horietako teknologiarekin (zurezko edo hezurrezko ziriekin, adarkizko pikotxekin, eta abarrekin)? Aukerak ez ziren ugariak. Alde batetik, ahal zen neurrian, egin beharreko lana aurrezten zen, hilobia inguruko erliebeak eskaintzen zituen tontor-itxurako tokietan ezarriz; eta, bestetik, kareharri horiek eskainitako material apurra erabiltzen zen, edo inguruko hareharri-geruzetatik harlauzak erauzten ziren.

Orain arte aipatu ditugun trikuharri gehienak harria ugari dagoen tokietan daude kokatuta. Batzuetan azaleramenduak ez daude eskura (Unanibi —Idiazabal—), eta horrek argi dezake berezko tontor bat aprobetxatzeaz gainera, hain lodiera kaxkarra (30 bat zentimetro) duen hareharrizko tumulua eraikitzea. Baina lurralde batzuetan harririk ez dago, edo dagoenak ez ditu betetzen horretarako behar diren baldintzak. Horrelakoetan, aukeretako bat zurezko ganbera bat egitea izango litzateke, edo harkoskoak hain gertu ez dauden azaleramenduetatik garraiatzea. Gure inguruan ezagunak dira bi trikuharri (Sorginetxe —Arrizala— eta Aizkomendi —Egilaz—), eraiki ahal izateko harri-garraiaketa neketsua behar izan zutenak. Agurain inguruan daude, Entzia eta Aratz-Aizkorri mendizerren tartean eratzen den haranean. Tokian ez dago harkaitzik, substratua arbelezkoa baita, baina Entziak eskainiko lituzke behar diren kareharriak eta Aratzek, berriz, hareharriak.

Sorginetxe trikuharriko kareharrizko harlauzak, ziur asko Entziako mendizerraren barrenetik hartutakoak eta gutxienez kilometro batean garraiatuak izan ziren, zalantzarik gabe. Hilobi honek ez du tumulu-arrastorik (harrien urritasunagatik, mendeetan inguruko etxeak egiteko erabiliko ote zituzten?).

Aizkomendi sarbidedun trikuharriaren ganbera (sarbidea desagertua du) eraikitzeko, kare-haitzezko harlauza batzuk (Tertziariokoak: Goi Paleozenoa-Behe Eozenoa) eta hareharrizko bat erabili ziren. Lehenengoak Entzia ingurutik garraiatutakoak dira, azterketa geologikoek diotenez (Vegas *et alii*,1992); gutxi gorabehera kilometro bat. Hareharrizko harri bakarra (kalkuluen arabera 10.752 kg dituena), ganberaren iparraldean kokaturik dagoena, Aizkorri-Altzaniako mendizerraren hegoaldean dauden hareharri albiarrezko geruzetatik ekarri zuten, sei bat kilometro garraiatu ostean. Argi dago garraioari buruz eta hilerri hauen eraikuntza-prozesuari buruz arazo interesgarriak daudela lantzeko.

Trikuharriak eraikitzeko erruz erabili den beste harri-mota bat hareharria dugu. Material honetako geruza-metaketak sarritan azaleratzen dira gure mendietako

gailurretan eta hegietan, eta, gainera, maiz puskatuta edo pitzadurekin. Horrek asko errazten zuen behar ziren harkoskoak eta harlauzak erauztea, ganbera txukunak eta handiak eraikitzeko (erraldoiak izatera heldu gabe, noski), edo harlauzak nahiko ondo antolatuta dituzten tumuluak metatzeko (Praalata, Igartza Mendebaldea, etab.). Euskal Herriko trikuharri ikusgarrienak (Biasteri inguruko Chabola de la Hechicera, San Martin, El Sotillo, La Hechicera, Layaza...; Arabako Mendebaldeko La Mina; Kuartangoko San Sebastian, Gurpide Hegoa; Ziraukiko Txarrakadia... edo harlauza zulatudun hilerriak —Artaxonako Portillo de Eneriz eta La Mina de Farangortea, eta Bianako Longar—) bertako litologian hareharriak nagusi diren lurraldeetan egin dira, eta horretan zerikusi handia izan dezake berak eskaintzen duen harri-formatuak (handiak eta bigunak landu nahi izanez gero) eta azaleramenduen ezaugarriek. Hori horrela izan arren, beste harri-mota batzuekin gertatzen den antzera, aitortu behar da, hareharri-azaleramenduen ezaugarriak (erauzteko errazak, etab.) ez direla guztiak berdin-berdinak, eta, horren ondorioz, txikiagoak ere egin behar izaten zituztela (adibidez, Unanabi, Idiazabalen).

Beste harri-mota batzuez (kuartzitaz, kuartzoez, etab.) egindako hilobiak egon arren, ez dugu hauetan egindako trikuharri induskaturik. Zuraren erabilerari buruz, berriz, ez dugu frogarik azken aldian induskatutako trikuharrietan; baina ez litzateke gaizki egongo Larrarte trikuharriko ganbera gogoeta egitea. Bere hegoaldean ez zuen harlauza arrastorik, baina bai garai batean nola-halako mugaren bat egon izanaren zantzurik. Alde horretako hildakoen hezurrak muga ikustezin batek lerrokatzen zituen, eta argi zegoen hor, metro batean, ez zegoela inolako harlauza arrastorik nahiz eta horren jarraipenean harkosko txiki batzuk (5 cm baino txikiagoak) egon. Hor zeharo disolbatu zen kareharrizko harlauzatxo mehe bat izan ote zuen, edo enbor edota oholtzarren bat? Gaur egun horrentzat ez dugu erantzunik, nahiz eta, gure iritziz, egurraren erabilera uste baino arruntagoa izan (trikuharrien ganberak enborrez zeharkatuz eta hauek harkoskoz sendotuz estalki gisara, edo beste batzuetan ganberaren aldeetako harlauza baten ordez jarriz, etab.). Horren frogak hainbat tokitan daude: Monte Areo (Asturias), Tres Montes (Bardeak), Peña de la Abuela (Soria), Collado Mallo (Errioxa), etab.

Ezin da ahaztu, hilerri horien eraikuntza noren ekimena izaten zen. Argi dago ez zela gizabanako batzuen jarduera, talde-lan baten emaitza baizik, nahiz eta ez jakin nortzuek osatuko zuten lan-talde hori. Agian, trikuharri horren inguruan bizi ziren artzainak edo nekazariak izango ziren, azken batean, hilerri hori behar izango zutenak; baina ez da baztertu behar, antzinako gizarteetan gertatzen zenaren antzera, lan-talde zabalagoak antolatzea horrelakoetan; adibidez, duela gutxi arte iraun duen auzolanen antzera inguruko saroietako edo auzoguneetako biztanleak bilduz. Horrek, beste hainbat gaitan gerta zitekeen bezala (taldeak osatzerakoan animalia harrapakariak ehizatzeko antolatuko ziren uxaldietan; luberrien prestaketarako; hainbat unetan egunez edo gauez abereak piztietatik babesteko ekimenetan; eta abarretan), gizarte horretako talde ezberdinen arteko harremanak sendotzeko eta

taldea (auzogunea) bera ere kohesionatzeko balio izango zuen. C. Renfrew-k (1984: 74-75) hilerri horiek taldearen giza kohesioan izan zuten garrantzia azpimarratzen du (batez ere tentsio-uneetan), eta monumentu hori talde baten lurraldearen mugarria edo zuina da autore horren aburuz. Bestalde, Arthur A. Saxe-k nabarmentzen du taldearen arbasoen lurraldeari eustea ahalbidetuko zuela toki horretan hilobi-jarduerek jarraitzeak. Hilobi-funtzioaz gain trikuharriek beste funtzioren bat baldin bazuten, hori denek adostua eta onartua izan beharko zen, eta hilobi horien eraikuntzan laguntzeak edo parte-hartzeak lagundu zezakeen horretan. Eguneroko edo noiz behinkako talde-lan arruntetan elkartzeaz gain, sinesmen batzuen inguruan ere (samin edo dolu-uneetan eta beste ospakizun batzuetan) elkartuko ziren.

Gaur egun ditugun datuekin, aitortu behar dugu trikuharri baten eraikuntza ez zela eguneroko lan arrunta, ez baitzituzten egiten harrizko egitura esanguratsuak. Neolito Aroko bizilekuetan edo gizarte horren beste arlo batzuetan, harrien erabilera zenbait arlotara mugatzen zen: sutegiren bat inguratzera, harkosko batzuez eratutako lerrokadura batez aterpe bateko muga ixtera, txabolaren bat tinkatzera, etab. Ondorioz, ez zuten harri-ustiaketako lan handien beharrik, lur-azalean topatzen zituzten harkoskoak aski izango baitzituzten.

Gure lurraldeko eta inguruko beste askotako harrizko lehenengo arkitektura ("monumentala") sistematikoki eraikia eta erabilia, megalitismoa dugu; nahiz eta ezin den ukatu ezen, ikerketak ugaritu ahala, bestelako frogaren batzuk ere aurki daitezkeela. Horregatik diogu gizarte horretako kide gehienek ez zutela ziur asko behar adinako prestakuntzarik edukiko, neurri horretako harrizko egitura bat egiteko (lehengaia lortzeko tekniketan eta honen inguruko ezagutzetan, etab.). Badakigu, Neolito Aroan, zenbait lurraldetako harrobietan edo meategietan (Belgika, Frantzia, etab.) suharria erauzten zutela, eta beste batzuetan, berriz, harri preziaturen bat ustiatzen zutela (Gavá-ko —Katalunia— bariszita-meategia, adibidez). Jarduera horrek, hots lehengai batzuen ustiaketak, garrantzia zuen lehen aipatutako tokietan, baina meagintzaren indartzeari itxaron behar izan zen horrelako lanek garrantzia har zezaten; horren froga argienetakoa Urbiolako *Los hombres verdes* kobrea ateratzeko meategi-zuloa dugu (bertan Brontze-Aroko hilobiratzeak aurkitu ziren). Gerora, Burdin Aroan, lan horiek nahiko arruntak ziren, hirixkak inguratzen zituzten harresiak eta sarritan etxe-oinak egiteko (La Hoyan —Biasteri— adibidez). Intxurreko, Karankako... eta antzeko harresiek frogatzen dute ezen, eraikin horiek gizarte hierarkizatu batean zeuden adituen aholkuei esker lortuko zirela, eta ez bat-batean, hots, plangintzarik gabe. Hala eta guztiz ere, garai haietan oraindik harrien erabilera oso-oso mugatua zen etxebizitza arruntak egiteko (Intxur-Albistur; Buruntza-Andoain).

Trikuharrien inguruan hainbat hausnarketa egin ondoren, eta garai hartako gizartea kontuan izanda (batez ere K.a. IV. milurtearen azken herenekoa eta III.aren lehen erdikoa), uste dugu, hilerri hauek ez direla giza talde batek espontaneoki egindako eraikuntzak. Hau, neurri batean erraz onar daitekeena bada

Bretainia, Portugal... eta halakoetako trikuharri erraldoi eta konplexuen kasuan, onargarria iruditzen zaigu Euskal Herriko mendietako trikuharri xume askoren kasuan ere. Gure ustez lan horiek ezagupen tekniko batzuk eskatzen dituzte aurrera eraman ahal izateko (lehengaia non aurkitu behar den, nola erauzi, lana nola aurreztu, etab.), eta ez dugu uste nahikoa zenik talde bat elkartzea bat-bateko hilerri-proiektu bat egiteko edo eurek ezagutzen zituzten trikuharrien antzera eraikitzeko. Onartzen dugu, eguneroko bizimodua aurrera ateratzeak zailtasun handiak ekarriko zizkietela eta ohituta egongo zirela lan fisiko handiak egitera eta arazoei konponbideak bilatzera; baina gakoa eraikuntza-prozesua ezagutzea da. Horrela, J. M. Vázquez-ek (1991-92) dio, hilerri horien hainbat ezaugarri kontuan izanda (egituren inguruko ezagutza arkitektonikoa, kokapenen hautaketa, lurralde batzuetako —A Coruña— monumentuen arteko antzekotasunak —neurriak, kokapena, arte-lanak...—, etab.), gizarte hartan bazeudela hilobien eraikuntzan adituak edo espezialistak zirenak.

Guk ere adituren baten premia ikusten dugu hilerri horien eraikuntzako lan-taldean, bestela ez bailitzateke ulertuko nola altxatu zituzten oso antzera garai ezberdinetan. Gogoratu behar dugu, trikuharri horiek denbora luzez eraiki zituztela. Trikuharri zaharrenetan (Trikuaizti I, Zorroztarri, etab.) hilerrien morfologia eta eraikuntza-prozesuak jadanik ezarrita daudela dirudi eta, neurri handian, horietan ikusitakoa errepikatu egiten da geroago eraikitako hilobietan (mila urte baino gehiago igaro ostean): Praalata edo Napalatza III. milurtean, Aitxu eta Atxurbi II. milurtean. Nolatan iritsi ote ziren antzeko egiturak egitera, batzuengandik beste batzuengana inolako transmisiorik ez baldin bazegoen? Agian, zurean egiten zituzten lan batzuetan ikasia izango zuten; baina beste aukera batzuetara ere jo daiteke (talde bakoitzak bere lurraldean ezagutzen zituen trikuharrien ezagutzara, etab.). Noski, egitura hauetako batzuk begi bistan zeudenez, ulergarria izan daiteke beste trikuharri berri bat eraikitzerakoan aurrekoak erreferentziatzat hartzea; baina hori ez da horrela eraikuntza-teknika eta egiturak tumulupean ezkutatuta baldin badaude (harkosko handienak behealdean jartzeko joera, harlauzak ezkata-eran jartzekoa, ganbera "kontrafuerte" batez inguratzea eta tumulua zutik ezarritako harri-zirkulu batez inguratzea). Hori dela eta, badirudi, hilerri horien eraikuntzan ziharduten adituak (edo lan-taldeak) egon zitezkeela, eta euren esku egon zitekeela trikuharri berriak altxatzea. Gainera, agian, horien ardura izango zen, ez soilik talde bateko edo lurralde bateko hilotzak bilduko zituen egiturak egitea, baizik eta, halaber, horren inguruko sinesmenak eta erritualak ezagutzea, hedatzea, betetzea, etab. Lurralde zabal bateko arkitektura-tipologian, tumuluen egituraketan eta eraikuntza-prozesuan dagoen homogeneitatea nekez izan daiteke inprobisazioaren ondorio, gure ustez. Nor ote zen El Miradero tumuluan (Valladolid) ehortzitakoa, bere ondoan hamar idolo-leuntzaile zituena? Tresna berezi hori, batzuetan emakume irudikapenak dituena, trikuharrietan aurkitu izan da, eta hildakoei okrea zabaltzeko erabil zitekeela proposatu da inoiz.

2. TRIKUHARRIAK BERRERABILI, EGOKITZATU ETA UZTEA

Sarritan, trikuharriak mendeetan erabili arren, eraiki ziren garaian bezala kontserbatzen direla pentsatzeko joera dugu, alegia, egiturak inoiz aldaketarik ezagutu ez zuela uste izatekoa; noski, altxor-bilatzaileren baten edo harri-bila joandako sasiharginen baten hondeatze-lanak ahaztuz. Baina, aitortu behar da, egoera horretan zerikusi handia dutela, aipaturiko jarduerez gain, naturaren eraginak (bertan mendeetan hazi diren zuhaitzek, adibidez) eta, zer esanik ez, hilobia berrerabiltzerakoan bere egituretan egin zitezkeen aldaketek. Hala eta guztiz ere, hilerri bakoitzaren oinarrian badaude beste faktore batzuk ere, kontuan izan behar ditugunak: hilobiaren eraikuntzako materialak, egituraren ezaugarri fisikoak (trikuharri soila, sarbidedun trikuharria, egituraren tinkotasuna, etab.) eta hilobiratze-maiztasuna (hertsiki lotua biztanle-kopuruarekin eta lurralde horren erabileraren intentsitatearekin).

Hilerriak zenbait ezaugarri fisiko zituenean (sendoa, trinkoa, erabilera errazekoa, etab.), denbora luzez erabil zitekeen inolako aldaketarik egin gabe; baina eraiki zuen giza taldearen beharrak hazten zirenean (une batean hilkortasuna areagotzea —izurriteak, borrokaldiak, etab.—; giza taldea handitzea; etab.) eta sinesmenek edo erritualek berrikuntzak eskatzen zituztenean, hilobia berrantolatu edo partzialki berreraikiko zen, ez baldin bazen, besterik gabe, beste bat berria eraikitzen. Horrela, zaila egiten zaigu sinestea Trikuaizti Ieko (Beasain) ganberako kareharrizko harlauzatxoak hilobia eraiki zenetik K. a. II. milurtera arte ez zirela tokiz aldatu, tinkatu, etab. Larrarte trikuharriak hegoaldeko alderdian duen tupazko harlauzaren kokapena (ganberaren forma erregularra hausten du) ez da oso ondo ulertzen, luzapen berantiarren bat ez baldin bada (edo, bestela, bere parekoa desagertuta dago). Hala eta guztiz ere, premiazko aldaketen adibiderik argienak Praalata eta Urrezuloko Armurako trikuharrikoak ditugu geure inguruan; baina hemendik kanpora badaude oraindik berrikuntza ikusgarriagoak ezagututakoak (adibidez, Dombate-ko (A Coruña) trikuharri soila, sarbidedun trikuharri modura eraldatu zuten). Praalatako ganbera eratzen zuten harlauzen arrastorik ez zen aurkitu, baina bai hauetako batzuk sartuta egon zireneko zuloak. Hilobi horretan, Kalkolito Aroko une batean gutxienez bi gizabanako erraustu zituzten, ukitu gabeko tumulua eta ganberako harlauzen zuloen artean. Une horretan hori egin ahal izateko, ganberako harlauzarik ezin zitekeen zutik hor egon, tokirik gelditzen ez zelako giza hezur erreak harlauza eta tumuluaren arteko tartetxotik —azken honen barrenean, paleozoruan— uzteko (160 cm-ko sakonerara tumuluaren gailurretik). Agian, garai horretan tumuluaren erdialdean zulogune handi bat egongo zen (eta ordurako ganberako harlauzak kenduta), giza ehorzketak egiteko erabiliko zena, zeharka ezarritako enborrez edo zurez egindako egitura batez estalita (eta hau harkoskoz sendotuta); baina horren arrastorik ez zen aurkitu.

Gehienetan, hilotzak ganberaren barnean dagoen bertako lurraren gainean, zuzenean, jartzen zituztela dirudi; baina ez litzateke harritzekoa izango, gaur egun


galduta dagoen zumez, zumitzez edo urritzez egindako hesi antzeko egitura bat zoruan ezartzea. Trikuharri batzuetan harriztatutako zoru bat prestatu zuten (Pozontarri, Obioneta Hegoa, Aznabasterra, Sagastietako Lepoa, Atxurbi, Ausokoi trikuharrietan) eta beste bakar batzuetan, berriz, harlauza handi bat (Portuzargaña Ekialde, Mandubi Zelaia trikuharrietan).

Hasieran, hilotza zuzenean ezarriko zen ganbera-zoruan, gehienetan zehazterik ez dagoen egoneran, baina, beti ere, ganberaren ardatz nagusiaren arabera. Horren ostean, hildakoak bere ondoan ezarriko ziren, aurrekoa(k) baztertuz edo alboratuz. Longarren osorik zeudenak oso tolestuta zeuden, agian gorputz-adarrak lotuak izan zituztelako (Armendariz Martija eta Irigaray Soto, 1993). Batzuetan ez da erraz ulertzen hain toki txikian nola lurpera zitezkeen hainbeste gizabanako. Esate baterako, Larrarteko trikuharri soilean (ganberak 2 m^2 zituen eta altuera ere ez zen handia, 40 bat cm-koa) gutxi gorabehera hamabi gizabanako zeuden; eta Mandubi Zelaiakoan, 2 m^2-koa eta 60 bat cm-ko sakonerakoa izanik, gutxienez berrogeita hamar bat hilobiratu zituzten; baina sarbidedunetan (Los Llanos-en, Longarren, eta abarretan) ehundik gora egon zitezkeen. Uste dugu, hilobiratzeko toki-arazo handirik ez zela egongo (salbuespenak egon zitezkeen izurriteak, borrokak, etab. zirela eta), zeren, nahiz eta garai batean hilkortasun handia egon, hilerri hauen inguruan bizi zen biztanle-kopurua txikia izango baitzen. Longarren badirudi garai batean hildakoak ehortzi ahal izateko egindako egokitze-lanak bereiz daitezkeela. Gainera, hilerri hauetako asko (Aizkorrikoak, Aralarkoak, etab.) urtaro batekoak direla azpimarratu behar da; baina arazo hau beste batean landuko dugu. Gehienetan, hildako baten eta ondorengoaren artean denboraldi bat igaroko zen, eta epe horretan gorputzeko atal bigunenak (eta ez hain bigunak) desagertu egingo ziren eta hezurdurako ataletako asko loka egongo ziren, horrela hilotza baztertzea eta bere ondoan ondorengoak ehorztea erraztuz. Horregatik, ez da ganberen barruan ia inoiz aurkitu hezurduraren atal garrantzitsurik lotura anatomikoan. Hori dela eta, trikuharri askotan (Larrarte, Campas de la Choza, Igaratza, Jentillarri...) hezur luzeak eta garezurrak ganberako harlauzen babesean edo barrenean baztertuta agertzen ziren. Longarren (Biana) garezurrak ganberako hormaren ondoan lerrokatuta uzteko joera ikusten da, eta beste batzuetan garezur-metaketak egitekoa (Armendariz Martija eta Irigaray Soto, 1993, 1994). J. Apraizek zioenez, Gurpide Hegoaldean hogeita hamar bat garezur zeuden ganberako harlauzen ondoan, eta gorputzak erdi alderantz luzatuta (Apellániz, 1973: 176).

Hilobi horietan ez zegoen hilotzak lurrez estaltzeko ohiturarik; logikoa dena, hori eginez gero ganbera berehala beteko bailitzateke. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan, badirudi hilobiratzen jarraitu ahal izateko egokitze-lanak egiten zirela, batez ere, ordura arteko hilobiratuak lurrez eta harritxoz edo harlauza batez estaliz. Lehenengo era Villevieille trikuharrian (Demandolx, Alpes-de-Haute-Provence) deskribatzen du G. Sauzade-k (Guilaine, 1999: 136), eta antzekoa deskribatu zuen R. Becerro de Bengoak (1879) Eskalmendin (Arrazua, Araba), ustez sarbidedun

hilobia edo igargu estalia izan zitekeena. Bere ganberan lau gorputz zeuden arbel-geruzatxo baten gainean Ekialderantz luzatuta, eta geruzatxo horren azpian beste horrenbeste (Apellániz, 1973: 204). Mandubi Zelaian (Ezkio-Itxaso, Gipuzkoa), berriz, ganberaren zoruan tupazko harlauza handi bat zegoen, eta horren gainean garai ezberdineko bi hilotz-geruza, oso hondatutako beste harlauza batez bananduta. Hilobiak kondenatzeko jarduera hori arrunta izan ez arren, ez da zeharo arraroa ere, eta batzuetan berrantolaketa bat baino gehiago ikusi nahi izan da: agian, ordura arte ehortzitakoetatik bereizi nahia. Kasuren batean horrela izan arren, beste batzuetan hilerria betiko kondenatzea erabaki denean egiten da. Honela, Longar hilobiaren estalkiaren gainean agertzen zen harkosko-geruza antzua, nahita botatakoa bezala interpretatu da, hilerriaren betiko itxiera gisa (Armendariz Martija eta Irigaray Soto, 1993).

Trikuharri batzuetan aurkitzen diren hilotzak, epe oso luze batean lurperatutakoak balira bezala interpretatu izan dira (Trikuaizti I, Larrarte, Zorroztarri, etab.), batez ere, agertzen diren material arkeologiko adierazgarriak (geometrikoak, ale hostokarak, txorten eta hegaldun gezi-puntak, zeramika kanpanantzekoa, metala) garai oso ezberdinekoak direnean. Horrela izan zitekeen, baina beste hilerri batzuetan, atua homogeneoa denean, badirudi denboraldi labur batean erabili zirela (Trikuaizti II, Pozontarri, etab.); eta hori frogaturik dagoela dirudi, gizabanako gutxi baldin badaude hilobiratuta. Beste hilobi batzuek berriz erabilera-etenaldi bat izan zuten, eta ehundaka urtetan ez ziren erabili izan; adibidez, San Martin deritzon sarbidedun trikuharria (Biasteri). Konturatzen gara hilerri bakoitza une batean eraiki zela (ez dira denak garai berekoak), eta erabileraren ikuspegitik bakoitzak bere ezaugarriak dituela, erabilera-erritmo ezberdina dutela, etab. Honen antzeko adibidea izan daiteke elizekin gertatutakoa: denak ez dira garai berekoak, mendeetan eraikiak izan dira, batzuk une batzuetan bertan behera utzi ziren eta ondoko beste batzuk berriz berriztatu, eta, agian, urrutira joan gabe, beste bat berria eraiki zen. Trikuharri bakoitzaren historia edo garapena ondoko trikuharriarenetik ezberdina izango da ziurrenik, baina denak osagarriak direnez (beste aztarna batzuekin, noski), kontuan izan beharko dira guztiak ehorzketa-errituala bere osotasunean ulertu ahal izateko. Azken indusketek frogatzen digute lurralde mugatu bateko trikuharri denak ez direla garai berekoak, beren artean badagoela nola-halako desfase kronologiko bat, bakoitzak bere bilakaera duela, eta, horri esker, gertura gintezkeela ezagutzera horko gizartea eta ekonomia (lurraldearen antolaketa eta aprobetxamendua). Zoritxarrez, senak hori esan arren, trikuharrien kontserbazio-egoerak (hildakorik ezak, etab.) eta garai horretan hilerri horietan lurperatutako biztanleen bizilekuak ez ezagutzeak, asko zailtzen du gai honetan sakontzea.



2. irudia. Trikuaizti I trikuharriaren ehorzketa-espazioan (ganbera) edo bere ondoan aurkitutako gezi-punta, geometrikoak eta lurrontzi kanpanantzekoa. Mikrozulakaitza (4. zenbakia), berriz, tumuluaren kanpo aldean aurkitu zen (Mujika eta Armendáriz, 1991).

3. MONUMENTU MEGALITIKOAK: ATUAK, TESTUINGURUAK ETA ERRITUALAK

Europako historiaurreko aztarnategi ikusgarrienek (haitzulo handienak, eta, batez ere, trikuharri erraldoienak) eta arrazoiz ospetsuenek, betidanik izan dute toki kuttuna ahozko tradizioan, eta lurralde zabaleko sinesmenen atal garrantzitsua izan dira (Bretainian, Portugalen, Galizian, Euskal Herrian...). Herriak hauen inguruko sinesmenak eta mitoak sinetsi eta, neurri batean, bizitzen zituenez, hilobi-monumentu horienganako errespetu handia zeukan. T. Aranzadik eta F. de Ansoleagak (1918: 27) zioten artzainek trikuharri aurrean gelditu eta txapela kentzen zutela, kasuren batean (Obioneta trikuharrian) Aita Gurea errezatzeko. Badirudi ez zutela saio handirik egiten jentilen, mairuen, tartaloen... hilobiak ziren ala ez baieztatzen. Hori bai, inoiz ezustean edo urre-apurren bat aurkitu baldin bazuten, urrez beteriko idi-larru bihurtu ziren herritarren irudimenean, eta "ausartenak" inguruan zeudenak ere hondeatzen eta husten saiatu ziren, ordura arte nahiko ondo kontserbatuta egon zitezkeen hilerrietan hainbat kalte sorraraziz. Baina bidegabekeria hori ez zen txikiagoa izan XIX. eta XX. mendeetan, hilobi erraldoi horietan hainbat ahaldunek eta sasijakintsuk kuxkuxeatzeko zuten "jakinmina" asetzeko egindako lanek informazio garrantzitsuaren galera ekarri baitzuten. Zoritxarrez, aztarna materialez gain, hilobi horietan egon zitekeen bestelako informazioa ere, batez ere orain landu nahi dugunaren ingurukoa, galdutzat jo daiteke. Zorionez, garai berean ikertzaile batzuk saiatu ziren, metodologia arkeologikoaren hastapenetan, aztarnez eta hauen testuinguruaz ganorazko informazioa eskaintzen. Euskal Herriko trikuharrietan axolagabeko jarduera horien eragina (haitzuloren batean badago antzeko jardueraren baten berri) nahiko neurrikoagoa izango zen halere, hemengoen neurriak askoz txikiagoak direlako eta alde horretatik ez direlako beste lurralde batzuetakoak (Bretainia, Ingalaterra, etab.) bezain erakargarriak. Baina hemen ere ez zen falta izan hanka biko astakirtenik, eta horrela Betelun zegoen bainu-hartzaile batek Aralarko trikuharri bat (Debata, Arruazu) dinamitaz leherrarazi zuen (Aranzadi eta Ansoleaga, 1918: 15; Mújica, 1962: 37).

Azken hondamendi hauei gehitu beharko litzaizkieke urtero (bi urterik behin, ondoen ezagutzen diren lurraldean —Gipuzkoan—) baso-lanak direla (pinua atera, lur sailak makinaz hondeatu, birlandatu), bide berriak irekitzea dela, etab. hondatzen direnak. Bizkaian berriz, bere azalera eta ezagutzen diren trikuharrien kopurua kontuan izanda, aitortu behar da azken kalte hori txikia dela; ziur aski, miaketak eta ikerkuntza (Enkarterrietan eta Bermeo inguruan) lurralde mugatu batean egin direlako eta, batez ere, lur-eremu handiak pinudipean daudelako. Azken honek oso zaila edo ezinezkoa egiten du miaketa egoki bat. Lurralde honetako ondarea arrisku handian dago baso-lanen ondorioz (inolako kontrol-arkeologikorik ez baitago, baldin aurrez horrelako hilobirik inbentariatuta ez badago), eta, ziur asko, azken urteotan horrelako hilerri asko desagertuko ziren, nahiz eta horien berririk ez eduki.

Euskal Herrian aurkitutako lehenengo zen trikuharria, 1831. urte aldera, Agurain inguruko Aizkomendikoa dugu. Idorokuntza horren ondoren, beste berrogei bat urtetan ez zen berririk ezagutu; orduan agertu ziren beste batzuk Araban (Kuartangokoak 1870ean, Sorginetxe —Arrizala— 1879an, Eskalmendi eta Kapelamendi 1896an), Gipuzkoan (Jentillarri 1879an) eta Nafarroan (Aralarren hamahiru 1894an).

Sarritan, besterik gabe, trikuharrietan jasotako gauzakiak (harrizko industria, zeramika, etab.) erritual edo sinesmenen baten ondorioz utzitako eskaintza legez interpretatu dira. Hilotzak, berriz, denbora igaro ahala hiltzen joan ziren artzain eta nekazarienak ziren, horrela gorputz-metaketa garrantzitsua sortuz (talde-ehorzketa izenez ezagutzen dena). Neolito Aro aurreratuan eta Kalkolito Aroan, talde bateko biztanleak hil ahala, toki oso mugatu batean lurperatzen zituzten (trikuharrietan eta ehorzketa-haitzuloetan), ordura arteko banakako ehorzketak utziz (Aizpea, Marizulo, etab.). Beste kasu batzuetan, berriz, horrelako hilerriak (batez ere bortizkeria-edo sarraski-zantzuak baldin badaude...) bat-bateko ehorzketa modura interpretatu ahal izan dira. Aizkomendikoak, hasiera batean, kantauriarren edo iberiarren eta zelten arteko borrokaldiren batean hildakoak zirela uste izan zen.

Material arkeologikoek ia inoiz ez dute gordetzen jatorrian zuten testuingurua; hori ezusteko gertaera bat izango litzateke, eta horrela aurkituz gero, hilobi hori estali ostean gehiago berrerabilia izan ez zela frogatuko luke horrek. Ondorengo berrerabileretan, aurrez ehortzitakoen gorpuak alboratuz joaten ziren, objektuek jatorrian zuten egonera aldaraziz, eta, horren ondorioz, testuingurua galaraziz, ezin baitugu jakin zantzu bakoitzak (tresna, ikatz, etab.) zer-nolako harremana zuen hilotzekin. Argi izan behar dugu aztarnategi hauek denbora luzez berrerabili zirela, eta une bakoitzean hartzen ziren erabakiei (hezurrak alboratzea, ganbera eratzen duten harlauzetako bat tinkatzea, ganberaren forma eraldatzea, etab.) gehitu behar zaizkiela hainbat prozesu natural (zuhaitzak haztea, etab.) eta informazio antropiko (tumuluko harriak aprobetxatzea, etab.) ugari galarazi dituzten faktore modura[1]. Berezko prozesu fisiko-kimikoek ere badute beren eragina; nahikoa litzateke giza hezurrak disolbatzea, gaur egun kontserbatzen diren egiazko atu izaerako gauzakien testuingurua desagertzeko eta horien interpretazioa ezinezko bihurtzeko. Gipuzkoako eta Bizkaiko hareharrizko eremuetan ehortzitakoen giza hezurren

1. Arazo honen inguruko hausnarketak ez dira berriak. Horrela zioten Aizkorriko trikuharrien indusketa-txostenean T. Aranzadi, J. M. Barandiaran eta E. Egurenek (1919): «La creencia de que hay ocultos grandes tesoros en las cuevas y en las casas de los jentiles, ha hecho que la codicia de los hombres los buscase con afán, aún en nuestros mismos días, dejándolas en el estado ruinoso en que las hemos hallado. De tantos dólmenes como han sido descubiertos en el País Vasco, apenas hay media docena que no hayan sido destapados y registrados; después de lo cual han quedado rotos y esparcidos muchos de los huesos y objetos que había dentro. De aquí resulta que, no ocupando cada cosa su primitivo lugar, ó no estando enteros los objetos, ni en el mismo estado en que fueron depositados, no pueden completarse algunos estudios que, de poder hacerse debidamente, derramarían mucha luz sobre varios problemas que todavía se hallan en estado hipotético».

kontserbazioa eta metal arruntena (kobrea eta brontzea) oso txarra izan ohi da. Horrela, azken urteetan Idiazabal inguruan induskatutako zazpi trikuharrietatik bat berak ere ez zuen eskaini aipaturiko materialik; eta megalitotegi bereko beste hilerri batzuetan J. M. Barandiaranek egindako lanetan ere ez zen antzekorik jaso. Salbuespena, Praalata trikuharrian erraustutako bi gizabanakoren hezur-printzatxoak izango lirateke. Araban, berriz, ondo kontserbatu izan ohi dira (agian euri gutxiago egiten duelako) eta nahikoa dugu gogoratzea Biasteri inguruko hilobietan (San Martín-en, La Chabola-n, San Juan Ante Portam Latinam-en, eta abarretan) jasotakoa.

Azken urteotako lanek —indusketa-metodologia zainduagoak eta hilobi horietako batzuen aparteko kontserbazio-egoerak kontuan hartuta— informazio interesgarria eskaini dute. Horri esker, ordura arteko hainbat objekturen "atu--izaera" zalantzan jar daiteke eta, beste batzuena, berriz, beste era batera interpreta dezakegu. San Juan Ante Portam Latinam "harpean" (Biasteri) eta Longar harlauza zulatudun trikuharrian (Biana) hainbat giza hezurretan (lehenengoan zortzi adibidetan eta bigarrengoan lautan) sartuta agertzen ziren gezi-puntek frogatzen zuten ezen horrelako gauzakien presentzia (tipo ezberdinetako armadurak: geometrikoak, *tranchet*-ak eta metalezko gezi-puntak) ez zela eskaintza bat, ez zuela atu- edo ostilamendu-izaera, baizik eta gizakia hiltzeko erabilitako tresnak zirela. Ondoriozta ote daiteke gezi-punta guzti-guztiak talde ezberdinen arteko borroka edo liskarrengatik agertzen direla? Ez, noski, baina ez litzateke harritzekoa izango gehientxoenak horregatik egotea; beste batzuk, berriz, egon zitezkeen hildakoen jantzien artean larruzko zorrotxoren batean eta besterik gabe horrela iritsi hilobira[2]. Arestiko kasuan ez dago zalantzarik ez direla ostilamendua; baina bigarrenean ere ez dago argi atua direnik, ez baldin badu horretan laguntzen testuinguruak (gezi-punta metaketa bat aurkitzea edo hauek egonera bereziren batean egotea, adibidez).

Beste gauzaki batzuk ere, gure ikuspuntutik, nahi gabe egon daitezke: kasurako, hezurrezko botoiak eta eztenak (arropetako edo buruko orratzak izan daitezkeenak), hezurrezko zizelak, etab. Adibidez, Mandubi Zelaiako hezurrezko bi eztenak ez ote ziren izango, besterik gabe, hilotzek zeramatzaten apaingailuak, eta ziria, berriz, ganberako kareharri tupatsuzko harlauzak egokitzeko bertan erabilitako tresnetako bat, lan horiek amaitu ondoren hantxe bertan ahaztua-edo utzia?

2. Argi gelditzen da, indusketa batean aurkitzen ditugun gauzakiek eta horietatik ateratzen diren emaitzek ez dutela zerikusi handirik kontserbazio-baldintza oso bereziak gertatu diren kasuekin; ez horrenbeste, elementu batzuen kopuruagatik edo aberastasunagatik, lehengai galkorrezko gauzakiengatik baizik. Adibidez, Lorca (Murtzia) inguruko haitzulo batean bi helduren eta hiru haurren gorputzak zeuden (Ayala Juan, 1990) eta honako hilobi-atu hau zegoen: soineko bat eta hiru larruzati handi, orratzak (eskuarki ardi- edo ahuntz-metapodian egindako ezten gisa sailkatzen direnak), kobrezko hiru ezten zurezko kirten baten ondoan, haritz-zurezko plater bat (honen barruan zeuden janen zuntzak kontserbatzen dira), lore-sorta bat, idolo bat, espartzuzko zerria, bi edo hiru mila konder, etab.

Antzeko zerbait pentsa daiteke apaingailu txiki eta arrunt batzuez, adibidez, lepokoetako konderez. Hauek gure lurraldeko trikuharrietan hain urriak direnez (Longarren —Biana— ehun hildako baino gehiago egon arren, ez zen bat bakarra ere aurkitu), lepoko bat osatzeko ez dira aski izaten (agian, lehengai galkorrez ere osatuko zituzten), eta, horregatik, kuttunak edo zinginarriak izan zitezkeela zioten T. Aranzadik, J. M. Barandiaranek eta E. Egurenek lehenengo trikuharrien indusketa-txostenetan (Barandiaran, 1975: 157-158). Eskura ez zituzten lehengaiez egindakoak salbuespen bat izan daitezke, adibidez gauzaki "exotikoak" (harri bereziak: bariszita, jadeita, malakita, etab.; maskor batzuk —*Cardium*, *Trivia*...—, anbarea, etab.) edo metalikoak (urrezkoak, kobrezkoak, brontzezkoak); baina oso zaila iruditzen zaigu gure ikuspuntutik ezagutzea haientzat zein zen garrantzitsua, zergatik (norberaren arrazoiengatik ala taldearen ohituragatik) eta zer neurritan, hain zuzen ere, talde guztiek (ez gertukoek eta ezta trikuharri berean lurperatzen zituztenek ere) ez zituztelako iritzi berdinak eta, gainera, denboran zehar iritziak alda zitezkeelako. Hasieran, metala hain urria izango zenez, soilik pertsonaia ospedunei lagako zieten; baina lehengai horretaz landutako gauzakiak orokortu zirenean, arruntagoa izango zen hilotzari aurretik zeramatzan objektuak uztea edo atu gisa jartzea. Azken honen adibideak Gobaederrako hamaika eztenak eta bost sastagaiak izan daitezke, Urtao IIko bi sastagaiak eta, agian, Urtiagako kobre-lingotea.


Ikusten dugunez, ez da bat ere erraza definitzen atua zer den, zergatik eta noiz den. Ez dugu arazo hau konponduko duen giltzarria, baina badirudi lehengai galgaitzezko atuak edo eskaintzak uzteko ohitura ez zegoela sarritan pentsatu izan den bezain zabalduta eta sistematizatuta, argi baitago gure hilobietan gizabanako guztiei ez zitzaiela jartzen horrelakorik, eta, lagatzen baldin bazen ere, denei ez zitzaiela atu bera uzten. Hilobiek eta erritualek uste baino polimorfismo handiagoa zegoela frogatzen dute, horretan zerikusia dutelarik kontrola ezin daitezkeen faktoreek (kronologiak, gizarteak, gizataldeak, etab.). Ikertzaile batzuen iritziz, trikuharriak talde-hilobiak direnez, gizarte berdintzaile edo parekatzaile baten aurrean egongo ginateke. Horrela, Leisner-ek zioen Anta Grande de Olival da Pega-ko (Portugal) ehun eta hogeita hamalau idolo-plakak beste horrenbeste gizabanakori zegozkiela, eta Poço da Gateira-ko ukitu gabeko erdialdean zeuden hamar lurrontzi lerrokatuak eta hogeitik gorako tresna leundu, berdinki banatuta egongo zirela hilotzen artean (bakoitzari ontzi bat eta aitzurra eta aizkora egokituz); etab. Beste batzuek, berriz, zalantzak dituzte, ez dirudielako trikuharrien inguruan bizi izan ziren denak lurperatuta zeudenik bertan, emakumeen proportzioa gizonena baino txikiagoa delako, jaioberrien eta umeen proportzioa txikiagoa delako, hilkortasun handia kontuan izanda (garai berriagoetan ikusi den bezala, agian, etxe barruan lurperatuko ziren), eta gizabanako batzuen inguruan atu-kontzentrazioak nabariak direlako. Valladolideko El Miradero tumuluan gorputz batek hezurrezko hamar idolo-leuntzaile zituen, baina gainerakoek bi besterik ez zituzten (Delibes, 1995). Argi dago azken egiaztapen hauek oso interesgarriak direla, baina uste dugu horietan oinarrituz gure trikuharrietako gizarteari buruz egin daitezkeen hipotesiek

oraingoz ez luketela behar adinako funtsik izango, une honetan muga handiak daudelako (azken urteetako indusketa garrantzitsuenen azterketa antropologikoak argitaratzeke daude —Longar, Aizibita, Mandubi Zelaia, Los Llanos, etab.—, sexuaren identifikazioa oso gutxitan lortzen da, etab.).

Gure ustez, gauzaki bat eskaintza bezala definitzeko, nola-hala hori hilobian (berari dagokion "eginkizuna" bete zezan) lagatzeko nahia (edo gutxienez nahigabe heltzeko zailtasun batzuk edukitzea —lurrontziak, adibidez—) islatu beharko litzateke. Beste kasu batzuetan, berriz, gauzaki horien ezaugarri bitxiez gain (urruneko lehengaiaz egindakoak izatea, morfologia ez arruntekoak izatea, etab.), testuinguru zehatz batean jaso izanak froga dezake ezen gizarte horrentzat objektu batek leku eta une batzuetan bazuela esanahi bereziren bat. Adibidez, aizkora berak esanahi ezberdinak izan ditzake etxe inguruan topatu baldin bada, tumuluan, ganberan edo tumulupean egotearen arabera. Eta beste batzuetan, berriz, ez dago jakiterik kasualitate hutsa den han egotea, edo esanahi bereziren bat duten; adibidez, Igaratza Hegoaldea trikuharrian, garezur-zatiak eta lurrontzienak batez ere mendebaldeko harlauzaren ondoan zeuden; baina ez dago zehazterik horren arrazoia.

Atu-izaera duten gauzakiak berariaz eginda ote daude hilobiratzeko, ala hildakoak bizian erabiltzen zituen edo zeramatzan gauzakiak ote ziren? Hipotesi baten edo bestearen alde agertzea ez da erraza, nahiz eta azken aukerak dirudien logikoena. Ziur aski, beste gai batzuekin gertatzen den antzera, ez zen jokaera bat bakarra egongo, eta denetik gerta zitekeen. Hildakoak soinean zeramatzan apaingailuak gustukoak zituenez, logikoa litzateke horiek berari uztea; baina lurrontziak direnean (adibidez, luxuzko kanpanantzekoak) batez ere, une horretarako (eta beste ospakizunen batzuetarako) egiten ote zituzten? Fuente Pecina eta Los Morcales trikuharrietan (Burgos) badirudi berariaz egindako atua zegoela. Lehenengoan, nukleo edo hun batetik erauzitako ijekiak, erabilera-arrastorik gabekoak, atu gisa (huna bera ere bai) laga ziren; eta Los Morcales-en, berriz, hun bereko beste ijeki--multzo bat zegoen antzera utzita (Delibes, 1995).

Gure indusketetan ez dugu aurkitu horrelako froga argirik, nahiz eta bai pentsatu, itxuraz, hun beretik ateratako materialak badaudela batzuetan (Otsaarte, Zorroztarri, Trikuaizti I). Azken hilerri honetan bata bestearen gainean itsasten diren bi geometriko ditugu, hauek ere noski hun beretik erauzitakoak. Baina hauek hiletetarako apropos landu ote ziren, ala besterik gabe hilotzen batek ote zeramatzan?



3. irudia. Trikuaizti I-trikuharriaren tumuluaren azalean aurkitutako tresneria (Mujika eta Armendáriz, 1991).

Tresnak-eta ditugunean horien atu-izaera argi ez badugu, zer esanik ez dago objektu arruntak (printzak, etab.) direnean. Horrelakoekin gaindiezinezko zailtasunak ditugu, nahiz eta frogatuta egon horrelako elementuak hildakoen ondoan agertu ohi direla, antza denez apropos lagata, garai eta lurralde ezberdinetako ehorzketetan; baina adibide hauetakoa ezin daiteke orokortu kasu guztietara. Gogoratu behar dugu gauzakiek esanahi anizkoitza izan dezaketela, eta testuingurua dela interpretazio batera edo bestera bultzatuko gaituena. Trikuharri batean testuinguru ezberdinak bereiz daitezke, eta horien arabera interpretatu beharko lirateke objektuak (hain arruntak diren nahasketak ez badaude).

Hilobia eraikitakoan kontuan izan beharreko testuinguruetako bat honek estaliko duen lur-azala dugu, hots, *tumuluaren azpiko oroia* edo orubea (paleozorua). Hemen jasotako ikatz-zatiak edo kimoak erradiokarbonoz datatuz gero, monumentuaren eraikuntza-unera hurbiltzeko balio dezakete; horrela lortutako datak adierazten du hilobia urte hori baino berriagoa dela (ezin da zehaztu zenbat), edo gehienez garai berekoa. Uste izatekoa da, hilobia eraikitzen hasi aurretik toki horietan zegoen landaretza garbitzeko erre egingo zutela, eta, horren ondorioz sortuko zirela ikatzok. Horrela lortu dira Trikuaizti I, Larrarte, Atxurbi, Aitxu, Igartza W, eta beste hilobi batzuetako datazioak. Ez da sarritan batere erraza, data hilobia baino zaharragoa ala garai berekoa den erabakitzea, bi uneak nahiko hurbilekoak izan daitezkeelako. Bestalde, batzuetan, zantzu arkeologikoek ez dute gehiegi

laguntzen, ez baitira tipologikoki eta kronologikoki adierazgarriak. Gerta daiteke batzuetan paleozoruetan lortutako datazioak arinkeriaz erabili izana (hori argiki baieztatu gabe aztarna materialen bidez); baina emaitza posiblea denez, zail egiten da data baztertzea, azken batean horretarako arrazoi garbirik ez dagoelako. Bestalde, konturatu behar dugu trikuharriak kokatzen diren eremuak denbora luzez erabili direla (batzuetan trikuharriak eraiki aurretik, eta hortik aurrera ere bai, era jarraian), eta, horregatik, ikatzen emaitzak kontu handiz erabili beharko liratekeela.

Beste batzuetan, berriz, nahiz eta gaur egun ikatzak tumuluaren azpian jaso, datazioek argi uzten dute ezen egitura hori uste baino gehiago edo hedadura zabalagoan eta sarriago altxatua izan zela; agian, berrerabilera berantiarren baterako egokitu behar izan zutelako, edo ezezaguna zaigun beste arrazoiren batengatik. Badirudi Zorroztarrin (Idiazabal-Segura), Napalatzan eta Unanibin (Idiazabal) horrelako zerbait gertatzen dela.


Tumuluaren eta paleozoruko buztinen arteko mugan zantzu arkeologiko esanguratsuak jaso dira, eta baita paleoingurua ezagutu ahal izateko aztarna palinologikoak eta beste hainbat lagin ere, beste zenbait ikerketatarako (Martínez Cortiza eta Llana, 1997).

Trikuaizti I trikuharriaren tumulupean zegoen aizkora leundua apropos utzitako eskaintza bat ote zen, ala bertan ote zegoen eraiki aurretik? Aitxuko zistaren tumulupean zegoen "gordailua" eskaintza bat izan zitekeen, suharrizko sastagai ikusgarri batek, gezi-punta batek eta lurrontzitxo batek osatzen zutena. Beste kasuren batean (La Velilla —Palentzia—) trikuharria aurreragoko auzogune baten gainean eraikita dago (Delibes de Castro *et alii*, 1996, 1997). Antzera interpreta daitezke Ithe I eta II trikuharrien azpian aurkitutako garrodun edo bizkardun puntak, eta gainerako industria (kronologikoki zaharragoa, Epipaleolito Arokoa), nahiz eta hurbil dagoen Ithelatseta harpetik hilerria eraikitzean eramango zutela dioen D. Ebrard-ek.

Dombate-n (A Coruña) egindako indusketan ikusi ahal izan zen, trikuharri soil bat zegoen toki berean sarbidedun bat gainezarri zela, lehenengo trikuharriaren ganbera-zati bat (2,5×1,5 m-koa) kontserbatzen baitzen bigarren hilobiaren tumulupean (Bello Dieguez, 1997). Gainera, azken horren ganberan, baina bigarren fase horri dakogion erabilerako materialak aurkitutako tokia baino maila baxuago batean, gordailu errítual bat (arestiko hilobitik eramana eta bigarrena erabiltzen hasi aurretik lagatakoa) izan zitekeena bereizi ahal izan zen. Trapezio batzuek, ijeki batek eta harribitxizko konder batzuek osatzen zuten; lehenengo ganberan, ordea, soilik onfazitazko konder bat gelditzen zen.

Beste testuinguru bat *ehorzketa-unea* edo *espazioa* dugu: ondo mugatutako barruti zehatza gizakiei lur emateko prestatua (*ganbera*), eta batzuetan baita gertakizun honen inguruko hiletak ospatzeko unea ere (bereziki sarbideetan eta atarietan). Hemen jasotako zantzu arkeologikoak —batzuk atuak izan daitezkeenak eta

beste batzuk, berriz, ez— zuzenki hilotzekin eta horien inguruko hiletekin erlazioan dauden elementuak izango lirateke. Eskuarki, ganberan kausitzen den harrizko industria ondo definituta dago tipologikoki (gezi-puntak, geometrikoak, ijekiak, apaingailuak); eta aurkitzen diren harrizko materialen proportzioek ez dute zerikusirik bizileku batean gertatuko litzatekeenarekin, ez eta tumuluan agertuko direnekin ere; eta nabarmentzen den ezberdintasunetako bat da, hemen ia lanketa-hondakinik ez dela idoro.



4. irudia. Trikuaizti I trikuharriaren tumulu azpiko oroian aurkitutako aizkora leundua (Mujika eta Armendáriz, 1991) eta Aitxukoaren azpian jasotako sastagaia.

Beste testuinguru bat *tumulua* izango genuke, hots, hilobi-unea babestu edo inguratu eta estaliko duen egitura. Bera eratzen duten harkoskoek edo harlauzek eta lurrak, eraikuntza-prozesuaren berri ematen digute. Gure indusketetan tumuluaren barnean (ez azalean edo azaletik gertu), nolabait esanda bere muinean, ez dugu aztarna arkeologikorik jaso izan, baina salbuespenak daude: ehoharri zati bat Trikuaizti II trikuharrian; Larrarte tumuluaren hegoaldeko erdialdean gezi-punta batek eta lepokoen konderek eratzen zuten biltegi bat zegoen (ehorzketa sekundarioren bat?); Brontze-Aroan Ithé IIko ganberatik ateratako hezurrak burualdeko harlauzaren atzealdean utzi zituzten, eta beste batean, tumuluan bertan, kobrezko gezi-punta bat eta hatzazalez apaindutako lurrontzi bat (Ebrard, 1993: 163); etab. Beste batzuetan, material arkeologiko gehiago jaso dira (adibidez, lurrontziak, ehoharri-zatiak, etab.), eta, pentsatu da inguruan lehenago egon zen auzoguneren bateko materialak garraiatuko zirela nahigabe tumulura. Inoiz ehorzketa sekundarioak ere egin dira tumuluetan, baina salbuespena izan ez arren, hori ez da arrunta; edo, gutxienez, egin badira ere, ez dira kontserbatzen.


Beste testuinguru bat hilerria eraiki ondoren eratzen den egitura erdiesferiko horren azala dugu, hots, *tumuluaren azala*. Bertan, berau egin zen unetik gaur arte eremu horretan igarotako gertakizunei buruzko informazioa kontserba daiteke, eskuarki oso hondatua jalkitze-osteko prozesuen (higadura, lur-lantzea, etab.) ondorioz. Bere gainean hileta-erritualak egingo zituzten, eta, agian, baita beste ospakizunen batzuk ere.

Lur-geruza horretan, sarritan, ganberatik ateratakoak diren materialak agertzen dira (adibidez Otsaarte), baina baita mendeetan toki horietan bizitako biztanleen tresna- eta lurrontzi-zatiak ere. Azken urteetan egindako indusketek (Trikuaizti I, Larrarte, Mandubi Zelaia eta Zorroztarri) nahiko argi utzi dute ia soilik harrizko industria azaltzen dela, baina honen ezugarriek ez dute zerikusirik ganberakoekin. Harrizko objektuak ganberan baino ugariagoak dira; hauen artean gehienbat lanketa-hondakinak eta etxeko tresnak aipatu beharko lirateke (marruskak, mozturak, zulagailuak, etab.; gezi-puntak edo geometrikoak salbuespenak dira). Horien presentzia bertan egin ziren jardueren ondorioz uler daiteke. Baina zein jarduera? Hiletak eta oroitzapenezko ospakizunak; bilkurak; tumuluaren gainean haz zitekeen landaretzaren mozketa, hilerria zaintzeko; hilobiaren nola-halako mugaketa; etab. Argi duguna da, kasu batzuetan bertan landu zutela tresna bakarren bat, eta horiek bertan gelditu zirela zerbaitetarako erabili ostean. Adibidez, Trikuaizti Iean ijeki bat erditik hautsi ostean, zatietako baten muturrean moztura bat egin zuten, ondoren biak tumulu gainean utziz.

Azken testuingurua, *hilobiaren inguru hurbilena* dugu, normalki indusken ez dena, eta miaketa-zuloak egin direnean emaitza urriak eman dituen eremua. Baina hor kultura materialik agertu ez arren (eta biltzen direnek beren testuingurua galdua izaten dute), espazio erlijioso bat izan zitekeela uste dugu, eta hiletetan, tumulura iritsi aurretik eta ondoren, erritualen atalen batzuk beteko zirela bertan.

Batzuetan, trikuharrien garai berean erabilitako ehorzketa-haitzuloetan argiagoak izan ohi dira eskaintza edo ostilamenduen adibideak. Lumentxa haitzuloan (Lekeitio), dirudienez K.a. IV. milurtearen bigarren erdian (indusketaren emaitzak argitaratu gabe daude), apur bat nahastuta zegoen gizabanako baten ehorzketa aurkitu zen, eta, harekin loturan, zeramikazko hiru gopor (Ibañez *et alii*, 1999: 449). Badirudi III. milurtearen erdialdetik aurrera errotzen joan zela trikuharrietan lurrontzi osoak (edo nahiko osoak) uzteko ohitura; baina ez dago baztertzerik ordura arte eta/edo garai horietatik aurrera zurezkoak ere lagatzea. Horren froga izan litezke Pagobakoitza eta Trikuaizti Ieko nazioarteko kanpanantzekoak, El Sotillo-ko kanpanantzeko intzisoa edo beste hilobi batzuetako apaindugabeko lurrontziak (Ausokoi, Mandubi Zelaia, Longar, etab.). Bardeetako Tres Montes hilerri berezian gizaki baten hezurdura zegoen egonera kuxkurtuan (tolestuan), eskuineko aldearen gainean eta ipar-mendebalderantz begira, eta buruaren ondoan bi ontzi kanpanantzeko itsastar osoak zeuden lagata, bat ipurdiz gora (Andrés, García eta Sesma, 1997).

Beste haitzuloren batean ere antzeko jardueren frogak daude, nahiz eta salbuespena izan atuaren ezaugarriak. Nafarroako Abauntz haitzuloari buruzko behin-behineko txostenean (Utrilla eta Mazo, 1993-94: 13) diote, hezurrezko hamabost leuntzaile jaso zirela hobi sakonetan egindako ehorzketetan, gizakietako batek aldaka eta esku parean bi zituelarik. Horiez gain, suharrizko gezi-punta hostokara bat, konder bat eta lurrontzi-zati espatulatuak jaso ziren, baina ez dago ziurtatzerik denak bere atua zirenik, beste hildako batzuen hezurrak ere bazeudelako. Indusketaren eta txostenaren egileek azpimarratzen dute, batzuetan, lauki berean, eztenak eta basurde-betortzak agertzen direla. Hauen data 4370±70 BP (CSIC 785) izango litzateke.



5. irudia. Abauntz haitzuloan Kalkolito Aroan hondeatutako hobietan, dirudienez, hildako bakoitzak leuntzaile bat edo bi zeramatzan (Utrilla eta Mazo, 1993-94).

Beste erritual edo jarduera magiko bat izan daitekeena ere aipatzen da: hilobietan metalezko arma, apaingailu, etab. okertuta, hautsita edo baliogabetuta uztekoa, alegia. Logikoa den bezala, jarduera magiko hori kasu batzuetan bakarrik egingo zuten, horren premia zegoenean; horregatik, inoiz ez da proportzio handitan agertzen. Akitanian Erdi Brontze-Arotik aurrera eta batez ere Burdin Aroan (Beyneix eta Couhade, 1995) ezagutzen da, baina baita beste toki batzuetan ere, antzeko egoeran aurkitu baitira penintsulako beste hilobi batzuetan dirudienez. Numancia-ko hilerriko hilobi bakar batzuetan berreskuratutako materialak —ezpata eta lantza okertuak— (Jimeno eta Morales, 1993) horrela zeuden. Jarduera hori hainbat faktoreren ondorioz (unea, sinesmena, hilotza, etab.) egingo zenez, ez da beti betetzen. Kristoren aurreko lehen milurtetik aurrerantz horrela izan baldin ba-

daiteke ere, oraingoz ezin daiteke froga aurreko milurteetan horrela izan zenik. Induskariek (Aranzadi, Barandiaran eta Eguren, 1919; 1923) zioten, Gorostiaran Ekialde trikuharrian (Aizkorri) aurkitutako kobrezko ezten edo puntabiko okertua eta, agian, La Cañadakoa (Urbasa), sorginkeria errirual batengatik egon zitezkeela egoera horretan. J. M. Barandiaranek (1919) zioenez, XX. mendearen hasierako beste ikertzaile batzuen (Dechelette, Cartailhac, etab.) iritziz eta berak bilduta zuen informazio etnografikoaren arabera, sinesmen magiko bateko jarduera izan zitekeen hildakoen objektu batzuk haustea edo okertzea (duela gutxi arte okertutako txanponak limosna gisa botatzea edo ematea bezala). Ordutik gaur arte indusketak asko ugaritu dira, eta badirudi ohitura hori ez zegoela hain zabalduta K. a. II. milurtean. Gaur egungo ikertzaileek trikuharrien indusketa berrietan metalezko gauzaki okertuak aurkitzen dituztenean (Collado del Mallo, Errioxa), ez dute aipaturiko jarduera hori kontuan hartzen, kasualitate hutsa izan daiteekela uste baitute, hastapeneko arkeologoek ere uneren batean zioten bezala (gauzaki meheak direnez edozein harkoskok oker zitzakeen).

Beste aztarna batzuk ere jarduera magikoren batengatik ote dauden horrela pentsatu izan da. Lurrontzi-zatiek ontziak ia inoiz ez osatzeak edo batzuetan zati bakar bat aurkitzeak ere zer pentsatua ematen zuen eta ematen du, nahiz eta ziur aski kontserbazio-arazoen ondorio izan. Horrela T. Aranzadik eta F. Ansoleagak (1915, 35) Aralarko jarduera arkeologikoen ostean ondokoa idatzi zuten:

> El hecho de que no se haya hallado una vasija entera puede ser debido al trastorno consiguiente a los enterramientos sucesivos y a las profanaciones que se hayan podido cometer más tarde; pero la escasez de fragmentos induce a presentar otra suposición como posible, la de que los parientes del difunto se limitasen a depositar por rito la vasija rota, razonando por analogía entre la muerte de una persona y la rotura de una vasija, o el rito se redujese por economía al depósito de un solo fragmento. Aún así sale la cuenta escasa, si comparamos el número de pedazos de vasija con el número de personas enterradas...

Beste kasu batzuetan trikuharrietan animalien hezur-zatiak topatu izana aipatzen da, eta hezur hauek okela-zatiarekin jarriko zirela uste izan da. Horrela, orein baten diafisi-zati bat, txerri baten matrail-hezurra eta behi baten hagina jaso ziren Ausokoi trikuharrian (Apellániz, 1975: 106), ardi edo ahuntz baten matrail-zatia eta behi baten bi hagin Kurutzebiden (Vegas, 1981: 33) eta ugaztun handien hezurrak (Barandiaran, 1935) hainbat trikuharritan —Olaberta, Elurmenta, Albia, Luperta, Oiduegi, Uelogoena, Arraztaran, etab.—; baina hildakoei eskaintza hauek sistematikoki egiteko joerarik ez da sumatzen. Gainera, zenbait trikuharritan animalia-hezurrak aurkitu direnean, gizakiak nahita eramanak direla (hau da, atu-izaera dutela) baieztatzea ez da erraza, horretan zerikusi handia izan dezaketelako ganberaren ezaugarriek (neurri handiak edukitzea, harkosko artean tarte asko dituena izatea, etab.) eta kontserbazioak. Hauek, sarritan, ezkutaleku izan zitezkeen piztientzat, saguentzat (Mandubi Zelaian giza hezurrak kirrikatzen ibili izanaren frogak daude), untxientzat...; beste batzuetan, berriz, artzain-aterpe edo abaroleku

izan dira. Azken urteetan Gipuzkoan egindako indusketetan soilik bi trikuharritan (Larrarte eta Mandubi Zelaia) kontserbatu dira hezurrak, eta denak gizakienak. Agian, beste indusketa batzuetan ere agertuko ziren (Nafarroako Longarren, Tres Montes-en, Aizibita-en, eta abarretan), nahiz eta oso ohikoa ez izan; baina horiei buruzko ikerketen emaitzak argitaratzeke daude.

Neolito Aroko eta Metal Aroko hilobi-haitzuloetan faunaren presentzia ugariagoa da, baina gehienetan ostilamendu-izaera hori baztertu egin da, oso maiz (bai ehorzketen aurretik, bai ondoren) piztien abaroleku edo babesleku eta janleku izan direlako, eta beste askotan, berriz, animaliak bertaratzen direlako hiltzera. Beste aztarnategi batzuetan ehorzketa-mailetan jasotako giza hezurrak animalienen ondoan aurkitu dira, gizakiak toki hau bera bizileku gisa erabili duelako aurreragoko garaietan, ia hilobiratze-unean (Urtiaga, Santimamiñe, etab.) edo ostean. Oraingoz, eskaintza edo atu-izaera oso argia duten bi adibide ditugu. Bat, Marizulo haitzuloaren barrenean, maila neolitikoan (5285±65 eta 5315±100 BP), hiru harkoskoz inguratuta zeuden gazte baten hezurrak, eta bere atua ziren txakur bat (garezurrik gabe) eta bildots bat jaso ziren. Antzeko izaera izan dezakete San Juan Ante Portam Latinam-go txakur baten garezurrak eta ornoek (4325±70 BP), baina horri buruzko informazioa oraingoz mugatua da (Vegas, 1999). Txakurren hezurrak aipatzen dira, orobat, Debata del Realengo eta Seakoian trikuharrietan (Aranzadi eta Ansoleaga, 1918; Barandiaran, 1935). Salbuespena izan arren, adierazgarria da Chaussée-Tirancourt (Somme), hamazazpi txakur baitzeuden talde-hilobi batean ehortzita (Vigne, 1982). Can Soldevilla 3 hobian (Bartzelona) hilotzarekin batera lau txakur hilobiratu zituzten (Barandiaran *et alii*, 1998: 347).

Salbuespen aipagarriak, Urtao II ehorzketa-haitzuloko bi larruspetan jasotako hiru izokin-orno izan daitezke, eta, agian, Abauntzeko beste bi (batzuetan zulatuak aurkitu izan dira trikuharrietan: La Cañada —Urbasa—). Ez da erraza hauek zergatik agertzen diren ulertzea.

Beste batzuetan fauna-hezurrak beste era batera ere interpretatu izan dira. Gaur gaurkoz ez dugu informaziorik ehorzketa-uneetan edo ondoren egin zitezkeen hileta-ospakizunez (otorduak eta beste hainbat erritual), baina beste lurralde batzuetan agertutako animalia-hezurrak hileta-otordu baten ondorioz utzitakoak izan daitezkeela diote ikertzaile batzuek. Adibidez, Collado Palomero Iean (Viguera —Errioxa—), sarbidea hasten den tokian —atarian—, harri-lerrokadura eliptiko baten barnean giza hezurrak, ezten bat eta ehoharri bat zeuden, eta gainera, ehorzketa sekundario honen testuinguru berean suharriak eta zeramika-zatiak, dirudienez bertan jandako animalien hezurrekin (López de Calle, 1992). Beste adibide batzuk, Can Pey haitzuloko Kalkolito Aroko ehorzketa-mailakoak edo Capula harpekoak, Aro aldaketako muga garaikoak, horrela interpretatuak izan daitezkeela uste da (Vigne, 1986). Britainia Handiko Quanterness hilobian ere (Renfrew, 1984: 77) argi dago aurkitu ziren animalia-hezurrak (zazpi ardi, hemezortzi arkume, bost idi,

oreinak, hegaztiak, arrainak, etab.) hildakoei egindako eskaintzak edo hiletetan egiten ziren ospakizunetan jandakoak zirela.

Hilobi askotan (Olaberta, Aranzadi, Chabola de la Hechicera, Askorrigana, Artekosaro, Erbillerri —hemen estalaktita-zati bat ere bai—; Fuente Morena eta Peña Guerra II (Errioxa), Los Zumacales eta El Miradero (Valladolid)... edo Padre Areso ehorzketa-haitzuloan —Bigüezal—) aipatzen den erritualetako bat, hilotzak koloregai gorriz ihinztatzekoa da, honetarako eskuarki okrea erabili zelarik. Beste batzuetan, berriz, zinabrioa erabili zen okrearen ordez, adibidez, Neolito Aroan Çatal Hüyük hiriskan (Turkia) egindako ehorzketetan; eta Penintsulan, G. Delibes-ek (1995) dioenez, La Velilla-n (gutxienez 150 km-ra lortuko zuten, Riaño inguruan, Leonen), Chan de Armada-n (Galizia) eta Siret-ek Penintsulako hego-ekialdean indusitako hilobi argariko batzuetan. Ohitura nahiko zabalduta egon zitekeen, eta helburu ezberdinak izan zitzakeen, beste batzuen artean hilotzari (zerraldoari) biziaren itxura itzuli nahia, eta, agian, kontserbatu gura ere bai. Indusi berriak diren Goierriko bi trikuharritan (Zorroztarri eta Praalata) eta Zuberoako Ithé I eta IIan (Ebrard, 1993: 160) klarion gisa erabilitako arrastoak dituzten okre-zati fazetatuak aurkitu dira. Idolo-leuntzaile batzuek (Los Zumacales-koak, adibidez, Simancas-en) okre-orbanak dituzte, agian honen hautsa zabaltzeko erabili zirelako. Baina, honetarako beste aukera batzuk ere egon daitezke; adibidez, ihinztatze-teknikak edo okrea urarekin nahastu ondoren hildakoen gainean ontzi zulatu batez zabaltzekoa. Okrea ezaguna da Erdi Paleolito Aroko hilobietan, eta arrunta izan zen beraren erabilera Goi Paleolito Aroko labarretako irudi gorriak margotzeko, bai hilobietan eta baita beste objektu batzuetan ere (apaingailuak, iruditxoak, hezurrezko tresnak, gorputza tatuatzeko, etab.). Baina bere propietate profilaktiko eta astringenteei esker (Pomiès, *et alii*, 1999), badirudi beste eginkizun batzuetarako ere erabili zitekeela: itsasgarriekin nahasteko, larruak ontzeko, astringente gisa, etab.

Beste lurralde batzuetan (Portugalen: Viseu inguruan Antelas trikuharria, Arquinha da Moura; Galizian: Forno dos Moros, Dombate (A Coruña); Bretainian) sinesmen-munduarekin erlazioa duten zantzu argiak aurkitu dira, horien artean adierazgarrienak trikuharriaren ganberako harlauzetan agertzen diren irudi margotuak edo grabatuak, itxura antropomorfoko hilarriak edo idolo gisa interpretatu izan diren beste aztarna batzuk (errekarri edo uharri bakunak edo uharriak grabaturen batekin: El Baradal, Asturias; Parxubeira, Galizia; etab.) ditugu. Oraingoz, Euskal Herrian ez dugu ezagutzen horrelako artelanik (ziur aski, kontserbazio-arazoengatik), nahiz eta urrutira joan gabe lekuko ikusgarriak egon: Huidobro-n (Burgos), Santa Cruz-en (Cangas de Onís, Asturias), Navalcán-en (Toledo).

Horrelakoen berdinak oraingoz ezagutu ez arren, aipagarria da trikuharri batzuetan (San Martín, Biasteri; La Velilla eta El Miradero, Meseta) hezurrezko idolo-leuntzaileetan emakume-irudiak agertu ohi direla grabatuta. Hauek, oraingoz, soilik trikuharrietan aurkitu direnez, Herioaren Jainkosa gisa interpretatu dira, baina garai haietako bizileku induskatuak hain urriak direnez, ez litzateke harritzekoa

beste testuinguru batzuetan ere azaltzea, eta, ondorioz, horren inguruko ikuspegia aldatzea. Ez litzateke gaizki egongo gogoratzea ezen emakumeen errepresentazioak berriz ugaltzen hasten direla Neolito Arotik aurrera (ez ditzagun ahantzi Goi Paleolito Aroko horrelako errepresentazioak: venusak bezalako eskulturak, eta irudi grabatu estilizatuak ere bai), horien artean aipagarriak direlarik Gavá-ko meategietan (Katalunia) idorotako venusa, edo Paris Arroko (Tarrête, 1995) igargu estali eta hipogeoetan agertzen diren emakume-irudiak (jainkosak?) lepokoekin: La Bellée-n (Boury-en-Vexin —Oise—), Razet 23 hipogeoan (Coizard —Marne—), etab.

Bestalde, hilarri gisako harlauza antropomorfo argiak ere ez dira ezagutzen, baina bai susmagarriak izan daitezkeenak. Lehenengo aipamen modura, Biasteriko San Martin sarbidedun trikuharriaren mendebaldeko harlauzen ondoan zeuden hareharrizko hiru harlauza ditugu, ekialdeko harlauza handia erori zenean hautsitakoak. Ikertzaileen ustez, hegoaldetik iparralderanzko noranzkoan egongo ziren zutik jarrita, burualdea erdibiribila zuten eta adierazgarriena hegoaldekoa zen, neurriak hauexek izanik: 75 (altuera) × 75 (zabalera) × 15 cm (lodiera). Kronologikoki Neolito Arokoak, K. a. IV. milurtekoak, izango genituzke (Barandiaran, Fdez. Medrano eta Apellániz, 1964; Barandiaran, 1972: 106).

Larrarte trikuharriaren indusketan (Mujika, eta Armendáriz, 1991) basaltozko harlauza susmagarri bat aurkitu zen etzanda, ganberako hildakoen gainean. Haren neurri nagusiak honako hauek dira: 56×21×6 cm. Aitortu behar da bere forma berezkoa dela, eta soilik alderdi bateko lepo-sorbaldaren zatia izan daitekeela, talka batez egindakoa. Hau horrela izan arren, harrigarriena bere oinetan hiru harri zulatu edo konder (eta beste baten zatia) aurkitzea izan zen. Lehengaia (berdinak dirudite beste trikuharri batzuetakoek: Aizibita-Zirauki; Igaratza-Aralar) ez dugu ezagutzen, baina ez da arrunta, eta horien neurriak (bakoitzak 150 gr. inguruko pisua du, eta batez besteko tamaina**,** gutxi gorabehera, 75×60×40 mm-koa da) ez-ohikoak dira lepoko gisa erabiltzeko. Bere xumetasunean, hilarri horrek badu Collá Cimera trikuharriaren kanpoaldean zegoenaren antza (Blas Cortina, 1997).

Azkenengo adibidea Bardeetako Tres Montes hilerriko aipamena dugu: «En el tramo del fondo de la "cámara", al noroeste, en medio de las losas irregulares y horizontales, una se mantenía vertical, colocada entre ellas y sin que estuviera hincada en estratos inferiores; el hecho podría juzgarse casual si no fuera por la posición central de dicha piedra en este sector del recinto y por su sugerente forma antropomórfica» (Andrés, García eta Sesma, 1999: 303). Oraingoz, induskaketa honen azken txostena argitaratu ez denez, informazio hori behin-behineko gisa ulertu behar dugu; baina bere kokapena eta itxura kontuan hartuta, interesgarria izan daitekeela uste dugu.

Bestalde, interesgarria izan daiteke aipatzea Los Cascajos-eko (Urantzia) hobi baten mugan zegoen hilarri bat, ingurua eraunspenez landuta zeukana; baina ez dakigu hilobiekin zer-nolako harremana duen (García Gazólaz eta Sesma Sesma,

1999). Hilobiaren barnean, fauna, aizkora bat ontzi baten barruan eta zitu-gordailu "erritual" bat zeuden. Honi buruzko informazioa mugatua denez, komeniko litzateke ikertzaileek burutuko duten lanaren emaitzen zain egotea.

Mende honen bigarren hamarkadan hainbat trikuharritan egindako indusketetan (Portuzargaña E, Intxusburu, Beotegiko Murkoa...) egur-ikatz zatitxoak edo kimoak kausitu zituzten eta hauek su- eta argi-eskaintzak izan zitezkeela uste zuen J. M. Barandiaranek (1953); Leisner-ek, berriz, (1951) "su-garbitzaileak" zirela. Azken urteetako lanetan ez da aurkitu froga argirik eskaintzen ondorioz sortutako hondarrak direla esateko, eta hauei esker lortutako datak beste interpretazio batzuetarako erabili dira: hilobiaren eraikuntzaren unea zehazteko, berrerabilera bat frogatzeko, etab. Beste hipotesi bat ere aipa daiteke: giza talde ekoiztaileak orduan ezarriko ziren lehen aldiz lurralde horietan bizi izaten (era iraunkor batean, noski, argi baitago lehenago lurralde horietara joango zirela ehizara eta fruitu--bilketara); eta horko landaretza erre eta lurra hondeatuko zuten, larreak edo soroak egokitzeko. Azken aukera hau ere baliogarria izan daiteke, paleozoru batzuetan (Larrarte, Igartza Mendebaldea) lortzen diren datazioen emaitzak hilobian aurkitutako material arkeologikoak adierazten duena baino nahiko zaharragoak izaten direlako (K.a. IV. milurtean kokatzen dira).

Beste sute batzuen jatorriaz eta esanahiaz ere badaude hainbat kezka; gainera, sarritan horien dataziorik ez dago. Aizkomendi sarbidedun trikuharrian J. M. Barandiaranek berrogei bat sutegi aipatzen ditu, gutxi gorabehera metro bateko diametrokoak, eta beste toki batzuetan metro bateko lodierako ikatz-piloak. Ez da erraza horien jatorria azaltzea edo ulertzea, ezta ondoren aipatuko ditugunena ere. Collado Palomero I trikuharrian (Viguera, Errioxa) aurkitutako sutegien inguruan (gutxienez hiru, forma biribilekoak) oso ugariak ziren suharrizko lanketa-hondakinak, lurrontzi-zatiak eta, dirudienez, bertan jandako animalien hezurrak (Pérez Arrondo eta López de Calle, 1988; López de Calle, 1992). Beste kasuren batean (El Casetón de los Moros —Arrabalde, Zamora—) sutegia, metro bateko diametrokoa eta 10 cm-ko sakonerakoa, ganberaren erdian dago kokaturik (Palomino Lázaro, 1988). Batzuek diotenez, sarbidedun trikuharrien edo beste hilobi handi batzuen barrualdea argitzeko piztuko zuten sua; beste batzuen iritziz, berriz, errausketa partzialak egiteko (Delibes, 1995).

Trikuharri batzuetan hilotzen hezur-zatiak erreta (Aizkomendi, Longar) ikusten dira, nahiz eta hauetako batzuetan ez egon suaren arrastorik ganbera barruan —adibidez, Longarren— (Armendariz Martija eta Irigaray Soto, 1994).

Amaitzeko, azpimarratu behar da, historiaurreko eta antzinateko gizarteetan uste izaten den jokaera homogeneo baten ordez, aniztasun handia ikusten dugula ehorzketa-eretan (trikuharrietan, haitzuloetan, etab.) eta hauen inguruko erritualetan. Bestalde, aitortu behar da, gure trikuharrietan aurkitzen diren erritual-frogak nahiko xumeak direla, neurri handian kontserbazio-egoeraren ondorioz.

BIBLIOGRAFIA

Andrés, M. T. (1977): "Las estructuras funerarias del Neolítico y Eneolítico en la Cuenca Media del Ebro. Consideraciones críticas", *Príncipe de Viana,* **146-147**, 65-127.

————, (1979): "Ritos funerarios de la Cuenca Media del Ebro: Neolítico y Eneolítico", *Berceo*, **97**, 3-25.

————, (1986): "El megalitismo en el Pirineo Occidental", in *Actas de la Mesa Redonda sobre Megalitismo Peninsular (1984)*, 133-144.

————, (1990): "El fenómeno dolménico en el País Vasco", *Munibe*, **42**, 141-152.

————, (1998): *Colectivismo funerario neo-eneolítico. Aproximación metodológica sobre datos de la cuenca alta y media del Ebro*, Instituto Fernando El Católico, Zaragoza.

————, García, M. L. eta Sesma, J. (1997): "El sepulcro calcolítico de Tres Montes (Las Bárdenas Reales, Navarra)", in *II Congreso de Arqueología Peninsular*, 301-308.

Apellániz, J. M. (1973): *Corpus de materiales de las culturas prehistóricas con cerámica de la población de cavernas del País Vasco*, Muniberen eranskina, Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

————, (1974): "El Grupo de los Husos durante la Prehistoria con cerámica", *Estudios de Arqueología Alavesa,* **7**, 1-409.

————, (1975): "El Grupo de Santimamiñe durante la Prehistoria con cerámica", *Munibe*, **27**, 1-136.

———— eta Fernández Medrano, D. (1978): "El sepulcro de galería segmentada de la Chabola de la Hechicera (Elvillar, Alava). Excavación y restauración", *Estudios de Arqueología Alavesa,* **9**, 141-224.

Aranzadi, T. eta Ansoleaga, F. (1915): *Exploración de cinco dólmenes del Aralar*, Diputación de Navarra, Iruñea.

———— eta ————, (1918): *Exploración de catorce dólmenes del Aralar,* Diputación de Navarra, Iruñea**.**

————; Barandiaran, J. M. eta Eguren, E. (1919): "Exploración de seis dólmenes de la sierra de Aizkorri", in *Obras Completas*, **VII**, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 251-341.

————; ———— eta ———— (1921): "Exploración de ocho dólmenes de Altzania", in *Obras Completas*, **VIII**, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 11-83.

————; ———— eta ———— (1921): "Los nuevos dólmenes de la Sierra de Encia", in *Obras Completas*, **VIII**, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 83-101.

————; ———— eta ———— (1922): "Exploración de diez y seis dólmenes de la sierra de Elosua-Plazentzia", in *Obras Completas*, **VIII**, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 101-135.

————————; ———————— eta ———————— (1923): "Exploración de seis dólmenes de la sierra de Urbasa (Navarra)", in *Obras Completas*, **VIII**, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 167-239.

Armendáriz, J. eta Irigaray, S. (1993): "Resumen de las excavaciones arqueológicas en el hipogeo de Longar (Viana, Navarra). 1991-1993", *Arqueología Navarra,* **11**, 270-275.

———————— eta ———————— (1994): *La arquitectura de la muerte. El hipogeo de Longar (Viana, Navarra), un sepulcro colectivo del 2500 a. C.*, Centro de Estudios Tierra-Estella, Lizarraldeko Ikastetxea, Lizarra.

Ayala, M. M. (1990): "Estudio preliminar de ritual funerario calcolítico en la comarca de Lorca, Murcia", *Zephyrus,* **XLIII**, 77-86.

Barandiaran, J. M. (1919): *Contribución al estudio palentológico del pueblo vasco. El magismo*, Asociación Española para el Congreso de las Ciencias, Bilbo.

————————, (1935): "Huellas de artes y religiones antiguas en el Pirineo vasco. Homenaje al M. I. Sr. D. Eduardo de Escarzaga, Vitoria", in *Obras Completas*, **XII**, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 9-56.

————————, (1952): "La Prehistoria en el Pirineo Vasco. Estado actual de su estudio", in *1er Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos* (1950), **IV**, CSIC, Zaragoza.

————————, (1953): *El Hombre prehistórico en el País Vasco,* Ekin, Buenos Aires.

————————, (1966-68): "Exploración de Aizkomendi (Dolmen de Eguilaz, Alava)", *Noticiario Arqueológico Hispánico,* **X-XI** eta **XII**, 97-109.

————————, (1972): "Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca y algunas de sus fuentes", in *Obras Completas*, **I**, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

————————, Fernández Medrano, D. eta Apellániz, J. M. (1964): "Excavación del dolmen de San Martín (Laguardia)", in *Obras Completas*, **XVI**, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 29-73.

Barandiaran, I., Martí, B., Del Rincón, M. A. eta Maya, J. L. (1998): *Prehistoria de la Peninsula Ibérica*, Ariel Prehistoria, Bartzelona.

Bello Dieguez, J. M. (1997): "Aportaciones del dolmen de Dombate (Cabana, La Coruña) al arte megalítico occidental", *Revue Archéologique Ouest, (Actes du 2ème Colloque International sur l'Art Mégalithique, Nantes, 1995)*, **8**. gehigarria**,** 23-29.

————————; Criado, F. eta Vázquez, J. M. (1982): "Aproximación a un modelo económico-social del megalitismo del Noroeste Peninsular", *Brigantium, Boletín del Museo Arqueológico Histórico de Coruña*, **3**, 33-39.

————————; ———————— eta ———————— (1982): "Megalitismo y medio físico en el noroeste de la Península Ibérica", *Zephyrus,* **XXXIV-XXXV**, 109-118.

————————; ———————— eta ———————— (1984): "Medio físico y sociedades megalíticas. Aproximación a los problemas constructivos de los megalitos en el NW peninsular", *Gallaecia,* **7-8**, 31-57.

Beyneix, A. eta Couhade, C. (1995): "La question des objets de métal "mutilés" en milieu funéraire au cours du Premier Age du Fer Aquitain: quelques éléments de réflexions", *Munibe,* **49**, 153-161.

De Blas, M. A. (1994): "Las llamadas "estelas" de Corao y Allande: su naturaleza y contexto megalíticos", in *Homenaje al Dr. J. González Echegaray. Museo y Centro de Investigaciones de Altamira*, **17**, 349-359, Madril.

————, (1997): "El arte Megalítico en el territorio cantábrico: un fenómeno entre la nitidez y la ambigüedad", *Brigantium* (*III Coloquio Internacional de Arte Megalítico, A Coruña*. Aktak), **10**, 69-89.

Bosch, J. eta Estrada, A. (1996): "La minería en Gavà (Bajo Llobregat) durante el IV milenio a. C.", *Rubricatum* (*I Congrès del Neolitic a la Peninsula Ibérica. Gavà-Bellaterra, 1995*)*,* **1**, 265-269.

Bueno, P. eta Balbín, R. (1997): "El papel del elemento antropomorfo en el arte megalítico ibérico", *Revue Archéolologique Ouest (Actes du 2ème Colloque International sur l'Art Mégalithique, Nantes, 1995)*, *Supplément **8,*** 41-64.

Couraud, C. (1988): "Pigments utilisés à la Prehistoire. Provenance, preparation, mode d'utilisation", *L'Anthropologie,* **92**, 17-28.

Delibes, G. (1995): "Ritos funerarios, demografía y estructura social entre las comunidades neolíticas de la Submeseta Norte", in *Arqueoloxia da Morte. Arqueoloxía da Morte na Península Ibérica desde as Orixes ata o Medievo. Actas do Curso de Verán da Universidade de Vigo*, Xinzo de Limia, Vigo, 63-89.

————; Benet , N.; Pérez Martín, R. eta Zapatero, P. (1997): "De la tumba dolménica como referente territorial, al poblado estable: Notas sobre el hábitat y las formas de vida de las comunidades megalíticas de la submeseta norte", in *O Neolítico Atlántico e as orixes do Megalitismo (Actas do Coloquio Internacional, Santiago de Compostela, 1996)*, Santiago de Compostela, 779-808.

———— eta Zapatero, P. (1996): **"**De lugar de habitación a sepulcro monumental: una reflexión sobre la trayectoria del yacimiento neolítico de La Velilla, en Osorno (Palencia)", *Rubricatum (I Congrès del Neolític a la Península Ibèrica, Gavà-Bellaterra, 1995)*, **1**, 337-345.

Devignes, M. (1997): "Les rapports entre peintures et gravures dans l'art mégalitique ibérique", *Revue Archéologique Ouest, (Actes du 2ème Colloque International sur l'Art Mégalithique, Nantes, 1995)*, **8**. gehigarria*,* 9-22.

Ebrard, D. (1993): "Architectures, stratigraphies et fonctionnements des dolmens I et II d'Ithé (Assurucq, Pyrénées-Atlantiques)", *Société d'Anthropologie du Sud-Ouest, (Colloque Megalithes du Sud-Ouest, 1992),* **XXVIII**, 151-179.

García Gazólaz, J. eta Sesma Sesma, J. (1999): "Talleres de sílex *versus* lugares de habitación. Los Cascajos (Los Arcos, Navarra), un ejemplo de neolitización en el Alto Valle del Ebro", in *II Congrès del Neolitic a la Península Ibèrica, Saguntum*-PLAV Extra **2**, 343-350.

Gimeno, D.; Fernández Turiel, J. L.; Villalba, M. J.; Edo, M.; Blasco, A. (1996): "Complejo minero de Can Tintorer, Gavà: Geología y técnicas de explotación en el IV milenio", *Rubricatum (I Congrès del Neolitic a la Peninsula Ibérica. Gavà-Bellaterra, 1995)*, **1**, 259-263.

Goicoetxea Marcaida, A. (1985): *Telesforo de Aranzadi. Vida y obra,* Aranzadi Zientzi Elkartea, Donostia.

González López, M. A. eta Teijeiro López, B. (1998): "Aproximación al estudio paleodemográfico de las sociedades constructoras de megalitos: el dolmen de Torrejón (Villarmayor, Salamanca)", in *Estudos Pré-históricos* (*Actas do Colóquio A Pré-História na Beira Interior. Tondela, 1997*), **VI**, 105-119. Viseu.

————, (1999): "Trabajo y demografía en el III milenio: el paisaje megalítico en el occidente de la Meseta Norte", in *XXIV Congreso Nacional de Arqueologia (1997)*, Cartagena, 131-143.

Guilaine, J. (zuz.) (1999): *Mégalithismes de l'Atlantique à l'Ethiopie*, Ed. Errance.

Jimeno, A. eta Morales F. (1993): "El poblamiento de la Edad del Hierro en el Alto Duero y la necrópolis de Numancia", *Complutum,* **4**, 147-156.

Leisner, G. V. (1951): *Antas do concelho de Reguengoz de Monsaraz. Materiais para o estudo da Cultura megalitica em Portugal*, Lisboa.

López de Calle, C. (1992): "Tratamientos sepulcrales y presepulcrales de restos humanos en los yacimientos megalíticos de Cameros", *Estrato,* **4**, 36-41.

————, (1994): "Caracteres arquitectónicos y restos materiales del sepulcro megalítico de Collado del Mallo (Trevijano)", *Estrato,* **6**, 9-15.

———— eta Ilarraza, J. A. (1997): "Condenaciones y remodelaciones. Una respuesta a las estratigrafías de los sepulcros megalíticos de Cameros", in *II Congreso de Arqueología Peninsular*, 309-320.

Martínez Cortiza, A. eta Llana, C. (1997): "Conceptos estratigráficos y edáficos en contextos tumulares", in *O Neolítico Atlántico e as orixes do Megalitismo (Actas do Coloquio Internacional, Santiago de Compostela, 1996)*, 73-91.

Masset, Cl. (1993): *Les dolmens. Sociétés néolithiques. Pratiques funéraires*, Ed. Errance.

Mujica, G. (1962): *Los titanes de la cultura vasca*, Auñamendi, Donostia.

Mujika Alustiza, J. A. (1993): "Aportaciones durante el último decenio al conocimiento del fenómeno dolménico de Gipuzkoa", *Société d'Anthropologie du Sud-Ouest, (Colloque Megalithes du Sud-Ouest, 1992)*, **XXVIII**, 205-225.

————, (1994): "Los dólmenes simples del País Vasco. Aspectos constructivos y cronológicos", *Ilunzar,* **2**, 9-20.

————, (1998): "Idolos espatula del País Vasco: fabricación, cronología y paralelos", *Veleia,* **15**, 121-145.

———— eta Armendáriz, A. (1991): "Excavaciones en la estación megalítica de Murumendi (Beasain, Guipúzcoa)", *Munibe,* **43**, 105-165.

Palomino, A. (1988): "Resultados de la excavación arqueológica en 'La Casa de los Moros'. Arrabalde (Zamora)", *AIEZ*, 130-150.

Pérez Arrondo, C. L. eta López de Calle, C. (1988): "Excavaciones en la zona megalítica de Viguera (La Rioja). Collado Palomero I. Campañas de 1986 y 1986", *Cuadernos de Investigación Histórica, Brocar,* **14**, 31-52.

Pomiès, M-P.; Barbaza, M.; Menu, M. eta Vignaud, C. (1999): "Préparation des pigments rouges préhistoriques par chauffage", *L'Anthropologie,* **103 (4)**, 503-519.

Renfrew, C. (1984): "Arqueología social de los monumentos megalíticos", *Investigación y Ciencia,* **88**, 79-79.

Tarrête, J. (1995): "L'art mégalithique dans le Bassin Parisien", *Revue Archéologique Ouest, (Actes du 2ème Colloque International sur l'Art Mégalithique, Nantes, 1995)*, **8**. gehigarria, 149-159.

Utrilla, P. eta Mazo, C. (1993-94): "Informe preliminar sobre la actuación de urgencia de 1991 en la cueva de Abauntz", *Trabajos de Arqueología Navarra,* **11**, 10-29.

Vázquez Varela, J. M. (1991-92): "Aspectos económicos y sociales de la construcción de monumentos megalíticos en el noroeste de la Península Ibérica", *Brigantium, Boletín del Museo Arqueológico Histórico de Coruña*, **7,** 177-183.

Vegas Aramburu, J. I. (1981): "Túmulo-dolmen de Kurtzebide en Letona. Memoria de excavación", *Estudios de Arqueología Alavesa,* **10**, 19-67. Gasteiz.

————, (1999): *El enterramiento neolítico de San Juan Ante Portam Latinam*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

————; Martínez-Torres, L. M., Orue-Etxeberria X. eta García-Garmilla, F. (1992): "Procedencia de las rocas empleadas en la construcción del dolmen de Aizkomendi (Eguilaz, Alava)", in *The Late Quaternary in the Western Pyrenean Region*, EHU, Bilbo, 427-433.

Vivanco, J. J. (1981): "Orientación y tipología de las cámaras de los dólmenes de montaña y valle", *Estudios de Arqueología Alavesa,* **10**, 67-145. Gasteiz.

Vigne, J.-D. (1982): "Les ossements animaux dans les sépultures", *Les dossiers de l'Archeologie,* **66**, 78-83.

————, (1986): *Le problème de l'interprétation des restes de repas en milieu funéraire vu au travers des ensembles fauniques de deux sites stratifies: Can Pey (Montferrer, Pyrénées-Orientales) eta Capula (Lévie, Corse). Anthropologie physique et Archéologie*, CNRS, Paris.

Yarritu, M. J. eta Gorrotxategi, X. (1999): "'La Cabaña 4' trikuharrian burututako azterketa arkeologikoari buruzko txostena, Karrantza, 1979-82. Egitura eta material arkeologikoak", *Isturitz,* **10**, 206-233.

Paleopatologia: gure arbasoen gaixotasunak

Lourdes Herrasti Erlogorri
Antropologia Saila. Arantzadi Zientzi Elkartea

1. AITZINDARIAK PALEOPATOLOGIAKO IKERKETETAN

XX. mendearen hasieran, 1914an hain zuzen ere, Enrique Egurenek bere tesia aurkeztu zuen honako izenburuz: *Estudios antropológicos del pueblo vasco. La Prehistoria en Alava*. Hori izan zen, berez, historiaurreko garaiari eta gizakiari egindako lehen hurbilketa antropologiaren ikuspuntutik. Telesforo Aranzadi biologoak paleoantro-pologia-ikerketak hasi zituen. Eguren, Aranzadi eta Joxemiel Barandiaran ikertzaileek hainbat ikerketa egin zituzten trikuharri eta kobazuloetan. Beraiek egin zuten paleopatologiari buruzko lehen aipamena, Sokillete trikuharrian aurkitutako tibia batean agerian zegoen exostosia deskribatuz: «El hueso, que merece mención más especial, es una tibia de Sokillete, del lado izquierdo, con la espinilla como cortada y con una excrecencia o exóstosis en el lado externo, detrás de la arista lateral y hacia el tercio exterior». Gaur egun, badakigu lesio hori tumore arina (osteokondroma-mota bat) dela.

Hirurogeiko hamarkadan, Manuel Riquet-ek eta Rodriguez de Ondarra-k Arabako Alto de la Hueseran eta La Cascajan dauden bi trikuharrietako hezurrak aztertu zituzten. Paleopatologiako aipamenak ere egin zituzten: besteak beste, burezurretako zauriak, osteoma (tumore arina) eta eskafozefalia (burezur deformatua, parietalak elkarrekin loturik daudelako).

Garai berean, José María Basabek, Euskal Herriko Unibertsitateko Antropologia-irakaslea izango zenak, hasi zituen bere ikerketak. Berak eginiko lanen artean, Euskal Herrian aurkitu den giza hezur antzinakoenaz egindako azterketa nabarmentzen da, "El húmero premusteriense de Lezetxiki (Mondragón)" (Basabe, 1966) artikuluan argitara eman zuena. Bertan deskribatu zuen humero horrek duen artrosi-prozesua, humeroaren buruaren eta eskapularen arteko artikulazioan daukana hain zuzen ere. Basabek beste hezur-bilduma batzuk ere aztertu zituen: Gobaederra, El Lechón, Las Calaveras eta Arraldai Arabako ehorzketa-kobetakoak (Basabe, 1967).

Paleopatologiari buruzko ikerketa sistematikoen hasiera Aranzadi Zientzi Elkartean hasi zen gauzatzen 1980tik aurrera. Urte horretan, Francisco Etxeberriak eta German Tamayo-k *Cuon alpinus europaeus* animalia-herexa edo aztarnetan

ageri ziren zauriak deskribatu zituzten. Geroago, Angel Armendarizek Kalkolito Aroko eta Brontze-Aroko Gipuzkoako ehorzketa-kobetako aztarnategiak ikertu zituenean, Francisco Etxeberriak horien azterketa antropologikoa nahiz paleopatologikoa egin zuen.

Euskal Herriko paleopatologiako lehen liburu espezifikoa *Estudios de Patología ósea en poblaciones de época altomedieval en el País Vasco: Santa Eulalia y los Castros de Lastra* (Etxeberria, 1984) izenekoa izan zen.

Geroztik, hainbat artikulu eta liburu argitaratu dira gure inguruan. Bukaerako bibliografian jasotzen ditugu horietako batzuk. Baina argitalpenez gain, ezin ditugu aipatu gabe utzi paleopatologiarekin zerikusia duten bi gertakizun zehatz. Lehenengoa, Arabako Arkeologia Museoan prestatutako erakusketa monografikoa, *La enfermedad en la Prehistoria de Alava* izenburupean. Bigarrena, Aranzadi Zientzi Elkarteak 1991n antolatutako Paleopatologiako Lehen Kongresu Nazionala.

2. PALEOPATOLOGIAREN ESANAHIA ETA METODOLOGIA

Paleopatologia hitzaren esanahia, antzinako (*paleo*) gaixotasunak (*pathos*) aztertzen dituen zientzia (*logos*) da. Gizakiaren aztarna biologikoak lirateke, beraz, paleopatologiaren aztergai diren elementuak.

Gehienetan, giza hezurren aztarnak dira ikerlanen iturri nagusia, hezurra baita denboran zehar ondoen kontserbatzen dena. Horrek ez du esan nahi, beste elementu biologikoak nahiz bestelakoak paleopatologiaren ikuspuntutik azter ez daitezkeenik. Adibidez, gorputz momifikatuek kanpoko larruazala eta barruko erraiak ere (birikak, bihotza, hesteak, burmuina...) kontserbatzen dituzte eskeletoaz gain, eta informazio-iturri aberatsa gerta daitezke.

Bestalde, zeharkako metodoen bidez ere egin daiteke ikerketa. Irudi artistikoek bestelako zehaztapenak eskain ditzakete gizakiaren bizimoduaz. Horren adibide garbiena, Donostian egindako paleopatologiako Lehen Kongresuan erabilitako ikonoa da. Irudi hori lebantiar pinturaren garaikoa da; bertan gizaki bat ikusten da, besoetan beste gizaki bat daramala, azken hau zaurituta edo hilda.

Hondakinen azterketa makroskopikoez aparte, komenigarria izaten da bestelako azterketa zehatzagoak egitea, medikuntzan erabiltzen diren beste teknika batzuen bitartez: azterketa anatomiko-patologikoak, erradiografiak eta TAC, adibidez.

Esan dugunez, eskeletoak eta hezurren aztarnak dira paleopatologiaren aztergai, baina hezurretan gaixotasunen %10 baino ez daitezke antzeman. Honek esan nahi du, gaixotasun asko izan zirela, baina ezin ditugula ikertu, aztarnak falta zaizkigulako. Eritasun arruntek (beherakoak, disenteriak, gastroenteritisak) eta ez hain arruntek (izurritea bezalakoek) ez dute hezurretan seinalerik uzten.

Bestalde, ezin dugu pentsatu iraganeko gizakiak gaur egungoak baino eritasun-kopuru handiagoa jasaten zuenik. Antzina zeudenak gaur egun ezagutzen ditugun gaixotasunekiko ezberdinak zirenik ere ez da demostratu.

3. ZENBAIT DATU DEMOGRAFIKO

Hainbat eta hainbat aztarnategitan hezurren kopuru handia desegin da denboran zehar, eta horrek zailtasun handiagoa dakarkio ikerketa-lanari. Kontserbazio horretan eragin berezia izan dezakete ondokoek: lurraren azidotasunak, animaliek egindako hezur-kanporaketak eta gizakiak eragindako ehorzketa berriak, besteak beste.

Hala eta guztiz ere, ehortzitako gizabanakoen gutxieneko kopurua kalkula daiteke. Euskal Herrian salbuespenak dira gizaki-kopuru handiak dituzten aztarnategiak. Ehorzketa-kobazuloetan 20 gizaki ingururen aztarnak aurkitu dira, batez beste. Kasu aipagarriak dira Arabako Gobaederra, bertan 80tik gora gizakiren hezurrak aurkitu zirelako, eta Arabako San Juan ante Portam Latinam-en, non 250tik gora gizaki ehortzi baitzituzten.

Giza taldearen konposizio antropologikoa izaten da arreta erakartzen duen lehen informazioa. Euskal Herrian aztertu ditugun aztarnategietan nabari den lehenengo ondorioa, antzinatean bizi-itxaropena oso laburra zela konturatzea da. Kalkolito Aroan, esate baterako, giza taldearen %20 baino gehiago azpihelduak ziren: Alto de la Huesera trikuharrian %20; La Cascaja trikuharrian %33,7; Chabola de la Hechiceran, %23,1... Garrantzitsua den beste informazio antropologikoa sexuen arteko banaketa da.

4. PATOLOGIA EZBERDINEN AZTERKETA

Arestian deskribatutako aurreazterketak egin ondoren, hezur-ehunean beren aztarna uzten duten eritasunen adibideak ikusiko ditugu.

4.1. Erreumatismoak

Aztertu ditugun hezurretan, erreumatismoak dira eritasun guztietatik maizenik ikusten direnak. Honek ez du esan nahi, historiaurreko gizakiak gaur egun baino erreuma-gaixotasun gehiago jasaten zuenik. Izan ere, erreumatismoak hezur-artikulazioetan eragiten duenez, bere aztarnak nabariagoak dira hezur-hondakinetan. Hala eta guztiz ere, bizi-itxaropen laburrak mugatzen zuen eritasun honen garapena handia izatea; eta baita erreuma pairatzen zuen gizabanakoaren mugimendurako ezintasun larria ere.

Artikulazioetan aurkitutako ditugun seinale suntsigarrien bidez identifikatzen dugu erreumatismoa edo artrosia. Sarritan, artikulazioen azaleran higadura-guneak

aurkitzen ditugu, eta aldamenean erliebe txikiak, hezur-muturren hazkunde anomaloagatik (hezurren arteko kartilagoa higaduraren poderioz desagertzen denean, hezurrek elkarren kontra igurzten dute, hezur-bizarrak sortuz). Gaitza, behin kokatuz gero, era atzeraezinean garatzen da gaixoaren bizitzan zehar, erreuma ezarri den artikulazioa etengabeko indar eta tentsio ariketen menpe baitago.

Artrosia oso lotuta dago adinarekin. Askotan, artrosiak berak adierazten du, beste ezaugarrien artean, gizabanakoen adina.

Bizkarrezurra da artrosia kokatzen den zonalde ohikoena, bizkarrezurra baita eguneroko bizitzan tentsio handiak jasan behar dituen artikulazioa. Gaitza ezartzen denean, mina eragiten du.

Aztertu ditugun bizkarrezurretan, ornoek beren ertzetan dituzten deformazioak antzematen dira. Osteofitoak deritze hezur-bizar horiei. Batzuetan, osteofitoen garapena hain handia da, non elkarren ondoko bi ornoen arteko zubia sortzen baitute, bizkarrezurraren mugimendua gutxituz. Ia aztarnategi guztietan aurkitu ditugu bizkarrezurreko artrosiaren adibideak.


Baina artrosia, bizkarrezurrean azaltzeaz gain, beste artikulazioetan ere ageri da. Gobaederrako gizonezko batengan deformazio nabarmena antzeman daiteke ukondoko artikulazioan. Besondoak, erradioak eta kubituak higadura eta hezur-formazio anomaloak dituzte. Ukondoko artikulazioak indar eta mugimendu errepikatuak egiten zituen, ziur asko eskulangintza-mota batekin erlazionaturiko eskuaren mugimendu mekanikoa. Horren guztiaren ondorioz, besoa zuzentzeko ahalmena zeharo eragotzirik izango zuen.

Artrosiak jota ager daitekeen beste artikulazioa belaunarena da. Honen adibide ikusgarria Arabako La Mina trikuharriako errotula da. Higadura-prozesua oso markatua du, hezurraren barruko ehun harroa agerian uzten duena. Zalantzarik gabe, gizaki horrek belauna mugitzean mina sentitu behar zuen (1. irudia).

4.2. Zauriak eta lesio traumatikoak

Mafart paleopatologo frantsesak iritzi hau zuen: «hezur-haustura ezohiko gertakaria da gizabanakoaren bizitzan, baina nahiko sarri gertatzen da talde edo populazioen mailan». Halaxe da. Giza talde guztietan aurkitu dira zauriak eta lesio traumatikoak, gizakiaren bizimodu latzean erraz gertatzen diren prozesuak baitira.

Hezurraren segmentuari eragiten zaion egintza mekanikoari eusteko duen ezintasunagatik gertatzen da haustura. Aplikatutako indarra edo tentsioa gehiegizkoa bada, hezurraren haustura ekidinezina da, bere aurreko osasun-egoera ona zein txarra izan.



1. irudia: La Mina trikuharrian aurkitutako bi errotula: Gizaki baten bi errotula: eskuinekoa normala da, baina ezkerrekoak berebiziko higadura du. Belauneko artikulazioari eragiteak min emango zion.

Hezurren morfologia gizakiaren adinarekin eta sexuarekin dago erlazionaturik. Haur batengan hezurra ez dago guztiz osatuta; ondorioz, hauskortasuna eta, aldi berean, elastikotasuna dira hezurraren ezaugarriak. Hausturak erraz gerta daitezke, baina sendotzeko ahalmena ere handiagoa da. Helduaroan eta zahartzaroan, sexuen arteko bereizketa nabarmena da. Hain zuzen, emakumezkoengan errazago gertatzen dira hezur-hausturak, hezurrak desmineralizatu egiten direlako (menopausiaren ondorioz), hezur-egitura ahulduz. Horri osteoporosia deritzo.


Hezur baten haustura gertatu den ala ez jakiteko, bi era daude: makroskopikoa eta erradiografikoa. Askotan begi-bistakoa da hezur baten diafisian dagoen zonalde lodiagoa, maskurra hain zuzen ere. Haustura gertatzen denean, zatituriko bi hezur-zatiak elkar lotzen saiatzen da, osteogenia-prozesua eraginez ('hezur berria sortu'). Horren ondorioz osatzen dira maskurrak. Beste batzuetan, diafisian edota beste zonaldean ez da kanpotik ezer nabari, baina erradiografia batek erakusten du hezur-haustura.

Aztertu ditugun hainbat lesio traumatiko, bi ataletan bilduko ditugu: A) istripuz gerta daitezkeen zauriak eta lesioak; eta B) eragindako zauriak.

4.2.1. Istripuz gertaturiko zauriak

Lurrera jausteak mota tipiko bateko haustura sortzen du. Maiz ikusten dira era honetakoak, eta, sarritan, emakumezkoak izaten dira, gorago aipatu dugun osteoporosiagatik. Irrist egin eta lurrera erortzean, eskua jartzen da eta eskumuturreko artikulazioak jasaten du inpaktuaren indarra, ondorioz, hezurraren haustura gertatuz. Erradioaren haustura honi *Colles-en haustura* deritzo. Honen adibideak aurkitu ditugu ondoko aztarnategietan: Arabako San Juan ante Portam Latinam-en (Neolito Arokoa), Santa Eulalia eta Los Castros de Lastra nekropolietan (Erdi Arokoak), besteak beste.

Saihets-hezurretan ere gerta daitezke hausturak, lurrera jaustean edo zuzeneko kolpea jasatean. Inmobilizatuz gero, erraz senda daitezke. Topatu ditugu hainbat saihets-hezur maskurrez sendoturiko hausturekin. Horrelako haustura bat infekzioz konplikatu zen eta heriotza ekarri zion, ordea, Buruntzako San Martin aztarnategiko (Andoainen) gizonezko bati. Hiru saihets-hezurretan ageri da osteogenia--prozesua; baina hausturaren bi zati elkartzeko denbora nahikorik ez zuen izan.




2. irudia: El Sotillo trikuarriko femurra: Femur baten erdian gain-jarrita daude hausturaren bi zatiak, maskur handi bat osatuz. Era berean, hankaren luzera motzago gelditu zitzaion. Erradiografian ikus daiteke bi hezurren arteko lotura.

Hezur-hausturak istripuz ere gerta zitezkeen, gaur egun bezala. Atal honetan, gorputz-adarretan suerta daitezkeenak aipa ditzakegu. Gipuzkoako Iruaxpe I ehorzketa-kobazuloko metakarpo-hezur batek maskur txikia du diafisiaren erdian. Metakarpo-hezur horri dagozkion bi falangeak sinostatuta daude. Ziur asko, hatz hori zapaldua izan zen, haustura sortuz; eta ondorioz agertutako infekzioak bi falangeak lotzea eragin zuen.

Hezur-hausturaren kasu berezia da El Sotillo trikuharrian aurkitutako femur batena. Ezkerraldeko femur baten diafisian maskur nabarmena azaltzen da, hautsitako bi ertzak elkargaineraturik baitaude, eta hezurraren lerroa zeharo desbideratuta. Zalantzarik gabe, gizonezko hark traumatismo larri bat jasan zuen, eta izterreko hezurra hautsi. Izterrean dauden giharrek indar handia egiten dute, eta femurraren ertzak bere tokian jarri ez zirenez (hausturaren erredukzioa), deformazio galanta eragin zion zangoari, motzago utziz (2. irudia).

Beste batzuetan, hausturak defentsa-erreakzioaren ondorengoak dira. Kubituaren haustura diafisarioa, zuzeneko kolpe bat jasatean gertatzen da. *De paro* deritzon motako haustura hau (‘*geldiketa*’ motakoa, alegia), gizaki batek beste bati ematen dion kolpea geldiarazteko eta gorputza babesteko besoa altxatzen denean gertatzen da. Era honetako kubitu hausturak, San Juan ante Portam Latinam (kasu bat baino gehiago), Alto de la Huesera, La Mina, Las Pajucas... aztarnategietan agertu dira (3. irudia).



3. irudia: “De paro” izeneko kubitu-haustura: Berreraiketa honetan haustura-mota hori eragiteko modua erakusten da. Besaurrea gorputza babesteko altxatzen denean, zuzeneko kolpea jasaten du, kubituaren haustura sorrarazten dio. (Marrazkia: Miguel Angel Garcia).

4.2.2. Eragindako zauriak

Neolito Aroko San Juan ante Portam Latinam ehorzketa kolektiboan (bertan 250 gizaki baino gehiago zeuden ehortzirik), arma hilgarriek eragindako zauriak aurkitu dira. Guztietan suharrizko gezi-puntak aurkitu dira hezurretan sartuta. Identifikatu zen lehenengoan, koxal zati batean guztiz sarturik zegoen gezi-punta, eta gizabanako hark barruan eraman zuen denbora luzez gezi hori, bere inguruan hezurraren zikatrizazio-seinale ageriak dituelako. Horren froga erradiografian dugu. Beste kasu deigarria dugu, burezur bateko garondoan nabari den hezur-neoformazioa. Berez, suharrizko gezi-punta bere barruan hartuta kaltzifikatu dira lepoko gihar eta ligamentuak (4. irudia).



4. irudia: San Juan ante Portam Latinam-eko geziz eragindako zauria: Burezur batek garondoan duen hezur-neoformazioa. Zauritu zuen gezi-punta harrapatuta gelditu zen osifikatutako giharren eta ligamentuen artean. Zauria jasan eta gero, denbora luzean bizirik jarraitu zuen. (Argazkia: Jose Ignacio Vegas).

Deskribatu ditugun bi adibide horietan, gizabanako horiek bizirik jarraitu zuten eragindako zauriak jasan ondoren, gezi-punta gorputz arrotz modura zeramate-

la. Aipatu ditugun kasu horiez gain, beste zortzi aurkitu dira. Horietako zauri batzuetan osteogenia —hezur-erreakzioa— ageri ez denez, gezi jaurtigarriek eragindako zauriek ekarri zuten gizabanakoen heriotza.

Eneolito Aroko Aizibita trikuharrian (Nafarroan), eragindako zauri handi bat erakusten du burezur batek. Ezkerreko parietalaren eta okzipitalaren arteko zuloa du; baina, zauria jasan eta gero, gizabanakoak bizirik iraun zuen zehaztu gabeko denbora batez, zeren zuloaren ertzak biribilduta baitaude ostegeniaren ondorioz. Nahiz eta trepanazioaren itxura izan, berez, ertz zorrotzez eragindako zauria da. Eman zioten zartadak burezur zati bat ebaki eta kenarazi zuen.

Bortxazko ekintza baten ondorioz gertaturiko zauriak identifika daitezke, halaber, Arabako La Hoya hirixkan. Burdin Aroko hiri hau zakuratua izan zen. Erasoaldiaren ostean su eman zioten. Indusketa arkeologikoan, gaineko harriak eta kaskoteak kendu zituztenean, kale baten gainean neskato baten eskeletoa aurkitu zuten. Neskatoa gora begira zegoen eta besondo bat falta zuen. Handik metro batzutara falta zitzaion besondoa ere topatu zuten. Ziur asko, erasoaldian, neskato horri, ihesian korrika zihoala, zartada batez besoa moztu zioten, baina neskatoa urrunago joan zen shock hipobolemikoa gertatu zitzaion arte. Besondoak argi erakusten du ezpata edo antzeko arma-zuri batez baliaturik ebaki eta kendu izana.

Garbi dago, eragindako zauriak oso maiz gertatuko zirela gerra-garaietan. XIX. mendeko Espainiako Independentzia Gerrako (1808tik 1813ra) aztarnategi bat induskatu zen Tolosan duela urte gutxi. Igarondoko nekropolia Santa Klara komentuaren inguruan zegoen kokatuta, gerra-garaian ospitale gisa erabili baitzen komentua. Soldadu zaurituak ospitalera eramaten zituztela suposa dezakegu, eta heriotza gertatzen zitzaienean atzeko baratzean ehorzten zituztela. Ehun eskeleto baino gehiago aurkitu ziren indusketan. Guztiak gizonezko gazteenak ziren (20 urte ingurukoenak), multzoka hilobiratutakoak.

Igarondon, armaz eragindako zauriak era garbian ikusten dira, jaurtigaien zatiak hezur hautsiaren ondoan aurkitu direlako. Berunezko jaurtigai hauek min handia egin zezaketen. Konplikazio handiko haustura konminutak —hezurra zati txikietan hausten denean— sorrarazten zituzten. Kasu batzuetan, zauritutako gizonezkoak bizirik iraun zuen denbora batez, hezur-zatietan erregenerazio-prozesua nabari baita; baina infekzioak eta gangrenak oso larriak ziren garai hartan, eta askotan heriotza saihestezina zen.

Gangrenaren bildur zirenean edota gaixotasun hori ezartzen zenean, gerra-medikuek hanka- edo beso-moztea erabakitzen zuten, gizabanakoaren bizia salbatzeko bide bakarra zelako. Gorputz-adarra mozteko trebetasun handia behar zen, anestesia ezagutzen ez zen garaian. Igarondoko hilerri horretan hanka anputaturik zuen soldadu bat aurkitu zen, eta bai moztutako beso eta hanka bat ehortzirik ere (5. irudia).



5. irudia: Igarondo, anputaturiko hanka: Gizonezko hau hilobiratu zutenean, jadanik hanka ebakita zeukan. Anputazioak bizia salbatu nahian egiten baldin baziren ere, ez zen beti helburu hori lortzen.

5. GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK

Atal honetan erraz transmititzen diren gaixotasunei buruzko datuak bilduko ditugu. Eritasun hauek animalien etxekotzearekin areagotzen hasi ziren, animaliek kutsatzen baitzituzten, bai kontaktuarekin, bai esnearen eta haragiaren bitartez ere.

Bruzelosia da animaliengandik garbien kutsatzen den gaixotasuna. Ardiekin ibiltzen direnek izaten dituzten "Maltako sukarrak" dira eritasunaren sintoma adierazgarriena. Paleopatologian, Francisco Etxeberriak deskribatu ditu lehenbiziko aldiz bruzelosiak ornoetan uzten dituen aztarnak. Gure inguruan aztertu diren adibideak, Arabako Los Llanos trikuharrikoak eta Erdi Aroko Los Castros nekropolikoak dira.

Tuberkulosiaren presentzia 3.000 urte inguruko egiptoar momia batean topatu zen lehenik. Gaixotasun horrek, garatuta dagoenean, marka nabariak uzten ditu bizkarrezurretan. Tuberkulosiaren aztarna eredugarriena hamabigarren orno dortsalean agertzen da (bizkarrezurraren erdialdean). Orno horrek barneko egitura galtzen du, eta bizkarrezurraren presioarekin zapaltzen da, ziri-forma hartuz. Horren ondorioz, bizkarrezur osoa makurtzen da, zifosia deritzon okerdura nabariarekin (6. irudia).



6. irudia: Tuberkulosiz jota dagoen bizkarrezurra: Bizkarrezurrean ageri da tuberkulosiak eragindako okerdura. Bizkarrezurraren erdialdean (hamabigarren orno dortsalean, hain zuzen ere) akuinatzen da, degenerazioak eraginda.

Guztiontzat legenarra da infekzio-gaixotasun ezagunena, izurritetzat hartua izan delako. Baina, paleopatologian oso urriak dira legenar-kasuak. Iberiar penintsulako lehen aipamena, Nafarroan aurkitutako erromatar garaiko Gomazin aztarnategikoa da. Emakumezko baten eskeletoan zenbait aztarna berezi aurkitu ziren: eskuak deformaturik, hatz-puntak erdi desagertuta zeudelako, sudurra eta goi-masailezurra eraldaturik, eta peroneetan gaineko ehunaren periostitisa (infekzioaren seinalea). Zalantzarik gabe, legenar eritasunaren markak ziren.

6. PALEOESTOMATOLOGIA: HAGINETAKO GAITZAK

Paleopatologiaren barnean Paleoestomatologiak hagin eta aparatu mastekatzailea aztertzen ditu. Masailezurren eta haginen egoerak informazio ugari ematen digu gizakiei buruz: haginetako gaixotasunak, dieta eta elikagaien inguruko ohiturak, elikagaien gabezia-prozesuak...

Haginetan azter daitezkeen aztarnak honako hauek dira:

a. Txantxarra (kariesa). Haginen prozesu suntsigarria.

b. Lertzoa. Hortz eta haginetan itsasten diren eligaien arrastoak kaltzifikaturik. Higienearen adierazgarria da.

c. Albeoloen atzera-egitea. Hortzoiek atzera egiten dute eta ondoren albeoloek ere atzera egiten dute, hortz eta haginen erroak bistan utziz eta galtzeko arriskua eraginez.

d. Haginetako higadura. Erabiltzearen poderioz, haginak higatuz joaten dira. Higadura zahartasunaren seinale izan daiteke. Neolito Aroan higadura oso arrunta zen, gordinik eta egosi gabeko janariak hartzen zituztelako.

e. Hipoplasia edota esmaltearen aldaketak. Ume-garaiko elikagaien gabezia--prozesuek eragina dute esmaltearen formazioan. Esmaltea ez da jarraia eta leuna; banda horizontal edota bertikal batzuk ageri ditu.

Historian zehar, txantxarren presentzia areagotuz joan den neurrian, higadurarena gutxituz joan da. Janari-motaz gain, gertakizun horretan kontuan hartu behar den beste faktorea bizi-itxaropenarena da, zeren, bizitza motza zen garaietan, txantxarra garatzeko ahalmen txikiago baitzegoen.

Azkeneko hamarkadan ikerketa ugari egin dira hipoplasia eta gabezia-prozesuak elkarrekin erlazionatuz. Hala eta guztiz ere, gaia jorratzeke dago.

Anekdota gisa, oso aipamen gutxi baitaude, haginek herri-ohiturak erakusten dizkigute. San Martin Buruntza elizaren kanpoaldean (Andoainen) aurkitutako gizonezko bati dagozkion masailezurrek oso higadura bitxia ageri dute. Biribil formako hiru bitarte ikusi ahal ditugu ezkerreko aldean. Izan ere, kaolinez eginiko erretzeko piparen zurtoina eusteko balio zioten. Higadura-mota hori, pipa haginen tartean harrapatua izateko eragin zuen presioak sortu du.

7. TREPANAZIOAK

Doménec Campillo neurozirujau eta paleopatologo ezagunaren teoriari jarraituko diogu. Bere tesian mediterranear inguruko mila burezur baino gehiago aztertu ondoren, trepanazioaren ikertzaile aitzindaria bilakatu da.

Trepanazioa, berez, burezurrean zulo bat irekitzea da. Zulatzeko erabiltzen zen tresnari "trepano" zeritzon, eta hortik eratorri da izena. Aspaldidanik arreta handia sortu du, harrigarriak gertatzen direlako burezurra irekitzeko zuten ausardia eta, bereziki, interbentzioa egin eta gero gaixoak bizirik irautea.

Neolito Arokoak dira gure inguruan dauden trepanazio antzinakoenak. Hain zuzen ere, Arabako Fuente Hoz kobazuloan aurkitu zen Euskal Herrian ezagutzen den trepanazio handiena (25 cm^2). Neolito Aro bukaerakoa da, halaber, San Juan ante Portam Latinam aztarnategia, non trepanazio batzuk topatu diren. Erdi Aroko beste adibide batzuk ere badaude: Ordoñana, Faido... Beraz, zenbait kasu desbribatu dira Euskal Herrian (7. irudia).



7. irudia: Ordoñanako trepanaziodun burezurra: Ebakuntza-teknikaren bitartez lorturiko trepanazioa. Oso argi nabari dira harri zorrotzez egindako markak.

Trepanazioa egiteko deskribatu diren teknikak honako hauek dira:

1. *Igurtzizko higadura* (*legraketa*): Larrua ebaki eta aldameneratu ondoren, hezurra agerian dagoela, harri batez burezurra urratzen hasten da igurtziz. Prozesu hori errepikatuz, burezurra zulatzen da. Era honetan lortzen den trepanazioa biribila da, eta inguruan higaturiko orla bat du. Teknika hau erabiliz egin zen Fuente Hoz-eko trepanazioa eta San Juan ante Portam Latinam-eko frontal batekoa.
2. *Zulaketaren teknika*: Ertz zorrotza duen harri bat jirabiraka erabiliz egiten da zuloa. Trepanazioak ez dira handiak izaten. San Juan ante Portam Latinam-en ezagutzen da adibide bat.

3. *Ebakuntza teknika*: Ertz zorrotzeko harriaz lauki formako irekidurak egiten dira, behin eta berriro igurtziz. Lauki formako hezur-zati hori ken daiteke izkina batean palanka eginez. Teknika honen adibide garbia dugu Erdi Aroko Ordoñana nekropoliko burezur batean.

D. Campillo-ren ustetan, trepanazioek ez zuten balio terapeutikorik, hau da, ez ziren burezurrak irekitzen gaixotasunei aurre egiteko edota sendotzeko asmoz. Hain zuzen, ondorio horretara iritsi da, honako ezaugarriak aztertu eta gero:

– Egindako trepanazioak ez ziren edozein tokitan egin, irekitzeko errazenak diren hezurretan baizik: frontaletan eta parietaletan.
– Egiten zituzten zuloak ez ziren beti burmuinera iristen. Helburua funtzio terapeutikoa balitz, ezinbestekoa izango zen garuna operatzea.
– Gizonezkoen burezurrak dira nagusiki trepanazioa dutenak.
– Trepanazio gehienak burezurreko ezkerraldean zabaltzen dira, trepanazioa egin zutenak eskuinak zirelako. Erraztasuna bilatzen zuten.
– Ez da azpihelduengan edo umeengan trepanaziorik ezagutzen.
– Trepanazioak ez daude traumatismoekin erlazionaturik.


8. MOMIAK EUSKAL HERRIAN

Badira ere Euskal Herrian gorputz momifikatuak. Ezagutzen diren guztiak era natural batean momifikatu dira. Hau da, usteltzen hasi baino lehen, gorpuaren deshidratazioa gertatu da, inguruko egoerak ahalbidetzen zuelako (aireatua eta lehorra zelako).

Ondoen azterturiko momia Arrasateko San Juan Bautista parrokian gordetzen den gorpua da. 1607an hil zen Ines Ruiz Otalorakoaren gorpua dela jakin dugu, dokumentazioan jasota dagoen bezala. Emakume hura jatorriz Aretxabaletako Otalora familiako kidea zen. Beraren senarra, Rodrigo Oscarizkoa arrasatearra, Felipe II.aren idazkaria izan zen. Ines Ruiz Otalorakoa Valladoliden hil zen, eta Arrasatera ekarri zuten gorpua, jadanik momifikatuta zegoela. Ziur asko, ustelgabe kontserbatzea mirari eta jainkozko ikutuarekin nahastu zen (8. irudia).

Denborarekin, herriak Santa Ines izendatu zuen. Bere inguruan sineskeria ugari sortu ziren. Lo-nahasketetan eragin ona izan zezakeelakoan, berebiziko debozioa gauzatu zen.

Izenak “amets”-ekin errima egiten duenez, eta letanietan hitzek gorde behar duten zentzu magikoa kontuan hartuz, herriak zenbait otoitz asmatu zituen. Euskal Herri osoan zehar zabaldu ziren letania horiek, tokian tokiko egokitzapenekin, eta ia gaur egun arte egon dira indarrean.



8. irudia: Ines Ruiz Otalorakoaren momia: Euskal Herrian ondoen kontserbaturik ezagutzen den momia.

Hauek dira batzuek:

Amandre Santa Ines,
Bart egin dut amets,
Ona bada, bion partez,
Eta txarra bada, nondako bes.

(Arrasaten jasoa)

Amandre Santa Ines,
bart egin det amets:
onez edo gaitzes,
Gorde nazazu gaitzes.

(Bidanian, J. M. Barandianek jasoa)

Amandre Santa
Bart egin det amets:
Berriz egin eztezadala,
Ez gaitzez eta ez onez.

(Amezketan, J. M. Barandianek jasoa)

Andra Santa Ines,
bart egin dot amets
ona bada berroren partez;
Tzarra, beioa artez.

(Garaien, J. M. Barandianek jasoa)

Beste sainduei eskainita, baina letaniaren egitura mantenduz honako hauek:

San Mames, San Mames,
Gaur gabean agingo amets.
Ona bada, bi egin partez;
Eta txarra bada, aldrebez.

(Zamudion, G. Arregik jasoa)

Ama Birjina Kodes,
Nik eiten dot amets,
izan dadila onez.

(Iturenen, J. M. Barandianek jasoa)

Badira Euskal Herrian beste momia batzuk: San Fausto Nekazaria (Buxanda, Araba), Durangoko kondeak (Elorrio), Santa Felizia (Labiano, Nafarroa), Ama Katalina (Iruñea) eta Leonor de Calbo (Astigarraga, Gipuzkoa).

Hauekin batera, eta santutzat hartuak, ezagutzen dira beste antzeko batzuek, baina benetako momiak ez direnak. Izan ere, gorputz berregituratuak dira. Hain zuzen, XVI. mendetik aurrera erlikien merkatu zabala antolatu zen Europako mendebaldean. Eskeletoak alanbrez armatzen ziren. Gainetik jantziak jartzen zizkieten. Batzuetan, argizariz egindako eskuak eta aurpegia ipintzen zizkieten. Era honetako adibideak dira: Iruñeko Katedralean dauden Santa Deodata, San Fidel, Santa Kolunba eta San Inozente; Arabako Anuzitan dagoen San Bixente; eta abar.

BIBLIOGRAFIA

Askoren Artean (1992): *Actas del I Congreso Nacional de Paleopatología. Munibe (Antropologia-Arkeologia),* **8**. gehigarria.

Campillo, D. (1977): *Paleopatología del cráneo en Cataluña, Levante y Baleares*, Montblanc-Martín, Bartzelona.

————, (1983): *La Enfermedad en la Prehistoria. Introducción a la Paleopatología*, Salvat, Bartzelona.

———— (1987): "La investigación paleopatológica", *Cuadernos de Sección Antropología-Etnografía*, **4**, 179-200.

———— (1993): "Paleopatología. Los primeros vestigios de la enfermedad", *I. Colección Histórica de Ciencias de la Salud*, Fundación Uriach, Bartzelona**, 4**, 1-167.

———— (1994): "Paleopatología. Los primeros vestigios de la enfermedad" *II. Colección Histórica de Ciencias de la Salud,* **5**, 1-123. Fundación Uriach, Bartzelona.

Etxeberria, F. (1990): "Los estudios de paleopatología en el País Vasco", *Munibe (Antropologia-Arkeologia),* **42**, 221-227.

———— (1991): *La enfermedad, desde la Prehistoria a la Edad Media, a través de los estudios de Paleopatología*, Doktoretza-tesia, Donostia.

———— (1992): "La enfermedad en la Prehistoria de Alava", *Aproximación a la Arqueología,* **4**, Araba Foru Aldundiako Arkeologi Museoa, Gasteiz.

———— (1995): "Gaitza eta heriotza Euskal Herriko iraganean", *Ortzadar,* **16**, Mensajero, Bilbo.

———— eta Herrasti, L. (1992): "Bibliografía de las investigaciones sobre Paleopatología en España", *Munibe (Antropologia-Arkeologia),* **8**. gehigarria, 261-278.

Hiri-arkeologia Euskal Herrian. Definizioa, eztabaida eta problematikak[1]

Belen Bengoetxea Rementeria
Euskal Herriko Unibertsitatea

1. SARRERA

Azken urte hauetan askotan entzun eta erabili izan da "hiri-arkeologia" hitz-multzoa gauza ezberdinak adierazteko. Hiri-arkeologiaren parean, eta askotan sinonimo modura, beste izen asko erabili dira: "interbentzio-arkeologia", "premiazko arkeologia" edota "gestio-arkeologia". Guk planteatzen dugun arazoa hauxe da: egokia ote da arkeologia horiek identifikatzea? Zein da hiri-arkeologiaren benetako definizioa? Zein izan daiteke gure artean planteamendu egokia, hiri-arkeologia behar den bezala garatzeko?

Egia esanda, Europako lurralde gehienetan galdera horiek jadanik eginda eta erantzunda dauzkate. Honek esan nahi du, hausnarketa teorikoa garatu dutela gai horren inguruan; baina gure artean honelako oinarrizko beharrizanik ez da sortu. Agian, hori izan daiteke gure hiri-arkeologiaren egoeraren arrazoi bat. Beraz, Europara begira jarri beharko dugu, beraien ibilbide luzeak eskainitako esperientzia eta aurrerapauso metodologiko eta kontzeptualak aprobetxatzeko.

Hori esan eta gero, nahiko nabaria da gure lantxo honen helburua: hiri-arkeologiaren problematikak azterturik, eta gure esperientzia praktikoan oinarriturik, definiziorako proposamen bat egitea, etorkizunari begira gehienbat. Beraz, hemen ez duzue aurkituko azken urteotako hiri-arkeologiari buruzko balantzea, edota aurkikuntzen berri, baina bai balorazio orokorra, eta oinarrizko hausnarketa teorikoa, definizio egoki bat bilatu nahian eginikoa. Gure ustez, premiazkoa izango da hau, gure jakintza-gaiaren garapen zientifikoa lortu gura badugu. Jakina, guk hemen aurkezten duguna proposamen bat baino ez da izango, denboran zehar egoera berrietara egokitu beharko dena, seguruenik.

Izenburuan esparru geografiko bat aipatzen da: Euskal Herria. Baina horren esangura ere zehaztu egin beharko dugu. Gure analisiaren barnean, gaur egungo

1. Artikulu hau, 1/UPV 00156.130-HA-7793/2000 proiektuaren barruan egindako lanen emaitzetako bat da.

Euskal Autonomia Erkidegoa hartu dugu kontuan, hau da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, gehien ezagutzen ditugun lurraldeak direlako, alde batetik, baina baita beste arrazoi batzuengatik ere. Horietariko bat, nolabaiteko batasun geografikoa eta historikoa osatzen dutela kontuan hartzea da; eta horrez gain, gaur egun lege--marko berean sartuta daudela. Ondareari dagokionez, 1990eko Kultur Ondareari buruzko legea izango da markoa, hiri-arkeologiaren ekintzak babes-lege honen barnean sartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan.

2. HIRI-ARKEOLOGIAREN JATORRIAK ETA EUROPAKO AURREKARIAK

Jadanik topikoa da, Europarekin konparatuz, gure egoera zentzu askotan atzeratuta dagoela aipatzea; baina gure kasuan, topikoa bete egiten da; eta, nabaria da Europako lurralde gehienak gure aurretik doazela, hiri-arkeologiaren hausnarketa teoriko eta metodologikoari dagokienez ere.

Denboran zehar, ukaezina da hiriak arkeologoen eta bildumazaleen artean sortu duen interesa. Erroman XVI. mendean eginiko indusketak jarriko ditugu adibide gisa, Aro Klasikoko aztarnak, eta, horien artean, aztarna monumental eta ikusgarrienak errekuperatzeko asmoz egin zirenak, hain zuzen. Italiako beste hiri batzuetan, eta baita gainerako Europako beste askotan ere, XVIII, XIX eta XX. mendeetan eginiko ekintzak antzeko interesei dagozkie. Egia esanda, hirien ikerketa arkeologikoa hiri klasikoen azterketa eginez hasi zen, eta, hauen artean batez ere, eraikin ikusgarriak hartu ziren kontuan, publiko nahiz pribatuak; baita defentsarako eginiko egiturak ere. Honelako indusketak oso modu errazean egin ziren, eta emaitza ikusgarriak lortu zituzten, zeren eta, normalean, bertan behera utzitako guneak baitziren ikertzen zirenak, eta ez gaur egunera arte bizirik iraun duten hiriak.

Denbora luzeagoa itxaron behar izan zen Erdi Aroko hiriak aztertzeko interesa suspertu arte. Kasu honetan ere, eraikin monumentalenak izan ziren lehenik aztertu zirenak (elizak, monastegiak, jauregiak...), interbentzio puntual eta isolatuen bidez ezagutu baitziren. Azken finean, oso gutxitan hartu izan zen aztergaitzat hiri osoa, eta hiriaren bilakaera (M. Biddle, 1982).

Dena den, arkeologia-mota horrek ez du zerikusi handirik gaur egun egiten den edo egin beharko litzatekeen hiri-arkeologiarekin. Izan ere, benetako hiri--arkeologiaren abiapuntua Ingalaterran dago 1940ko hamarkadan, hain zuzen. Han, Mundu Gerra zela-eta jasandako bonbardaketen ondorioak aprobetxatu ziren lehen interbentzio arkeologikoak egiteko. Urte haietan hiri asko suntsituta geratu ziren, horien artean Londres, Winchester, Canterbury eta Southampton. Benetako hiri-arkeologia esan dugu, zeren eta lurralde horretan eginiko jarduera arkeologikoak ez baitziren isolatuta geratu. Aldiz, ezaugarri gisa azpimarratzekoa da ekintza horien jarraitutasuna. Hiri anglosaxoniar horietan hasi ziren indusketa-teknika berriak esperimentatzen, adibidez, eta, ukaezina da, hor dagoela Europako hiri-

-arkeologiaren oinarria. Hasierako fase hori 1973an amaitu zela esan dezakegu, Hudson-ek eta Biddle-k *The Future of London's Past*[2] liburua argitaratu zuten urtean, alegia. Lehen fase horren ekarpen nagusia, oinarrizko arazo teoriko eta metodologikoak planteatzea izan zen; batez ere, hiri bateko deposituen gestioaren zailtasun eta konplexutasunari dagozkionak.

Lehen esperientzia honen ondorioz, beste lurralde batzuetan ere antzeko interesa suspertu zen 1970eko hamarkadan, batez ere Frantzian eta Alemanian. Frantziako kasuan aipagarriak dira Tours-en buruturiko proiektuak. Arkeologia ekinkide moduan agertu eta garatu zen, indusketa estratigrafikoari loturiko teknika berriak aplikatuz, eta ondare arkeologikoaren babesa ardatz moduan harturik.

Baina benetako heldutasun teorikoa 1970eko hamarkadaren eta 1980ko hamarkadaren artean lortu da gehienbat, nahiz eta oraindik ere heldutasun-prozesu hori amaitu gabe egon, lurralde batzuetan batez ere. Heldutasun-maila hori Ingalaterran lortu zen gehienbat. Hasteko esan daiteke, arkeologiaren adar hau beste adar askoren suspertzailea izan dela, eta, adibidez, ekarpen handia izan da indusketa estratigrafikoaren garrantzia azpimarratzea, eta praktikan jartzea. Horrela, urrats oso nabariak eman dira hiriaren prozesu estratigrafikoen ezagupenean. Gogoratu Harris erregistro-sistemak ere jatorri "hiritarra" duela. Hala ere, akats larri bat ere aipatu behar dugu: ikerketaren proiekzio eskasa eta emaitzen argitalpenik eza edo argitalpen ezegokiak.

Dena den, hori guztia ikusirik, arkeologo ingelesek ondokoa planteatu zuten, alegia, "premiazko" arkeologiak ez zuela inolako zentzurik jarduera-programa baten barnean sartu gabe. Ahalegin izugarriak egin eta gero, ateratako informazioa erregistroetan geratzen zela ikusi zuten, argitaratu gabe eta ikerketa historikoan integratu gabe. Egoera hori aldatzea izan da beraien helburuetako bat, eta eztabaida teoriko horrek bere emaitzak ekarri ditu, maila ezberdinetan sailka daitezkeenak: a) hirietako estratifikazio-prozesuen ezagupena, b) depositu arkeologikoen ebaluazioa eta balorazioa, eta c) hiri batentzat edo hirigune-sare zehatz bati dagokion ikerketa-estrategiaren diseinua[3].

Azken puntua berriz hartuz, Europako hiri-arkeologiaren beste proposamen bat aurkeztu behar dugu, hots, diseinatutako programazioa ezin dela hiri bakar batera mugatuta egon, eta, zehatzago esanez, ikerketaren esparrua nolabaiteko batasuna erakusten duen lurraldera zabaltzea da proposamena. Honek esan nahi du, hiria bera eta bere aldameneko eskualdea —hau da, bere lurraldea— ikertu beharko direla, ondorio historikoak atera gura baldin baditugu. Egia esanda, azken

2. Argitalpena informe baten emaitza da. Informe horretan nahiko modu alarmagarrian islatu ziren Ingalaterrako hiri historikoen ondarearen egoera eta etorkizuna. Liburu horrek sortutako ideia alarmistaren harira, hiri-arkeologiari lotutako proiektu asko gauzatu ziren Britania Handian 1970eko hamarkada horretan.

3. R. Francovich eta D. Manacorda (2000, 350-355).

urteotako joera nabaria da hiriaren eta nekazari-inguruaren arteko erlazioa ikertzea. Kontrakoa gertatzen zen hasierako hiri-arkeologian; izan ere, lehen aipatu dugunez, hiri bakar bat hartzen zen aztergai eta bertan egiten ziren indusketa guztiak.

Hiri-arkeologiari dagozkion azken argitalpenetan beste ideia bat ere islatzen da: azken urte hauetan hiri-arkeologia krisialdi-etapa jasotzen ari da nolabait, bai Italian, bai Ingalaterran; eta krisialdi horren arrazoi bat da, indusketetatik ateratako datu-kopuru ikusgarria garaiz argitaratzearen ezina. Horixe da, halaber, gehien kritikatu den ezaugarri negatiboa[4].

Dena den, krisialdia jazotzen den arren, ukaezina da hiri-arkeologiak garrantzizko emaitzak lortu dituela Europan planteatu diren eztabaida historikoetan; eta zentzu berean, Antzinate Berantiarraren eta Goi Erdi Aroaren arteko trantsizioko faseak dituzten hiriei dagokienez. Gaur egun, eztabaida hori zabalik eta bizirik dago Europako historialarien eta arkeologoen artean.

3. GURE HIRIAK ETA HIRI-ARKEOLOGIA

"Hiri-arkeologia" hitzaren esangura adieraztea —hau da, gure jakintza-gaia definitzea— ez da batere gauza erraza; baina, hasteko, esangura bikoitza duela esan deza-kegu[5].

Alde batetik, "hiri" hitzak jarduera arkeologikoa gertatzen deneko marko espaziala adierazten du; hau da, hiri baten barnean praktikan jartzen den arkeologiaren aurrean gaude, baina ez edozein hiritan, habitataren jarraitutasuna duten hirietan baizik. Jarraitutasuna aipatzen dugunean, fundazio-momentuan hasi eta gaur egunera arteko habitatari buruz ari gara. Beraz, historia luzeko hiri moderno eta bizi batean praktikatzen den arkeologia izango da; gure lurraldean —kasurik gehienetan— jatorri hori Erdi Arokoa da. Nabaria da esparru topografiko horrek jarduera arkeologikoak egiteko moduak ere baldintzatzen dituela; zeren eta zailtasun estratigrafikoari beste bat gehitzen baitzaio, alegia, mota oso ezberdinetako interesak biltzea hirietan: interes ekonomikoak, politikoak, hirigintzazkoak, sozialak... Bertan kontzentratzen dira eskakizun eta tirabira gehienak eguneroko bizitzan ere. Bestalde, ezin dugu ahaztu, hiri modernoek hazkunde-erritmo biziak izaten dituztela; horrek esan nahi du, hirigintza-proiektu berriak egiten direla, horre-

4. R. Francovich eta D. Manacorda (2000, 350-355).

5. Esangura bikoitz hau izan da, hirietan praktikatzen den arkeologia-mota ezberdinak izendatzeko eta hierarkikoki ezberdintzeko erabilitako argumentua. Argitalpen askotan ikus daitezke "gestio-arkeologia", "interbentzio-arkeologia" edota "salbamenduzko arkeologia" izenak. Jakina, kalifikatibo horiek, berez, ez dute esangura negatiborik, baina, normalean, beste arkeologia-mota batekin konparatzeko edo horretatik ezberdintzeko erabiltzen dira. Bigarren arkeologia-mota "ikerketa-arkeologia" deritzona da. Konparaketa honek ondokoa adierazten du nolabait, alegia, aurreko arkeologia-motak ez duela hartzen ikerketa ardatz nagusi gisa. Jakina, ezin gara ados egon banaketa "manikeo" horrekin.

tarako eraikuntza-teknika berri eta suntsitzaileak praktikan jarriz, eta, ondorioz, lurpeko substratu arkeologikoa ere suntsitzeko arrisku izugarrian geratzen dela.

Desagerpen/suntsitze-prozesua 1960ko hamarkadan hasi zen modu agerian, eta gaur egun ere jarraitzen du. Era berean, honek beste betebehar bat ere badakarkigu; hots, kontserbatzen den ondare arkeologikoa babesteko beharrizana, baina hiriaren erritmoak geldotu gabe, hain zuzen. Horixe da hiri-arkeologiaren lehen esangura, ezin ahaztu duguna, zeren eta marko espazialak beti baldintzatuko baitu ikerketa egiteko modua. Zailtasun horrek beste zerbait ekarriko du ondorio moduan: hausnarketa-ahaleginak eta egingo diren interbentzioak orientatzeko helburuak oso ondo zehaztu beharra. Ikusten denez, hirian beharrizan zehatzak biltzen dira: ikerketari, ondarearen premiazko babespenari, jardueren planifikazioari, kontserbazioari eta hedakuntzari dagozkienak. Beraz, ezaugarri oso garrantzitsua izango da, hiri-arkeologiak hiriaren gaur egungo garapenarekin duen erlazioa. Hiri modernoaren erritmoak jarraitu eta aprobetxatu beharko ditu, bere helburuak betetzeko.

Orain arte azaldu dugun esangurak ikerketa egiteko espazioa zehazten du; hau da, definizioaren alde honekin bakarrik geratzen bagara, hirian egiten den arkeologia baten aurrean gaudela esan beharko genuke. Baina benetako "hiri-arkeologia" ez da hirian egiten den arkeologia, hiriaren arkeologia baizik. Antzemango zenutenez, terminoaren esangura tematikoa da bigarren eta garrantzitsuen hau. Beraz, hiri-arkeologiaren azken helburua, eta ikerketaren ardatz nagusia, hiria bera da. Hiri osoa da aztergaia, zeren eta ezaugarri fisiko, topografiko eta materialen bitartez hiriko biztanleei buruzko datu berriak izango baititugu, beraien eguneroko bizitza eta jarduerei buruzkoak, hain zuzen. Oinarrizko ideia honako hau da: hiri osoa arkeologiaren bidez ikertzea, baina aldi guztiak eta mota guztietako aztarnak kontuan harturik, hau da, zaharrenak eta berrienak, zeren eta helburua hiri horren historia berregitea baita, jatorrian hasi eta gaur egunera artekoa, alegia. Zentzu horretan, gure jakintza-gaiak, hirian egiten den arkeologia ez ezik, hiriaren arkeologia izan behar du[6]. Azken finean, edozein arkeologia-adarretan gertatzen den bezala, gure arkeologiak ere helburu zientifikoa izan behar du nahitaez, eta helburu zientifiko horren oinarria hiria eta bere garapen historikoa ezagutzea da. Dena den, kontuan hartzeko beste ohar bat ere egin behar dugu: gauza bat izango da hiriaren elementuak deskribatzea eta zehaztea, baina beste bat elementu horien arteko barne-erlazioak ezagutzea, eta etengabeko aldaketak ulertzea. Azken hau da benetako hiri-arkeologiaren lana.

Laburbiltzeko, ondoko ideia aipatuko dugu: hiria oso gune konplexua da bi aldetatik, hots, bai ikergai moduan, bai ikerketa gauzatuko deneko marko espazial moduan. Egia esanda, arkeologiaren barnean aldaketa nabariak ekarri dituzte bi ezaugarri horiek, eta, beste batzuen artean, Harris erregistro-sistemaren sorkuntza

6. Kontzeptuaren zehaztasun hau ingelesei zor diegu. Ikus M. Biddle (1982, 47-53) eta (1968).

(H. Harris, 1991) eta garapena aipatu behar da, baita talde profesional berriak sortzea ere, adibidez.

Orain arte hiria ikergai gisa eta jarduera arkeologikoen marko modura aipatu dugu; baina, gure kasuan, zer da hiria? Egia esanda, gaur egungo hiria hitza fenomeno oso ezberdinak izendatzeko erabili izan da mundu osoan, eta, azken finean, ez dago hiriaren definizio bakar bat. Izan ere, ikuspuntu ezberdinen arabera sortzen dira definizio ezberdinak. Orain ezin ditugu definizio ezberdin horiek sakon aztertu, baina gure ikerketaren barnean hiria zer den adierazi beharko dugu; hain zuzen, gure kasuan, iragan historikoak markatzen digu hiriaren kontzeptua.

Ikertzen ari garen lurraldeko hirigintza-tradiziotik birpasatxo bat egiten badugu, esan dezakegu ezen, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoa den lurraldean, hiritzat har daitezkeen lehen guneak erromatar garaikoak direla; eta horrez gain, oso gutxi direla, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan. Era berean, oso ezaguna da Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko "iluntasun historikoa" (bi aro horiek gero eta "argiagoak" izan arren) nabaria dela, eta, momentuz behintzat, ez dela atzeman hiri-izaera zuen gunerik.

Gauzak horrela, oro har, Behe Erdi Arora arte ez ziren azaldu benetako hiriguneak gure lurraldean. Gune horiek hiribilduak izan ziren. Hiribilduen fundazio-prozesua oso trinkoa izan zen gure lurraldean, gauza ezaguna denez. Kontuan izan ezen 1140 eta 1383. urteen bitartean hirurogeita bederatzi hiribildu sortu zirela Bizkaiak, Arabak eta Gipuzkoak gaur egun osatzen duten Erkidegoaren lurraldean. Jakina, horrek aldaketa izugarrizkoa ekarri zuen espazioaren antolaketan eta populazioaren banaketan. Zalantzarik gabe, aldaketa sakon eta garrantzitsu batez hitz egin daiteke.

Gune eta egitura sozial, ekonomiko eta juridiko berri horrek —hots, hiribilduak— ezaugarri bereziak agertzen zituen, hiribildua beste guneetatik modu nabarian ezberdintzen zutenak. Hasteko, normalean hiribildua gune kontzentratua izaten zen, harresitua, Hiri-Gutun edo *Carta Puebla* baten bidez sortua. Hirigune berri haiek aldatu egin zituzten nolabait beren aldameneko nekazari-guneak ere, zeren eta nekazaritzako espazioaren antolatzaile-eginkizuna ere bereganatu baitzuten. Hirietan jarduera ekonomiko zehatzak izan ziren nagusi, bereziki hiri handietan: merkataritzari eta eskulangintzari buruz ari gara.

Normala denez, hirigintzaren ezaugarriak eta kultura materiala errealitate berri honen isla eta zatia ziren, oro har. Honen harira, kontuan izan, gune gehienetan aldez aurretik planifikaturiko hirigintza-programa nabaria zela. Dena den, argi eduki beharko dugu, guregana iritsi diren hiribilduen oinplanoak denboran zehar sorturiko gauza direla; iturri historiko modura erabili nahi izanez gero, behintzat. Izan ere, historian zehar izandako garapen hori da gure ikergaia, alegia, planoan islatzen den prozesu historiko luzea.

Gune berri horien oinarrizko osagaia harresia zen, gune berriaren esparrua mugatuz eraikitzen zena. Begien bistakoa da harresiaren helburu defentsiboa; baina agian garrantzitsuagoa izan daiteke elementu horren eduki sinbolikoa. Horregatik kontserbatu eta zaindu izan da denboran zehar, baita aipatu dugun defentsarako helburua galdu eta gero ere. Eduki sinbolikoa diogu, zeren eta errealitate juridiko ezberdinen mugaren zeregina ere betetzen baitzuen[7]. Euskal Herriko hiribilduetan harresiak bizigunea baino ez zuen mugatzen, normalean azalera txikikoa izaten zena (batez beste, 4 hektareako azalera zuten).

Ondoren, kaleen trazatutak markatzen zituen etxeguneen ezaugarri eta neurriak. Normalean kale bakarra edo gehiago ziren, paraleloan trazaturik, eta kantoiz gurutzatuak. Horrela sortzen ziren etxe-sail trinkoak, orube ezberdinetan bananduak. Horixe zen gure hiribilduen beste ezaugarri bat: trinkotasuna, zeren eta beraien barnean ez baitzen geratzen lekurik espazio publiko zabalak sortzeko. Izan ere, kaleak ziren gune horien esparru publiko nagusia; eta hasiera batean, bakarra.

Gune berri horiek izan ziren Aro Berriko garapen ekonomikoaren protagonistak. Garai horretan sendotu eta indartu ziren, eta horietariko asko —batez ere Euskal Herriko alde atlantikoan— garrantzi ekonomiko eta industrial handiko gune bihurtu ziren. Egia esanda, hiribilduak dira gaur egungo populazioa baldintzatzen dutenak, zeren eta gaurko hiriburu gehienek Erdi Aroko fundazio horietan baitute jatorria. Beraz, trinko okupaturiko espazioak, eta, horrez gain, historia luzeko guneak direla esan daiteke. Jakina, hori guztia hiribilduek gordetzen duten ondare arkeologikoan ere nabarituko da. Dena den, hauxe izango da gure hurrengo puntua: gune horietako ondare arkeologikoaren ezaugarri nagusiak zein diren zehaztea, berezitasun horiek baldintzatuko baitute ikerketa planteatzeko modua.

Gure esperientzian oinarrituz, aldez aurretik esan behar dugu potentzial arkeologiko nahiko mugatua dutela gure hiribilduek. Nabaria denez, baieztapen hori modu orokorrean hartu behar da, salbuespenak ere badaudelako. Behe Erdi Aroan sorturiko hiribildu gehienetan, praktikan behintzat, ez dira kontserbatzen jatorrizko aztarnak, hau da, XII-XIII. mendeetakoak. Arrazoiak oso ezberdinak izan daitezke: alde batetik, etxeak eraikitzeko zura erabiltzea aipatu behar da, zeren eta material hori ez baita ondo kontserbatzen baldintza zehatz eta berezi batzuk betetzen ez badira. Bestalde, lehen ere aipatu dugu azalera txikiko guneak zirela, eta modu trinkoan okupatuta egon direla denboran zehar. Horren eraginez, fase berantiarrak (Aro Berrikoak eta Garaikidekoak) aurrekoen gainean bilakatu ziren, eta, horren ondorioz, askotan gertatu da zaharrenak ikututa geratzea edo desagertzea. Era berean, maiz atzeman da arkeologikoki, Aro Berriko egiturak egiteko aurrekoak ia erabat suntsitu izana. Egia esanda, Aro Berrian aldaketa sakonak

7. Gaur egun ere, ezberdintasun juridiko horren aztarna batzuk mantentzen dira, batez ere jarauntsiei dagokienez, esate baterako.

egin ziren hirigintzari dagokionez. Horrez gain, beste zerbait ere aipatu behar dugu: Euskal Herriko hiribilduetan, aurreko aztarnak aprobetxatzea baino gustukoagoa zuten haien ordez egitura berriak egitea (A. Azkarate eta I. García Camino, 1996). Honen guztiaren ondorioa nahiko ezaguna da: normalean, dokumentatzen diren aztarnarik zaharrenak XV-XVI. mendeetakoak dira. Beraz, ateratzen den informazio gehiena Erdi Aroko azken faseetakoa da, Aro Berrikoa gehienbat.

Baina, zorionez, hiribilduetako ondare arkeologikoa ez dago lur azpian bakarrik. Kasu honetan, begien bistan kontserbatzen diren aurreko faseetako aztarna arkitektonikoez ari gara. Jadanik nahiko ezaguna da "arkitekturaren arkeologia" praktikatzea Europako lurralde batzuetan. Artikulu honen helburua ez da arkeologiaren adar hori definitzea, edo zertan datzan azaltzea; baina adar hori aipatzea ezinbestekoa da hiri-arkeologiaren barnean. "Arkitekturaren arkeologia" tresna oso interesgarri bihurtu da azken urteotan, aztarna arkitektonikoak estratigrafikoki —eta beraz, arkeologikoki— irakurtzeko. Teknika arkeologiko horren oinarria eraikina elementu bizitzat hartzea da, hau da, eraikina denboran zehar sorturiko zerbait modura kontsideratzea, eta ez fase batean edo beste batean fosilizatuta geratu den aztarna modura. Beraz, eraikina aztarnategi modura tratatu eta ikertzea da oinarria. Teknikaren bigarren oinarrizko ideia da kontuan hartzea ezen metodorik egokiena lur azpia eta eraikina modu homogeneoan irakurtzea dela, muga gaindiezina lurrean jarri beharrean. Horrela baino ezin izango dugu ulertu hiriaren konplexutasuna. Beraz, ondare eta aberastasun arkeologikoa lur azpian ez ezik, begien bistan ere bilatu behar da.

4. ONDORIOAK ETA AZKEN PROPOSAMENAK

Jadanik planteatuta utziz ditugu hiriaren azterketa arkeologikoak dakartzan arazoak eta berezitasunak. Orain tokatzen zaiguna, azken proposamen batzuk botatzea da, etorkizunari begira gaur egungo egoera hobetu guran. Gure ustez, hurrengo puntuak landu beharko lirateke, hurrengo urteetan hiri-arkeologiaren potentzial guztia atera eta aprobetxatu nahi bada. Hona hemen gure proposamenak:

Gure hiribilduetako ezaugarri historiko eta estratigrafikoez jabetzen bagara, nahiko nabaria da, Behe Erdi Aroko eta Aro Berriko arkeologiaren ildotik jo beharko dugula. Honek esan gura du, fase horietako problematika historiko nagusiei aurre egiteko gai izan beharko dugula, eta, hori lortzeko abiapuntua, galdera horiek planteatzea da, erantzuna aurkitu nahi badugu behintzat. Ideia horren harira, beste bat ere aipatu behar da: arkeologia ez da mugatzen lur azpira, zeren aztarna arkitektoniko historikoak —gure hiribilduetan nahiko ugariak direnak— arkeologikoki irakur baitaitezke, eta halaxe irakurri beharko baitira. Zentzu horretan, hirietako onda-re arkeologikoaren aberastasuna ere azpimarratzekoa da.

Aurreko baieztapenak beste bat dakar ondorio gisa: marko kontzeptual sendo baten beharra, hots, hausnarketa teorikoaren beharrizana; hain zuzen, gure artean arlo hori ez da batere jorratu, beti joan izan baita aurretik jakintza-gaiaren alde praktikoa eta metodologikoa. Zentzu horretan zabaldu dira Europako arkeologoen kritika zorrotzenak. Marko kontzeptuala garatzen ez badugu, alferrik egingo ditugu beste lan guztiak.

Hiri-arkeologiaren inguruan lan egiten dugun arkeologoen artean, beste hitz bat ere oso garrantzitsua izaten da: egokitze-ahalegina. Benetan beharrezkoa izango da egokitze-prozesua, zentzu guztietan. Arkeologiaren helburu zientifikoak hiriaren egoera bereziari egokitu behar dira, bertan buruturiko lanak eta proiektuak zentzu horretan aprobetxatzeko. Premiazkoa da galdu behar diren datuak biltzea, eta behar den momentuan biltzea, noski; baina ikerketa-proiektu batean sartu eta integratuz. Beraz, ikerketa hutsa ikerketa aplikatua deritzonarekin konbinatu beharko da. Horrek guztiak esan nahi du ezen, ahal den neurrian, egokitu egin beharko direla arkeologiaren erritmoak eta hiriaren erritmoak. Horrez gain, planifikazio--lanetarako, datu arkeologikoak modu egokian, ulergarrian eta praktikoan erakutsi behar zaizkie hirigintza-plangintzaren arduradunei. Erabilgarritasuna izan daiteke gakoa (F. Criado Boado, 1996).

Egokitze-ahalegin hori, beste mota bateko egokitzearekin ere konbinatu beharko da; hots, ikerketa-estrategia edo indusketa-estrategia baliozkoak erabili beharko ditugu, lehen aipatu dugun helburua lortzeko. Kasu askotan, eta, batez ere lurralde zehatzetan, premiazko gauza hori ez da betetzen, eta hiriaren ikerketa izan beharrean interbentzioen oinarria, kasu askotan ikertzen den orubea lehenbailehen liberatzea izaten da gauzarik garrantzitsuena. Guk proposatzen duguna, estrategiak helburuei eta egoerei egokitzea da, baina, beti ere, azalera zabaleko interbentzioak egitea, aurkitzen diren aztarnak hobeto interpretatzeko, eta tokiko estratigrafia ezagutzeko.

Hori guztia ezinezkoa izango litzateke legezko babes-tresnak erabili gabe. Beraz, kontuan hartu beharko ditugu Kultur Ondareari buruzko legea, alde batetik, eta hiri bakoitzeko hirigintza plangintzak, bestetik. Ondare arkeologikoa behar bezala babestu, ezagutu eta ikertzeko, ezinbestekoa izango da ondare hori hiriaren hirigintza-planetan sartzea, eta bertan kontuan hartzea. Bestela, ezinezkoa izango litzateke lehen aipatu dugun elkarrekin egokitzerako ahalegina. Jakina, horrek beste zerbait ere esan nahi du: ondare arkeologiko hori ahalik eta modu sakonenean ezagutu beharko da, babes-neurri egokiak hartzeko.

Hiri-arkeologiaren beste arazo larri bat argitalpenen maila eskasa da. Denok dakigu interbentzio arkeologiko asko egiten direla hirietan, baina emaitzak ez dira sistematikoki argitaratzen, salbuespenetan baino. Horregatik, arkeologiaren adar honen emaitzak eta ekarpenak beti izan dira kritikatuak. Bibliografia ikustea baino ez dago ezaugarri horretaz ohartzeko. Arrazoiak ezberdinak izan daitezke, baina

hauetako bat argitalpenak egiteko foro egoki bat (aldizkari...) ez edukitzea izan daiteke. Halere, ezin da ukatu arkeologo batzuek beste arkeologia batzuetara dedikatzen dituztela beren ikerketa-interesak eta ahaleginak, eta hiri-arkeologia bigarren mailako gauzatzat hartua izan dela. Hiri-arkeologia benetako arkeologia —hau da, ikerketa— bihurtu nahi badugu, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu egoera hori gainditzea; bestela, gure jakintza-gaia metodologia huts bihurtzeko arriskuan gaude.

BIBLIOGRAFIA

Askoren Artean (1978): *Las formas de poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*, Bilbo.

————, (1982): *Actes du Colloque International. Tours 17-20 novembre 1980*, Tours.

————, (1995): *Informes de la construcción: leer el documento construido*, vol. **46**, 435. zkia, Madril.

————, (1999): *Rapport sur la situation de l'archéologie urbaine en Europe*.

Arízaga, B. (1990): *Urbanística medieval (Guipúzcoa)*, Kriseilu, Donostia.

————, (1996): "Permanencias urbanísticas en las villas medievales vascas", in *Revisión del Arte Medieval en Euskal Herria*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 29-50.

Arkeoikuska aldizkaria

Azkarate, A. eta García Camino, I. (1996): "La ciudad, documento histórico: reflexiones sobre la práctica de la arqueología urbana en la Comunidad Autónoma del País Vasco", *Kobie (Serie Paleoantropología),* **XXIII**, 141-161.

Azkarate, J. M. (1978): "Aspectos generales del urbanismo medieval", in *Las formas de poblamiento del Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*, Bilbo.

Bengoetxea, B. eta Cajigas, S. (1997): *Durango. Transformaciones históricas de su forma urbana / Durango. Hiri egituraren aldaketa historikoak*, Liburu sail durangarra **3**, Durangoko Arte eta Historia Museoa, Durango.

Biddle, M. (1968): "Archaeology and the History of British Towns", *Antiquity***, 42**, 109-116.

————, (1982): "Vers une archéologie urbaine au service de la société", in *Archeologie Urbaine. Actes du Colloque International. Tours 17-20 novembre 1980*, Tours.

Bonet, A. (1978): *Morfología y ciudad. Urbanismo y arquitectura durante el Antiguo Régimen en España,* Bartzelona.

————, (1989): *Las claves del urbanismo*, Bartzelona.

Carver, M. O. H. (1990): *Arguments in Stone. Archaeological Research and the European Town in the first millenium*, Oxford.

Criado Boado, F. (1990): "El futuro de la Arqueologia i La Arqueologia del futuro?", *Trabajos de Prehistoria 53*, **1**, 15-35.

Cuesta Díaz de Antoñana, M. E. (1978): "Nacimiento y Morfología Urbana de las villas medievales alavesas", in *Las formas de poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*, Bilbo.

Francovich, R. (2000): "Archeologia urbana", in *Ciudad y territorio en Al-Andalus*, Granada, 10-20.

———— eta Manacorda, D. (2000): *Dizionario di archaeologia. Temi, concetti e metodi*, 350-355.

García Camino, I. (1998a): "Los trabajos arqueológicos sobre la Edad Media en el Territorio Histórico de Bizkaia", in *25 años Facultad de Filosofía y Letras. II Estudios de Geografía e Historia*, Bilbo.

————,(1998b): "La vivienda medieval: perspectivas de investigación desde la Arqueología", in *La vida cotidiana en la Edad Media. VIII Semana de Estudios Medievales de Najera*, 77-110.

García de Cortázar, J. A. (1981): "La organización del territorio en la formación de Alava y Vizcaya en los siglos VIII a fines del XI", in *El Habitat en la historia de Euskadi*, Bilbo.

Gelichi, S. (1992): "Problemi di tutela e programazzione archeologica nei centri storici", in *Coloquio hispano-italiano de Arqueología Medieval*, Granada, 95-108.

González Mínguez, C eta Pastor, E. (1988): *Las villas medievales alavesas*, Gasteiz.

Gutierrez Lloret, S. (1997): *Arqueología. Introducción a la historia material de las sociedades del pasado*, Valentzia.

Harris, E. (1991): *Principios de estratigrafía arqueológica*, Crítica, Bartzelona.

Linazasoro, J. I. (1978): *Permanencias y arquitectura urbana. Las ciudades vascas de la época romana a la Ilustración*, Gustavo Gili, Bartzelona.

Martínez Taboada, P. (1985): "Condicionantes históricos del urbanismo alavés", in *La formación de Alava*, Gasteiz.

Morris, A. E. J. (1984): *Historia de la forma urbana. Desde sus orígenes hasta la revolución industrial*, Bartzelona.

Pirenne, H. (1972): *Las ciudades en la Edad Media*, Alianza, Madril.

Schofield, J. eta Leech, R. (1987): *Urban Archaeology in Britain,* London.

———— eta Vince, A. (1994): *Medieval Towns*, London.

Vidaurre, J. (1990): *Ciudad y arquitectura medievales. Morfologías imaginarias en Castilla y León 1050-1450*.

Erdi Aroa

Euskal mediebalismoaren zenbait alderdi: lorpenak eta hutsuneak

José Angel Lema Pueyo
Euskal Herriko Unibertsitatea

1. SARRERA

Lan zaila, arriskutsua eta korapilatsua da azken hiruzpalau hamarkadetako Euskal Herriko mediabalismoaren ikuspegi orokorra aurkeztea. Oso erraza da —errazegia— zerbait edo norbait ahaztea, edo balioespen okerra egitea. Horregatik, aldez aurretik barkamena eskatzen diot irakurleari ager daitezkeen hutsuneengatik. Izan ere, urteotan Euskal Herriko Erdi Aroari buruzko ikerketak eta argitalpenak oso erritmo bizian garatu dira. Interesgarria deritzot, Estatu Espainiarreko egoerarekin alderaketa egiteari. Arestian argitaratutako lan historiografiko batean, Jose A. García de Cortazar mediebalistak zioenez, Espainian, 1968tik aurrera argitaratu da Erdi Aroaren historiaz egindako ikerlanen %95 eta agiri-bildumen %80. Geure lurretara begiratzen badugu, *mutatis mutandis*, Hego Euskal Herrian, behintzat, gauzak oso antzera gertatu dira. Zerrenda bibliografiko bat begiratzearekin nahikoa dugu hazkunde-prozesu horretaz jabetzeko[1]. Beraz, nik neuk, zuhurki jokatuz, izenburuak berak dioen bezala, hobeto ezagutzen ditudan alderdi eta alor tematiko batzuetara mugatzea nahiago izan dut.

Hazkunde horren zergatiak? Nire ustez, erakunde publiko eta pribatuen babesa, interesa eta finantziazioa izan dira garapen historiografiko honen oinarria. Ez da harritzekoa. Ikerketa historikoak —Erdi Aroaz zein beste aldi guztiez— eta, historiaren irakaskuntzak —hezkuntzaren goiko mailetan— sostengu materiala behar dute, beste edozein ezagutza-arlotan gertatzen den bezala. Egia esanda, erakundeek ezinbesteko sostengu hori eskaini dute. Are gehiago, denbora igaro ahala laguntza instituzionala nabarmenki handitu da, eta, zorionez, gaur egun gero eta eragingarriagoa da. Instituzio baten garrantzia azpimarratu beharko bagenu,

1. J. A. García de Cortázar (1999): "Glosa de un balance sobre la historiografía medieval española de los últimos treinta años", in *XXV Semana de Estudios Medievales, Estella, 14 a 18 de julio de 1998: La historia medieval en España, un balance historiográfico*, Nafarroako Gobernua, Iruñea 807-824; Berant Erdi Aroari dagokionez, ikus J. A. Lema (1998): "Bibliografía y fuentes para el estudio de la Lucha de Bandos en el País Vasco", in *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal. Gipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, EHU, Bilbo, 557-601.

unibertsitatearena nabarmenduko genuke. Nahiz eta gure unibertsitate-guneek oso tradizio luzea ez izan, lan historiografiko interesgarria egin dute. Bere sorreratik, 1980. urtetik, Euskal Herriko Unibertsitateak —Erdi Aroaren historiari dagokionez, Gasteizko campusak, batik bat— emaitza nabarmenak lortu ditu ahalegin horietan. Erakunde garrantzitsua, baina ez bakarra, beste batzuk ere aritu baitira historiografian eta, zehazkiago, mediebalismoaren arloan. Ez litzateke bidezkoa unibertsitate--gune pribatuak ahaztea, zaharragoak eta erlijio-taldeei lotutakoak biak: Deustuko eta Nafarroako Unibertsitateak, hain zuzen. Artikulu hau argitaratzea onartu duen Udako Euskal Unibertsitatea ere sartuko litzateke laguntza-sare instituzional honetan.

Fakultateetatik at, aspalditik zenbait kasutan, bestelako talde batzuek ere jardun dute, bekak eskainiz, ikertzaileei beren lanak editatzeko abagunea emanez, hitzaldiak, jardunaldiak eta kongresuak antolatuz. Eusko Ikaskuntzaren Historia Saila, Sancho el Sabio fundazioa, Príncipe de Viana Instituzioa, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea edo —tokiko historiari dagokionez— Donostiako Doctor Camino taldea aipa ditzakegu adibide gisa.

Baikortasuna agertzeko arrazoirik egon arren, saihets dezagun dena ontzat jotzen duen eklektizismoa, eta baita triunfalismoa ere. Ezin dugu garapenaren garrantzia ukatu, baina ekimen guztiak ez dira kalitate edo interes berekoak izan. Ekarpen historiografiko batzuk berritzaileak izan dira; beste batzuk, ordea, ez dituzte lanbide honen muga tradizionalak gainditu. Era berean, iritzi politikoak eta eztabaida ideologikoak —normala eta desiragarria da gauzak horrela gertatzea— uste baino eragingarriagoak izan dira.

2. LAN-TRESNAK: DOKUMENTAZIOA

Hazkunde historiografikoa deskribatuko badugu, gure lehen arazoa metodologikoa izango da: argibide-iturriak. Egunotan, Erdi Aroko euskal historian jardun nahi duenak zer argibide-iturri du bere esku? Nahiz eta indusketa arkeologikoak, paisaiaren behaketa eta ikonografiak emandako informazioa gero eta gehiago erabili, mediebalistek iturri idatzien lehentasuna azpimarratzen jarraitzen dute. Mende honetan zehar, Hego Euskal Herrian, behintzat, ugaldu egin dira Euskal Herriko historiari buruzko agirien argitalpenak 1975etik aurrera. Are gehiago, autonomia-erregimenak finkatu ahala, dokumentu-bildumek bultzada handia hartu dute. Erakunde publikoek —udalek, aldundiek— interes nabaria agertzen dute horrelako lanetan, eta lehen baino "eskuzabaltasun" handiagoz ematen dute beharrezkoa den laguntza ekonomikoa[2]. Politikan adituei utziko diegu argitzea abertzaletasunak, nazionalismoak, foralismoak edo lurralde historikoen nortasuna finkatzeko asmoak zein neurritan lagundu duten saialdi horretan. Dirudienez, toki-

2. "Eskuzabaltasun" horrek bere mugak ditu, jakina. Gehienetan inprenta eta argitalpenaren gastuak ordaintzen dira laguntza ofizialaren bitartez. Salbuespenak salbuespen, transkribatzailearen lanak ordainketa merezi duela esatea ia ideia heretikoa iruditzen zaie agintari askori.

ko agintari askoren aburuz, Erdi Aroko dokumentazio publikoa herri-ondarearen zatia da, eta, beraz, berreskuratu nahi den historia berezi baten lekukoa.

Ekimen eta ahalegin hauen emaitzak ikusita, argi eta garbi dago guztiz faltsua dela dokumentazio-ezagatik Euskal Herria historiarik gabeko herria delako iritzia. Bakoitzari bere meritua eman behar bazaio, begi-bistakoa da Eusko Ikaskuntzaren *Colección de Fuentes Medievales de País Vasco* bildumaren nagusitasuna. Aipaturiko bilduma, hasieran José Luis Orella Unzue irakasleak zuzendu zuena eta gaur egun Aingeru Zabalaren ardurapean dagoena, ezinbesteko lan-tresna bihurtu da gure Berant Erdi Aroko historian interesaturik daudenentzat. Eusko Ikaskuntzak 1982an ekin zion dokumentazioa argitaratzeko asmoari, Elena Barrenaren *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa* plazaratuz. Ordutik honako —lerro hauek 2001eko udaberrian idazten ari dira— bilduma ehun zenbaki baino gehiagok osatzen dute; horien artean, Iruñeko eta Nafarroako erregeen gutun-bilduma gehienak, Karlos II.aren garaira arte (1349-1387). Urte hauetan zehar, hogeita hamalau egilek hartu dute parte lan kolektibo horretan. Horietatik batzuk unibertsitate-irakasleak edo ikertzaileak dira, beste batzuk, aldiz, transkribaketaren profesionalak ditugu —Bizkaiko dokumentazioa editatu dutenak, adibidez—.

Emaitza onak dira bai, baina orekatuak ez, lurralde historikoen artean ezberdintasunak agertzen baitira. Bizkaia da gehien landutako lurraldea, 37 zenbaki dituela. Nafarroako dokumentazioaren argitalpena oso azkar garatu da 1995etik aurrera, hau da, Foru Gobernua gehiago laguntzen hasi zenetik: 29 zenbaki, guztira. Gipuzkoari dagokionez, emaitzak onargarriak izan dira (28 zenbaki). Oraindaino, lurralde baztertuak Araba eta Ipar Euskal Herrikoak izan dira (8 eta 2 zenbaki, hurrenez hurren).

Nola aukeratu dituzte argitaratu beharreko agiriak? Irizpideak aldatu egin dira. Zenbaitetan, irizpide instituzionala agertzen zaigu, hots, erakunde batek emandako dokumentazioa ezagutaraztea. Adibidea bildumako 13 eta 14. zenbakietako obrak lirateke, Gaztelako erregeek Gipuzkoara zuzendutako gutunak aurkezten dituztenak. Gaikako agiri-bilduma, hots, arazo historiko edo filologiko baten inguruan agiriak transkribatzea helburua duena, ez da hain sarri hartu kontuan. Alor horretan, aipatzekoa da Erdi Aroko Arabako gizartea eta erakundeak aztertzeko agiriak agertzen dituen zenbakia[3]. Hala ere, azken urteotan irizpide artxibistikoa nagusitu da. Bere jomuga, artxibo jakin batean dauden Erdi Aroko dokumentu guzti-guztiak argitaratzea izan da. Udal-artxiboak edo lurralde bateko artxibo orokorrak izan daitezke —bigarren kasuan, Nafarroako Artxibo Orokorra— gehienetan[4]. Erabaki horrek arazoak eta zalantzak dakartza. Nola bereizi "Erdi Aroko" doku-

3. J. R. Díaz de Durana (1994): *Álava en la Baja Edad Media a través de sus textos*, Colección de Fuentes Medievales, **54,** Eusko Ikaskuntza, Donostia.

4. Adibideren bat jartzeagatik, ikus J. M. Jimeno Jurío eta R. Jimeno Aranguren (1998): *Archivo General de Navarra (1194-1234),* **89**, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

mentuak "Aro Berrikoetatik"? Non jarri muga kronologikoa? Guztiz konbentzionala eta artifiziala dela jakinda ere —egia esanda, Erdi Aroa eta Aro Berria ere denboraren zatiketa konbentzionalak dira, berez—, 1520. urtea hautatu dute muga gisa. Ondorioz, artxibo bateko agiriak editatzeko orduan, ez dute urte horren ondoko agiririk transkribatuko. Irizpide kronologiko horrek abantailak ditu udal-artxiboetako dokumentazioa editatzeko. Horrela jokatuz gero, udal-artxibo batzuetako dokumentazio osoa bere eskura duela ziur egon daiteke ikertzailea (1520. urtera artekoa, behintzat). Beste kasu batzuetan, artxibo handietako agiriei dagokienez, metodo horren baliagarritasuna eta praktikotasuna zalantzan jar litezke.

Eusko Ikaskuntzarenaz gain, bestelako ekimenak ere izan dira, jakina. Euskal Autonomia Erkidegoan, erakundeek bultzatu eta ordaindu dituzte horrelako edizioak. Ez dugu irakurlea aspertu nahi izenburu-zerrenda luze bat aurkeztuz. Horietako asko bilduma diplomatikoak dira *stricto sensu*; beste batzuetan, ikerketak osatzen dituzten agiri-eranskinak. Hala ere, beren garrantziagatik, adierazgarriak izan daitezkeen zenbait kasu aipatuko ditugu hemen. Gonzalo Martínez Díez-ek eta beste bi kolaboratzailek 1991-1996 urteetan *Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas* delako lana plazaratu zuten, 1200. urtetik 1397. urtera bitarteko dokumentazioa bildurik. Aldi berean, Gipuzkoako Aldundiak eta Gipuzkoako Artxibo Orokorrak *Libro de los Bollones* eskuizkribuaren edizioa prestatu zuten[5]. Arestian, hain gutxi landua izan den gaikako irizpidea berreskuratu nahian, Ahaide Nagusien boterea eta bizitza deskribatzen duen agiri-multzo bat aurkeztu da[6].

Hutsuneak badira, jakina. Ondoen ezagutzen duguna Berant Erdi Aroko dokumentazio publikoa da: errege-gutunak, Ermandadeek eta Batzarrek emandako aktak eta ordenantzak, hiribilduetako agintarien erabakiak, eta abar. Erakunde publikoen alorretik at oso gutxi daukagu. Salbuespenak salbuespen, nobleziaren dokumentazio pribatua ez da behar adina argitaratua izan: testamentuak, hilburukoak, kodiziloak, ezkontza-akordioak, donazioak edo salmenta-gutunak. Loiola familiaren agirien parte bat argitaratu zuen Jesusen Lagundiak —horretarako, Jainkoa lagun, leinu horretako kide batek santu bihurtu behar izan zuen!— eta R. Ayerbek Gebara familiaren agiri-multzo bat aurkeztu zuen bere tesiaren eranskinetan. Horrelako zenbait salbuespenez aparte, Euskal Autonomia Erkidegoan dokumentu pribatu gehienak familia-artxiboetan gordetzen dira, altxor preziatuak balira bezala, eta horien jabeek ez dute askotan kontsultatzeko beharrezko baimena erraz ematen.

Azken urteotan, Príncipe de Viana Instituzioak bultzatuta, batez ere Nafarroan, tradizio luzea duten iturri idatzien edizioek atzeratzen jarraitu dute. Beren konben-

5. 1481-1506. urteetan idatzitako eskuizkribu hau Probintziako artxiboetan gordetzen zen kodizerik zaharrena zen.

6. J. A. Lema eta beste egile batzuk (2000): *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

tzionalismoa gorabehera —badakigu sarritan edo ia beti agiri baten erabilgarritasuna ez dela gai batera mugatzen— gaikako sailkapena posible bada ere, azken bi hamarkadetan Nafarroan edo Nafarroari buruz agertutako agiri-bildumak ondoko arlo tematikoetan bana daitezke: erakunde politikoen aktak, gutunak eta forutestuak[7], Elizaren erakundeei buruzko bilduma diplomatikoak[8], fiskalitatea eta historia demografikoa ikertzeko iturriak[9], eta baita juduen eta musulmanen bizitza eta jarduerak ezagutzeko dokumentazioa ere.

3. LAN-TRESNAK: BILKETA TOPONIMIKOAK

Lan-tresnak ez dira gutun-bildumetara mugatzen. Azken horiekin batera, toponimia-zerrendek erabilgarritasun ukaezina dute. Horrelako bilketa-obretan, oso nabarmenak dira Jose María Jimeno Jurioren eta Ángeles Libanoren ekimenak, *Onomasticon Vasconiae* seriean argitaratuak izan direnak, ezinbestekoak Euskal Herriko topomia eta mikrotoponimia ezagutzeko, eta hainbat leku-izen ahalik eta zehaztasun handienaz identifikatzeko.

4. BOTEREAREN HISTORIA TRADIZIONALA

Botere politikoaren "biografia" izan da historiaren ohiko arloa. Nafarroak badauka horrelako azterlanetan oso tradizio positibista sendoa, hau da, deskribatzailea, José María Lacarra irakasleak finkatu zuena. Bere lan askotatik bat nabarmenduz gero, *Historia política del reino de Navarra* azpimarratuko genuke, benetako obra klasikoa dena. Eredu berari eutsita, beste anitz mediebalista aritu dira Nafarroako erresumaren historia kutsu eruditoarekin *narratu eta deskribatu* nahian: Antonio Ubieto, Javier Zabalo Zabalegui, Juan Carrasco, Raquel García Arancón, Alberto Cañada Juste eta abar. Talde horretan, Angel J. Martín Duque —orain gutxi arte

7. Nafarroan, aspalditik bi kategoria bereizi dira zuzenbidearen historiaren ikuspuntutik: foru nagusiak edo handiak, Nafarroako eta Gipuzkoako hainbat hiribildutako antolamendu juridikoaren oinarria eta eredua izan zirenak, eta "txikiak" (*fueros menores* izenekoak). Jaka, Lizarra eta Iruñeko foruak, Lacarra-k eta Martín Duque-k argitaratu zituztenak, sartzen dira lehen kategorian. Bigarrenean, Jaka eta Lizarrako tradiziotik at geratzen diren beste populazio-gutun asko. Azken hauek Luis J. Fortun-ek bildu eta ezagutarazi zituen. Aldi berean, Nafarroako Foru Orokorraren behin betiko edizio kritikoa prestatzen ari da, bertsio ezberdinak alderaturik.

8. Iratxe, Leire, Orreaga, Oliba eta Fiteroko eliza eta monastegietarako baditugu oso agiri-bilduma baliagarriak, nahiz eta horietako batzuetan Berant Erdi Aroko gutunik ez aurkeztu. Ordena militarren artean, Nafarroako Ospitaleari dagozkion agiri-iturriak, Santos García Larragueta-k burututako lanetan kontsulta daitezkeenak, nahiko ezagunak dira aspalditik. Erresuma Zaharreko tenplarioen dokumentuak, berriz, bere transkribatzailearen zain daude oraindik. Azken urteetan —1997an— José Goñi Gaztambidek bere *Colección Documental de la Catedral de Pamplona (829-1243)* argitaratu zuen.

9. Askotan, Erdi Aroko gizarte baten ezaugarri demografikoak edo jarduera ekonomikoak ikertzeko, jatorriz helburu fiskalak zituzten argibide-iturrietara jo behar dugu historialariok. Ildo horretan, historialari eta transkribatzaile askok ekin diote Nafarroako atesare-zerrendak eta su-liburuak editatzeari, zenbaitetan azterlan baten eranskinetan.

Nafarroako Unibertsitateko irakaslea— izan da garrantzitsuena. Zer gai ukitu dituzte? Erantzuna erraza da asmatzen: kanpoko politika —zenbait koiunturatan, batez ere—, erregealdiak eta errege-erakundeak: subiranoen senide-harremanak, ibilbideak, gobernuaren konposizioa, administrazioa, Eliza eta nobleziarekiko harremanak. Giro historiografiko horretan, egunotan hamar urte baino gehiago bete baditu ere, aipagarria da Eloisa Ramírez Vaquero-ren doktorego-tesia[10], XIV-XV. mendeetarako Nafarroako leinu aristokratikoen arteko aliantzak eta gatazkak aztergai hartzen dituena.

Ahalegin horiek hutsune tematikoak agertzen dituzte. Alor honetan, gai batzuk gutxi ezagutzen dira oraindik. Frantziarekiko menpekotasunaren garaia ikerlan sakon baten zain dago. Nafarroako Erdi Aroko Gorteei buruzko lan orokorra falta da, ikuspegi osoa ematen duena. Fiskalitateari dagokionez, lan sakabanatuak editatu dira, oso alderdi konkretuak ukitzen dituztenak. Salbuespen batzuekin, historiografia honen beste mugak teorikoak eta metodologikoak dira; hau da, eredu historizista edo positibistarenak: deskripzioaren nagusitasuna, eta teoriaren, azalpenaren eta sintesiaren ahulezia. Ez da beti behar adina kontuan hartu erakunde politikoen atzean zenbait gizarte-talderen interesak ezkutatzen zirela, eta, are gehiago, horrelako interesak defenditzea eta bideratzea zela erakunde horien helburua.

Bestelako arazoak ideologikoak dira. Nafarroako Unibertsitateko mediebalistentzat, erresuma honen historia benetako eredu morala da, akatsik gabekoa, erabat idealizatua, bertuteen ispilua. Agintarien erabakiak eta agintari politikoen portaera etikaren ikuspuntutik justifikatzeko joera oso hedatuta dago. Beraz, ustelkeria, gizarte-gatazka edo bestelako problemak adieraz ditzaketen gaiak aipatzeari edo ukitzeari uko egiten zaio, edo, horrelako arazoak izan zirela ukatzea ezinezkoa denean, haien garrantzia zalantzatan jarri edo gutxiagotzen da. Horregatik, gertatzen dena gertatzen dela, botere politikoaren irudia errespetatu eta gurtu behar da, eta nafarra bada, askoz gehiago, jakina.

Tradizionalki Nafarroako Unibertsitateari oso lotuta egon den testuinguru historiografiko honetatik kanpo, beste ekarpen batzuk ere izan dira. Bi egile soilik aipatuko ditugu, adibide gisa. Juan José Larrea Conde-ren tesiak, helburu zabalagoak baditu ere —lana ez da arlo politiko eta instituzionalera mugatzen—, elkarren

10. E. Ramírez Vaquero (1991): *Solidaridades nobiliarias y conflictos políticos en Navarra (1387-1464)*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea. Bi dira lan honetan azpimarratzea merezi duten ekarpenak. Hasteko, liburuan azaltzen denez, Berant Erdi Aroko goi-noblezia nafarrak, baliabide ekonomiko mugatuak zituenak, monarkiaren zerbitzura jo zuen bere errentak handitzeko. Horrela monarkia nobleziaren babesle bihurtu zen. Hala ere, lanaren balioa aberasteko, interesgarria da egileak Nafarroako egoera Europako beste lurraldeetakoarekin alderatu izana. Izan ere, Mendebaldeko Europa osoan behatzen da fenonemo berbera. Bigarren ekarpena Erresuma Zaharreko leinu aristokratikoen arteko aliantzak eta gatazkak aztertzea izan zen. Ramírez Vaquero-k nobleziako familien harremanetan bilatzen ditu agramondar eta beaumondarren arteko gerraren sustraiak. Nire ustez, harreman horiek —senidetasunean zein basailutza-loturetan oinarritzen zirenek— bi bando horiek *nola* osatu ziren azaltzeko balio dute; baina ez dute argitzen *zergatik* sortu zen gerra zibila.

artean erlazionaturiko beste gai batzuez gain, boterearen bilakaera, krisialdia eta berrantolaketa feudala aztertzen ditu Goi Erdi Aroko Nafarroan, XII. mendera arte[11]. Aldi berean, XI eta XII. mendeen arteko Nafarroako historia politikoa eta Estatu feudalaren osaketa aztertzen duten heinean, kontuan hartu behar dira Carlos Laliena Corbera-ren lanak[12].

Euskal Autonomia Erkidegoko historialariei dagokienez, erraza da joera ezberdinak bereiztea, gai politiko eta instituzionalak ukitu dituztenen artean. Badira, zuzenbidearen historiaren ikuspuntutik erakundeen deskribapenean aritu direnak, ikertutako gaiei buruz ahalik eta erudizio eta argibide gehien bilduz. Joera honen aztergai pribilegiatuak hauexek izan dira: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako botere probintzialaren sorrera eta finkapena; Ermandadeak; Batzarren egitura, eskumenak eta funtzionamendua; lurralde-fiskalitatea eta udal-antolaketa. Adibideak jarriko baditugu, nahikoa dugu José Luis Orella, Luis Miguel Díez de Salazar, Gonzalo Martínez Díez edo César González Mínguez-en azterlanak gogoratzea. Rosa Ayerbek, arazo hauek argitzen aritzeaz gain, jaurgo-boterearen ezaugarri juridikoak aztertu zituen, Arabako eta Oñatiko Gebara familiaz prestatu zuen liburuan. Oso lan eruditoak dira, eta horietako batzuk ezinbestekoak; baina, askotan, berezituegiak eta sakabanatuegiak. Aipatutako gaiotan eguneratutako sintesiaren zain gaude oraindik. Erakunde batzuen historia ia ukitzeke dago, Gipuzkoako Alkatetza Nagusiena, kasu. Orellaren ekarpenez aparte, Erdi Aro eta Aro Berriko korrejidorearen historiak lantzeke dirau.

Hala ere, sintesia eta hutsune tematikoak ez dira nabari daitezkeen arazo bakarrak. Erakundeen deskribapena beste lurraldeetako egoerarekin alderatu gabe egin da, euskal erakundeak kasu isolatuak balira bezala. Gainera, salbuespenak salbuespen, instituzio horiek ikertu dituztenek, ez dituzte behar adina kontuan hartu Gaztelako Koroa eta bere ofizialeekiko harremanak. Baina arazorik larriena hauxe da: joera instituzional horretako eruditoak sarritan ez dira kezkatu azalpen-lana egiteaz. Egia esanda, erudizio-lanari esker, botere probintzialaz lehen baino datu

11. J. J. Larrea (1998): *La Navarre du IVe au XIIe siècle: Peuplement et société*, De Boeck, Paris-Brusela. Aipaturiko liburuan, egileak defenditzen duen hipotesia erakargarria da: VIII. mendetik Antso Nagusiaren erregealdia amaitu arte, botere publikoaren sustraiak sendoak ziren, eta bere funtzionamendua eragingarria. Aurrerantzean, gauzak aldatzekoak ziren eta monarkiaren botere publikoa krisialdi sakonean murgildu zen "*mutazio feudal*" delakoaren testuinguruan, jaurgoak eta nobleziaren eragina hedatu eta finkatu ahala.

12. C. Laliena (1996): *La formación del Estado feudal: Aragón y Navarra en la época de Pedro I*, Instituto de Estudios Altoaragoneses, Huesca. Aipatutako lanean XI. mendeko Aragoi eta Nafarroako historiak alderatu eta kontrajartzen dira. Gauzak beharbada gehiegi sinplifikatuz eta nolabaiteko manikeismoa agertuz, Aragoiko erresuma eredu bikaintzat jotzen du Laliena-k. Nafarroa, berriz, erabateko porrota litzateke: «La historia del reino de Pamplona-Nájera es en síntesis la historia de un fracaso. Un fracaso de la dinastía, que no consigue consolidarse y, dando tumbos [sic] camina hacia su desaparición y un fracaso colectivo de la aristocracia navarra, que no puede diseñar una estrategia que permita la expansión del reino y de su propia dimensión social en un momento crucial en la pugna por iniciar la conquista de al-Andalus» (60 or.). Txobinismo aragoiarra ote?

gehiago menperatu eta ezagutzen ditugu; baina errazegi ahaztu da, garai hartan —gaur egun bezala— erakunde politikoak gizarte-interesak babesteko baliabideak zirela. Deskribapen hutsaren mugapenak gainditurik, bestelako lan batzuk jaio daitezke, errealitate historikoaren alderdi ezberdinak erlaziona ditzaketenak: aginpidetza politikoa, interes ekonomikoak edo familia-estrategiak.

5. BOTEREA ETA GIZARTEA: TALDE MENPERATZAILEEN ESTRATEGIAK

Berant Erdi Aroko Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, boterearen historia bando-gerrei lotuta dago. 1973an, *II Symposio de Historia del Señorío de Vizcaya* izeneko jaurdunaldietan, José Ángel García de Cortázar-ek eta Emiliano Fernández de Pinedo-k azaldu zuten bando-borrokak gizarte-gatazka konplexuak izan zirela. Beraz, erakunde politikoen sorrera eta botere-forma berrien agerpena ezin dugu ulertu, garai horretako gatazka sozialak baztertuz gero. Aldi berean, bando-gerra hitza aipatzean, azkar, Ahaide Nagusiak eta hiribilduetan buru ziren taldeak edo oligarkiak datozkigu burura. Nolakoak izan ziren talde horiek? Zein ziren horien interesak eta boterearen oinarri materialak? Zer nolako erlazioa izan zuten ahaide horiek eta hirietako talde menperatzaileek? Etsaitasuna beti? Nola maneiatu zituzten erakundeak, batzuek eta besteek, beren boterea finkatzeko?

Aurreko galderei erantzunez, azalpena bilatzen duten lanen artean, Jose Ángel Achon-en *A Voz de Concejo* izeneko lana aipa liteke, 1995ean argitaratua izan zena. Bere hasierako galdera hauxe zen: komunitate eta korporazio pribilegiatuek osatutako gizarte batean, nola antolatu ziren taldeok Gipuzkoan Berant Erdi Aroan? Nola lortu zuten Probintziaren boterea beren eskuetan edukitzea? Prozesu hori ulertzeko, egileak Arrasateko leinu baten historia hartu zuen abiapuntu, Bañez Artazubiagakoaren leinuarena, hain zuzen. Arrasateko hiribilduan beste familiek egin zuten erara, XV eta XVI. mendeetan Bañeztarrek ondarea pilatu, jaraunspen-lerro bat definitu eta bere etxearen egonkortasuna bermatu zuten. Kontzejua —hots, tokiko boterea— menperatzearren, bi estrategia erabili zituzten: lehendabizi, bortizkeria pribatuaz baliaturik, bando-gerretan aritzea, Gebara familiaren babespean; gero, XV. mendearen bigarren erdialdean, bandoak debekatu zirenean, egoera berrira moldatzea, eta, legezko ordenamendua errespetatuz, udal-erakundeetan sartzea eta infiltratzea, ardura garrantzitsuenak kontrolatzeko asmotan. Interesgarria litzateke prozesu hori Gipuzkoako eta Bizkaiko beste hiribilduetan behatzea, Arrasateko adibidearekin alderaketak eginda, tokiko oligarkien eraketa eta estrategiak ulertu ahal izateko. Dena dela, garbi dago, oligarkia haiek udal-boterea kontrolatzen zuten heinean, botere probintziala ere maneia zezaketela[13].

13. J. Á. Achón (1995): *A voz de concejo. Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Guipúzcoa: los Báñez y Mondragón, siglos XIII a XVI*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Lerro historiografiko honetan koka dezakegu José Antonio Marín-en tesia[14]. Ahaide Nagusiaren kontzeptua argitu nahian, egileak Loiola eta Oñaz familien kasuak aukeratu zituen (XIV-XVI. mendeetan): nola bildu ziren bi etxe horiek leinu bakar bat osatzeko, zer estrategietara jo zuten ondarea eta eragina zabaltzeagatik, nola saiatu ziren beren eragina hedatzen ezkontza-politika baten bitartez, zer modutan antolatu zituzten beren aliantza-sareak. Azken emaitza, leinuaren biziraupena behin betiko segurtatzearren, beste etxe askok jokatuko zuten erara, maiorazkoaren fundazioa izan zen. Hala ere, leinuaren bilakaera Gipuzkoako testuinguru politikoan ulertu behar da. Hiribilduek eta Ermandadeek Gipuzkoako lurraldea menperatzeagatik Ahaide Nagusiekin izandako gatazkan, Loiola etxearen jarrera aldakorra izan zen. Hasieran, beste Ahaideekin batera jokatu bazuten ere, Ermandadeak inposatu ahala, Probintziaren nagusitasuna onartu eta haren zerbitzura jarri ziren[15]. Bizkaiko kasuari dagokionez, Arsenio Dacosta-ren tesiak, oraindaino argitaratzeke dagoenak[16], lurralde horretako leinu aristokratikoen ikuspegi orokorra eskaintzen du.

Era berean, Soledad Tena-k, Donostia, Errenteria eta Hondarribiko gizarte-talde menperatzaileak —aberastasuna merkataritzatik ateratzen zutenak— hartu zituen aztergai. Arrasaten ez bezala, talde horiek —Donostiakoa, behintzat— bandoen eraginetik at egon ziren lehen unetik, eta partaidetza erabakigarria izan zuten Probintziaren erakundeen eraikuntzan[17].

Azken finean, helburua, erakunde eta botere politikoaren bilakaera errealitate sozialekin erlazionatzea da. Bestela esanda, azalpenaren bila bagabiltza, begi bistan dago, Berant Erdi Aroan behintzat, bando-gatazkak eta gizarte-talde berrien sorrera eta igoera ahantziz gero ez dezakegula uler boterearen historia. Ildo horretatik mugitu zen eta mugitzen ari da José Ramón Díaz de Durana. Beste gai askotaz aparte, hauexek dira berak ukitutako arazoak: Gipuzkoako Ahaide Nagusien eta aitoren semeen lehentasunaren oinarri materialak (belardien esplotazioa, baserri-elizetan hartu eta kobratzen ziren hamarrenak, hasikinak eta deboziozko eskaintzak, errotak eta labeak, batik bat), gizarte-talde horrek nekazaritza-komunitateekin izandako gatazkak, Arabako ogasunaren sorrera (XV. mendean zehar garatu zena), eta Gasteizko kontzejuaren egitura. Era berean, Ernesto García Fernández-ek, hiri-

14. J. A. Marín (1998): *"Semejante Pariente Mayor". Parentesco, solar, comunidad y linaje en la institución de un Pariente Mayor: los señores del solar de Oñaz y Loyola (siglos XIV-XVI)*; Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. Egileak, E. Barrenak, Goi Erdi Aroko Gipuzkoaren historiarako proposatutako azalpenak hartu zituen abiapuntu; ikus (1989): *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*, Deustuko Unibertsitatea (Donostiako kanpusa) Donostia.

15. Ahaide Nagusietako beste leinuek Probintziaren eta foru-erakundeen aurkako etsaitasunari eutsiko zioten; 1625ean oraindik beren aurkaritza azaltzeko ziren.

16. A. Dacosta: *Los linajes de Vizcaya en la Baja Edad Media: poder, parentesco y conflicto*, 1997an aurkeztu eta defenditutako doktorego-tesia.

17. S. Tena (1997): *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Grupo Doctor Camino, Donostia.

bilduetako antolaketa, ordenantzak eta hautespen-sistemak ikertu ditu. Zatiketa kronologiko akademikoak gaindituz —bere lanaren edukia XIV. mendetik hasita XVII. mendera arte luzatzen da—, Susana Truchuelo-k analizatu zuen nola erdietsi zuten hiribilduek Gipuzkoako lurraldea beren menpean jartzea, eta nola borrokatu ziren beren artean nagusitasunagatik. Aldi horretarako gutxi gorabehera, Luis Mª Bilbao-k eta Santiago Piquero-k fiskalitatearen arazoa hartu dute aztergai. Alderdi teknikoez aparte, oraindaino burutu diren ikerketek garbi adierazten dute Berant Erdi Aro eta Aro Berriko zerga-sistema tokiko talde menperatzaileen interesak babeste-ko pentsatua izan zela[18].

Aldi berean, beste historialari batzuek —Jose María Portillo-k, adibidez— Gipuzkoan eta Bizkaian botere publikoak bere buruaz zuen irudia aztertu zuten. Historialari horiek Aro Berriaren arloan lan egin badute ere, haiek behatutako prozesuen sustraiak Berant Erdi Aroan kokatu beharra dago. Euskal kontzejuetan finkatu ziren oligarkiek, beren lehentasuna justifikatzeagatik, XIX. mendera arte iraungo zuen gizartearen irudia zabaldu zuten. Irudi horren arabera, Gipuzkoako eta Bizkaiko biztanleek orubeak zeuzkaten aitoren semeen komunitateak osatzen zituzten. Bizkaian, behintzat, ideia hori XVI. mendearen hasieran finkatu zen. 1452ko Foru Zaharrak nekazariak eta aitoren semeak bereizten bazituen ere, 1526ko Foru Berriak kaparetasun orokorra aldarrikatzen zuen. Berdintasun teoriko horrek ordena soziala defenditzen zuen, errealitatean gertatzen ziren benetako ezberdintasunak —ahalmen ekonomiko eta politikoari zegozkionak— estaltzen eta ezkutatzen baitzituen.

Hala ere, ekarpen hauen balioa ukatu gabe, eta jadanik lortutako emaitzak handiak izan badira ere, lan luzea gelditzen da. Nahiz eta zerbait eginda dagoen, badira oraindik ikerketa-lana eskatzen duten zenbait arazo: talde menperatzaileen arteko senidetasun-harremanak, beren boterearen oinarri materialak edo tokiko erakundeen eta errege-aginpidearen arteko erlazioak. Gaur egun prestatzen ari diren ikerketa-lanek horrelako arazoei erantzuna ematea espero dugu.

6. ELIZAREN HISTORIA

Minoria menperatzaileen historian aurrerapen nabariak egin badira ere, Euskal Herriko Elizaren historia ez dago behar adina aztertuta. Hala ere, zenbait lorpen badira, behintzat. Metodologiaren aldetik, denbora igaro ahala zaharkitua geratu bada ere, Julen Urkizaren lan entziklopedikoa, *Elizaren historia Euskal Herrian*[19], na-

18. Fiskalitatearen funtzionamendua ezagutzeak gizarte-ezberdintasunak behatzen laguntzen digu, zerga-erroldek hiribilduetako biztanleen artean aberastasuna nola banatzen zen agertzen baitute. Adibide gisa, ikus S. Piquero eta J. R. Díaz de Durana (1998): "De la fiscalidad municipal a la sociedad: notas contributivas sobre las desigualdades económicas y contributivas en Guipúzcoa (siglos XV-XVI)", in *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, EHU, Bilbo, 523-555.

19. J. Urkiza (1995): *Elizaren Historia Euskal Herrian. I. tomoa: Ikerlan eta materialak*, Markina.

barmentzekoa da. Izan ere, euskaraz argitaratutako lan honek bilketa bibliografiko eta dokumental zabala eskaintzen die gai hauetan interesatuta dauden guztiei.

Nafarroan arlo honetan badute tradizio eruditoa. Aipatzeko da José Goñi Gaztambide historialari eta artxibariaren kasua; beste lanez aparte, Iruñeko apezpikuen historia idatzi zuen, ahalik eta agiri-datu gehien pilatuz eta hurrengo ikerketetarako oinarria jarriz. Bestalde, erresuma zaharreko monasterio eta santutegirik handienek monografia garrantzitsuak eginak dituzte. Lan gehienek José Ángel García de Cortázar-ek Done Miliagako abadiaren jaurgoa ikertzean finkatu zuen ereduari segitu diote. Horren eragin eta itzalpean agertu ziren Iratxe, Oliba, Orreagako Ospitale edo Leireri buruzko ikerlanak, Ernesto García-k, José Antonio Munita-k, Fermín Miranda-k eta Luis Javier Fortún-ek prestatu zituztenak.

Euskal Autonomia Erkidegoan Erdi Aroko Elizaren historia ukitzen duten lanak sakabanatuta daude, eta gero eta beharrezkoagoa da sintesi eta monografia handiak prestatzea. Elizbarrutiko antolaketa eta klero sekularraren irudia Gaztañazpi-k eta Robert Muro-k ikertu dute. Arabako Goi Erdi Aroko monakotzaz Eugenio Riaño eta Saturnino Ruiz de Loizaga-ren lanak aipatzekoak dira. Robert Muro-k, bere doktorego-tesian, Ziortzako monasterioaren ondarea aztertu zuen. Euskal historian gutxi landutako gaia eskeko ordenen finkapena dugu, berantiarra eta —hiribilduen etsaitasun bortitzagatik— gatazkatsua izan zena. Oztopo eta mugapen larrienak argibideen eskasiatik datozkigu. Azken urteotan Ernesto García Fernández eta Miguel Larrañaga Zulueta aritu dira problema historiko hori argitzen. Ezin dugu ekarpen horien balioa gutxietsi, baina ez dira oraindik nahikoa Elizaren historiaz ikuspegi orokor bat izateko.

Elizak, Euskal Herrian, bere hierarkia-sarea antolatu bitartean, aurkaritzak aurkitu zituen. Euskal heresiaren historian gune pribilegiatua Durango herria eta Vázquez de Mella-ren jarraitzaileak izan dira. Alor horretan, tradizio narratibo eta deskribatzailearekin batera —Juan Bautista Avalle Arce, Manuel López Rojo-ren lanak lirateke adibideak—, ezinbesteko azalpen-ahaleginari ere ekin dio Ernesto García-k[20]. Gai honen inguruan, euskaraz daukagun bibliografia eskasa nabarmentzeagatik, Fermín Artola Zubillagaren lanak aipatzea merezi du[21]. Hala ere, liburuak azalpenaren alorrean dauka bere mugapen handiena, hau da, mugimenduaren azterketa ideologikoan. Izan ere, Artola Zubillagak Durangoko heretikoen ideiak, pentsalari, mistiko eta poeta musulmanen ideiekin erlazionatu eta alderatzen ditu, froga fidagarririk eduki gabe.

Beste herrietako historiografian ez bezala —Italia litzateke adibiderik garbiena—, Euskal Herrian, Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere, agirien urritasunak eraginda, ondo ikertu gabe daude oraindik Erdi Aroko parrokia-sarearen sorrera eta

20. E. García Fernández (1994): "Alonso de Mella y los herejes de Durango", in *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (siglos XIV-XVI)*, EHU, Leioa, 83-116.

21. F. Artola (1986): *Heresak Durango aldean XV. mendean*, Kriselu, Donostia.

garapena, beren barneko antolaketa eta erakundeak, eta parrokiari loturiko erakundeak (kofradiak edo anaidiak).

7. LANA ETA GIZARTEA

Talde menperatzaileez aparte, boterearen jokuan sartzen ziren gizarte-taldeak alde batera utzita, beren lanetik bizi zirenen mundua daukagu. Oro har, hona hemen gabeziarik nabarienak Nafarroako edo Nafarroari buruzko historiografian. Badira salbuespenak, jakina. Nekazaritza-mundua eta Berant Erdi Aroan nozitu zuen krisialdia izan dira eztabaidarako abagunea. Maurice Berthe-k kritikarik zorrotz eta sutsuenak jaso zituen —Juan Carrasco-rengandik, batez ere—, Nafarroan XIV. mendean, Mendebaldeko Europako beste lurraldeetan gertatu zen legez, goseteak eta izurriteak izan zirela iradokitzen ausartzeagatik[22]. Horrelako gaietan, ikuspuntu ezberdin batekin, Luis Javier Fortún-ek ere jardun du "El mundo campesino en Navarra (1250-1350)" lanarekin.

Ez da beti behar adina kontuan hartu ezen nekazaritza-gizarte nafarra gatazkatsua izan zela, Europako beste herrietakoa bezalakoa. Alor tematiko honetan, oraindaino eskura ditugun ia lan bakarrak Miguel Larrañagarenak dira. Larrañagak argitaratutako zenbait artikuluz gain, bere doktorego-tesia —*Campesinado y conflictividad social en el reino de Navarra: 1349-1425*, oraindik argitaratu gabe dagoena— izan da arazo hauek argitzeko egin den ahaleginik serioena. Egileak, Maurice Berthe-ren ekarpenak aprobetxatuz, eta Esteban Sarasa Sánchez-en eta Julio Valdeón Baruque-ren proposamen metodologikoei jarraiki, Nafarroako kasua aztertzeari ekin zion.

Baina, gehienetan, oso lan mugatu eta sakabanatuak egin dira. Adibidez, Erdi Aroko Nafarroako eskulangintza-mundua ia basamortu historiografikoa da, oinarrizko ikerketak falta baitira. Oraindaino plazaratu diren lanek ekarpen sakabanatuak eta partzialak —oso berezituak askotan, egia esanda— egin dituzte. Urritasun historiografiko hau kontserbatutako dokumentazioaren izaeragatik uler liteke. Nafarroan monarkiak sortu zuen agiri-argibide administratiboa oso ugaria bada ere, lan-mundua islatzen duen dokumentazioa, ordea, ez da hain aberatsa[23]. Aipamena merezi duten egileen artean, García Zuñiga, J. R. Villegas, J. Toledano edo S. Honoré Duverger izango genituzke, ikuspegi orokor bat edukitzeko. Horiez gain, Juan Carrasco-ren eta Jon Andoni Fernández de Larrea-ren zenbait artikulutara jo daiteke[24].

22. M. Berthe (1984): *Famines et épidemies dans les campagnes navarraises à la fin du Moyen Age*, Paris.

23. Udal-erakundeek eta notarioek emandakoa, batik bat.

24. J. Carrasco (1993): "Mundo corporativo, poder real y sociedad urbana en el reino de Navarra (siglos XIII-XV)", in *Cofradías, gremios y solidaridades en la Europa medieval (Actas de la Segunda Semana de Estudios Medievales de Estella, 20-24 de julio de 1992)*, 225-251; J. A. Fernández de Larrea (2000): "Notas para el estudio de las relaciones y conflictos laborales en el mundo artesanal", *Vasconia*, **30**, 59-72.

Gizarte-egitura eta ekonomia-jarduerei dagokienez, Nafarroan baino tradizio sendoagoa dugu Euskal Autonomia Erkidegoan. Badira zenbait lan orokor iraupen luzeko analisia erabiliz eredua finkatu dutenak: E. Fernández Albaladejo edo Emiliano Fernández de Pinedo-renak, hain zuzen. Horiez gain, Bizkaiko eta Arabako kasuetarako José Angel García de Cortázar-enak eta Jose Ramón Díaz de Durana-renak ezinbestekoak dira oraindik[25]. Bestalde, hiri-munduko sorrera, morfologia, gizarte-taldeak, jarduerak eta erakundeak gero eta ezagunagoak dira Beatriz Arizaga eta Ernesto García-ren azterlanei esker.

Sektore ekonomikoak aztergai gisa hartuta, ukaezina da baserri-munduaren eta nekazaritzaren ezagueran aurrerapen nabariak egin direla. Nahikoa litzateke gogoratzea Emiliano Fernández de Pinedo-ren edota Jose Ramon Díaz de Durana-ren ekarpenak: Arabako nekazaritza-hazkundearen ezaugarriak, eta sektore horren ahulezia Bizkaian eta Gipuzkoan, industria eta merkataritzaren hedakundearen aurrean. Hala ere, ikerketa-esparru honek arreta handiagoa merezi du.

Industriari dagokionez, burdingintza eta, neurri batean, metalgintza ditugu ondoen landutako jarduerak. Luis Mª Bilbao-ren analisiak, iraupen luzeko ikuspegitik egindakoak (Erdi Aroaren amaieratik XVII. mendera arte), nabarmentzekoak dira; baita Luis Miguel Díez de Salazar-ek Gipuzkoako burdinolez prestatu zuen lan klasikoa ere[26].

8. GERRAREN HISTORIA

Frantzian, Alemanian eta Britainia Handian Erdi Aroko gerrak interes bizia sorrarazi du ikertzaileen artean. Mediebalismoaren adar honek, joan den mendetik tradizio errespetagarria agertzen badu ere —gogora ditzagun Hans Delbruck-en lan klasikoak—, mende honetan izan du bere behin betiko garapena. Garapenarekin batera, gai honi buruzko bibliografia ugaldu ahala, edukiak eta metodoak berritu dira. Adituen zerrenda bat aurkeztea alferrikako lana izango zela jakinda ere

25. J. A. García de Cortázar (1965): *Vizcaya en el siglo XV: aspectos económicos y sociales,* Bilbo; J. A. García de Cortázar, B. Arizaga, M. L. Ríos eta I. Val Valdivieso (1985): *Vizcaya en la Edad Media: evolución demográfica, económica, social y política de la comunidad vizcaina medieval,* Haramburu, Donostia; J. R. Díaz de Durana (1986): *Alava en la Baja Edad Media: crisis, recuperación y transformaciones socioeconómicas (c. 1250-1525),* Gasteiz.

26. L. M. Bilbao (1987): "La industria siderometalúrgica tradicional en el País Vasco (1450-1720)", *Hacienda Pública Española,* **108-109**; 47-63; egile berarena, (1987): "Introducción y aplicaciones de la energía hidráulica en la siderurgia vasca, siglos XIII-XVII: *addenda et corrigenda* a una visión historiográfica", in *Homenaje al Dr. D. Manuel Fernández Alvarez, Studia Historica-Historia Moderna,* **V**, 61-75; L. M. Díez de Salazar (1983): *Ferrerías en Guipúzcoa (siglos XIV-XVI),* Donostia, bi liburuki, eta (1997): *Ferrerías guipuzcoanas: aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI)*, Donostia. Azken hau lan entziklopedikoa dugu, baina berezituegia, agian. Bere balioa handiagoa izango zen burdigintzari buruzko datuak eta argibideak Gipuzkoako ekonomiaren azalpen zabalago batean kokatuz gero.

(izugarri luzea litzateke, benetan), gaur egun eredutzat jotzen diren hiru egile nabarmen aipatzea merezi du: Philippe Contamine, Maurice Keen eta Christopher Allmand.

Askok pentsa dezaketen ez bezala, gaur egun gerraren historia ez da gudu eta kanpainen narrazio hutsa. Gertaeren deskribapenak inposatzen dituen mugapenak gainditurik, beste arazo batzuk hartzen dira kontuan: egitura militarrak (zer motatako zerbitzuak ziren, armadak eta armamentua nola biltzen ziren, hornidurak nola erdiesten ziren), gerraren etekinak eta gastuak (soldatak, sariak, erreskateak, arpilaketa), gatibu eta biztanleria zibilaren tratamendua, gerraren eta bortizkeria belikoaren justifikazio teorikoa. Hala ere, gerra eta armadak ez dira fenomeno isolatuak. Gizarte jakin baten islak ditugu. Horretarako, gerraren eta Erdi Aroko gizartearen arteko loturak azterlan bihurtu dira. Zer eragin izan zuen jarduera belikoak ekoizpenaren eta biztanleriaren bilakaeran? Zer irabazi lortzen zuen nobleziak jarduera horretatik? Nobleziarentzat gerraren bitartez erdiesten den aberastasuna mesprezagarria ala —horrela badirudi ere— guztiz ohoregarria ote zen? Era berean, armadaren antolaketak eta prozedurek bazuten zerikusirik Erdi Aroko teknologia--maila eta gizarte-egitura jakin batekin.

Eta Euskal Herrian? Hona hemen gure artean ia ukitzeke dagoen gai bat, edo, irakurleak metafora onartzen badigu, oraindik kolonizatu gabeko kontinente bat. Ekarpen garrantzitsurik egin ez duten artikulu laburrak bazterturik, Berant Erdi Aroko Nafarroari dagokionez, lan bat datorkigu burura: *Guerra y sociedad en Navarra durante la Edad Media*[27], Jon Andoni Fernández de Larrea-rena, hain zuzen. Liburu hau, oraindik erabat burutu gabe dagoen ikerketa handiago baten parte bat da. Egileak berak dioen bezala, bi historialari frantsesen lanetan oinarritzen da ikerketa eta dokumentuen analisia bideratzeko. Historialari horiek Guy Bois eta Maurice Berthe dira. Zergatik aukeratu ditu egileak? Bere aburuz, XIV. eta XV. mendeetan Nafarroako erresumaren egitura militarrak bilakatzen badira, prozesu hori ulertzeko, aipatu den garaiko feudalismoaren krisialdian kokatu beharra dago. Gizarte osoaren krisi horrek nobleziaren errentak ahuldu eta jaitsarazi zituen. Zein izan zen noble eta aitoren semeen erantzuna? Beren gizarte-lehentasuna justifikatzen zuen eta ondoen egiten zekiten "lanbidean" —noble askok egiten zekiten ogibide bakarra, egia esanda— gero eta gehiago aritzea: gerran, hain zuzen. Gerratik etor zitezkeen abantailak izango ziren nobleziaren salbazioa: soldatak, kontratuak, harrapaketa, zerbitzu belikoaren truke emandako sariak eta pribilegioak. Guy Bois-ek Frantziaren kasurako[28] prozesu horren azalpena proposatu zuenez,

27. J. A. Fernández de Larrea (1992): *Guerra y sociedad en Navarra en la Edad Media*, EHU, Bilbo.

28. G. Bois (1983): "Noblesse et crise des revenus seigneuriaux en France au XIV^{e} et XV^{e} siècles: Le cas du domaine royal", in *Les Espagnes médiévales: Aspects économiques et sociaux*, Nice, 67-80; Berant Erdi Aroko krisiaz, egile berarena (2000): *La grande dépression médiévale, XIV^{e} et XV^{e} siècles: Le précédent d'une crise systémique*, P.U.F., Paris.

Fernández de Larreari interesgarria iruditu zitzaion Nafarroako kasuarekin alderaketa egitea. Era berean, zenbait kritika gorabehera, gaur egunera arte Maurice Berthe da Nafarroako Berant Erdi Aroko krisialdi demografikoa eta ekonomikoa ondoen ikertu duena. Gerraren atzean arazo ekonomikoak ezkutatzen badira, Berthe-ren lana ezinbesteko liburua da.

Hutsune handiak geratzen dira, jakina. Batzuk kronologikoak dira. Goi Erdi Aroko Euskal Herriko jarduera belikoaz ez daukagu ia ezer. Garai modernoagoetara mugitzen bagara, salbuespenak salbuespen[29], bando-gerrak ez dira inoiz ikuspuntu honetatik aztertu: zein ziren bandoen taktikak eta armamentua, nola arautzen zituzten beren borrokak, eta abar. Horregatik, zilegi da bando-gerrek bere Contamine edo Maurice Keen behar dutela esatea.

9. PENTSAMOLDEAK ETA EGUNEROKO BIZITZA

Pentsamoldea edo mentalitatea maiz erabiltzen diren kontzeptuak dira. Baina nola definitu, hots, zer dira pentsamoldeak? Esperientzia historikoak adierazi eta frogatzen duenez, gizarte-talde bakoitzak bere kideen jokaera edo portaerak uniformatzeko asmoa agertzen du, portaera-eredu jakin bat definituz eta inposatuz. Horrela hedatutako eredu hori normaltasun moralaren adierazpentzat jotzen da. Ondorioz, balio kulturalak, eta sinesmen eta sinbolo komunak ezartzen dira, gizabanakoek onar eta barnera ditzaten. Sozializatutako portaera horiek lirateke mentalitateak edo pentsamoldeak. Alor honetan aritu diren historialariek bi gai-mota ukitu dituzte, batez ere: herri-erlijiotasuna —heriotzaren aurreko jarrerak (tanatologia), batez ere— eta kriminaltasunaren mundua. Biek adierazten digute zein ziren garai bateko balio kulturalak, azken hauek onartuak ala ukatuak izan ziren, eta zein neurritan onartu zituzten gizarte jakin bateko kideek.

Heriotzaren kasuan, bi historialari frantses izan ziren ikerketen bultzatzaileak: Philippe Ariès eta, 80eko hamarkadatik aurrera metodo serioago eta fidagarriagoekin, Vovelle. Azken honek ezinbesteko argibide-iturria aurkitu eta erabiltzea proposatu zuen: hilburukoa. Beraren ikuspegia zabala zen. Izan ere, Vovelle-rentzat ez zen nahikoa heriotzaren aurreko jarrerak deskribatzea; aitzitik, historialariak garai bateko egitura sozial eta demografikoekin erlazionatu behar zituen portaera horiek. Euskal Herrian, Aro Berri eta Aro Garaikidearen alorrean[30], asko dira gai hori

29. Salbuespenen artean hauexek dira aipatzekoak, Gipuzkoako nobleziari buruzkoak: J. A. Fernández de Larrea (1998): "La participación de la nobleza guipuzcoana en la renta feudal centralizada: Vasallos y mercenarios al servicio de los reyes de Navarra", in *La lucha de bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal Guipúzcoa, de los bamdos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, EHU, Bilbo, 261-321; eta egile berarena (2000): "Los señores de la guerra en la Guipúzcoa bajomedieval", in *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 19-43.

30. Juan Madariaga Orbea litzateke nabariena. Ikus bere lana (1998): *Herio Anderea: Actitudes ante la muerte en el País Vasco, siglos XVIII y XIX*, EHU, Bilbo.

aukeratu eta heriotzaren inguruko erritualitatea, hiletak, ehorzketak eta erlijiozko anaidiak ikertzeari ekin diotenak. Aldi berean, ez dira mesprezagarriak folklore eta etnografiaren ikuspuntutik egin diren ekarpenak. Hala ere, Espainiar Estatuko beste lurraldeetan ez bezala, hemengo mediebalistek ez dituzte horrelako arazoak behar bezala landu.

Krimenaren mundua izan da mentalitateen historiografiaren bigarren gai nagusia. Delitua legearen eta ezarritako portaeraren antitesia den heinean, erreferentzia ezin baliagarriagoa dugu pentsamoldeak ezagutzeko. Nola? Hasteko, gaizkile batek bere jokaeraz sentimendu kolektiboak iraintzen baditu, jasango duen zigorrak sentimendu horien indarraren araberakoak izango dira. Bestela esanda, legezko zigorren zorroztasunak adieraziko digu sentimendu horien garrantzia eta intentsitatea. Gainera, balio kolektiboak bilakatu egin dira historian zehar. Beraz, jarrera bat edo portaera bat kriminaltzat jotzen denean, balio berriak agertu eta inposatzen ari direla adierazten digu horrek. Badirudi, Frantzian interes bizia piztu duen joera horrek[31] eragin mugatua izan duela Euskal Herriko historialariengan. Hala ere, salbuespenik bada: *Euskaldunak historian barrena: Jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza* izeneko lan kolektiboa litzateke adibidea; obra interesgarria argitaratu zen unerako, baina oso heterogeneoa. Horrez gain, gogoratzekoak dira Iñaki Bazán-en ekarpen berezituak[32].

BIBLIOGRAFIA

Analisi historigrafikoak eta bilketa bibliografikoak

Díaz de Durana, J. R. (1998): "Historia y presente del tratamiento historiográfico sobre la Lucha de Bandos en el País Vasco: Balance y perspectivas al inicio de una nueva investigación", in *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal*, EHU, Leioa, 21-46.

García de Cortázar, J. A. (1977): "Los estudios de tema medieval vascongado: Un balance de las aportaciones de los últimos años", *Saioak*, **1**, 181-201.

————————, (1988): "Los estudios históricos de tema medieval (1975-1986): Cantabria, País Vasco-Navarra-Rioja", *Studia Historica: Historia Medieval*, **6**, 27-56.

31. Kriminaltasunaren ohiko gaiak hauexek izan dira: delitu-motak edo kategoriak, sistema penala, gaizkileen ezaugarriak, justiziaren erakundeak, ordena publikoa eta portaeren kontrola. Arestian, beste ikuspegi bat gehitu zen: biktimena. Ikus B. Garnot (zuz.) (2000): *Les victimes: des oubliées de l'histoire?*, Presses Universitaires de Rennes, Rennes.

32. I. Bazan (1995): *Delincuencia y criminalidad en el País Vasco en la transición de la Edad Media a la Moderna*, Gasteiz; eta (1995) "La historia de las mentalidades y la criminalidad", in *La Historia a Debate: pasado y futuro*, Santiago (egile beraren beste lanen artean).

————————, (1999): *XXV Semana de Estudios Medievales, Estella-Lizarra 14-18 julio de 1998: La Historia Medieval en España: Un balance historiográfico (1968-1998),* Iruñea, 807-824.

Lema, J. A. (1998): "Bibliografía y fuentes impresas para el estudio de la Lucha de Bandos en el País Vasco", in *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal*, EHU, Leioa, 557- 601.

Martín Duque, A. J. (1987): "Horizontes de investigación en Historia Altomedieval navarra", in *Primer Congreso de Historia de Navarra. 1. Ponencias*, Iruñea, 125-143.

Zabalo, J. R. (1998): "La historia medieval de Navarra: Balance de ocho años de investigación", in *Tercer Congreso General de Historia de Navarra-Nafarroako Kondairaren Hirugarren Batzarre Orokorra (Pamplona, 20-23 de septiembre de 1994)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea (C.D. M-aren bitartez egindako edizioa).

Emakumea XVI. mendeko gipuzkoar leinuen gobernuan: ikerketarako abiapuntuak

Oihane Oliveri Korta
Geografia eta Historian lizentziatua

Izenburu honen pean bi helburu batu nahi ditugu: alde batetik, geure tesiaren proiektua aurkeztu nahi dugu; bestetik, laburki bada ere, ikerketa hori aurrera eramateko abiapuntu metodologiko nagusiak eta sortzen zakizkigun galdera eta arazo nagusiak zein diren azaldu nahi dugu[1]. Geure ikerketa oraindik burutzen ari garenez, oraindik galderak dira nagusi; baina galdera horiek beharrezkoak dira lanean aurrera jarraitzeko, eta zentzu horretan, guk hemen azaldutakoa interesgarria izango delako esperantza dugu.

Burutzen ari garen ikerketa-proiektuaren helburua, emakume kapareek Gipuzkoako etxeen gobernuan zer eginkizun zuten ezagutzea da: *oeconomica*ren barnean emakume haiei emandako funtzioak, betetzen zituzten jarduera-espazioak, zeukaten autoritate- eta botere-espazioa zein zen, autoritate- eta jarduera-espazio hori nola erabiltzen zuten, eta, izatekotan, egoera hori posible egiten zuen gizarte-konfigurazioa zein zen ulertzea[2]. Ikerketa hau, noizbait gure tesia izango den esperantzarekin, José Antonio Marín Paredes irakaslearen zuzendaritzapean burutzen ari gara. Esan daiteke gure lana, Donostian Deustuko Unibertsitateak duen egoitzan Historia Sailean garatzen ari den ikerketa-lerroaren barruan dagoela. Ikerketa horien xedea, ikuspuntu eta garai ezberdinetatik, Gipuzkoako lurraldean komunitate izateko egon diren modu ezberdinen analisia egitea da, eta, zentzu horretan, ezinbestekoa iruditzen zaigu Elena Barrena, José Ángel Achón eta José Antonio Marín-en lanak aipatzea[3].

---

1. Orrialde hauetan, UEUk Miarritzen 1999ko uztailak 5tetik 9ra, *"Historia. Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia berriak eta berrikuntza historiografikoak"* izenburupean antolatutako ikastaroaren barnean emandako hitzaldia azaltzen da. Bertan, geure ikerketa-proiektuaren nondik norakoak azaldu genituen.

2. Konfigurazio kontzeptua Norbert Elias-ek garatutakoa da bere ikerketa- eta metodologia--lanetan. Kontzeptu horren bitartez, gizabanakoak beren artean lotzen dituzten interdependentzia--modu konkretuak azaldu nahi ditu. Ikus N. Elias (1982) eta P. Corcuff (1998).

3. Hiru tesi horietan, Erdi Aroan eta Behe Erdi Aroan Gipuzkoan komunitatea eratzeko moduetan bizi izandako aldaketak eta horiek sortutako prozesuak aztertzen dira: E. Barrena (1989); J. A. Achón (1995); J. A. Marín (1998).

Esan bezala, tesiaren helburu nagusia emakume kapareek etxearen gobernuan betetzen zuten lekua ezagutzea da. Era berean, emakume haiek leinuen parte zirenez eta leinuen baitan ulertu behar direnez, gure ikerketak leinuen funtzionamendu orokorra hobeto ezagutzea posible egingo duela uste dugu. Ikerketaren subjektuak emakume kapareak izango direla azpimarratu nahi genuke, eta badakigu aukera honek kanpoan uzten dituela beste emakume batzuk.

Lanerako aukeratutako kronologia XVI. mendea da nagusiki, nahiz eta XV. mendeko azken hamarkadak eta XVII. mendeko lehenak ere barnean sartu. Zergatik XVI. mendea? Gipuzkoa eraldaketa sakonen ondoren iritsi zen XVI. mendera. Behe Erdi Aroan, batez ere XIV eta XV. mendeetan, aldaketa-prozesu sakon bat jasan zuen Gipuzkoak. Aldaketa-prozesu hori ez zen, gainera, baketsua izan; denok daukagu buruan bando-gerra. Prozesu horretan, Antzinako Erregimeneko Probintziaren oinarri izango ziren zenbait errealitate garatu ziren. Hiribildu- eta auzotasun-harremanetan oinarritutako komunitateek ordezkatu zituzten oinetxeetan eta ahaidetasun-harremanetan oinarritutako komunitate zaharrak. Lurraldeak garrantzia irabazi zuen komunitatearen antolaketan. Hiribilduak —foru bat zuten lur-komunitate pribilegiatuak— antolaketa politiko berri baten protagonista bihurtu ziren. Prozesu horren azkenerainoko garapenak Probintziaren sorrera ekarri zuen.

Era berean, aldaketa haiek kaparetasunaren zentzua ere aldatu zuten, eta nolakotasun hori hiribilduetako bizilagun guztiei zabaldu zitzaien; aldaketa horren azken ondorioa kaparetasun unibertsalaren agerrera izan zen.

Azkenik, oinetxe zaharretan bizi ziren komunitateen barnean ere aldaketa sakonak gertatu ziren. Komunitate horiek leinu moduan antolatzen ziren, eta ondorioz, ahaidetasun-harremanak eta oinetxearen ondarearekiko eskubideak hierarkizatu egin ziren, linea nagusia beste lineetatik garbiki bereiztean. Aldaketa horien ondorioz, posible gertatu zen leinua eta ondarea elkarrekin lotzea, transmisio-linea zehatz batean. Lotura horren ondorioz, etxearen figura azaldu zen. Etxeak oinetxea barneratzen zuen, eta, bertan, leinua, ondarea eta ahaidetasun-harremanen antolaketa zehatza bateratzen ziren erabateko modu batean. Azken aldaketa hori oinarri-oinarrizkoa da gure ikerketarako.

Egoera horretan iritsi zen Gipuzkoako Probintzia XVI. mendera. Mende horren hasieran prozesu hauek oraindik zeharo itxi gabe zeuden. Hain zuzen ere, mende horretan zehar definituko ziren Antzinako Erregimeneko gizartearen ezaugarriak, eta etxea eta kaparetasuna, *oeconomica* berri baten oinarri bihurtuko ziren. Azken finean, mende horretan sendotu zen kapareen estamentua Gipuzkoan. Horrek guztiak, Probintziako zenbait etxetan bereziki nabarmena izan zen dinamika bat sortu zuen, eta emakumearen eginkizuna dinamika horren barnean aztertzea bereziki interesgarria da, *oeconomica* berri horretan esleitzen zitzaizkion funtzioak zein ziren ikus daitekeelako, eta ezaugarri zaharren aztarnak ere antzeman daitezkeelako.

Izenburuak dioen bezala, helburu hori lortzeko beharrezkoak iruditzen zaizkigu zenbait abiapuntu. Lehenik eta behin, Gipuzkoako XVI. mendeko gizarte estamentalaren ezaugarriak ezagutzea. Izan ere, behar-beharrezkoa da gizarte-konfigurazio hura ezagutzea, bere baitan emakumeak zuen eginkizuna zein zen ulertzeko. Are gehiago, ezin da emakume kapareen jokaera ulertu, bere gizartearen baitan aztertzen ez bada. Gipuzkoako etxeen gobernuan emakumeek zuten zereginaz hitz egitean, zertaz ari gara, bada? Ezkontzaren bitartez bideratzen ziren etxe ezberdinen arteko harremanetan zeukaten garrantziaz; etxeen ondarearen transmisioan jokatzen zuten paperaz, bai ondasunak jasotzerakoan, dotearen bitartez, adibidez, bai ondasun horiek uzteko zeukaten ahalmena erabiltzerakoan ere; beren seme-alaben gain zeukaten autoritateaz; leinuen ondarearen eguneroko kudeaketan zuten eginkizunaz. Azken finean, *oeconomica*ren teoriak etxearen gobernua delako kontzeptuaren barnean azaltzen zituen esparru horietan guztietan zeukaten presentziaz[4]. Eta hau guztia zuzenki erlazionaturik dago gipuzkoar estamentu kaparearen antolamenduarekin. Lehentxeago laburki deskribatu dugun Behe Erdi Aroan garatutako prozesuak definitu zituen Antzinako Erregimeneko ezaugarriak. Horrela, estamentu kaparea etxea eta leinua binomioaren inguruan antolatzen zela esan dezakegu, etxeko komunitatea oinetxe batekin lotzen zuen formularen bitartez; era berean, etxeak eta bizilagunak ziren hiribilduen egituraren oinarriak[5]. Errealitate horiek, Probintziaren barne-egituraren funtsa dira, etxea baitzen garai hartan gobernu zibilaren oinarria, eta *oeconomica*ren baitan etxearen gobernua baitzen bizilagunak errepublikaren gobernurako gai egiten zituena[6]. Ondorioz, etxea bihurtu zen estamentu honetako benetako subjektua, eta etxea denboran zehar mantentzea —biziaraztea— zen leinu horien ahalegin guztien helburua. Ez dugu ahaztu behar, diskurtso horren atzean errealitate ekonomikoa ere bazegoela, etxea produkzio-unitatea baitzen, eta bai lurraren eta beste aberastasunen jabetza lortzeko bidea ere, horiek herentzia-sistemaren bitartez jasotzen baitziren batez ere. Beraz, leinu horien ezkontza-politika, etxearen ondarea filiazio-linea batekin lotzen zuen heren-

4. *Oeconomica* kontzeptuarekin ezagutu zen Europako mendebaldean Antzinako Erregimenean zehar etxearen gobernuari buruz eratutako teoria etiko, moral eta politikoa. Europari Erdi Arotik datorkion tradizioa da, eta gizartearen benetako oinarri den errealitate hori jasotzen du. Nahiz eta garaiko tratatuak etxe nobleei zuzenduta egon, etxea gizartearen benetako subjektutzat daukaten gizarteetan ere ikus ditzakegu bertan azaltzen diren ideiak. Gipuzkoa ere, tokian tokiko berezitasunak kontuan harturik, etxearen kultura horren partaide litzateke. *Oeconomica*ri buruz argitaratutako lanen artean ondokoak aipa ditzakegu: O. Brunner (1970), D. Frigo, (1985). Espainiar estatuan, Ignacio Atienza-ren lanak (1990), (1991).

5. Gipuzkoako gizarte tradizionalaren egiturari buruz, honako lan hau ikus daiteke: J. Arpal (1979).

6. «Independientemente de cuál fuera la vía, el resultado fue que la "casa" se convirtió en el núcleo social en torno al cual quedó organizada toda la sociedad guipuzcoana. De hecho, y como es norma en la época, se considera que la conservación de la casa es una contribución al mantenimiento de un "orden" que, en última instancia, es inmemorial —pues se trata de solares "originarios"— y se confunde con el divino. Y, como consecuencia, sólo quien demuestre ser capaz de "conservar" y regir "virtuosamente" su casa, es apto para decidir sobre el "bien común" de la comunidad y la "conservación" y "recto gobierno" de la república», in J. A. Achón (argitaratzear: 15-16).

tzia-sistema, ondare ekonomikoa kudeatzeko modua eta emakumeek jokatzen zuten papera ere, errealitate horien barnean ulertu behar ditugu. Bestalde, gipuzkoar gizarte hura, printzipioz, estamentu bakar batez osatutako gizarte korporatiboa zen, kaparetasun unibertsalaren ondorioz.

Ikerketaren hasierako hipotesia honako hau da: etxea mantentzearen inguruan antolatutako leinuen egitura eta gobernu-moduak zirela medio, emakumeek bazeukaten jokaera-espazio bat horien barnean, baita zenbait botere eta autoritate ere, batez ere etxekoandre modura, eta zenbait momentutan etxearen gobernua beren gain hartzera irits zitezkeen. Gaitasun horrek zerikusi handiagoa zukeen emakume horiek etxearen hierarkian zeukaten lekuarekin, taldearekiko gordetzen zuten posizioarekin eta etxearen eta leinuaren parte izatearekin, emakume izatearekin baino[7]. Horrek zerikusi zuzena zeukan Gipuzkoako gizartea estamentala izatearekin. Gizarte estamental eta korporatibo batean, gizabanakoen posizioa eta haien pribilegio eta betebeharrak, bere indibidualtasunaren baitan baino gehiago, taldearekiko definitzen ziren. Emakumeek ere etxeko partaide modura eta taldearen interesen arabera ikusten zuten definiturik beren tokia etxearen barne-gobernuan eta hierarkian. Zentzu honetan, badirudi, generoa —gizonezkoa ala emakumezkoa izatea— ez zela guztiz determinantea pertsonaren postua definitzean, zeren etxea eta berari zegokion logika baitziren, azken finean, gizabanakoek bere egitura barruan zeuzkaten funtzioak definitzen zituztenak. Beraz, galdetu beharko dugu zein funtzioz eta ezaugarriz beterik zegoen genero femeninoa estamentu kaparean; nola gauzatzen zituzten emakume kapareek beren estamentuaren ezaugarriak; eta ea ba ote zeuden zenbait eginkizun eta egoera, generoaren baitan baino gehiago taldearen partaidetzaren baitan definitzen zirenak.

Lanaren helburu nagusiak eta hasierako hipotesia horiek izanik, gaira hurbiltzeko eta ikerketa planteatzeko, behar-beharrezko abiapuntua da bibliografiaren eta egindako lanen ikerketa egitea. Bibliografia tratatzeko orduan, zenbait arlo eta bide ezberdin jarraitu ditugu: euskal gizarte estamentala ezagutarazten duten obrak

7. «La casa se convierte en lo que Lévi-Strauss (1984: 190) ha denominado "la persona moral poseedora de un dominio, que se perpetúa por transmisión de su nombre, de su fortuna y de sus títulos en línea real o ficticia, considerada legítima con la sola condición que esta continuidad pueda expresarse con el lenguaje del parentesco o de la alianza y, lo más corriente, de los dos a la vez". En estas "sociedades de casas" el principio de prelación masculina sobre la femenina, el del hermano mayor sobre el menor o el principio de la patrilocalidad no se aplican con el mismo automatismo que se aplica la filiación en las sociedades de linajes. A la filiación se superponen los derechos patrimoniales y éstos son los que trazan las líneas de filiación. La reproducción de las casas a través de un único sucesor y heredero principal no tiene que considerarse como el resultado exclusivo de la aplicación de un principio lineal como si las casas fueran linajes. Ni la primogenitura ni el predominio de la línea masculina sobre la femenina son el único vehículo para la sucesión de la casa y la herencia principal del patrimonio. La transmisión a una hija o a un hijo menor no constituye una excepción a una regla formal que se traza a través de una única línea de filiación, sino que sigue la lógica de perpetuación de la casa como unidad patrimonial». J. Bestard, (1992: 135).

lehen abiapuntua badira ere, gizarte-sareak, *oeconomica*ren funtzionamendua eta funts instituzionala aztertzen dituztenek ere analisi-ereduak ematen dizkigute. Lehenik eta behin, Antzinako Erregimeneko euskal gizarteari buruzko eta emakumeari buruzko lanek lehen abiapuntua eman digute. Zehazki emakumeari dagokionez, lanak gutxi izan dira orain arte, euskal historiografian behintzat. Aipatu beharrekoak dira, besteak beste, Lola Valverde (1991), José Antonio Az-piazu (1995) eta Maite Lafourcaderen lanak, azken hau Ipar Euskal Herriaren ka-suan[9]. Lola Valverdek eta Maite Lafourcadek Euskal Herrian emakumeak izandako kondizioa aztertu dute, herentzia-sistemak haien gain izan zuen eraginaren eta legeak ematen zien kondizioaren ikuspuntutik. José Antonio Azpiazuren lanak informazio ugaria ematen digu emakumeak parte-hartzailetzat zituzten esparru ezberdinei buruz, nahiz ekonomiari buruz, nahiz etxeei zegokienari buruz, nahiz erlijio-munduari buruz. Emakumeek eguneroko bizitzan garatzen zituzten ahalmenez ere hitz egiten du azken autore horrek.

Aro Berriko gipuzkoar kapareen estamentuari eta leinuen antolaketari buruzko lanak poliki-poliki ari dira garatzen. Jesús Arpalen liburu eta artikuluak oinarrizkoak izan zaizkigu, gizarte hartara hurbiltzeko. Haietan, soziologiaren ikuspuntutik, estamentu horren funtsak azaltzen dira[9]. José Urrutikoetxearen tesia, nahiz eta Antzinako Erregimenaren bukaeran kokaturik egon, eta lehen aipatutako Achón-en eta Marín-en lanak ere, batez ere, XVI. mendean ahaide nagusien etxeek bizi izan zituzten prozesu eta aldaketen azterketa egitean, gure oinarrizko bibliografiaren parte dira[10]. Aipatu beharra daukagu, halaber, zuzenbidearen historiaren barruan, Álvaro Navajas Laporte-k (1975) Gipuzkoako etxearen herentzia-sistemari buruz egindako lana.

Esan bezala, *oeconomica*ren eta sare sozialen funtzionamendua aztergai dituzten lanak interesatu zaizkigu bereziki. Lan horietan aztertzen dira, batez ere eliteen kasuan, boterea, familia-antolaketa eta estrategiak, eta elementu horien arteko harremanak nola uztartzen ziren. Horrela, etxearen gobernuaren eguneroko funtzionamendua eta Antzinako Erregimeneko gizarte-egituraren eta egitura politikoaren arteko harremanak ikus ditzakegu. Izan ere, espazio publikoa eta espazio pribatua bereizten ez zituen gizarte-antolaketa batean, ez da ahaztu behar etxearen inguruan hartutako erabaki askok eragin publiko zuzena izan zezaketela, eta ezinezkoa zela etxearen espazio domestikoa eta errepublikaren gobernua banatzea, eta, halaber, eliteen botere-estrategiek familia-harremanak barneratzen zituztela. Lan horiek guk ikertutako leinuen bilakaera ulertzeko analisi-eredu izan daitezke. Oso erabilgarriak gertatu zaizkigu elementu horiek ikuspuntu ezberdinetatik aztertzen dituzten zenbait autoreren lanak. Autore horien artean, euskal gizartea

8. M. Lafourcade (1999); L. Valverde (1991); J. A. Azpiazu (1995).

9. Bereziki erabili dugu geure lanerako bere tesia izan zena, J. Arpal (1979); eta egile beraren (1977).

10. J. Urrutikoetxea (1992); J. A. Achón (1995); J. A. Marín (1998).

aztergai dutenak eta beste gizarte batzuk aztertzen dituztenak daude. Etxearen eta *oeconomica*ren inguruko antolaketen azterketa dute denek elementu komuna. Talde horretan daude, besteak beste, José María Imízcoz Beunza-ren lanak, José Ignacio Atienza-renak, Francisco Chacón-ek Murtziako Unibertsitatean garatutako ikerketak eta Joan Bestard-en lanak[11].

Bestalde, zuzenbidearen historian eta historia instituzionalean ere, analisi-eredu interesgarriak aurki daitezke Antzinako Erregimeneko egitura politikoa ulertzeko eta egitura honen eta *oeconomica*ren arteko harremanak ulertzeko. *Oeconomica*ri buruz Daniela Frigo-k eta Otto Brunner-ek egindako ikerketak, Antzinako Erregimeneko konstituzio politikoari buruz Antonio Hespanha-ren artikulu eta liburuak, eta baita Bartolomé Clavero-ren lanak ere (proposatzen dituen metodologi berrikuntza guztiekin) oso interesgarriak gertatu zaizkigu[12]. Gipuzkoa eta Euskal Herrira itzuliz, Achón-en eta Portillo-ren zenbait lan ere lerro horretan leudeke, eta garaiko egitura politikoa ulertzen lagundu digute[13]. Hauek lirateke jorratutako ikerketa-lerro eta irakurketa garrantzizkoenak.

Oinarri horretatik hasita, gure lana burutzeko ezinbestekoa zitzaigun planteamendu metodologiko jakin bat edukitzea. Metodologiaren barruan sartuko genituzke, analisirako metodoa, erabiliko ditugun iturriak, eta errealitate hura ulertu eta interpretatzeko beharrezkoak deritzegun tresna kontzeptualak.

Gure kasuan, ikerketa aurrera eramateko aukeratutako analisi-metodoa mikrohistoriatik gertu dagoela esan daiteke; gainera, metodo kualitatiboa da, batez ere. Gure ustez, ikertu nahi dugun errealitatea bere sakontasunean aztertzeko, lanabes ona da metodo hau. Gainera, erabiliko dugun dokumentazioak berak "eskatzen" duen metodologia da. Dokumentazioak berak eraman gaitu horrelako ikerketa-metodoa aukeratzera. Mikrohistoria ez da historia lokala, baizik eta, mikrokasu baten aukeraketaren bitartez, analisi zehatz eta sakonagoa posible egiten duen analisi-eskala[14]. Leinuen barruan emakumeek zuten zeregina era sakonean ulertzeko, etxeen egunerokotasunean betetzen zituzten eginkizunen aztarnak jarraitzeko, etxeen eta haien parte ziren emakumeen harreman-mundua berregiteko, beharrezkoa da eskala txikiago batean lan egitea, dokumentazioari beharrezko galderak egin ahal izateko, eta beharrezko sakontasunarekin eguneroko harreman-munduak eta funtzionamenduak berregiteko. Erantzunak zailago aurki daitezke eskala orokor batean egindako lan batean. Uste dugu, emakume kapareen funtzioen eta estatusaren zentzu soziala ulertzera iritsiko garela modu horretan;

11. J. M. Imízcoz (1995); F. Martínez Rueda (1996); I. Atienza (1993). Lehen aipatutako Atienza-ren lanak ere, (1990), (1991), kontuan hartu beharrekoak dira. Halaber, F. Chacón eta J. Hernández Franco (1992); J. Bestard (1992).

12. D. Frigo (1985); O. Brunner (1970); A. M. Hespanha (1993); B. Clavero (1986).

13. J. M. Portillo (1998); J. A. Achón (1998) eta (argitaratzear).

14. Mikrohistoriaren bitartez aztertutako bi kasu, G. Levi-ren (1990) eta Gizburg-en (1996) liburuetan aurki ditzakegu.

behintzat, ildo horretatik goaz, eta, horrela, planteatutako arazoa hobeto ulertuko dugulakoan gaude. Noski, problema orokor bateko kasu zehatz baten azterketa legez planteatzen dugun heinean, azterketa honek arazo orokorra ulergarri egingo duten ondorioak izango dituela uste dugu.

Planteamendu horri jarraiki, beharrezkoa zitzaigun geure mikrokasua aukeratzea, eta, mikrokasu hori planteatzeko, ahaidetasun-harremanen bitartez loturik zeuden zenbait etxe aukeratu ditugu geure azterketarako, hauetako bat ikerketaren ardatza izango delarik. Hau da: Bergarako Egino-Mallea leinua eta berarekin harremanetan zeuden Bergarako Ondartza eta Egino etxeak, eta Eibarko Mallea etxea. Ahaidetasunaren erreferentziaz gain, zabalagoak ziren harreman-mundu ezberdinetan mugitzen ziren: hiribildua, Probintzia, Monarkia. Gainera XV. mende bukaeratik XVII. mende erdialderaino prozesu jakin batean mugitu ziren. Prozesu horrek, merkatari izatetik noble moduan bizitzeko aukera eman zien ondarea sortzera eraman zituen, maiorazkoak sortzera, beren etxeak —horietako batzuk leinu zaharren bigarren semeek sortutako etxe berriak— etxe noble bihurtzera, eta, Egino-Malleatarren kasuan behintzat, noblezia tituluduna lortzera[15]. Zentzu honetan, gizarte-antolaketari dagokionez, Gipuzkoan XVI. mendean gertatu zen dinamika garrantzitsuenetako baten ordezkariak dira; beren etxeak sortu eta antolatu zituzten, eta antolaketa horretan emakumeek definituta ikusi zuten beren espazioa. Prozesu horretan guztian, emakumeak —beti ere leinuen partaide gisa— funtsezkoak izan ziren: ezkontzen bitartez lortzen ziren harremanetan; etxeen eguneroko kudeaketan; maiorazkoak sortzean beren ondareak senarrarenarekin bat egitean; alargun, tutore eta kuradore gisa beren seme-alaben gain zeukaten autoritatearengatik; azken finean, etxeko andere modura zuten eginkizunagatik.

Lehenago esan dugun bezala, dokumentazioak berak argitu digu jarraitu beharreko metodologia, hein handi batean behintzat. Erabilitako dokumentazioa etxe haien egunerokotasuna jasotzen duena da: etxearen gobernuaren eguneroko aztarnak, normaltasunak eta tentsioak barne. Eta hain zuzen ere, dokumentu horietan aurkitu ditugu emakume haien aztarnak, bizi zituzten eguneroko arazoenak, etxearen gobernuaren inguruan sortzen ziren tirabiretan zeukaten betebeharrena, etab. Zein dokumenturekin ari gara lanean? Esan bezala, etxe horien eguneroko bizitza islatzen duten dokumentuekin. Eskribauen aurrean egindako protokoloek berebiziko aberastasuna dute horrelako lan bat egitean. Gero eta gehiago, Antzinako Erregimeneko gizartea aztertzeko protokoloek daukaten baliagarritasuna adierazten ari dira lan ezberdinak. Ezkontza-kapitulazioek, testamentuek, baina baita ere lurren edo beste edozein ondasunen salerosketa-kontratuek, zentsuek, obligazio-gutunek, eta abarrek posible egiten dute lehen aipatutako prozesu hori

15. José Antonio Marín-ek Loyola leinuaren kasuan aztertzen du zer esan nahi duen haien etxea noble bihurtzea, aldaketa hori XVI. mendean gertatu zelarik. Nahiz eta guk aztertutako leinuak ahaide nagusienak ez diren, eredua aplikagarria iruditzen zaigu. J. A. Marín (1998: 238-263).

pausoz pauso jarraitzea; eta etxearen gobernua zertan gauzatzen zen ulertzen laguntzen dute. Gainera, dokumentu horien azterketaren bidez, leinuen harreman-mundua berregin daiteke, negozioak zein pertsonekin egiten zituzten ikusita (pertsona horiek beste motatako dokumentuetan lekuko moduan azaltzen ziren) edo eta haiekin izan zituzten harremanak zein motatakoak ziren aztertuta. Gainera, Probintziako erakundeek sortzen zuten dokumentazioan ez bezala, dokumentu horietan emakumeak azaltzen dira, etxearentzat behar-beharrezkoak ziren eginkizun horietan guztietan parte hartzen. Horrela uler dezakegu zein zen haien benetako lekua gipuzkoar kapare-estamentuaren *oeconomica*n. Zentzu horretan, Oñatiko Protokoloen Artxibo Historikoan gordetzen diren protokoloen aberastasuna azpimarratu nahi genuke beste behin.

Protokoloek eguneroko normaltasuna erakusten badute ere, nahiz eta tentsioak ere bertan azaltzen diren, auzietan ikus daitezke garbien etxearen antolaketak eta etxearen inguruan egituratutako harreman-mota haiek sortzen zituzten eztabaidak, eta emakumeek haietan nola parte hartzen zuten. Gipuzkoako Artxibo Orokorreko Korrejimentu-sailean eta Valladolideko Chancillería-n gordetzen diren auziek ere informazio ugari ematen dute; batez ere konfliktuak aztertzeko, hau da, familiaren barruan zeuden tentsioak ikusteko. Baina auziak erabilgarriak dira, baita ere, ondarea nola sortzen zen edo zein ondarez ari garen jakiteko, adibidez, herentziaren partiketa zela-eta sortutako auzietan, non partiketa hori egiteko ondarea tasatzen zen.

Beste zenbait dokumentu ere erabilgarriak dira. Hala nola hiribilduetako udalek sortutakoak. Haietan ikus dezakegu gure aztergai diren etxeak hiribilduko komunitatean nola uztartzen ziren; zein postu zeukaten bizilagunen hierarkian; hiribilduaren gobernuan zeukaten parte-hartzea, etab. Horrela, harreman-mundu osoa berregin dezakegu eta, mikrokasuaren azterketaren bidez, Gipuzkoako XVI. mendean emakume kaparea izatea zertan gauzatzen zen hobeto ulertu.

Badago beste dokumentazio-mota bat aurkitzen askoz ere zailagoa dena: etxe horien dokumentazio "pribatua"; hau da, agiritegi publikoetara iritsi ez den dokumentazioa. Agiritegi pribatuetan protokoloak dira nagusi. Baina posiblea da, halaber, beste motatako dokumentuak aurkitzea: kontu-liburuak, gutunak... Hauek izanez gero, imajina osatuta geratuko litzakeela esan daiteke[16]. Hala ere, agiritegi pribatuetara iristeko dauden zailtasunak direla medio, kasu gehienetan dokumentazio hori gabe burutu behar dira ikerketak.

Lehen esan dugun bezala, errealitate hura ulertzeko eta interpretatzeko instrumentu kontzeptual batzuen beharrean gaude. Gure kasuan, XVI. mendeko emakumeen jarduera eta botere-espazioak zein ziren aztertzean sortzen zaizkigun

16. Gure kasuan, Peñafloridako kondeen agiritegian dago gordeta Eibarko Malleatarren dokumentazioa. F. B. Aguinalde eta G. Vives (1987).

arazo edo kezkak gainditzeko erabiltzen ditugu lanabes kontzeptual horiek. Gure erronka beste historialari guztiena da: nola hurbildu antzinako gizarteetara, nola ulertu haien benetako funtsa, eta nola baztertu lan horretan gaur egungo analisi--kategoria eta pentsamoldeen eragina. Azken finean, ikertzaileak ikerketa-objektuarekiko duen harremana da kezkatzen gaituena[17]. Eta kezka hori bi puntutan zehazten zaigu: Antzinako Erregimeneko gizarte estamentala ulertzeko zailtasunetan, eta, horren barruan, emakumearen benetako eginkizuna zein zen aztertzeko, gaur egun erabiltzen ditugun zenbait analisi-kategoria erabiltzerakoan egin beharreko moldaketetan.

Ikertzen ari garen gaiari orain dela lau urte hurbildu gintzaizkion lehen aldiz, Andoaingo Udalarentzat egin genuen lan baten bidez (O. Oliveri, 1996). Ikerketa Andoaingo Antzinako Erregimeneko emakumeen egoerari buruzkoa zen. Lehen hurbilketa hura egin genuenean, zenbait aurreiritzi genituela aitortu behar dugu. Emakumea, gizabanako emakume izateagatik, gizonarekiko guztiz menperaturik egongo zen gizarte bat aurkitzea espero genuen; eta generoari zegozkion roletan pentsatzean, gaur egun etxekoandre hitzarekin ulertzen duguna aurkitzea espero genuen. Baina garaiko dokumentuek beste errealitate bat erakutsi ziguten: gizarte estamental eta korporatibo baten errealitatea, non gizabanakoaren posizioa taldearekiko zuen harremanean definitzen zen; honek eraldatu egin zuen emakumeen jokaerak aztertzeko modua, eta horrela ulertu ahal izan genuen zergatik egiten zituzten emakume haiek beren etxeentzako negozioak, nola gobernatzen zituzten beren seme-alabak, eta zergatik balio zuten ezkontzaren bitartez harremanak bideratzeko. Noski, gizarte estamental hartan bazeuden menpekotasunak, eta, legez eta tradizioz, gizona zen gizarte hartan nagusiena. Baina honek ez zuen dena azaltzen. Emakumeek ere osatzen zuten gizarte hura. Emakumeek, etxeen parte izateagatik, zenbait jarduera-espazio zituzten, ordura arte imajinatzen ez genituenak. Horrek pentsarazi zigun, ikerketa historikoetan generoaren perspektiba erabiltzeko egon daitekeen zailtasunaz. Eta zehatzago, pentsarazi zigun, agian, ulertu beharko genuela zein eduki ematen zion kapareen estamentuak emakumeen generoari, eta nola, agian, generoa ez zen etxearen barruan zeukaten posizioa azaltzen zuen elementu bakarra. Taldea, estamentua, etxea eta haienganako partaidetza kontuan edukitzekoak ziren horiek guztiak. Guretzat sorpresa bat izan zen, eta benetan "bestelakoa" zen gizarte baten aurrean sentitu ginen.

17. Norbert Elias-ek horrela ulertzen zuen giza zientziek zientzia gisa daukaten berezitasuna: «Si bien pertenecen al ámbito de las ciencias, para Elias las ciencias sociales se distinguen de las naturales en dos grandes propiedades específicas relacionadas: 1) Sus "objetos" son al mismo tiempo "sujetos" que tienen representaciones de su vida en la sociedad (a diferencia, por ejemplo, de los átomos de los físicos). 2) Los investigadores también forman parte del objeto del estudio. Esto le conduce a definir la postura del investigador entre el distanciamiento y el compromiso», P. Corcuff (1998: 24).

Gure eta ikertzen genuen objektuaren arteko harremanetan, gizarte hura zen bezala ulertzen saiatzeko egin beharreko ahaleginak eta erabili beharreko lanabesak zein izan behar zuten pentsatzera bultzatu gintuen horrek guztiak[18].

Bilaketa horretan, soziologia eta antropologia oso lagungarri gerta daitezkeela uste dugu, hain zuzen ere, zientzia horietan proposatu diren zenbait berrikuntza eta debate epistemologikoengatik, eta horiek historialariengan izandako eraginengatik. Ikerketako metodo genealogikoa —Marx, Weber eta Durkheim aitzindaritzat dituena, eta Foucault-ek eta Elias-ek berritu dutena— gizarte-egitateen sorrera eta egituraketa-prozesuei buruz aritzean, lagungarri zaigu, ikertzaileak berak bere gizartearen baitan ikertzeagatik izan ditzakeen aurreiritzi eta distortsioen aurrean erne egoteko. Prozesu horien bitartez uler dezakegu gure errealitatea ere prozesu historiko batean sortua dela, eta gure buruak prozesu horren parte direla. Horrek eragin zuzena du, noski, antzinako gizarteengana luzatzen dugun begiradan[19]. Bestalde, oso interesgarriak iruditzen zaizkigu soziologiaren mundutik ikertzailearen eta ikerketa-objektuaren arteko harremanei buruz garatutako hausnarketak ere[20]. Azkenik, antropologiak gizarte-antolaketa haiek "begiratzeko" modu berri bat garatu behar izan du europarrak ez diren gizarteak aztertzerakoan, eurozentrismoa alde batera uzteko. Horrela, alteritate kontzeptua garatu behar izan du. Gure antzinako gizarteak "bestelako" gizarte batzuk dira guretzat ere, eta, horregatik, haiek ikertu eta aztertzean, lagungarri gerta daiteke alteritatea eta antropologiak garatutako ikerketa-kategoriak erabiltzea[21].

Funtsezkoak iruditzen zakizkigun zenbait ideia azpimarratu nahi genituzke:

18. Pierre Bourdieu filosofo eta soziologoak ikerketa-lanetan ikertzailearen eta ikerketa-objektuaren arteko harremanek daukaten eragina aztertu du, eta harreman horiek kudeatzeko pauta batzuk eman ditu ikerketa-lanaren kalitate zientifikoa hobetzeko: «Es por un movimiento de reflexividad (volviendo a sí mismo y a su actividad) como el sociólogo puede evitar los errores ligados al intelectualismo: tomar su propia relación intelectual con el objeto de análisis por la relación del agente con su acción. Por lo tanto, la capacidad del sociólogo de tener en cuenta que su relación con su objeto constituye uno de los medios de mejorar la calidad científica de su trabajo. De ahí la importancia de lo que Bourdieu denomina una *objetivación participante*, pues la objetivación (en este caso, en el sentido de conocimiento científico) de la relación subjetiva del sociólogo con su objeto (su participación en el objeto que analiza) forma parte de los requisitos para que su análisis sea científico», P. Corcuff (1998: 38).

19. Ikerketako metodo genealogikoari buruzko eta ikerketa-metodo honek sexuen arteko harremanak aztertzeko izan dezakeen balioari buruzko azalpen bat aurki daiteke Julia Varela-ren lan honetan: J. Varela (1997). Benetan lagungarri gertatu zaigu liburu hori, bertan aztertzen baita gaur egungo izate femeninoaren sorrera eta garapena.

20. Azken urteotan soziologiaren munduan garatutako debate eta hausnarketa epistemologikoei buruz, ikus P. Corcuff (1998).

21. Horixe proposatzen du Bartolomé Clavero historialariak. Bere ustez, Antzinako Erregimeneko gizartea bere baitan ulertu behar da, eta horretarako, erabilgarriak dira antropologiak garatutako lanabesak. Ikus B. Clavero (1986).

Edozein gizarte-konfigurazio, bai ekonomiaren arloan, bai sexuen arteko harremanetan, bai gizarte horrek berari buruz dituen ideietan, denboran zehar gertatutako prozesu baten ondorioz sortutakoa da. Gizarte-errealitateek genealogia bat dute, ez dira bat-batean gertatzen, eta ez dira betidanik eta betiko sortuak ere. Gizarte-errealitateak egitate historikoak dira[22]. Emakumeari eta sexuen arteko harremanei buruz gaur egun ditugun ideiak eta kontzeptuak ere, prozesu baten ondorioz sortu dira, eta Julia Varela-ren iritziz "emakume burgesaren" ideala izan da prozesu horren ondorioa. Sortze hori modernitatean zehar gertatu zen mekanismo ezberdinen bidez. Berak *dispositivo de feminización* modura definitu ditu mekanismo horiek guztiak. Dispositibo horretan izate femeninoak nolakoa behar zuen izan definitzen joan ziren elementuak barneratzen ditu (J. Varela, 1997: 10-11). Gaur egungo ideala dena delakoa izanik ere, emakumearen irudia ere historian zehar sortutako zerbait dela azpimarratu nahi genuke, eta beti ez dela berdina izan. Gure iritziz, hori kontuan hartzea oso garrantzizkoa da, emakume haien bizitza aztertzerakoan gure nahi eta kezkak haien gain ez proiektatzeko, eta emakume haien gizarte-errealitatea errealitate haren baitan ulertzeko. Horrek ez du esan nahi, emakume haiek sufri zitzaketen menpekotasunak aztertu behar ez direnik, baina bai haien gizartearen baitan aztertu eta ulertu behar direla, eta haien momentu historiko zehatzean kokatu behar direla. Agian, jasoko dugun imajina, guk espero dugunaren oso ezberdina izango da. Bestalde, horrela baztertu egin dezakegu, Varela-k esaten duen moduan, zenbaitek beren ikerketetan izan duten emakumearen esentzia bilatzeko arriskua[23].

Antzinako gizarteak guztiz bestelakoak ziren gizarteak dira, eta ezin dira gaur egungo kategoriekin ikertu. Guregandik oso urrun dauden gizarteak aztertzerakoan, Bartolomé Clavero-k aztertu du haiek ulertzeko antropologiak sortutako analisi--metodoek eta kontzeptuek historian izan dezaketen eragina. Pentsa dezagun ahaidetasun-harremanak aztertzeko antropologiak garatu duen metodologiaz, eta Antzinako Erregimeneko gizarte estamental bat aztertzean horrek izan dezakeen

22. Esan bezala, metodo genealogikoa hasiera batean Marx-ek, Max Weber-ek eta Durkheim-ek proposatu bazuten ere, Norbert Elias-ek eta Michel Foucault-ek berritu zuten. Metodo honen proposamenaren atzean, gizakiaren historian zentzu orokor eta suprahistoriko bat bilatzen duen historizismoari aurre egiteko saiakera dago. Zenbait gizarte-errealitate naturaltzat jotzeak (hau da, nolabait naturaren legeetan oinarritutakoak eta, ondorioz, historiaz kanpo gertatzen direnak balira bezala hartzeak) dakartzan arriskuen aurka sortutako metodoa litzateke. Julia Varela-ren lanak sakonean aztertzen ditu autore horien ideiak, eta soziologia eta giza zientzietara ekarritako berrikuntzak (J. Varela, 1997: 19-57).

23. «La genealogía contribuye, en consecuencia, a poner en cuestión aquellas investigaciones, realizadas por algunas feministas, que parten de la existencia de una especie de esencia femenina originaria que habría sido negada o recubierta históricamente por toda una serie de procesos, esencia que habría que reconquistar, y que se manifestaría a través, por ejemplo, de una forma distinta de escritura, de arte, de cultura. Justamente una de las principales finalidades de este libro es mostrar que la formación de esa "esencia femenina" es el resultado de procesos complejos articulados en torno a lo que he denominado *dispositivo de feminización*», J. Varela (1997: 78).

eraginari buruz. Clavero-k azpimarratu egin ditu erakundeen historia egitean dauden arriskuak: Antzinako Erregimeneko erakundeak Aro Garaikidekoen aitzindari huts modura aztertzea batetik, eta, azken Aro horren analisi-kategorien baitan aztertzea bestetik. Batez ere, Antzinako Erregimeneko egitura politikoak ulertzeko *Estatu* kategoria —desegokiro— erabiltzean (Clavero, 1986), garaiko egitura politikoak garaiko errealitateari dagozkion kontzeptuen bidez aztertzeko beharra ikusarazten digu. Gauza bera esan dezakegu, gizarte hartan gertatzen ziren talde ezberdinen arteko harremanak ikertzeko José María Imízcoz Beunza-k proposatzen dituen perspektiba berriez (Imízcoz, 1995).

Era berean, autore horien proposamenei jarraituz, guztiz beharrezkoa da garai hartako emakume kapareak beren gizartearen errealitatearen barnean aztertzea. Eta zentzu horretan, ez zaigu erabilgarria iruditzen, emakume kapareak beren generoaren perspektibaren baitan bakarrik aztertzea, norbanako emakume modura batez ere, Antzinako Erregimeneko gizarte korporatibo eta estamentalean murgildurik zeudenean, eta etxearen baitan zuten eginkizuna ulertu nahi dugunean. Ulertu behar duguna honako hau da, alegia, zer esan nahi zuen emakume kapare eta etxe baten partaide izateak Gipuzkoako Antzinako Erregimenean; eta horrelaxe ulertuko dugu, zer gizarte-zentzu zuen genero femeninoak konfigurazio hartan. Eta, agian, esan beharko dugu, generoa ez zela etxearen egituran haiek zeukaten tokia definitzen zuen elementu bakarra.

Gure ustez, ezinbestekoa da leinuarekiko, etxearekiko eta estamentuarekiko erreferentzia, emakume haien jokaera ulertzeko[24].

Bukatzeko, orain arte egindako lanaz eta lan honek emandako emaitzez aritu nahi genuke. Noski, oraingoz erantzunak baino askoz ugariagoak dira galderak; baina, behin-behinekoak badira ere, zenbait emaitza ager ditzakegu.

Lehenik eta behin, badirudi aztertutako emakume kapareek bazituztela zenbait jarduera-espazio etxearen gobernuan, eta espazio horiek autoritatea eta boterea barneratzen zituztela; nahiz eta etxearen barruan, legez eta tradizioz, gizona —hau da, *pater familias* zelakoa— izan botere eta autoritatearen buru. Botere-espazio horiek emakumeak etxekoak izatearekin —eta, batez ere, etxeko andereak izatearekin— leudeke loturik. Puntu bat azpimarratu behar da: etxeak jaun-andereak zituen, eta zentzu horretan ezkontza-bikotearen garrantzia berebizikoa zen. Lehen esan dugun bezala, Behe Erdi Aroan oinetxeetan bizi ziren komunitateek leinu

24. «Trabajar en estos términos sería algo así como analizar la sociedad baztanesa en términos de hombres y mujeres, sin tener en cuenta la casa, que organiza a unos y otros en funcionamientos reales y les da su plena significación social. En efecto, sería puro presentismo amputador estudiar la condición femenina, las mujeres, como mero conjunto de individuos caracterizado por su especificidad femenina con respecto a los individuos hombres. Por ejemplo, en la sociedad baztanesa, la etxekoandre, no por ser individuo-mujer, sino como ama de la casa, tiene unas funciones, una autoridad y un reconocimiento social claramente superior a los hombres y mujeres solteros del grupo doméstico», J. M. Imízcoz, Floristán eta A. Floristán (1993: 25).

forma hartzen zuten, eta ondarea leinuari lotzen zioten transmisio-modu zehatz batean. Prozesu horrek aldaketa sakonak ekarri zituen etxearen barneko ahaidetasun-harremanen antolaketan. Alde batetik, hierarkia garbi bat sortzen zen neba-arreben artean, eta oinordekoa beste neba-arreben gainetik bereizten zen. Hark jasoko zuen etxearen ondarea, eta bera izango zen etxearen nagusi berria, bere senar edo emaztearekin batera. Haren neba-arreben aukerak —ondarearekiko, ezkontzarekiko, etab.— bere menpe geratzen ziren, eta, gainera, neba-arreba horiek lurraren jabetzaz kanpo geratuko ziren, jasoko zuten herentzia dote eta legitima moduan jasoko baitzuten. Emakumeengan eragin zuzena izan zuen prozesu horrek, kasu gehienetan haiek izango zirelako ondare higiezinetik kanpo geratuko zirenak. Baina era berean, leinuen sorrerak eta ondare-linea garbien sorrerak ezkontza-bikotearen garrantzia azpimarratu zuen, hartan gauzatzen baitziren belaunaldiz belaunaldi etxearen burutza, ondarearen gaineko eskubideak, autoritatea eta etxea komunitatean errepresentatzeko lana. Horrek lerroak garbi mantendu beharra eskatzen zuen, garbi gera zedin zein ziren etxearen jabeak eta etxekoak, gainerako ahaideen aurrean eta komunitatearen aurrean. Horrek handitu egin zuen emakumeak andere modura zeukan eginkizunaren garrantzia, gure ustez, eta horrela etxeko anderearen figura indar berriz agertzen da Antzinako Erregimeneko gizartean. Emakumeek, etxeko andere gisa, funtzio ezberdinak zituzten: adibidez, komunitatearen aurrean etxearen errepresentatze-lana beren gain hartzen zuten, gizonezkoek bezala.

Errepresentatze-lan hori oso nabarmena zen, adibidez, eliza barruan. Eliza espazio sakratua zen komunitatearentzat, eta bertan eszenifikatzen eta sakralizatzen ziren gizarte-harremanak eta gizarte-posizioak[25]. Horregatik, oso garrantzizkoa zen bertan gertatzen zena. Eta hain zuzen ere, ogiaren eta argizariaren eskaintzak, hildakoen ardura eta hilobiaren bitartez publikoa egiten zen etxekoen posizioa mantentzea, horiek guztiak emakumeen lanak ziren[26]. Izan ere, emakumeek beren gain zuten ez-materiala zen herentzia hori mantentzea.

Kontuan izan behar dugu, halaber, emakume haiek —guk ikertutakoak behintzat— eliteen parte zirela eta, horrek ere, botere-posizio bat ematen ziela, adibidez, gizarte-maila baxuagoko pertsonekin zituzten harremanetan.

Bestalde, zenbait egoeratan etxeko andereek gizonezkoenak diruditen botereak hartzen zituzten beren gain. Horrela, ez da arraroa, emakume haiek kontratuak ematen ikustea, zentsuak egiten, baserrietako errenta kontratuak eguneratzen, eta abarretan. Normalean, jarduera horiek gizonezkoak ez zeudenean berenganatzen zituzten.

25. Elizak garai horretan zuen eginkizunari buruz, ikus J. Arpal (1979: 73-131).

26. Hilobien jabetzaren inguruan sortutako auzietan argi azaltzen da hilobien jabetza etxeko emakumeen bitartez gauzatu eta mantentzen zela. Bestalde, ez da ahaztu behar etxekoak ez zirela bizirik zeudenak bakarrik; aitzitik izandakoak, hau da, hildakoak, eta izango zirenak ere komunitate domestikoaren partaide ziren.

Aztertutako leinuetako baten kasuan, senar-emazteen arteko "lan-banaketa" egitera iritsi ziren, eta gizona Gipuzkoatik at zituzten negozioez arduratzen zen bitartean, emakumeak Bergarako etxea gobernatzen zuen.

Zentzu horretan, bereziki interesgarria da alargunek zuten eginkizuna, batez ere, alargun izatearekin batera seme-alaben tutoretza eskuratzen zutenean. Tutoretza horrek, seme-alaben gaineko boterea emateaz gain, emakume haien esku uzten zuen ondare ekonomikoaren kudeaketa, baita adin-txikikoak (garai hartan 25 urterainokoak) ziren seme-alabak legearen aurrean defenditzeko gaitasuna ere.

Emakumeen bidez bideratutako harremanek eta emakumeen bidez jasotako ondasunek (dotearen bitartez, adibidez) oso garrantzizkoak dirudite leinu haiek bizi zuten prozesuan, ondareak sortzean; eta, halaber, harreman-sare ezberdinetan sartzeko edo ohorea lortzeko. Aurrerago esan dugun bezala, Gipuzkoako leinuek bizi izan zuten prozesu hartan, emakumeak etxearen ondaretik at geratu ziren kasu gehienetan. Baina honek ez du esan nahi etxearekiko funtziorik betetzen ez zutenik. Alabak, —semeak ere bai, baina alabak bereziki— beste etxeekin harremanak mantentzeko erabiltzen ziren, ezkontzetarako eta ezkontzen bitartez. Harreman-joko hori oso garrantzizkoa zen Antzinako Erregimeneko gizartearen konfigurazioan, etxeen arteko erlazioak gauzatzeko eta komunitatea sortzeko modu bat zirelako. Alaba horiek jasoko zituzten doteek ezkontzen bidez sortutako edo indarberritutako harremanen kalitatea islatuko zuten. Hau guztia leinuen arteko harremanak zuzentzen zituzten funtzionamendu-arauen barnean ulertu behar dugu, eta ez dugu ahaztu behar, emakumeek ohorea eta duintasunak transmititzeko gai ziruditela.

Etxe haiek bizi zuten prozesuan, leinuaren antolamenduan zenbait aldaketa daudela dirudi, adibidez, maiorazkoaren kasuan, non filiazio-modu hori era zehatzago batean erabiltzen zen; eta, horien ondorioz, emakumeen eginkizunak aldaketa batzuk izan zituela dirudi.

Orain arte azaldutakoan gauzatzen dira gure ikerketa-proiektua eta proiektu hori aurrera eramateko erabiltzen ari garen tresnak. Era berean, lana egitean sortzen zakizkigun zenbait galdera proposatu nahi izan ditugu, guztiontzat interesgarri izango zirelakoan. Orain, hemen azaldutako lanabesekin, emakume horien historia idatzi behar dugu.

BIBLIOGRAFIA:

Achón, J. A. (1995): *'A voz de Concejo'. Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

————, (1998): "República sin tiranos, Provincia libre. Sobre cómo llegó a concebirse al pariente mayor banderizo como enemigo de las libertades de

las repúblicas guipuzcoanas", in J. R. Díaz de Durana (arg.), *La lucha de bandos en el País Vasco: de los parientes mayores a la hidalguía universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, EHU, Bilbo, 341-364.

————————, (argitaratzear): *La 'Casa Guipúzcoa'. Sobre cómo una comunidad territorial llegó a concebirse en términos domésticos durante el Antiguo Régimen*.

Aguinagalde, F. B. eta Vives G. (1987): *El archivo de los condes de Peñaflorida*, Donostia.

Arpal J. (1977): "Estructuras familiares y de parentesco en la sociedad estamental del País Vasco", *Saioak*, **1**, 202-217.

————————, (1979): *La sociedad tradicional en el País Vasco. El estamento hidalgo en Guipúzcoa*, Haranburu, Donostia.

Atienza, I. (1990): "Pater familias, señor y patrón: oeconómica, clientelismo y patronato en el Antiguo Régimen", in R. Pastor (arg.), *Relaciones de poder, de producción y parentesco en la Edad Media y Moderna*, CSIC, Madril, 411-458.

————————, (1991): "Teoría y administración de la casa, linaje, familia extensa, ciclo vital y aristocracia en Castilla (s. XVI-XIX)", in *Familia, grupos sociales y mujer en España (s. XV-XIX)*, Universidad de Murcia, Murtzia, 13-47.

————————, (1993): "De lo imaginario a lo real: la mujer como señora/gobernadora de estados y vasallos en la España del siglo XVIII", in *Historia de las Mujeres en Occidente,* Taurus, Madril, **3**. zenbakia, 635-654.

Azpiazu, J. A. (1995): *Mujeres vascas. Poder y sumisión*, Haranburu, Donostia.

Barrena, E. (1989): *La formación histórica de Guipúzcoa,* Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

Bestard, J. (1992): "La estrechez del lugar. Reflexiones en torno a las estrategias matrimoniales cercanas", in F. Chacón eta J. Hernández Franco (arg.), *Poder, familia y consanguinidad en la España del Antiguo Régimen,* Anthropos, Bartzelona.

Brunner, O. (1970): "La 'casa come complesso' e l'antica 'economica' europea", in P. A. Schiera, *Per una nuova Storia Constituzionale e Soziale*, Editrice Vita e Pensiero, Milano, 133-164.

Chacón F. eta Hernández Franco J. (arg.) (1992): *Poder, familia y consanguinidad en la España del Antiguo Régimen,* Anthropos, Bartzelona

Clavero, B. (1986): *Tantas personas como estados. Por una antropología política de la historia europea*, Tecnos, Madril.

Corcuff, P. (1998): *Las nuevas sociologías,* Alianza, Madril.

Elias, N. (1982): *La sociedad cortesana*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica;

Frigo, D. (1985): "Il Padre de Famiglia", in *Governo della casa e governo civile nella tradizione e dell'economica tra cinque e seicento*, Bulzoni, Erroma.

Ginzburg (1996): *El queso y los gusanos*, Muchnik, Bartzelona.

Hespanha, A. M. (1993): "La economía de la gracia", in *La gracia del derecho*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril, 151-176.

Imízcoz, J. M. (1995): "Actores sociales y redes de relación en las sociedades del Antiguo Régimen. Propuestas de análisis en historia social y política", in C. Barros (arg.), *Historia a Debate,* Historia a Debate, Santiago;

———— eta Floristán, A. (1993): "La sociedad navarra en la Edad Moderna. Nuevos análisis. Nuevas perspectivas", *Príncipe de Viana*, **15.** eranskina.

Lafourcade, M. (1999): "La condición jurídica de la mujer en Iparralde bajo el Antiguo Régimen", *Langaiak,* **12**.

Levi, G. (1990): *La herencia inmaterial: La historia de un exorcista piamontés del siglo XVII*, Nerea, Madril.

Marín, J. A. (1998): *"Semejante Pariente Mayor". Parentesco, solar, comunidad y linaje en la institución de un Pariente Mayor en Gipuzkoa: los señores del solar de Oñaz y Loyola (siglos XIV-XVI)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Martínez Rueda, F. (1996): "Poder local y oligarquía en el País Vasco: las estrategias del grupo dominante en la comunidad tradicional", in J. M. Imízcoz (zuz.), *Elites, poder y red social. Las élites del País Vasco y Navarra en la Edad Moderna,* EHU, Bilbo;

Navajas, Á. (1975): *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia.

Oliveri, O. (1996): "Emakumearen egoera Aintzin Errejimenean Andoainen", *Leyçaur,* **4**, 103-138.

Portillo, J. M. (1998): "República de hidalgos. Dimensión política de la hidalguía universal entre Vizcaya y Guipúzcoa", in J. R. Díaz de Durana (arg.), *La lucha de bandos en el País Vasco: de los parientes mayores a la hidalguía universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, EHU, Bilbo, 425-438.

Urrutikoetxea, J. (1992): *'En una mesa y compañía'. Caserío y familia campesina en la crisis de la sociedad tradicional*, Mundaiz, Donostia.

Valverde, L. (1991): "La influencia del sistema de transmisión de la herencia sobre la condición de las mujeres en el País Vasco en la Edad Moderna", *Bilduma,* **5**, 123-135.

Varela, J. (1997): *Nacimiento de la mujer burguesa: el cambiante desequilibrio de poder entre los sexos*, La Piqueta, Madril.

Aro Berria

Biografia. Metodo zahar baten berragerpena eta ikerketa berriekin dituen harremanak

Alberto Angulo Morales
Euskal Herriko Unibertsitatea

Ohiko biografia, antzinatik gaurdaino, luzera motz eta handiko prozesu historiko gehienetan, gizabanakoen partaidetza ulertu ahal izateko metodorik aproposena izan ohi da. Eskuliburu eta testu teoriko gehienetan, biografiak aurkeztu ohi dizkigute, hagiografia, propagandazko diskurtso edo merituen bilduma modura. Aspaldi erakutsi zigun Josep Fontana-k, biografia gizarte-talde konkretuen eskubideak eta nahiak zilegitzeko erabilia izan dela (Fontana, 1982: 15-17). Geroago, egile berak ez zuen biografia erabiltzeko arazorik izan Fukuyama-ren ideien aurkako beste saiakera sakon eta interesgarri batean beste historialari batzuei kritika zorrotza egiteko (Fontana, 1992: 13-15). Begi-bistakoa da, antzinatik ezaguna eta erabilia izan dela biografia; izan ere, gehienetan, ospe handiko pertsonaien (politikarien, burokraten eta nazioarteko merkatarien) edo erregeen biografiek lehentasuna hartu dute historian zehar. Egia da, halaber, izkribu biografiko horiek zuten asmorik garrantzitsuena, gizabanako eta erakunde asko zilegitzea zela.

XIX. mendeko iraultza industrialetik eta politikotik jaiotako gizarte konplexu eta zehaztugabeek ekarri zuten aldaketarik garrantzitsuenetariko bat, hauxe izan zen, alegia, garai hartako gizabanakoei buruzko gero eta informazio gehiago bildu ahal izatea. Horrela, XIX. mendearen lehenengo erditik aurrera, bereziki Ingalaterran eta Estatu Batuetan, genealogistek, eruditoek eta historialari batzuek erakutsi zuten ezen garai bakoitzak zituen eliteko kideen biografiak edo datu biografikoak funtsezkoak zirela prozesu eta egite historikoak ulertu ahal izateko ("prosopografia" edo biografia kolektiboaren lehenengo distirak ziren). XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera, Europako Gorteek nobleen katalogoak eta pertsonaien deskribapen biografikoak egin zituzten, arrakasta ekonomiko eta soziala izan zuten gizon eta familia berrien gaineko kontrola eskuratzeko, batik bat. Noble berrien agerpenak —arrakasta soziala diruaren bidez lortutako ospe handiko gizakienak— Europako gizarte guztietako ezkontza-merkatuetan aparteko arazoak ekartzen zituen heinean, garatu eta hedatu egin ziren katalogo erabilgarri horiek. Prozesu luze horren ondorioz, Ingalaterran *Who's who* hiztegiak sortu ziren XIX. mendean.

Beste alde batetik, XVIII. mendetik aurrera, Ilustrazioaren ideologiaren barnean, ideia berri batek aparteko garrantzia izan zuen garai hartako prozesu

historiko, politiko eta ekonomikoak ulertzeko: garapenaren ideiak, alegia. Garapenaren kontzeptuarekin harremanetan, bai XIX. mendeko gizakiek eta bai historialariek aldarrikatzen zuten ezen herri, nazio, zibilizazio, kultura eta taldeen arrakasta talde, familia edo pertsona batzuen agerpenarekin loturik zegoela. Bereziki, Ingalaterrako eta Frantziako kasuetan, garrantzi handiena pertsonaia konkretu batzuei ematen zitzaien (politikariei, Armadaren ofizialei, eta abarri). Aldiz, "Erromantizismo" garaiko Alemanian, belaunaldien eta espirituaren agerpena aldarrikatu zuten, garapenaren eboluzioa azaltzeko. Historiaren motorrak, prozesu ekonomiko eta politikoetan ez ezik, pertsonaia famatu eta eraginkor batzuen eskuetan ere bazeudela erakutsi nahi zuten. Beste era batera esanda, aktore historiko haiek ziurtasunez eta asmamenez zuzendu zuten garapenaren prozesua. Beraz, gizaki haiek gainditzen jakin izan zituzten oztopoak izango balira bezala erakusten zituzten testuinguru historiko ezberdinak; ondorioz, prozesu historikoak ulertu ahal izateko, ahalik eta azkarren ikertu behar ziren aktore famatu haien biografiak.

Aldi berean, XIX. mendean, heroi nazionalen (militarren, politikoen, gizon dirudunen eta estatu-politikarien) kopurua handituz joan zen neurrian, beraiei buruz eginiko biografien kopurua ere ugaritu egin zen. Ordaindutako biografiak eskatzen hasi ziren, eta ondoriorik aipagarriena biografiek historiaren testuinguruan antzina baino arrakasta handiagoa lortzea izan zen. Astiro-astiro, boteredun kargu eta enplegu gehienetan zeudenak uste izaten hasi ziren, biografiak beren partaidetzaren garrantzia aldarrikatzeko bidea zirela, horrela beren burgeskeria lasaitzeko, eta baita hurrengo belaunaldietan zetozen gazteek eredu gisa har zitzaten ere. Beste alde batetik, XIX. mendearen bigarren zatitik aurrera, indibidualismoa gero eta balio handiagoa hartzen joan zen heinean, zientzia psikologikoaren aurrerapenak azaldu ziren, eta horrek indar handia eman zien historia azaltzeko biografia erabili nahi zutenei.

Príncipe de Viana aldizkarian argitaratutako nafar historiografiari buruzko artikulu batean, Alfredo Floristán Imízcoz-ek biografia nola erabili den azaldu zuen. Lan gehienak ohiko ikuspuntu batetik eginikoak izan direla zioen: «ha predominado la biografía de personajes relevantes por su santidad, su sabiduría o su posición social. Santos y sabios, eclesiásticos y nobles han sido considerados durante muchos años como los más dignos de ser mostrados a la contemplación del lector» (Floristán, 1993). Horregatik, XXI. mendearen hasieran ere, badirudi ospe handiko gizonak (gutxiago emakumeak) biografiaren helbururik aproposenak izaten jarraitzen dutela mentalitate kolektiboan. Gehienbat, biografiaren erabilpenik hedatuena ospe handiko pertsonaiei loturik joan denean, historialari profesionalek ikerketa-metodo horren aurkako kritika zorrotzak egin ditugu. Badirudi, betidanik eta betiko, garrantzi handiko pertsonaia historikoen bizitzaren deskribapenarekin erlazionatuta joan behar duela biografiak; eta, apropos aukeratutako portaera izan den ez badakigu ere, ahaztu egin dugu biografia zein prosopografia metodo historikoak baino ez direla.

Puntu hauek guztiak kontuan hartuz, azken hamarkada honetan historiografiaren munduan sortutako aldaketa eta planteamendu berriei begira, zein izango da biografiaren bilakaera eta balioa? Ohiko metodo bat denez, ba ote dugu esaterik alde batera utzi behar dugula? Nola sartuko da harremanetan biografia ikerketa eta proposamen berriekin? Dakiguna da, historiaren arloan, azken hamarkada hauetan gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan direla subjektu historikoak eta ikuspegi subjektiboak.

Beharbada, historiari buruzko interpretazio mekanizista eta ekonomizista gehienek beren mugak dituztela ikusi bezain pronto, historiografiak egindako planteamendurik garrantzitsuena, gizakien ikerketa eta subjektibitatearen balioa onartzea edo zilegitzea izan da. Egia esanda, filosofiaren munduan egondako aldaketei begiratuta, erlatibismoa nagusitu dela esan dezakegu. Historialari batzuek egiten dituzten planteamendu berrienak, nahiko "subjektiboa" den esaldi batean oinarritzen dira: gizartea da historiaren helburua (Lefebvre-k zioen bezala, historiaren helburua gizakiak giza harremanetan ikertzean datza). Beraz, gizarte batean agertzen diren eta gizabanakoek sortzen dituzten ideiak eta produktu guztiak ikertzeko moduak dira planteamendu horiek, besterik ez. Ez dago ordenarik, ezta hierarkiarik ere.

Ikuspuntu horretatik ikusita, biografiaren etorkizuna ziurtatuta dago behin betiko. Baina, zein motatako biografiaz ari gara hitz egiten? Gaurdaino ikusten ari garenaz: liburu-denda eta filmetan aparteko ospea eta arrakasta lortu duten eleberri historikoaz, Alfredo Floristán Imizcoz-ek erakusten zigunaz edo Erdi Aroko eta Aro Berriko apaizek eta kronistek enkargu gisa prestatzen zituztenez. Argi dagoena da, biografia metodo bat besterik ez dela, eta ez metodologia bat. Beraz, biografia erabiltzen badugu ere, zentzuz bete behar dugulakoan nago. Beharbada, ikertzeko modukoak izan litezke planteamendu horiek agertzen dituzten ikergune eta gai berriak. Historialari gehienek aldarrikatzen dute, ohiko joera historiografikoek gizabanakoen partaidetza ahaztu dutela prozesu historikoan, eta, ondorioz, agente historiko moduan berreskuratu behar dugula partaidetza hori. Beharbada, proposamen hori lortu ahal izateko, historiografiaren munduan dugun metodorik aproposenetako bat da biografia. Joera berri hauen guztien artean, aparteko ospea lortuz doa, harreman pertsonalak, klientelarrak eta familiarrak ikertzen hasi den joera historikoa. Ikusiko dugu zein diren bereziki joera horiek azpimarratzen dituzten aspekturik nabarmenenak.

Historialari asko aspalditik ari dira aldarrikatzen Aro Berriaren gizartea taldeetan antolaturik zegoela. Talde horietako kideek, bai gizonek bai emakumeek, mota ezberdinetako lotura pertsonalak zituzten beren artean. Garrantzitsuenak, lotura familiarrak edo senitartekoak, leinu eta klanekoak, adiskidetasun eta herrikidetasunekoak, eta, azkenik, harreman feudal eta klientelarrak ziren. Teorian, mota horretako loturen bitartez zegoen egituratuta garai hartako gizartea. Hala ere, ez zuten komunitate edo erakunde bat eratzen, ez zuten juridikoki funtzionatzen;

baina gizartea egituratzeko orduan, talde horiek besteak bezain errealak eta indartsuak zirela esan dezakegu (Imízcoz, 1996: 21). Historiografiari erreparatuz, nabaria da ezen ekintza kolektiboak, enpresak edo gizarteko ekintzak eta lotura edo erlazio pribilegiatuak gero eta jarraituagoak eta ikertuagoak direla. Ondorioz, aipaturiko lotura horien arteko hurbilenak, etxea eta familia, senidetasuna, eta auzotasuna ziren; ostera, maila altu eta zabalekoak, adiskidetasun politiko edota klientelismoa bezalakoak ziren. Klientelismo-harremanak eta talde klientelarrak haietako garrantzitsuenetarikoak bihurtuz joan ziren.

"Klientelismo" kontzeptua definitzeko, erromatar zuzenbidera jo behar da. Maila ezberdineko pertsonen artean sortzen zen erlazio ekonomiko eta politiko hori dependentziazkoa zen, haien komunitate eta familia alde batera utzirik. Maila altuko gizaki batek —*patronus* izenekoak— bere klienteak babesten zituen. Babes hori era ezberdinetan agertzen zen: epaiketetan defenditzen zituen, haien aldeko testigantzak eginez; lantzeko eta abereak hazteko lursailak ematen zizkien; ezkontzak errazten zizkien; beren semeak eta senitartekoak promozionatzen zituen; zergak ordaintzen laguntzen zien; edota klienteei erlazio berrietan sartzen laguntzen zien. Aro Berrian ere erlazio klientelarrak mantendu ziren gizartean, baina garai hartako egitura berriarekin; eta menpeko erlazio pertsonalak indargabetuak izan arren, bizirik jarraitu zuten, eta egitura berriaren arabera moldatu ziren, bai administrazio zentralistan, baita gizartearen egitura politikoan ere. Horrela, estatuko sistema politikoan integratu ziren.

Alderdiak eta harreman klientelarrak oinarrizko elementuak izan ziren Erdi Arotik Aro Berrirako iraganbide politikoan (Quintanilla, 1997: 47). Hala ere, lehenago aipatu dugun klientela erromatarraz gain, klientelismoa eta patronazgoa —hainbat ikertzailek horrela deitzen baitute— erlazio feudala ere badela onartu da. Gehienetan, klientelismoari buruzko ikerketak eliteen historia eta egoera ikertuz jorratu dira. Horregatik, *patronazgo*aren bitartez, minoria bat (elitea azken finean) gizartearen zati handi baten gainean zeukan boterea mantentzen saiatzen zen. Horretarako, lehenago definitutako erlazioetan oinarritzen zen: patroiak babesa ematen zuen, klienteak fideltasuna mantentzen zuen bitartean (Martínez Millán, 1993: 20).

Harreman klientelarrak ez daude itun baten bitartez araututa, baizik eta lotura sozialaren bitartez. Bi pertsonaren arteko ondasun eta zerbitzuen elkartrukea da erlazioaren oinarria. Beraz, klientelismoaren izaera instrumentala argia da. Klientela horiek nolabaiteko sentipenezko edo sentimenduzko izaera ere erakusten digute, eta azken honek ikerketak nahas ditzake, bere esanahia ulertzeko orduan. Patroiak eta klienteak elkartrukeetan oinarritzen zen egitura antolatzen zuten; horrela, piramide gisako harremanak sortzen ziren. Hau da, patroia beste pertsona batzuen menpeko bihurtzen zenean, aldi berean, bere menpeko klienteak patroi horren gainean zegoen jaun eta jabearekiko harreman-sarean sartzen ziren. Horrela, asmo berdinak zituzten pertsonen arteko bitartekariak izatera heltzen ziren harreman klientelar haiek, lagunen lagun bihurtuz. Bide hori jarraituz, gizartea zuzentzen

zuen minoriak lurralde urrunetaraino heltzeko aukera zeukan, goi-mailako leku horretatik. Klientela horretako partaide bakoitzaren egitekoa, klientela horren gunearekikoa zen, hau da, patroiarekikoa. Beraz, harremanak horizontalak izan beharrean, beti bertikalak ziren.

Mota horretako harreman batean sarturik zeuden bi partaideek ez zuten ezarriko momentuko harreman soil bat, baizik eta denboraldi batez mantenduko zuten, eta, noizbehinka, erlazio hori berriztu egingo zuten. Hitzarmena beren arteko konfiantzan oinarritzen zen arren, askoz era ahulagoan gauzatzen zen. Beste batzuetan, bien arteko hitzarmen edo lotura hori itxaropen baten gainean egiten zen; hau da, zerbait egiten laguntzen zen, ondoren lortuko zen laguntzaren truke. Normalean mota horretako tratuak ez ziren gauzatzen pertsonak aurrez aurre izanda; askotan, gutunen bitartez egiten ziren (Angulo, 1995). Bestalde, klientelismoa gizartearen osaketan laguntzen zuen elementu gisa onartua izan da, batez ere, elkartrukeen ugaritasuna bultzatzen zuelako eta borrokak ekiditen zituelako. Klientelak edozein motatako muga sozialak desagerrarazten zituen; muga etnikoak nahiz erlijiosoak, eta, aldi berean, ezaugarri berdinez definitutako taldeen arteko liskarrak desagerrarazten zituen (Moreno, 1995).

Boteretsuenak ahalik eta klientela zabalena eta eraginkorrena lortzen saiatzen ziren. Beraien nahiak aurrera ateratzeko, baliabide desberdinak erabiltzen zituzten: botere ekonomikoa, ospea, ofizioa, maila ezberdinetako beren arteko erlazioak edo kontrolatzen zituzten baliabideak eta ondasunak. Horrela, patroiak lehia partikularra zuen beste patroiekin, bere boterea, bere eraginkortasuna eta klienteen fidelta-suna mantentzeko; eta mota, giro eta botere-instantzia desberdinak kontaktuan jarri eta mantendu beharko zituen. Lotura horiek zenbat eta zabalagoak, sendoagoak eta bereziagoak izan, lorturiko eragina hainbat eta nabarmenagoa izaten zen. Patronazgo--klientela harremanak ikertzeko orduan, zein botere-mailatan gertatzen ziren ikus daiteke: erregearen eta goi-nobleziaren partaidetzatik hasten zen, probintzietako hiri eta larre inguruko oligarkiak kontrolatu arte. Esan behar da ezen harreman klientelarrak Aro Berriko egitura sozialean oinarrizko elementua zirela, eta XIX. mende osoan zehar mantendu zirela (Monzón, 1993).

Nobleziak gizartea egituratzeko orduan zuen garrantzia azpimarratzen du Ignazio Atienzak. Jauntxoa ez zen arlo sozioekonomikoaren historian izan den jauntxoa; bere aberastasun, errenta, estatutu eta botere ekonomikoengatik ezagutzen zen. Gainera, jaunaren eta nekazariaren arteko erlazioa ez zen mugatzen bakarrik errentak kobratzera, haborokinen exakzioa egitera, gehiegikeriara eta borroketara. Jauna bere etxeko *pater familias*a eta klientela zabal baten patroia zen, bere menpekoekin eta dependenteekin erlazio eta elkartruke ugari zituena. Hirietan ere, oligarkiako familiek kontrolatzen zituzten errekurtsoak eta ondasunak —era zuzenean edo zeharkakoan izan—, eta, aldi berean, kontrol horrek boteretsuenen klientelaren-partaide kopurua nabarmenki hazteko balio zuen. XVIII. mendearen lehenengo erdialdean, Gasteizko hiria nobleziaren eraginpeko oligarkia

estu batek zuzentzen zuen. Oligarkia horrek udal-kargu eta postuak kontrolatzen zituen, eta, gainera, kargu horien iraupena mota askotakoa izaten zen. Oligarkia horren aberastasun, titulu eta karguez gain, haien aurkakoek eta etsaiek esaten zuten bezala, basailutza antzeko batean oinarritzen zen aristokrazia horren boterea. Beraz, klientela-harreman horiek indartzeko, familia haietako zuzendariek zinegotzi-mailako karguak eskaini eta ematen zizkieten beren taldekoei. Horrez gain, edozein motatako prebendak ematen zizkieten edo maila ezberdinetako faboreak ere egiten. Horrela, 1738an Gasteizko udal-agintaritzan familia gutxi batzuen kideak ziren nagusi. 18 edo 20 pertsonaz osaturiko talde bat zegoen; aitak, semeak eta senitartekoak ziren guztiak; talde horrek bere esku zeukan kontrol osoa. Horren bitartez, hiriaren diru guztia kontrolatzeko aukera zeukaten, eta, gainera, udaleko lanpostu eta kargu batzuk beren konfiantzako pertsonei ematen zizkieten. Kargu horien guztien banaketarekin, lanpostu gehiago lortzeko aukera izateaz gain, beraien basailutza-harremanak zabaltzen zituzten (Porres, 1989).

Erlazio klientelarrak lotura esanguratsuena izan ziren Antzinako Erregimeneko monarkien politika-egituraketan, baina ez lotura bakarra. Erlazio hori ez zen sistemak bere barnean zeukan korrupzio-mota bat baizik, alegia, sistema beraren muina. Bestetik, gortearen kasua aztertzeko modukoa da. Gaur egun hainbat historialarik eta soziologok azpimarratzen dute gorteak Europako mendebaldeko erresumetako egitura politikoan zeukaten garrantzia (Rivero, 2000). Gortea garai hartako boterearen erdigunea zen, baina ez zen botere-gune bakarra; berari lotuta beste erakunde asko zeuden. Benetan, Aro Berriaren monarkia osatu zuten eliteen botere erlazioen erdigunea bilakatu zen. Gortean erregea bizi zen, eta erregea bera, me-sede eta faboreen zabaltzaile bihurtu zen. Erregearen irudia garrantzia hartzen joan zen manifestazio kultural ezberdinen bitartez, eta gortean jarrera berri bat zabaldu-ko zen: erregearenganako errespetua izatea eta, aldi berean, erregearen konfiantza lortzea ezinbesteko bihurtu ziren (Martínez Millán, 1992: 16-18). Gortearen inguruko klientela guztiak ikertzeko, azkenaldi honetan beraren egituraketa aztertu da, goiko aldetik zuzenduriko begirada baten bitartez. Gorteari buruz eginiko ikerketetan, lehenago ikuspegi kultural eta antropologikoa antzematen bazen ere, azkenaldian beste bide batetik zuzendu dute azterketa; alegia, batez ere ezaugarri politikoak aztertuz, hau da, gortea indar klientelarren multzo gisa hartuz. Hasteko, esan dugun bezala, boterearen erdigune nagusi bihurtu zen gortea. Hala ere, eliteen boterearen batasuna izango zen monarkia modernoa batuko zuena, eta ez erakunde zentralista batzuk. Gortea klase zuzentzailearen integrazio-bidetzat hartu zen. Hori ez zen soilik erabili noblezia mantsotzeko; horrez gain, politikaren arloko partaidetza handitu zen heinean, gune pribilegiatua bihurtzeko eta Estatuaren oinarriak sendotzeko ere erabili zen gortea.

XVI. mendean zehar sendotuz joan zen erregearen gorteak sorrarazten zuen erakarpena; ordea, jauntxoen gorteek eta haiek zituzten patronazgoek atzerapauso nabarmenak jasan zituzten. Erakarpen horretan garrantzi handia izan zuen erregea-

ren errekurtsoek eta ondasunek hazkunde-prozesu sendoa izateak. Bestetik, nobleziaren botereak eta diru-sarrerek izugarrizko beherapenak jasan zituzten, arrazoi desberdinak zirela medio. Frantziako kasuan, adibidez, fiskalitatearen garapenarekin eta behin betiko armadaren sorrerarekin, administrazioan lanpostu eta kargu ugari sortu ziren, eta horiekin batera elizaren goi-mailako karguak izendatzeko boterea eta beste zenbait abantaila ere. Erregearen boterearen pilaketa horren ondorioz, nobleziak ez zeukan botere nahikoa bere klientelak mantentzeko, eta arazo horri aurre egiteko irtenbide onena, erregearengandik gertu egotea zen, gortean, haren faboreak lortzeko. Ikuspegi horri jarraituz, boterearen aldeko borroken eta patronazgoaren banaketan bizi izan ziren borroken gunea ere izango zen gortea. Erregeak koroaren errekurtsoak eta ondasunak banatzeko boterea zuen heinean, ez zen subirano ahalguztiduna, eta klientela zabalak eta interes oso ezberdinak zituzten nobleak kontrolatu behar zituen. Horrek guztiak bitartekari-lanak betetzera bultzatzen zuen erregea; sistemaren oreka lortu behar zuen, eta sistema horrek politika berezi bat bultzatzen zuen: mesedeen banaketa eta erabakiak hartzea.

Karrera burokratikoan parte hartzeko, garrantzizko elementuak bete behar ziren: familia-lotura onak izatea eta senidetasun-erlazioak izatea pertsona famatuen artean edo klientela-sareetan portaera ona izan zutenekin. Inkisizioaren administrazioan senidetasunak izateak, heredagarriak ziren postuek eta zordunen aholkuek ere garrantzia handia zeukaten. Hori beste patronazgo-mota bat zen. Horrela, erakundearen barnean zegoenak bere senideak bertan sartzeko erregutu, aholkatu eta bultzatu egin ahal izango zuen. Beste batzuk bere familiako kide horiek eginiko zerbitzuez baliatuko ziren faboreak lortzeko, beren merituak izango balira bezala. Tradizionalki, bazeuden bere partaideak Inkisizioaren postuetan ezartzen zituzten familia elitistak eta ospedun leinuak (Cristóbal, 1993). Inkisizioaren erakundean aurretiko senideak izateak bertan sartzeko eta mugitzeko bidea errazten zuen. Horrez gain, leinu batzuek kargu guztien jabegoa edo monopolioa lortzen zuten herentzia-jokoen bitartez. Ofizialek beren karguaren gaineko eskubide guztiak zituztela uste zuten; horrela, haietariko askok, beren familiako partaide bat izendatzen zuten beren ondorengoa izateko. Logroñoko auzitegien kasuan, Iñaki Reguera-k azaltzen duenez, karguak aitengandik semeengana igarotzeko ohitura zegoen. Noizean behin Inkisizioko zuzendaritzak horrelako ohituren aurkako jarrera azaltzen zuen, eta, bide batez, leinu horren herentzien katea bertan behera uzten zuen. Bestetan, heldugabeak ziren umeei ematen zitzaien postua, baina beste pertsona bat izendatzen zen kargu horretarako, umea adin-nagusitasunera heldu arte. Alaba bati ere eskaintzen zitzaion kargua; hori dote gisa erabiliko zuten, bere senarra postuaren jabe bihurtuko baitzen. Alargunek ere kargu hori dote modura erabiliko zuten, bigarren aldiz ezkontzeko (Reguera, 1996). Bestetik, udal-politikan aritzeak —eta diruak ere— Inkisizioan kargu bat lortzea errazten zuen. Hirietako oligarkiak Inkisizioan sartzearen arrazoi nagusia, haien boterearen hazkundean zetzan. Baina, horrelako hazkunde bat lortzeko, ezaugarri-multzo bat bete behar zuten: hautagaiak aberastasun patrimoniala izan behar zuen; gainera, hautagaiaren

eta bere emaztearen odol-garbitasunaren frogak ezinbestekoak ziren, horretarako galdeketa eta ikerketa zorrotzak burutzen zirelarik; izan ere, kristau zaharrak izan behar ziren.

Azken finean, ikergai berri hauek guztiak erakusten digutena honako hau da: talde klientelarren, familiarren eta sozialen partaide izateko alderdi subjektiboak (konfiantza, leialtasuna edo adiskidetasuna) zein materialak (dirua, aberastasuna edo botere politikoa) lehen mailako tresna bihurtu zirela. Gaurdaino, ikerketa historiko gehienetan garrantzi handiena aspektu edo alderdi objektibo edo materialei ematen diegulakoan gaude. Hemen, aldi berean, balio subjektiboak gero eta funtsezkoagoak direla azpimarratzen ari gara. Eta zein izango da metodorik nagusiena eta aproposena alderdi subjektibo horiek ikertu ahal izateko? Hausnarketa teoriko honetan, dudarik gabe, erantzun edo proposamen bat utziko dizuet; hauxe da: metodo biografikoa ez dugu erabili behar ospe handiko pertsonaien bizitzetan guztiz ezagunak diren alderdi komun batzuk berraurkitzeko, baizik eta, biografiaren bidez, guztiz subjektiboak diren gizon hauen ideiak eta portaerak azaleratzeko. Gure ustez, horixe izan behar da biografiak jarraitu behar duen bidea.

BIBLIOGRAFÍA

Angulo, A. (1995): "'Nire Jaun eta Jabea'. La expresión de las formas protocolarias en la correspondencia epistolar del setecientos", in C. Barros (arg.), *Historia a Debate. Tomo II. Retorno del Sujeto*, Historia a Debate, Santiago, 159-174.

————, (1999): "Los claroscuros de una renovación historiográfica. Balance de los estudios históricos sobre la Edad Moderna en el País Vasco y Navarra en la década de los noventa", *Huarte de San Juan: geografía e historia*, **6**, 31-58.

Cristóbal, A. (1993): "Amistad, parentesco y patronazgo: redes vinculares y servidores inquisitoriales en el tribunal de Logroño (s. XVII)", *Historia social,* **17**, 21-32.

Floristán, A. eta Imízcoz, J. M. (1993): "La sociedad navarra en la Edad Moderna. Nuevos análisis. Nuevas perspectivas", in *Segundo Congreso General de Historia de Navarra, Príncipe de Viana*, 11-48.

Fontana, J. (1982): *Historia. Análisis del pasado y proyecto social*, Bartzelona, Crítica.

————, (1992): *La Historia después del fín de la Historia. Reflexiones acerca de la situación actual de la ciencia histórica,* Bartzelona, Crítica.

Imízcoz, J. M. (1996): *Élites, poder y red social. Las élites del País Vasco y Navarra en la Edad Moderna*, EHU, Bilbo.

Martínez Millán, J. (arg.) (1993): *Instituciones de poder en la Monarquía Hispana Durante el siglo XVI*, Universidad Autónoma de Madrid, Madril.

Montón, F. J. (1993): "La creación de un cacicazgo: el primer Marqués de Urquijo y su relación con Alava (1816-1889)", *Revista de Historia Contemporánea*, **10**, 188-198.

Moreno, J. (1995): "Teoría del clientelismo y estudio de la politica caciquil", *Revista de Estudio políticos,* **89**, 191-208.

Quintanilla, M. C. (1997): "Facciones, clientelas y partidos en España en el tránsito de la Edad Media a la Modernidad", in J. Alvarado (koord.), *Poder, economía, tránsito. Monografias jurídicas*, Marcial Pons, Madril, 41-63.

Porres, R. (1989): *Gobierno y administración de la ciudad de Vitoria en la primera mitad del siglo XVIII (Aspectos institucionales, económicos y sociales),* EHU-Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

Reguera, I. (1996): "Inquisición y élites de poder en el País Vasco: el tribunal de Logroño", in J. M. Imizcoz (zuz.), *Élites, poder y red social. Las élites del País Vasco y Navarra en la Edad Moderna*, EHU, Bilbo, 83-100.

Rivero, M. (2000): *Diplomacia y relaciones exteriores en la Edad Moderna. De la Cristiandad al sistema europeo, 1453-1789*, Alianza, Madril.

Giza bazterketa Euskal Herrian XVI. eta XIX. mendeen bitartean. Ikerketen berri

David Zapirain
Deustuko Unibertsitatean doktoregaia

Giza bazterketa Euskal Herrian jorratu duten ikerlanen berri ematea dugu helburu. Hortaz, XVI. eta XIX. mendeetan zehar bazterketaren historia ulertzeko asmoz, gida txiki bat osatzen saiatuko gara. Horrela, gure ikerketa bideratzen ari diren nondik-norakoak nabarmendu, eta argiago ikusi ahal izango dugu urratsak norantz zuzendu nahi ditugun.

Bazterketaren izaera irudikatzeko, eta Europako testuinguruan kokatzeko, bi klasiko hautatu ditugu: Bronislaw Geremek eta E. P. Thompson. Horrela, hasieratik azalduko zaizkigu aintzat hartu nahi ditugun bi osagai: batetik, *baztertuak*, pertsonak, alegia; bestetik, *gizartea*, multzoa.

1. BAZTERKETA EUROPAN

Geremek aitzindaria izan da ikerketa-esparru honetan; eta miseriaren handitasuna ulertzeko ezinbestekoak ditugu beraren lanak (B. Geremek, 1974 eta 1984). Etengabe aurrera doan Europa Garaikidean, txiroak eta behartsuak nonahi aurkitzen ditu Geremek-ek. *Progreso* deitutako gurpilaren jirabiran bazterretara bidaltzen ari dira milaka gizaki; izan ere, gizartearen indarrak garbigailu baten gisa dihardu zentrifugatzen. Geremek-en lanak duen bertute garrantzitsuenetakoa, hain zuzen, zentrifu-gazio horretan xurgatuak izan direnak islatzea eta gorpuztea da.

Ikerketa-eremua Europa guztira zabaltzean, guztiz garrantzitsua den orokortasun-ikuspuntua lortzen da, lurralde guztietan egiten baitu aurrera pobreziak.

Horretaz landa, Geremek-ek berak argitzen du bere lanaren xedea: txirotasunari buruzko ideiek zein txirotasunaren inguruan sortutako egitasmoek mendeetan zehar izan duten aldaketa. Ederki adierazten du ezen bazterketaren eta pobreziaren inguruan gizarteak izan duen jarrera ez dela finkoa izan. Azpimarratzekoa da hau, gaur egun baliagarria den lan-hipotesia baitugu, ikerketarako *ideia-gakoa*, alegia.

Hau dela eta, Geremek-i esker osagai garrantzitsuak izanen ditugu mahai gainean behin-betiko:

1. Miseria.
2. Miseriaren inguruko egitasmoak.
3. Egoera aldakorrak.

1. Arin bada ere, pobreak, behartsuak, eta abar, bilatu, zenbatu eta sailkatu egin behar dira *miseria* ikertzean. Hots, giza multzo bat marraztu, zehaztu eta plazaratu behar da.

2. *Egitasmo* zehatzak aurkitzen dira miseriari erantzuteko garaian, bai teorian —diskurtsoak, iritziak—, bai praktikan ere —hala, lege errepresiboak—; hots, *urkamendia*, eta *karitatea*; eta, beraz, *errukia*[1].

3. *Aldaketei* dagokienez, ideia horrek galdera ugari aintzat hartzera behartzen gaitu: Beti berdinak ote dira behartsuak? Beti berdin erantzuten ote zaie, edo batzuetan onartzen dira eta, besteetan, zigortzen edota ezkutatzen? Inoiz gutxitzen den jende-multzoa ote da honako hau? Nolakoak dira errukia eta urkamendia, bateraezinak ala bateragarriak?

Geremek-en lanari jarraituz gero, Europako agintariek egoerari nola erantzun zioten ikusiko dugu. Bi bide hautatu zituzten, osagarriak direnak:

- Behartsu-legeak: Esan nahi baita, behartsuen aurkako legeak.
- Karitatea: eta bere egokitasunaren inguruko eztabaida sasi-filosofiko eta politikoa.

Ondorioz, Europako gizarteak zenbait pobre onartzen zituen, agindutako baldintzak betetzen zituztenak; beste batzuek, aldiz, desagertu beharra zuten.

Geremek-ek jarrera horien azterketan sakontzen du, gizarte horren pentsamoldean arakatuz. Ez, ordea, txiro haiek sortu zituen gizartearen ezaugarrietan edota barne-eraketan. Horri buruzko aipuak egiten ditu, baina hasieratik aurreratzen du erronka horri eutsiko ez diola. Esan bezala, pentsamolde zein jokabide horiek geldi ez zeudela erakusten digu; aitzitik, etengabeko debatean murgilduta zeudela.

Azkenik, klasiko eta oinarrizkotzat jotzen badugu ere, bistan da Europa oso eremu zabala dela. Erabilitako adibideak eta zenbakiak ez dira maiz egokiak izango, Euskal Herria buruan baldin badugu. Esate baterako, Geremek-ek hiri erraldoietan kokatzen ditu baztertu eta txiro ugari. Hala eta guztiz ere, arestian aipatu dugun moduan, txirotasuna ikertzeko tenorean, haren eskema eta galderak gure ondoan eduki beharko ditugu beti.

Geremek-ek ez bezala, E. P. Thompson-ek (1989 eta 1995) biziki murrizten du ikerketa-gunea: Ingalaterra. Industrializazio modernoaren aurretik gertatu zen gizarte-eraketa sakonki ikertzea ahalbidetu dio honek.

1. Geremek-en lan nagusiaren ildoak hauxek berak dira: Urkamendia eta Karitatea.

Geremek-ek txiroak ikustea erdietsi badu, Thompson-ek txiro horiek entzutea lortuko du. Pobreak ez dira zenbatu daitezken jende-multzo hutsak, ezta, besterik gabe, besteen diskurtsoen protagonistak, edota legeak pairatzen dituztenak ere.

Thompson-ek harrapatzen dituenean, pobreziatik zein bazterkeriatik at dauden pertsona xumeak dira. Arras ongi erakutsiko digu *txirotasuna nola sortzen den* eta *gizartea osatzen duten pertsonek nola egiten dioten aurre*. Gisa horretan, errukiari eta urkamendiari hirugarren osagai bat gehitzen dio: *elkartasuna*.

Berriro ere, zenbait funtsezko lan-ildo azpimarratu behar ditugu, gure lurra aztertzeko garaian oso baliagarri izango direnak. Lehen, baztertuei erreparatu diegu; orain, *gizarteari*, gizarte-motari, gizarte-antolakuntzari.

Hortaz, hauexek dira Thompson-engadik hartzen ditugun gakoak:

1. Zailtasun ekonomikoaren aurrean, herri-erantzunak daude. Baztertuak ez izateko antolakuntza dago.

2. Lurraren jabetzaren bilakaera.

3. "Ekonomia morala".

1. Antolakuntza. Behartsuek hitz hori hartu dutela ikustea da Thompson-en lanetan gehien harritzen duena. Egoera ezagutzen dute, badakite zer gertatzen ari zaien, baita zer gertatuko zaien ere. Egoera horri aurre egiteko protagonisten erantzunak ikertzen ditu Thompson-ek. Duintasunaren historia egiten du; haien patua —ezarri nahi dieten patua, hobeki esanda— onartzen ez dutenen historia, hain justu ere. Herri-abestiak, garaiko aldizkariak, eskutitzak... nonahi borroka baten lekukotasuna aurkitu du, eta borroka horretako partaideen ahotsa biltzen saiatu da gogotik.

   *Ohitura, usadio eta kolektibitatea*ren aldekoa omen dugu jende xumea. Gizartearen zuzendariek martxan jarri nahi duten berrikuntza, bortxakeria da gizarteko gehienentzat.

2. Berrikuntza haren ardatz garrantzitsuenetakoa lurra pribatizatzea da, honekin batera lan-indarra askatuz. Geure ikuspuntua zabaldu behar dugu beste behin ere. Gaur egun ikusten dugun nekazari-paisaiak bilakaera luzea izan du, batez ere azken 300 urteotan. Zer esanik ez, "jabetza" kontzeptuak ere bai. Esate baterako, jabetza indibidualaren nagusitasuna asmakizun berria da; antropologoek bestelako jabetzak aurkitu dituzte kapitalismoa garatu ez duten gizarteetan.

   Merkatu-ekonomia berritzailearen eta *plebe* delakoaren ekonomia tradizionalaren arteko borroka omen da XVIII. mendeko gizarte-historia. Gure gizartean ere, lur eta ustiapen komunek berebiziko garrantzia zuten. Baso zilegiek, ondazilegiek, herri-basoek, eta abarrek eskaintzen zutenari esker

orekatzen zuen bizimodua biztanle askok, hain zuzen ere egurra, jana, abereentzako tokia eta hornidura... lortuz bertan. Erakunde horiek erasotzeak eta deuseztatzeak jende xumearen galera ekar zezakeen, nekazariak arrotz bihurtuz beren etxeetan (ikus E. P. Thompson, 1995: 208-212).

3. Lurra ez zen ekonomia horren ezaugarri bakarra. Thompson-ek ekonomia liberalak suntsitutako *ekonomia morala* aipatzen du. Mota horretako ekonomian, kolektibotasunean, giza taldearen oreka eta biziraupenean zetzan lehentasuna[2]. Ez zegoen partaideen arteko berdintasunik, baina partaide guztiek beharrak eta eskubideak zituzten heinean ahalbidetzen zen elkarren arteko bizitza. Ezberdintasunak onartzen ziren, norberak bere lana bete eta bere zereginari eusten baldin bazion.

Hona hemen Euskal Herriko gizartea ikertu ahal izateko oinarrizko beste ideia nagusia. Gizartearen antolakuntzaren erroa kolektibotasuna dela ikusten ez badugu, gizarte horren ardatz gisa jotzen ez badugu, dokumentazioan behin eta berriro azaltzen diren jokabideak bitxekeriak irudituko zaizkigu. Ekonomia moral horretan, besteak beste, oinarrizko elikagaien prezioa arautzea sartuko litzateke; prezioa bailaraz bailara orekatu behar zen. Bestela, zurginak, zerbitzariak, jostunak, zapatariak... eta bai nekazari txikiak ere, azkar geldituko ziren zer janik ez zutela.

Ez zen karitatea, gutxieneko oreka antolatzea baizik. Lan hori gizartearen patroiek bete behar zuten, matxinada izango ez bazen. Bake sozialaren garrantziaz konturatu behar ziren agintariak; alegia, bake soziala neurririk gabeko etekinak ateratzea baino premia handiagokoa zela onartu behar zuten agintariek. Thompson-ek onartzen du hori ez zela aski jende guztia aberastasunean bizitzeko; baina oreka eta elkarren arteko loturarik ez zegoenean, gosea azaltzen zen.

Osagai horiekin ikertzeko xedea finkaturik, galdera-sorta bat plazara dezakegu:

– Miseria gailentzen zenean, zein egoeratan zegoen gizarte-egitura?

– Zein bilakaera izan zuen gizarte horrek? Noiz aldatu zituen bere ohiturak, hots, bere ekonomia morala? Zer-nolako harremanak zituzten gizarte horren partaideek?

– Zein aginte-mota zegoen orduan? Zein berrikuntza edota kanpoko eragile egon zen?

Testuinguru horretan gauzatu beharko genuke geure ikerketa Euskal Herriari dagokionez. Hori da, behintzat, gure asmoa. Ezin dira ahaztu, noski, gaia gu baino lehen jorratu dutenak, solasaldi honen protagonistak, hain zuzen ere.

2. Thompson (1995: 387). A. M. Hespanha ikertzaile portugaldarrak "mesedezko ekonomia" deitzen dio horri.

2. EUSKAL HISTORIOGRAFIA GIZA BAZTERKETAREN INGURUAN

Gai honen inguruan lan andana ez dagoela aitortu behar badugu ere, azken bolada honetan indartzen ari den ikerketa-eremua da[3]. Gainera, iruditzen zaigu ezen egindako lanetan bazterketan edo miserian murgiltzen den multzo orok bere aipamena duela: gaizkileak, txiroak, eroak, umezurtzak, esklaboak, juduak...[4]. Balorazio orokorra egiteko adina badira behintzat, ia beti bezala, Euskal Herriaz oso gutxi topatu arren.

Ikerketen aurkezpena egiteko, ildo kronologikoari jarraitzea erabaki dugu. Horrela, arestian ideia nagusitzat jo dugun horietako bat erabili ahal izango dugu: *bazterketa aldakorra dela* kontuan hartzea hain zuzen ere. Geure burua XVI. mendeko Gipuzkoan kokatzea proposatzen dugu, non eta bazterturik azaltzen diren aurreko garaian gizartearen ardatz izan zirenak. Ahaide Nagusiei buruz ari gara, jakina. Une horretan, agiriek haiei buruz jasotzen duten ikuspuntua hiribilduek emandakoa da. Horrela, XIV. mendearen bukaeratik aurrera, beraien portaera biziki zigortua izan zen; are gehiago, tiranotzat ere hartu zituzten[5]. Hortaz, gizarte-eredu berriek beren baztertu bereziak sortu zituzten; gizartean ez zen edozein onartzen, gutxieneko baldintzak beter behar ziren.

3. AITOREN SEMETZA ETA BAZTERKERIA: ESKLABOAK, 'JUDUAK', 'PORTUGALDARRAK'

Aipamen honekin, hiribilduek giza eredu bat finkatu zutela erakutsi nahi dugu, sendotu ahala Ahaide Nagusien antolakuntza baztertu nahi zuena. Nahia, aldiz, ez zen bat-batean gauzatu. Jauntxo handiek beren jarrera eta eskumenak aldarrikatzen zituzten oraindik XVI. mendeko agirietan. Leinuen buruak ziren heinean zuritu nahi zuten portaera hori. Hiribilduetan, aldiz, auzotasunean oinarritzen zuten eskubidedun izatea, hau da, gizarte-partaide aktiboa izatea. Giza ereduaren oinarria, familiei zerien kaparetasun edo aitoren semetza orokorra dugu. Lehen, Ahaide Nagusi baten bezero edota senide izatea aski eta beharrezkoa zen gizarteratua izateko, baztertua ez izateko. Orain, bazterrean ez gelditzeko, ikusezina ez izateko, *universitas* bateko partaide izan behar zen eta, gainera, aitoren seme.

Garai honetako baztertuak erraz antzemango ditugula dirudi, beraz: aitoren semeak-alabak ez zirenak. Kanpotik etorritako giza multzoak nabarmen gelditzen ziren egitura horretan. Horregatik, ongi aukeratu zituen Alizia Stürtze-k (1998) ikertu zituen giza multzoak: ijitoak, agotak eta juduak.

Antzeko gaia aukeratu genuen Mora-k eta Zapirain-ek (1996): esklaboak, juduak eta portugaldarrak[6]. Gure asmoa talde horien bazterketa-maila ezagutzea

3. Adibidea, argitaratu berria den liburu hau dugu: C. Gónzalez Mínguez, I. Bazán eta I. Reguera (arg.) (1999).

4. Matxinada eta atzeko altxamenduak jorratu dituztenek beste lan-sorta bat osatuko lukete.

5. J. A. Achón (1998). Erdi Aroko krimenaren inguruan: I. Bazan (1995).

6. D. Zapirain eta J. C. Mora (1996). Honako hau ere ikus daiteke: J. A. Azpiazu (1997).

zen. Hiru ideia nagusi jasotzen dira bertan:

– Lehena, esklaboen kopurua altua edo, behintzat, nabaria zela. Talde honen jatorriari dagokionez, batetik, mairuen aurkako gerrak daude eta bestetik, Amerikatik ekarritako zerbitzariak eta seme-alabak ere aipatu behar ditugu.

– Bigarrena, oso deigarri izan da nolabaiteko integrazio-maila topatu izatea. Nola uztartu, bada, pobrezia eta kanpoko jatorria aitoren semetzarekin? Herriko agintariek eta bizilagunek ez zuten kezka berezirik plazaratzen. Familia bateko kidetzat hartzen zituzten, eta maila txikiko senideak bilakatzen ziren. Jaietan parte hartzen aurkituko ditugu, euskaraz mintzatzen edota maitale gisa.

– Hirugarrenik, kanporatze-saioak eta aginduak Foru Aldundiaren ekimenak dira. Jarrera horrek auzi luzeak sortu zituen, zerbitzari eta seme-alaba "ez egokiak" ekarri zituztenen artean sona handiko familiak zeuden eta. Pertsonen arteko maitasun-harremanak islatuko dira sarri. Oñatira eta Hendaiara joko zuten kanporatuek gehienbat, lotura afektiboak erabat ez galtzeko.

Honekin batera, antzeko beste auzi gogor bat plazaratzen da lan honetan: Donostia eta Pasaiako kaiaren inguruan kokatu ziren portugaldar merkatarien aurka izandakoa, 1600 eta 1650. urteen bitartean. Afera horretan, gizartearen partaidetzat onartzen ez ziren haiek dirudunak ziren, jatorri onekoak batzuetan. Portugaldar haiek lehia handia eragiten zieten Donostia, Pasaia eta Oreretako zenbait merkatariri Baiona eta Donibane Lohizunen zeudenekiko harremanetan. Hauxe leporatzen zaie: aitoren seme ez izatea; juduak izatea; eta bizimodu arinekoak eta moral txarrekoak izatea. Merkatari haien portaeraren berri ematean, Donostiako *lumpen*a gelditzen da agerian; *zelestinismoa*, bortxaketak...; eta militarrak bertan egoteak giro hori areagotzen zuen.

Azpimarratzekoak dira beren burua zuritzeko portugaldarrek erabiltzen zituzten argudioak. Merkatari haiek oso ongi barneratuta zeukaten aitoren semetzaren eredua, eta bazekiten zer egin behar zuten Gipuzkoan errotzeko, aitoren semeen kutsua hartzeko: etxe baten jabe izan; ezkontza ona burutu eta familia sortu; edota erregeari zerbitzatu. Argi erakusten dute aitoren semetzaren diskurtsoa gipuzkoarrena bakarrik ez zela, eta beste giza talde batzuek ere garatu zutela.

Gipuzkoako lurraldetik kanporatu zituzten, baina ez, ordea, "Gipuzkoa" izeneko gizartetik, bertan erabat txertatzea ez baitzuten inoiz lortu. Ez zituzten jatorrizko taldetik banatu, beste giza multzo bateko partaideak zirelako.

Orduan, nola sortzen zuten marjinazioa aitoren semeen komunitateek bere baitan? Zeintzuk eta zein baldintzatan eramango zituzten bazterketara? Erantzun ahal izateko, ezinbestekoa egiten zaigu gizarte horren loturak ikertzea, Thompson-ek irekitako bidetik jarraituz.

4. KOMUNITATEAREN LOTURAK PUSKATUTA: ARLOTEAK, ESKALEAK ETA TXIROAK, EROAK

Kolektibotasunaren lotura ederki islatu duen Jose Mª Imízcoz Beunza ekartzen dugu gida honetara[7]. Era horretan, egunerokotasunean kokatzen gara, bazterketa sortzen duten abaguneak zehazten. Horien artean, hauek aipatzea merezi du: herri-lurrak pribatizatzea; baserrien jabetza pertsona baten eskuetan gelditzea; larretan bordak altxatzea; erabilera komuna ukatzea, eremu pribatua zela argudiatuz; udal osoaren aldekoak ziren ohitura, usadioak eta erakundeak bertan behera gelditzea; jabego pribatuak hedatzea; liberalismoa...

Etxe bat baino gehiago bultzatu zuen pobreziara horrek guztiak; eta orduan, bazterketara bidaliak zirenak gizartearen barru-barrutik ateratzen ziren.

Aldi berean, ezin da ahaztu Estatu garaikidea bizkortzen ari zela, haren aurretik ziren erakundeak eta antolakuntzak —ekonomia moralarekin eta komunitatearekin lotuta zeudenak— indarra galduz zihoazen bitartean. Kanpoko botere horrek, Estatuaren itxurapean azaltzen zaigunak, ez zituen onartzen aurretik ziren *gorputz* politikoak. Bide horretatik, indibiduoak ez ezik Euskal Komunitateak ere baztertu zituzten.

Aldaketa horien aurrean erantzun asko izan ziren. Esate baterako, matxinadak pobrezian ez jausteko elkartasunean oinarritutako saio modura azter daitezke. Ekimen horiek 1766an iritsi ziren gorenera. Honako hau oinarrizko data da. Haren ondoren, egoera soziala oso larri bilakatu zen. Horrela erakusten digu Juan Gracia Cárcamo-k, Bizkaia aztergai hartuta[8]. Arloteak, eskaleak eta behartsuak bihurtu zituen protagonista. Egile horri esker, ongi ezagutzen dugu Bizkaian gertatu zena. Era horretan, azterketa konparatiboak egin daitezke gainerako lurraldeekin, XVIII-XIX. mendeetako pobreziari dagokionez.

Autore horren tesia mugatzen duten bi datak (1766-1833) arras esanguratsuak dira. Thompson-ek aipatu zuen ekonomia moralaren suntsiketarekin zerikusi zuzena du lehenak. Bigarrenak, ordea, gerrate karlistekin du lotura estua. Marjinazio berri bat iragartzen da orduan, lehen esan bezala, lurraldeek indarrez galdu baitzuten beren izaera politikoa.

Gracia Carcamo-k ez ditu bi gertakizun horiek jorratzen, jende xumearen egoera bitarte horretan baizik. Lan kuantitatibo handia egin du autoreak, pobrezia (txiroak, arloteak, eskaleak) zenbakietan agertuz. Beharrezkoa da jakitea, orduko ekoizpen-guneetan lan egiteko aukerarik ez zutenak zenbat ziren eta non kokatzen ziren, egileak berak gogoratzen digunez. Baina bestelakoa da Gracia Carcamo-ren lanaren muina, ondoko ataletan laburbiltzen dugun moduan:

7. J. M. Imízcoz (1992 eta 1993). Halaber egile berarena: "Sociedad y conflictos sociales: siglos XVI-XVIII", in *II Congreso Mundial Vasco.*

8. J. Gracia (1986, 1995 eta 1993) (azken hori bere tesian oinarrituta dago: *Pobreza y marginación en Bizkaia, 1700-1833*, EHU-1989).

1. Pobrezian murgildutako denek ez zuten gizartearengandik jarrera berbera pairatzen. Batzuk gizartearen bazterretan gelditzen ziren eta beste batzuk onartuak ziren.

2. Era berean, marjinatuen nondik norakoak adierazten dizkigu, bizimoduak eta portaerak irudikatuz: atxilotu eta epaituen ogibidea, egoera zibila, ezaugarriak, egunerokotasuna, gaixotasunak, etxea, lagunak, ibilerak...

3. Ondoren, jende haienganantz agintari ilustratuek zuten jarrera aztertzen du: zein irtenbide plazaratu zituzten; zer diskurtso-mota erabiltzen zuten; pobreenganako mehatxua non antzematen zen, eta abar.

Hirugarren honetan sakontzea merezi duela uste dugu. Dirudienez, XVIII. mendean zehar Europa osoan eskaleen aurkako legeak ugaritu ziren. Gracia Carcamo-k bost tarte bereizi ditu:

A. 1700-1726. Arloteena zen gehien nabermentzen zen multzoa. Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen bitarteko berezirik martxan jarri. Udalek arazo horri eutsi behar zioten, baina ez ziren inolaz ere gogor saiatu. 1718ko matxinadaren ondorioz, itxi egin zituzten ospitaleak edota gehiago kontrolatu zituzten.

B. 1726-1765. Lasaitasun urte hauetan kontzeptualizazio berria jorratzen hasi zen, eskaleak eta alferkeria erasotzat hartuz.

D. 1766-1786. Txirotasuna hedatu zen. Araudi sutsuak nonahi agertu ziren, bai laguntzeko bai zigortzeko ere. Geremek-ek aurreratu digunaren arabera, *urkamendiaren* eta *errukia*ren garaia da. Foru-ebazpenen ondoan, ilustratuek ongizateko egitasmoa garatu zuten. Sasoi hartan, Colon Larreategi-k burututakoa azpimarratzen du Gracia Carcamo-k: Karitate Batzarra eta Miserikordia Etxea sortu zituen Bilbon, toki isolatu eta partikularretan arlotei babesa ez emateko agindua ematearekin batera.

   Herrialde osoan aritzeko eskumenarekin, "*Partida Volante*" zelako talde sasipolizial armaduna jaio zen.

E. 1787-1812. Gerren eragin nabarmena (Konbentzioa gehi "Independentzia"). Txirotasuna hazi egin zen etengabe. Kanpotik iritsitako eskale eta arloteen kopurua kezkatzekoa omen zen.

F. 1813-1833. Agintariek lege gogorrak areagotu zituzten. Eskaleei buruzko ebazpen-metaketa kausitu dugu. Eskatzeko debekua bertako txiroei ere luzatu zitzaien.

4. Bukatzeko, zenbait ilustraturen jarrera eta diskurtsoak erakusten dizkigu Gracia Carcamo-k. Industria eta heziketa aipatzen zuten orokorrean, alferkeria ezabatzeko asmoz. Ondoko pertsonen ekarpenak azpimarratuko ditugu hemen, besteak beste:

– Arrikibar. Ospizioak disziplina lortzeko bidea zirela, eta eskupekoak plangintza baten barruan sartzeko beharra zegoela agertu zuen.
– San Martin. Nekazaritza-etxeak eraikitzearen aldekoa zen.
– Agirre. Irizpiderik gabeko karitatea gogor salatzen zuen; zilegizko pobreenganakoa baino ez zuen onesten. Ez zen zigorzalea. Herriz herri bertoko plazagizonek asanbladak antolatu behar zituztela zioen, herri bakoitzak bere pobreei laguntza emateko.
– Foronda. Gasteizko Miserikordia Etxea Pariskoarekin alderatu zuen, Gasteizkoari zer falta zitzaion argitzeko.
– Azkoitia. 1781. urtean emakume eskaleei buruzko txostena egin zuen, neurri bereziak jasoz.

Atal hau Gracia Carcamo-ren lanaren zatirik interesgarriena dela uste dugu, nahiz eta erabilitako diskurtsoetan gehiago sakondu ahal dela iruditzen zaigun.

Beti ere gure ikuspuntutik, zigorrek, arauek, espetxealdiek edota giza laguntzaren atzean ezkutatzen zen errepresioak ez zuten arazoa konpontzen. Era berean, horrelako neurriak indarrean jartzeak aldaketa ideologiko bat ikustera garamatzala iruditzen zaigu. Horren erakusle, eroetxe baten asmoa dugu, Carlos Javier Sánchez Vicente-k (1993) jasotzen duena: "*Centro de Beneficiencia Euskariano*" izenpean eroetxe eta ongizateko gunea uztartzen zen bertan, eta 1866. urtean Nafarroako Foru Aldundiak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakundeei proposatu zien.

Dena den, arloteen, alferren eta eskaleen kopurua ez zen gora egin zuen bakarra. XVIII. mendean beste talde bat ere handitzen ari zen etengabe, umezurtzek osatzen zutena, jaio bezain pronto kale gorrian utzitako ume espositoena. Lola Valverde Lamfus-ek (1995) eman du honen berri[9].

5. UMEZURTZAK

Arazo benetan itzela da umezurtzena, alde frankotik ikusita. Alde batetik, egoera ekonomiko txarra iragartzen zuen; bestetik, morala estutzen ari zen sasoi hartan, afektibotasunean eta gogoan trauma eta damua sortzen zen; gainera, inudeak ordaintzeko dirurik ez zegoen... Geuk ere honen testigantza asko topatu ditugu geure ikerketetan[10].

Valverde-ren lanera itzuliz, gai honi buruz ardura gehien erakutsi zutenak Peñaflorida eta Zuaznabar izan ziren. Hain zuzen 1791. urtean txosten batean jaso

9. L. Valverde (1994). Ikus daitezke, halaber: A. Uribeetxeberria. (1996) eta J. Urrutikoetxea (1992).

10. Umeen ondoan amek uzten zituzten oharren artean, bat euskaraz aurkitu dugu: «Maiazaren lauian bataiatu bada Joseprançicu. Ama eçin acita ortarada, eç guchi amac nai çiolako. Aur ori ongi ongi alimentatu», in GAO: JD IM 1-20-90.

zutenaren arabera, espositoen auzia ez zen benetako arazo larria. Hala ere, ume haiek oso baldintza kaxkarretan bizi ziren: batetik, Zaragoza, Kalahorra eta Iruñearen artean sakabanatzen zituztelako; eta bestetik, Miserikordia Etxeetan umeak zaintzeko behar bezalako baldintzak ez zeudelako.

"Independentziako" Gerrak bertan behera utzarazi zuen planifikazio guztia. Finantzazio-arazoa lehendik ere larria baldin bazen, Gipuzkoako Foru Aldundia diru-iturririk gabe gelditu zen. Iruzurra, diru-falta, inudeen soldatak ordaindu beharra, Miserikordia Etxean izandako tirabirak... XIX. mendean arazoa benetan larri bihurtu zen.

Egoera tamalgarri hartan, umeak kale gorrian uztea XVIII. mendean berezko nortasuna hartu zuen ekintza bat zela azpimarratzen du Valverde-k. Umeak kalean lagatzen ziren, beste norbaitek jaso eta haziko zituelakoan. *Infantizidio*aren ordezko bihurtu zen. Alta, umeak hiltzen ez zirenez, jarduera hark parekatzaile demografikoaren kutsua galdu zuen. Gizartearen tamaina orekatu beharrean, familiaren hazkundea mugatzen zuen ekintza hark.

Bestalde, familia zabalak lehen bermatzen zuen babesa desagertu zenez, haurdun zeudenek irtenbide bakarra zuten: umeak kalean uztea. Babeslanean sortutako hutsunea orekatzen zuen erakunderik ez zegoen. Asmatu egin egin behar zen, teorizatu eta ordaindu. Ezkontzatik kanpo izandako seme-alaben nolabaiteko ardura hartzera gizonezkoak behartzen zituzten legeak desagertu zirela gehitzen du Valverde-k. Horrekin batera, adulteroek, sasikoek, ezkongabeko amek... gero eta zailtasun handiagoak zituzten gizarte hartan. Estura ekonomikoa handitzen zenean, familia sortzea eta eratzea are zailago bihurtzen zen[11]. Giro gogor hartan, bortxaketek ere gora egin zuten.

6. ETORKIZUNERAKO LAN-ILDOA

Orain arte ikusi dugun bazterketak gizarte barruko antolaketan zuen ardatza, hots, gizarte barruan aldatu ziren osagaietan. Atal honetan nabarmendu nahi duguna, kanpoko eragile bat da: gerra, hots, gure aurrekoei ezarri zitzaizkien gerrak zein gerraondokoak. Arrapaladan iritsi ziren Ondorengotza/Konbentzioa/Independentzia gerrak. Horiek sortutako kaltea itzela izan zen. Demografiaren aldetik, gazteak mobilizatu eta hiltzeaz gain, eta biztanleak alde egitera behartzeaz gain, gerra gure lurretan txertatzen zen. Armadak bertan bizi ziren: jan, lo eta berotu beharra zuten. Euskal Herrian erasotzen zuten elkar, lurrak txikitu, baserrietan ohostu... Bertakoen lepotik ordaintzen ziren gastuak, gerra-denboran eta gerraren ondoren.

Gerraren eragina ikertu ahal izan dugu Gipuzkoan, Konbentzio Gerraren eragina, hain zuzen (D. Zapirain eta J. C. Mora, 1997). Gipuzkoako herri guztiek jasan-

11. Urrutikoetxea-ren eta Imízcoz-en lanekin lotu beharko genuke hau.

dako kalteen balioa eta berri zehatza eman zuten: lapurtutakoa, txikitutakoa, desagertutako abereak, ordaindu gabeko hornidurak, erabili ez egiteko moduan gelditutako nekazaritza-lurrak... Ez dira datu abstraktuak, zenbatutako eta monetarizatutakoak baizik. Labur esanda, kalteak izugarriak izan ziren.

Gerran izandako gastuei aurre egiteko, herrien ondasunak jarri behar izan zituzten salgai, edota bahitu, zorrak ordaintzeko: lur komunalak, herri-basoak, ostatuak, errotak, zergak pribatizatu... Jende xumeak babes moduan zituen baliabideak gehiago murriztu ziren. Udalek, gainera, bestelako aferak ordaindu behar izan zituzten, Errege-Bide edo *errepide* berria, esate baterako.

Egoera horretatik gizarte baztertuan ari zen multzo berezi bat ugaldu zela uste dugu, eta egundaino historiografiaren arreta piztu ez duena: bidelapur eta gaizkileen multzoa. Agiriek behin eta berriro ematen dute horien berri; ez dira gertakizun isolatuak, sistematizatu eta iker daitezkeenak baino. Aurrekoetan bezala, baztertu horiek erantzuna jaso zuten agintariengandik: debekuak, lege berriak, epaiketa eredugarriak, espetxeak, mikeleteak... Gizartea disziplinatzeko saio gogorra izan zen, zalantzarik gabe. Hori da, hain zuzen ere, epe laburrera ikertu nahiko genukeen eremua, urratsez urrats osatzen ari den historiografia honetan beste euskarri bat jartzeko asmoz.

BIBLIOGRAFIA

A. Gizartea

(1991): *1789 et les basques: colloque de Bayonne, 20 juin-1 juillet 1989,* Presses Universitaires de Bordeaux.

Achón, J. A. (1995): *A voz de concejo: linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa,* Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

————, (1991): "Valer más o valer igual: estrategias banderizas y corporativas en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa", in *El pueblo vasco en el renacimiento, 1491-1521,* Loiolako Inazio Institutua.

————, (1998): "Repúblicas sin tiranos, Provincia libre. Sobre cómo llegó a concebirse al Pariente Mayor banderizo como enemigo de las libertades de las repúblicas guipuzcoanas", in *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal*, EHU, Bilbo.

Barudio, G. (1992): *La época del absolutismo y la ilustración: 1648-1779,* Siglo XXI, Madril.

Bobbio, N. eta Bovero, M. A. (1986): *Sociedad y Estado en la Filosofía moderna. El modelo iusnaturalista y el modelo hegeliano-marxiano*, FCE, Mexiko.

Clavero, B. (1994): *Derecho indígena y cultura institucional en América*, FCE, Mexiko.

"Euskal Herriko gizartea eta gizarte arazoak XVI. gizalditik XVII.era", in *II. Euskal Mundu-Biltzarra: Euskal Herriaren Historiari buruzko Biltzarra,* **III**. alea.

Floristán, A. eta Imízcoz, J. Mª (1993): "La sociedad navarra en la Edad Moderna. Nuevos análisis. Nuevas perspectivas", *Príncipe de Viana*, **15.** eranskina, 11-48.

————, (1993): "La comunidad rural vasco-navarra (s. XV-XIX): ¿un modelo de sociedad?", *Mélanges de la Casa de Velázquez,* **XXIX-2,** 193-215.

Gerhard, D. (1991): *La vieja Europa. Factores de continuidad en la historia europea. 1000-1800*, Alianza, Madril.

Grossi, P. (1993): *La propiedad y las propiedades. Un análisis histórico,* Alianza, Madril.

Hespanha, A. M. (1993): "El espacio político", in *La gracia del derecho*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril, 85-122.

————, (1993): "La economía de la gracia", in *La gracia del derecho*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril, 151-175.

Imízcoz, J. Mª (1992): "Tierra y sociedad en la montaña de Navarra: los comunes y los usos comunitarios del Antiguo al Nuevo Regimen, siglos XVIII-XIX", *Principe de Viana*, **16.** eranskina, 175-189.

————, (1993): "Actores sociales y redes de relaciones en las sociedades del Antiguo Régimen. Propuestas de análisis en historia social y política". *Historia a Debate,* 341-353. Santiago.

Macpherson, C. B. (1979): *La teoría política del individualismo posesivo. De Hobbes a Locke*, Fontanella, Bartzelona.

Orpustan, J. B. (zuz.) (1994): *La Révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIX siècle : actes du colloque de l'URA,* Izpegi, Baigorri.

Thompson, E. P. (1989): *Tradición, revuelta y consciencia de clase,* Crítica, Bartzelona.

————, (1995): *Costumbres en común*, Crítica, Bartzelona.

Truchuelo, S. (1997): *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial, siglos XVI-XVII,* Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Urrutikoetxea, J. (1992): *En una mesa y compañía. Caserío y familia campesina en la crisis de la sociedad tradicional: Irún, 1766-1845,* Donostia, Deustuko Unibertsitatea.

B. Bazterketa

(1994): "Marginación, desigualdad y poder", Revista de Historia Contemporánea, **16**.

(1998): *Estado, protesta y movimientos sociales: III Congreso de Historia Social de España (1997. Gasteiz)*, Bilbo, EHU.

Azpiazu, J. A. (1997): *Esclavos y traficantes: historias ocultas del País Vasco*, Ttarttalo, Donostia.

Bazán, I. (1995): *Delincuencia y criminalidad en el País Vasco en la transición de la Edad Media a la Moderna*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Beccaria, C. (1994): *De los delitos y de las penas*, Altaya, Bartzelona.

Beristian, A. (1984): *Desbideraketa, bazterketa eta gizarte kontrola,* Oñati, HAEE.

Carasa, P. (1993): "Pobreza y asistencia social en la España contemporánea: la historia y los pobres: de las bienaventuranzas a la marginación", *Historia Social*, **13**, 77-99.

Foucault, M. (1996): *Vigilar y castigar*, Siglo XXI, Madril.

Geremek, B. (1974): "Criminalité, vagabondage, pauperisme: la marginalité à l'aube des temps modernes", *Revue d'Histoire moderne et contemporanée*, **XXI**.

————, (1989): *La piedad y la horca: historia de la miseria y la caridad en Europa,* Alianza, Madril.

Gracia, J. (1993): *Mendigos y vagabundos en Bizkaia, 1766-1833,* Bilbo, EHU. [Bere tesian oinarrituta, (1989): *Pobreza y marginación en Bizkaia, 1700-1833*, EHU].

————, (1986): "La mentalidad ilustrada ante el pauperismo y la marginación social en el País Vasco: la actitud del Conde de Peñaflorida", *Ernaroa*.

————, (1995): "Pobrezia eta gizarte-laguntza XVIII. mendean Bizkaian", *Uztaro*, **14,** 3-19.

González Mínguez, C.; Bazán, I. eta Reguera, I. (zuz.) (1999): *Marginación y exclusión social en el País Vasco,* EHU, Bilbo.

Reguera, I. (1984): *La Inquisición española en el País Vasco: el tribunal de Calahorra, 1513-1570,* Txertoa, Donostia.

Sánchez, C. J. (1993): "El proyecto de manicomio agrícola de Nicasio Landa". *Gerónimo de Ustaritz*, **8**, 123-135.

Serrano, A. (1992): *Como lobo entre ovejas. Soberanos y marginados en Bodin, Shakespeare, Vives,* Centro de Estudios Constitucionales, Madril.

Stürtze, A. (1988): *Agotak, juduak eta ijitoak Euskal Herrian,* Gaiak, Donostia.

Uribeetxeberria, A. (1996): *Marginalidad "protegida": mujeres y niños abandonados en Navarra, 1870-1930,* EHU, Bilbo.

Valverde, L. (1994): *Entre el deshonor y la miseria: infancia abandonada en Guipúzcoa y Navarra, siglos XVIII y XIX*, EHU, Bilbo.

Vives, G. (1983): "Conflictividad social en el área de Fuenterrabia y su jurisdicción en el s. XVIII", in *Noveno Congreso de Estudios Vascos : antecedentes próximos de la sociedad vasca actual, siglos XVIII y XIX,* Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Zapirain, D. eta Mora, J. C. (1996): "Exclusión social en los siglos XVI y XVII: esclavos, judíos y 'portugueses' en la Guipúzcoa Moderna", *Vasconia*, **24**.

———— eta ———— (1997): "Gerra eta krisia: 1795, Gipuzkoa Basileako Bakearen ondoan". *Zumalakarregi Museoa Azterketa historikoak*, **IV**.

Conversa izenekoak eta Lapurdiren eta Gipuzkoaren arteko harreman komertzialak Aro Berrian

Xabier Alberdi Lonbide
Historian lizentziatua

1. SARRERA

Hitzaldi honen helburu orokorrak bi dira:

1. Batetik, *Conversa* izenaz ezagutzen ditugun hitzarmenen garrantzi historikoaren aldarrikapena egitea.
2. Bestetik, historialariok gehienetan ahazten edo baztertzen ditugun Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko antzinako harreman ekonomiko eta politikoez zertxobait bada ere jardutea.

Hemen *Conversa* deritzen hitzarmen hauek, Aro Berrian beste hitz desberdin askoz ere izaten ziren izendatuak orduko dokumentuetan, besteak beste: *Conversa*, *Tratados de Conversa*, *Tratados de Buena Correspondencia* edo *Traités de Bonne Correspondance*, *Concordias* eta abar.

Espainia eta Frantziako koroen menpe zeuden lurralde desberdinen artekoak ziren hitzarmen haiek, eta ez ziren euskal lurraldeetara murrizten. Besteak beste, Lapurdi, Baiona, Gipuzkoa, Bizkaia, Capbreton-go baroiherria, Bordele, Bretainia edo Kostaldeko Lau Hiriak (Santander, San Vicente de la Barquera, Santoña eta Castro Urdiales) hitzarmen horietako partaide izan ziren edo izan nahi izan zuten noiz edo noiz. Dena dela, hitzarmenen muina euskal lurraldeek osatzen zuten. Bi Estatuen arteko gerra-garaietan elkarren arteko merkataritza-harremanak ez etetea eta partaideen artean sor zitezkeen liskarrak ahal zen neurrian aldentzea ziren hitzarmen haien helburu nagusiak. Hala ere, Gipuzkoaren eta Lapurdiren arteko harremanez jardungo dugu lan honetan, batez ere, nahiz eta gainerako lurraldeei buruzko aipamenak ere ezinbestekoak izango diren.

Kronologikoki lan honek Aro Berria izango du garaitzat, baina, esan beharrekoa da, hitzarmen horiek Erdi Aroan dutela jatorria, zehazki Behe Erdi Aroan, Gaztela, Nafarroa, Frantzia eta Ingalaterraren artean gertatutako liskarren testuinguruan, euskal lurraldeen eta beste batzuen artean sinatutako bake-hitzarmenetan.

Dena den, nahiz eta Aro Berriaz jardun, adierazi beharra dago hitzarmen horiek XVI eta XVII. mendeetakoak direla, XVIII. mendean ez baitzen gehiago hitzarmenik sinatu, geroago aipatuko diren arrazoiengatik.

Euskal itsas ekonomiaren baitan hitzarmen horiek berebiziko garrantzia izan bazuten ere, euskal historiografiak oso gutxi ikertu ditu. Ekonomiaz edo instituzio eta lurraldeen egiturez diharduten lanetan egindako aipamentxoez gain, monografikoki gai hau ukitu duten lanak oso gutxi dira, eta gainera, nahiko zaharkituta daude. Izan ere XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako artikulutxo batzuek baino ez dira egin[1].

Oso gai garrantzitsua da, eta ikerketa berri eta sakonagoen beharrean dago, euskal historiako beste hainbat gairen antzera. Lantxo honen egitekoa da, beraz, batetik, hitzarmen hauek garai haietako Lapurdiko eta Gipuzkoako itsas ekonomietan izan zuten garrantzia aldarrikatzea; eta, bestetik, adieraztea ezen, *Conversa*k orduko itsas ekonomiaren egituraren eta antolakuntzaren atal garrantzitsuak zirenez, hauek behar bezala ezagutzeko ezinbestekoa dela hitzarmen horiek hobeto ezagutzea.

2. ITSAS EKONOMIAREN BILAKAERA OROKORRA XVI. ETA XVII. MENDEETAN

XVI. mendeko gorakada ekonomiko orokorraren barnean, Euskal Herri atlantikoan (Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdi), bertako nekazaritzaren hutsuneak, bigarren eta hirugarren sektore ekonomikoen garapen garrantzitsu batez betetzen zituen eredu ekonomiko bat bilakatu zen. Beraz, itsas ekonomia berebiziko garrantzia izatera iritsi zen, bai bertako biztanleen biziraupenean, bai ekonomiaren bilakaeran. Gertakari hori definitzean, ikertzaileek "kanpotik induzitutako" eredu bat zela diote; edo "herri-garraiolari" bezalako esaldiak erabiltzen dituzte euskaldunak definitzeko[2].

XVI. mendeko amaieratik aurrera, ordea, aldaketa sakonak gertatu ziren. Ikertzaile askok jardun dute orduko itsas ekonomiak jasandako zailtasunen gorakadaz edo krisiaz. Esaten da, halaber, krisialdi hark batez ere Hego Euskal Herriari eragin ziola; Ipar Euskal Herrian, aldiz, itsas ekonomiaren eta batez ere, balea- eta bakailao-arrantzaren gorakada handia gertatu zela XVII. mendean. Krisialdiaren arrazoiak azaltzean, historialariek honako hauek aipatzen dituzte, besteak beste: gerrak eta Estatuek garatutako politika inperialista (itsasontzi zibilen bahiturak, armadetarako marinelen itsasoratzeak, kortsoaren eta itsaslapurketaren

1. Besteak beste, aipatu beharrekoak dira adibide gisara: F. Amador Carrandi (1927), F. Arocena (1933), P. Gorosabel (1852); F. Habasque (1895); P. Yturbide (1922).

2. L. M. Bilbao (1979); E. Fernández de Pinedo (1974).

gailentzea, itsasbideen eta kaien itxierak, eta abar), Gaztelako kapitalak itsas merkataritzatik aldentzea, prezioen gorakadak, euskal burdin ekoizpenaren eta itsasontziteriaren konpetitibitate-galera, eta abar.[3]

Dena dela, aldaketa hauetan zeresan handia izan zuten merkatari eta ontzijabeen interesek ere. Hau da, beren interes ekonomikoen arabera, aspalditik zetozen itsas jarduera batzuek bertan behera utzi zituzten (adibidez, itsas garraioa), eta beste batzuek, berriz, berebiziko gorakada nabaritu zuten (adibidez, arrantzak) (J. Azpiazu, 1990: 87-88).

Aipatu ditugun aldaketak benetan nabarmenak izan ziren XVI. mendeko erdialdetik aurrera. Batetik, Erdi Arotik zetorren itsas garraioaren garapena bertan behera geratu zen, atzerriko garraiolarien konpetentzia gogorragatik eta euskal merkatariek atzerritarren zerbitzu merkeagoak nahiago zituztelako (X. Alberdi, 1999a). Bestetik, itsasoz haraindiko arrantzak sekulako garrantzia bereganatu zuen; Hego Euskal Herriari dagokionez, XVI. mendeko erdialdetik XVII. mendeko lehen hamarkadetara bitartean ezagutu zuen garairik oparoena; Ipar Euskal Herrian, aldiz, Frantziak Kanada eta Ternuako lurraldeak bereganatu zituenez, XVII. mende osora zabaldu zen oparotasuna[4]. Aldi berean, ontzien eraikuntzak birmoldaketa garrantzitsua jasan zuen, batez ere Gipuzkoan, errege-ontziterietarako eraikuntzan espezializatuz[5]. XVII. mendeko gerraldi luzeen testuinguruan kortsoak sekulako garapena izan zuen, eta kontrabandoak ere garairik oparoenetakoak izan zituen[6].

Krisiaz baino gehiago, itsas ekonomiaren birmoldaketaz aritu beharko genuke. Egia da euskal itsas ekonomiak larrialdi eta egoera latzak jasan behar izan zituela XVII. mendean, besteak beste, Frantziaren eta Espainiaren arteko gerrak areagotu ahala, eta atzerritarren konpetentzia (lehendabizi holandesena eta geroago ingelesena) ere izugarri handituz zihoala. Atzerriko herrialdeetan itsas enpresen egiturak eta antolaketak aldakuntza sakonak izan zituen. Bai itsas merkataritzan eta baita arrantzan ere, beren gobernuen babespean konpainia pribilegiatuak sortu zituzten XVI. mende amaieratik aurrera. Kapital finkodun enpresa boteretsu horien konpetentziari aurre egitea oso neketsua zen Euskal Herrian lehengo erara antolaturik zeuden enpresatxo kapital finkorik gabekoentzat.

XVII. mendean zehar behin baino gehiagotan saiatu zen Espainiako koroa Euskal Herrian arrantzan edo merkataritzan jardungo zuen konpainia pribilegiaturen bat sortu nahian, atzerritarren konpetentziari aurre egitearren. Euskal merkatarien eta ontzijabeen artean, ordea, ez zuten saiakera hori gauzatzeko prest zegoen

3. J. A. Azpiazu Elorza (1990); M. Barkham (1984); L. M. Bilbao (1979: 134-143); E. Fernández de Pinedo (1974: 31); C. Gómez-Centurión Jiménez (1988); C. H. Haring (1979); S. Huxley eta M. Barkham (1996); S. Huxley (1984); H. Lapeyre (1981: 185-187).

4. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (GAO), R. 5.; L. M. Díez de Salazar eta M. R. Ayerbe (1990: Rentería 16/26 Abril 1580); S. Huxley eta M. Barkham (1996: 357); L. Turgeon (1982).

5. M. L. Odriozola (1994a) eta (1994b).

6. E. Otero Lana (1992); A. F. González González (1994).

inor aurkitu, nahiago baitzuten lehengoan jarraitu. Gertakari hori haien enpresa "zaharkituen" baliagarritasunaren lekuko garrantzitsua da[7].

Garai berrien beharretara egokitu beharrean, nahiago izan zuten enpresen egitura eta antolaketarako beren lurraldeetako instituzioek eskaintzen zituzten onura legislatibo, politiko eta ekonomikoak erabili, beren enpresak baliagarriak izaten jarrai zezaten. Gipuzkoari dagokionez, Foruek eta erregeek mendeetan emandako pribilegioek ahalbidetzen zuten beharrezko eta hain beharrezko ez ziren lehengai eta ekoizkin manufakturatuak libreki atzerritik ekartzea, haien ordez dirua ateratzea, kostaldean aduanarik ez egotea, eta abar. Baina, horiez gain, merkatariak eta ontzijabeak foru-erakundeez baliatzen ziren, beren interes ekonomikoak babes zitzaten. Estatuen zentralizazioa eta erregeen boterearen absolutizazio-prozesua sendotzen ari zen artean, euskal erakundeek gero eta botere eta burujabetza-maila handiagoa eskuratu zuten Aro Berrian zehar[8]. Eta, noski, ekonomiarekiko foru-erakundeek zuten kontrola ere areagotzen joan zen.

XVI eta XVII. mendeetan elkarren arteko gerrari aurre egiteko frantziar eta espainiar estatuen behar eta eskariak (itsasontziak, marinelak, soldaduak, dirua eta abar) eta atzerritarren konpetentzia bortitza ere hazten zihoazen bitartean, Gipuzkoako erakundeak bertako itsas jarduera garrantzitsuenak babesteko lege eta pribilegioak lortuz joan ziren. Horrela, itsasoz haraindiko arrantzak —jarduerarik garrantzitsuentzat zeukatena— inoiz lehenago ezagutu gabeko lege-babesa eta pribilegioak lortu zituen:

1. Zerga-salbuespenak: 1603an bertako arrain eta gantz-emariak "ehuneko 30 zergatik" aske geratu ziren; 1639an arrantza-ontziek arrain-kargako ordaindu beharreko zerga erreal batera murriztu zen; 1664an Biltzar Nagusiek bertako arrainak ez zuela *Donativo* zerga ordaindu beharrik agindu zuten[9].

2. Saltzeko garaian bertako arrain eta gantz-emarien lehentasuna, 1618an emana, eta 1645 eta 1669an berretsia[10].

3. Itsasoz haraindiko arrantzara zihoazen ontzi eta tripulazioak Armadarako itsasontzi-bahituretatik eta marinelen itsasoratzeetatik aske geratzea, 1625ean emana, eta 1639 eta 1644an berretsia[11].

---

7. GAO, JD IM. 2-22-39 (1668). Eskerrak eman nahi dizkiot Alberto Angulori, gai honi buruz eman dizkidan argibideengatik.

8. J. M. Portillo Valdés (1991).

9. GAO, R.14 (1603). / Archivo del Museo Naval, Vargas Ponce bilduma, III tomoa, 69 dokumentua (1639). / GAO, JD AJI, Impresos 16, 6 (1664).

10. GAO, R.17 (1618). / GAO, R.18 (1618) / Archivo del Museo Naval, Vargas Ponce bilduma, III. tomoa, 76. dokumentua (1645). / Archivo del Museo Naval, Vargas Ponce bilduma, XXII. tomoa, 61. dokumentua (1669).

11. Archivo del Museo Naval, Vargas Ponce bilduma, III. tomoa, 58. dokumentua (1625). / GAO, JD IM, 2-12-31 (P5D17) (1639, 1644).

4. Arrantza-ontzien horniduraren bideraketa: 1645ean 40.000 anega gatz ekartzeko baimena[12].

Hau da, egitura eta antolakuntza berridun enpresa boteretsu eta baliagarriak sortu beharrean —akziodun konpainiak—, beren interes ekonomikoak babesten zituzten irtenbide politiko-legislatiboetara jo zuten. Gertakari hori ez zen itsas ekonomian bakarrik nabaritu, baizik eta Euskal Herriko industria garrantzitsuenean ere; hau da, burdinolak, atzerriko konpetentziari aurre egiteko berrikuntza teknikoak eta egitura-aldaketak egin beharrean, erakunde politikoen babesaz baliatu ziren beren arazoak konpontzeko (X. Alberdi, 1999b).

3. CONVERSA*K EUSKAL ITSAS EKONOMIAREN EUSKARRI*

Foru-erakunde eta legediaren babespean, Ipar eta Hego Euskal Herrietako interes ekonomiko desberdinak bateratzen zituen sistema ekonomiko bat garatu zuten euskaldunek XVII. mendean. Sistema horren garapenean berebiziko garrantzia izan zuten *Conversa* izeneko hitzarmen horiek. Lehendabizi, lehenago esan denez, itsas merkataritza atzerritarren esku geratu zen XVI. mendearen amaieraz geroztik, eta gainera kai edo moila gutxi batzuetara murriztu zen; Hego Euskal Herrian batez ere Bilbora, eta, maila askoz txikiagoan Donostiara, eta Ipar Euskal Herrian Baionara. XVII. mendeko gerra luzeetan *Conversa*ren existentziak merkataritza horren jarraipena ahalbidetu zuen, bi Estatu etsaietan bizi ziren euskaldunen artean.

Bigarrenez, itsasoz haraindiko arrantzari dagokionez, lehenago esan da Ipar Euskal Herriarentzat garairik oparoena XVII. mendea izan zela, Ipar Amerikako arrantza-leku oparoenak Estatu frantziarraren esku baitzeuden. Baina Lapurdiko arrantza-ontziteriaren bezero garrantzitsuena Espainia zen, Bilbotik sartzen zirelarik bere ekoizkinak, eta, gainera, ontziteria horren negurako babes-kaia Pasaiakoa zen. Hego Euskal Herrikoek, batez ere Gipuzkoako bakailao-ontziteriak, behar-beharrezkoa zuen Iparraldekoen laguntza, Frantziaren menpe zeuden arrantza-lekuetara joateko baimenak eskuratzeko. Beraz, elkarren arteko menpekotasun horiek ahalbidetzen zituen elementu ezinbestekoak ziren *Conversa*k.

Hirugarrenez, *Conversa* horiek sortutako merkataritza-zilegitasunaren testuingurua benetan aproposa zen kontrabandoaren garapenerako, Ipar eta Hego Euskal Herrietako merkatarien artean zilegi ziren produktuez gain, legez kanpoko beste produktu ugari ere salerosten baitziren.

Laugarrenez, bi Estatu etsaien menpekoak ziren bi lurraldeak elkarren lagun izate horrek kortsoaren garapena ere bideratu zuen. Bai Hego Euskal Herria eta bai Ipar Euskal Herria garai hartako kortsario-gune garrantzitsuenetakoak izan ziren Europa osoan. *Conversa*k, batetik, elkarren erasoak saihesten zituen, honela nor-

12. GAO, R.26 (1645).

bere kortsario-ontziteria galtzeko arriskua aldenduz, eta, bestetik, hitzarmen haietatik at zeuden herrialdeen aurka erasoak lasai egiteko aukera ematen zien denei, inork galarazteko arriskurik ia izan gabe.

3.1. Conversa hitzarmenen bilakaera

Lehenago aipatu da *Conversa* hitzarmenen jatorria Erdi Aroan dagoela. Aro Berriari dagokionez, lehendabiziko hitzarmena 1536an sinatu zen, 1537an erantsi zitzaizkion beste artikulu batzuekin. 1653an sinatu zen hitzarmenak XVIII. mendearen hasiera arte iraun zuen, eta 1667-1668, 1675 eta 1695ean hitzarmen berbera izan zen Hego eta Ipar Euskal Herrietakoen artean berriz sinatu zena.

Beraz, orokorki, epe luze horretan behin eta berriz sinatutako hitzarmenak bi izan ziren, 1536-1537koa eta 1653koa. Dena dela, lehenagotik ere, ziurrenik XV. mendean edo XVI.aren hasieran sinatutako beste *Conversa* bat zegoen indarrean, garaiko dokumentazioan aipatzen denez. Adibidez, gauza jakina da 1529rako Gipuzkoa, Bizkaia, Itsasoko Lau Hiriak, Baiona, Donibane Lohizune, Lapurdi eta Capbreton-en arteko hitzarmen edo "*tratado de buena correspondencia*" bat indarrean zegoela[13].

Bi hitzarmenen arteko desberdintasunak nahiko handiak dira, eta itsas ekonomiak izandako aldakuntzen lekuko dira. Hain zuzen, 1536an sinatutakoak bederatzi artikulu zituen eta, orokorrean, itsas garraioa eta kortsoa arautzen zituen:

1. Elkarri ez erasotzea.
2. Zeramaten zama beste batzuena izanik ere, ez erasotzea.
3. Ontzikoen artean atzerritarrik bazegoen, bertakotzat hartzea.
4. Etor zitezkeen iruzurrak saihesteko, atzerriko ontzirik ez erostea eta ez erabiltzea.
5. Elkarren artean errepresaliarik ez egitea.
6. Hitzarmenetik at zeudenetatik egindako harrapakinak ontzat ematea.
7. Atzemandako atzerriko ontzi horietan bertakoen zamarik bazegoen ere, harrapaketa ontzat ematea.
8. Hitzarmenaren ondoren erregeek hautsi egin nahi bazuten eta gerra hasi, elkarri gogo horren berri eman, eta 15 eguneko epea izango zuten liskarrak hasi aurretik.
9. Zor zitezkeen gatazkak zuzentzeko epaile batzuk izendatzen zituzten[14].

13. GAO, JD IM, 2-12-9 (1529).
14. Oiartzungo Udal Agiritegia, A-6-1-1 (1536-1537).

Beraz, hitzarmenaren helburu nagusiak, batetik, bi aldeen zama-ontzien babesa lortzea eta, bestetik, hitzarmenetik kanpo zeudenei egindako erasoak ontzat ematea ziren. Baina urteek aurrera egin ahala, hitzarmen hori motz geratu zen. Merkataritzari buruz *Conversa* hitzarmenak ezer gutxi zioenez, Gipuzkoako agintariek erregearengandik pribilegio eta baimen ugari lortu behar izan zituzten Gortean, Lapurdikoekin salerosketan jardun ahal izateko. Horrela, 1558an, sei hilabeteko epean garia ekartzea eta, trukean, armak izan ezik beste edozein produktu eramatea baimentzen zitzaien "frantsesei"[15]. 1594an elikagaiak libreki ekartzea onartu zitzaien[16], gero 1595ean baimena flandestar, eskoziar eta irlandarrei ere zabalduz[17]. 1597an, elikagaiak eta legezko produktuak ekarri zituzten ontzi horiei; trukean dirua ateratzea baimendu zitzaien[18].

Gauzak horrela geratu ziren 1598an Frantzia eta Espainiaren arteko bakea sinatu zenean. Baina 1635ean bi Estatuen arteko gerra berriz piztu zenean, garbi geratu zen *Conversa* berri baten beharra; gestio eta zailtasun askoren ondoren, 1653an sinatu zen hitzarmen berria. Horrek hamabi artikulu zituen:

1. Ordura arteko liskarrak ahanztea.
2. Elkarren artean erasorik gertatzen bazen, joaten ziren lekuetako epaileek zigortuko zituzten gaizkileak.
3. Gipuzkoako mugak zehaztea.
4. Lapurdiko mugak zehaztea.
5. Gipuzkoako Kapitain Jeneralak, eta Baiona eta Lapurdiko Teniente Jeneral eta Gobernadoreak emandako pasaporteekin zihoazen ontziak ez zituen erasoko Frantzia eta Espainiako inork.
6. Arrantzako ontzitxoak Lapurdi eta Gipuzkoa artean pasaporterik gabe libreki ibiltzeko baimena.
7. Bertakoen ontzirik edo ontzietan zegoenik atzemanez gero, berehala aske utziko ziren guztiak.
8. Hutsik edo elikagaiekin zetorren atzerriko, frantziar edo espainiar ontzirik ez zen harrapatuko, pasaporterik gabe baldin bazihoan ere, kaietatik 4 legoako esparruan.
9. Lapurdikoek ez zuten legez kanpoko produkturik ekarriko.
10. Ekaitza zela eta, kontrabandoarekin edo gabe zihoan ontzirik kairen batean babesten bazen, oztoporik gabe utziko zitzaion joaten.

15 GAO, JD IM, 1-10-18 (P4D3) (1558).
16. GAO, JD IM, 1-10-30 (1594).
17. GAO, JD IM, 1-10-31 (1595).
18. GAO, JD IM, 1-10-33 (1597).

11. Bi aldeetako kortsarioek elkarren arteko erasoak eta kontraharrapaketak egin ahalko zituzten.
12. Erregeek hitzarmen horiek baieztatzea.

Conversa berria ere oso zabala eta zehaztasun gutxikoa izan arren, 1536koarekiko aldaketa nabarmenak zituen. Batetik, itsasoz haraindiko arrantza babesten zuen; jarduera hori, Ternuan —hau da Frantziaren menpeko lurretan— egiten zenez, hara joateko pasaporte edo baimenen beharra zegoen, eta hitzarmen horrek pasaporte horiek ematen zizkien Gipuzkoako arrantza-ontziei[19], eta aldi berean erasoekiko babes osoa. Bestetik, babes osoa zuten pasaportez hornituriko frantziar Estatuko ontziek —eta, horien artean, arrantza-ontzi lapurtarrek— Gipuzkoako kaietara etortzeko. Gainera, pasaporterik gabekoek ere, ez zuten erasoen beldurrik 4 legoatako eremuaren barnean; beraz, atzerriko ontzien etorrera ere nolabait babestu nahi zen kortsarioen erasoetatik. Baina, aldi berean, kortsarioen erasoaldiak ere baimenduta geratzen ziren. Azkenik, 6 eta 11. artikuluek ateak irekita uzten zituzten kontrabandorako ere. Beraz, hitzarmen hori lehenago aipatu den XVII. mendean garatutako itsas ekonomia-sistemari behar bezala egokitzen zitzaion, eta hurrengo mendean izandako aldakuntza sakonak gertatu bitartean, indarrean jarraitu zuen.

3.2. Hitzarmenak lortzeko gestioak eta zailtasunak

Ez zen batere lantegi erraza, batetik, interes desberdin guztiak bateratzea (merkatariak, kortsarioak, arrantzaleak, eta, gainera, Ipar eta Hego Euskal Herrietakoak) eta, bestetik, bi erregeen onespena lortzea. Agian, hori izan zen hitzarmen haien zehaztasun eskasaren arrazoirik nagusiena.

*Conversa*ren sinadura lortzearren, zailtasun eta gorabehera handiz betetako gestio luze eta korapilatsuak egin behar izan ziren. Interesak zituztenen desadostasunez gain, behin eta berriz erregeek traba eta murrizketak jartzen zituzten. Honela, nahiz eta 1536an *Conversa* onartua izan, 1544an Gipuzkoako Kapitain Jeneralak baimen edo pasaporteen ordez, zamaren %7 eskatzen hasi zitzaien itsasontzi lapurtarrei. Diputazioak gestio ugari egin zituen, esanez, *Conversa*ren arabera, libreki ekar zitzaketela elikagaiak. Azkenik, erregeak elikagaiak eta ontzien eraikuntzarako gaiak ekartzea baimendu zuen, baina murrizketa ugarirekin[20]. 1536ko *Conversa*ren hutsuneak bete nahian, atzerriko produktuak ekartzeko bederatzi artikuluko araudi bat egin zuten:

1. Elikagaiak eta ontzien eraikuntzarako materialak ekartzea baimentzen zuen 60 tonatik beherako ontzietan, gehienez 8-10 marinelez gidatuak eta erasorako armarik gabeak izanez gero.

19. Hego Euskal Herrikoentzat frantziar pasaporteak lortzeko beste arrazoi bat, ziotenez, berberiar itsaslapurren erasoetatik at geratzea zen. Frantzia eta Turkiaren arteko hitzarmena zela eta, dirudienez, itsaslapur horiek ez zieten frantziar pasaportea zuten ontziei erasotzen. GAO, JD IM, 2-12-72 (1735).

20. GAO, JD IM, 1-7-12 (P4D2) (1544).

2. Gainerako beste edozein merkataritza-gai ekartzea galarazten zuen.
3. Donostia, Deba, Bermeo eta Castro Urdialesko kaiak bakarrik baimentzen zituen; eta bertan zama lurreratu eta saltzeko, Kapitain Jeneralaren, Korrejidorearen edo tokian tokiko alkatearen onespena behar zuten.
4. Ontziko tripulazioei ez zitzaien ezer txarrik egingo.
5. Beobiatik ere ekar zitzaketen produktu horiek Kapitain Jeneralaren baimenaz.
6. Inork ez zien zergarik eskatuko.
7. Lau Hiriak, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Baiona eta Capbreton-go baroiherritarrak libreki irten zitezkeen arrantzara armarik gabe.
8. Erregeek arauren bat aldatu nahi izanez gero, 15 eguneko epeaz beraren berri emango zen kaietan.

Araudi hori geroagoko gerraldietan ere berrindartua izan zen, adibidez, 1550 eta 1556. urteen artekoan[21].

XVII. mendean zailtasunak areagotu egin ziren. 1635ean hasi zen Frantziaren eta Espainiaren arteko gerra, eta, ondorioz, erregeak Lapurdikoei galarazi egin zien Gipuzkoara jangaiak ekartzea eta beren arrantza-ontziak bertako kaietan gordetzea. Diputazioak gestio ugari egin behar izan zituen, batetik, Probintziako interes kontrajarriak bateratzen eta, bestetik, Gortean Lapurdirekin lehenago zituzten harremanak baimentzeko. Lan askoren ondoren, 1644an erregeak behin-behineko baimena eman zuen, gipuzkoarrek libreki saleros zezaten lapurtarrekin[22]. Baina Frantziako Gortean gestioak luzeagoak izan ziren, eta 1653. urtera arte Luis XIV.ak ez zuen hitzarmena sinatu[23]. *Conversa* sinatu ondoren, gainera, Gipuzkoako bakailao--ontziei kaltetu nahian-edo, Lapurdiko marinelei Gipuzkoako ontzietan itsasoratzea galarazi zien 1655ean. Ondorioz, Lapurdi eta Baionako agintariek gestio gogorrak egin behar izan zituzten Parisko Gortean[24]. Espainiako Felipe IV.ak, aldiz, 1657an Frantziarekin harreman komertzialak izatea galarazi zuen, eta Gipuzkoako agintariek gestio luzeak egin behar izan zituzten 1659an, elikagaiak Frantziatik ekartzea, eta, ordainez, erdia dirutan ateratzea baimentzeko[25].

Frantziaren eta Espainiaren artean izandako beranduagoko bi gerraldietan ere (1667-1668 / 1674-1678), 1653an sinatutako *Conversa* osotasunean berrindartu ahal izateko, gestio ugari egin behar izan zituzten Gortean[26]. Gestio horien lorpe-

21. GAO, JD IM, 2-22-16 (P4D10) (1550).
22. GAO, JD IM, 1-10-45 (1644). / GAO, R.26 (1644).
23. GAO, R.27 (1653).
24. GAO, JD IM, 2-12-34 (1655).
25. GAO, JD IM, 1-10-48 (1659).
26. GAO, JD IM, 2-22-41 (1674).

nak benetan esanguratsuak izan ziren, 1678an gipuzkoarrek Bretainiatik garauak ekartzeko baimena eskuratu baitzuten[27]. Azkeneko *Conversa* —1695ekoa— sinatzeko ere zailtasun ugari izan zituzten. Arazorik handienak espainiar koroak 5 eta 10. artikuluak onartu nahi ez izatetik zetozen, kontrabandoa saihestu nahian[28]. Dena dela, zailtasunak ez ziren hitzarmena sinatzearekin bukatu, eta honela 1697an Luis XIV.ak Gipuzkoako bakailao-ontziei Ternuara joateko pasaporteak ukatu zizkien, eta, berriz ere, gestio luzeak egin behar izan zituzten Paris eta Madrilgo Gorteetan[29].

3.3. Conversen inguruko interes kontrajarriak

Hitzarmen horiek sinatzeko garaian sortzen ziren zailtasunen atzean, interes desberdinen arteko gatazkak zeuden. Laburbilduz, hiru eratako gatazkak bereiz daitezke: bi Estatuetako erregeen eta beren menpeko lurraldeetako biztanleen interes ekonomikoen artekoak; Ipar eta Hego Euskal Herrietako biztanleen artekoak; eta, lurralde bakoitzeko biztanleen interes ekonomiko desberdinen artekoak.

3.3.1. Bi Estatuetako erregeen eta beren menpeko lurraldeetako biztanleen interes ekonomikoen arteko gatazkak

Gauza jakina da Aro Berrian zehar Europako mendebaldeko Estatuetan lurraldeen bateratzeaz erregeen boterearen absolutizazio-prozesu garrantzitsua garatu zela, prozesu horren adibiderik esanguratsuena Frantziako Luis XIV.aren erregetza izanik. Gauza jakina da, baita ere, orduko teoria politiko eta ekonomikoen (merkantilismoa) arabera, merkataritza Estatuaren indartze-prozesu horretako elementurik garrantzitsuenetako bat zela, batetik norberaren Estatua aberastu eta indartzeko eta bestetik inguruko Estatuak —etsaiak izan zein izan ez— ekonomikoki menperatzeko eta, beraz, militarki ere ahulago izateko. Hortaz, *Conversa*k, teoria orokor horren aurkako zuzenak ziren, arerioa zen Estatuko biztanleekin salerosteko aukera ematen baitzuten gerra-garaian ere.

Politikaren ikuspegitik, gaur egungo politikarientzat izan dezaketen garrantzia alde batera utzita, horretan datza hitzarmen horiek duten garrantzi izugarria. Hau da, Estatuen teoria politiko orokorraren aurkakoak izanik, zer dela eta onartzen zituzten orduko erregeek? Noski, galdera hori gehiago sakondu beharko dute etorkizunean ikerketa berriek. Agian, *Conversa*k historiografiaren teoria orokorretatik kanpo egotea izan liteke historiografiak gai hau hain gutxi ikertu izanaren arrazoietako bat.

27. GAO, JD IM, 1-10-52 (1678).
28. GAO, JD IM, 3-8-52 (1693-1695).
29. GAO, JD IM, 2-12-56 (1697-1698).

Orain arte ikusitakoak ez du esan nahi bi Estatuak *Conversa*k sinatzearen aurkakoak zirenik; hala balitz, ez ziratekeen inoiz onartuko. Hitzarmen haiek babesten zituzten eta bi Estatuen interesen aurkakoak ziren jarduera batzuk murriztea zen bi koroen nahia. Gainerakoan, ez ziren *Conversa* hitzarmenen aldekoak, baina hitzarmen horien beharra zuten. Aro Berriko gerra luzeetan, liskarren hasieran etsaiaren ekonomia suntsitu nahian bi Estatuek lehendabizi hartzen zuten neurria, etsaiarekin salerosketak galaraztea izaten zen. Baina, batetik, Frantziako elikagai-soberakinen (garauak, arrantza-produktuak) eta industrien ekoizpenen (batez ere, ehungintza) bezero garrantzitsuenetako bat Espainia eta honek Ameriketan zuen inperio ikaragarria ziren. Eta bestetik Espainia zen Frantziako ehungintzaren lehengaien hornitzaile garrantzitsuena (artilea). Horiez gain, Frantziako urre- eta zilar-iturririk garrantzitsuena Espainiarekin zituen harreman ekonomikoek osatzen zuten. Beraz, nahiz eta politikoki elkarren etsai izan, ekonomikoki elkarren beharra zuten bi Estatuek. Eta *Conversa*k ihes-balbula baten antzeko zerbait ziren, bi Estatuen arteko gerra-garaietan beharrezkoak zituzten harreman horiek bideratzeko.

Beraz, hitzarmenen aurka baino, beren interesen aldera egokitzea nahi zuten. Egokitze horiek askotan ez zetozen bat Euskal Herriko biztanleen interesekin, eta, ondorioz, negoziazio luzeak egin behar izaten ziren bi Gorteetan, denen gustuko hitzarmena osatu nahian. Frantziako koroaren aldetik, *Conversa*ren babespean Lapurdiko marinelak Gipuzkoako arrantza-ontzietan itsasora zitezen galaraztea zen helburu garrantzitsuenetako bat. 1655ean, *Conversa* sinatu eta bi urtetara, Frantziako erregeak Lapurdiko marinelei Gipuzkoako bakailao-ontzietara joatea galarazi zien. Gipuzkoako bakailao-ontzien jabeek Diputaziora bidali zituzten beren kexak, eta honek Lapurdiko agintariei. Baionako eta Lapurdiko agintariek erantzun zuten agindu hori ez zela probintzian argitaratu, eta Baionako gobernadore eta Lapurdiko Teniente Jeneral zen Gramonteko mariskalaren bitartez, gestioak hasi zituzten Parisko Gortean, agindu hori ezabatzeko[30].

Urte batzuk beranduago, 1697an, *Conversa* sinatu zenetik bi urtetara, berriz ere debeku berdina agindu zuen Frantziako erregeak. Gipuzkoako Diputazioak berriz ere Lapurdiko agintariei debeku hori kentzen saia zitezen eskatu zien. Ordea, haiek ez zuten deslotura lortu eta orduan Gipuzkoak *Conversa*rekin jarraitzeko arrazoirik ez zuela mehatxatu zituen[31]. Horrez gain, nahiz eta frantziar pasaporteak izan, Gipuzkoako bakailao-ontziei Ternuako uretara arrantzara joatea galarazi zieten. Probintziak kexa handiak egin zituen Lapurdin eta Frantzia eta Espainiako Gorteetan. Dirudienez, debeku horiek 1697an sinatu zen Ryswick-eko bakerako presio modukoak izan ziren. Gipuzkoarrek Ternuako arrantza-askatasuna bake-hitzarmen horretan Espainiako ordezkariek negozia zezaten nahi zuten, baina ez zen hala izan, eta 1698. urtera arte ez zuten lortu Madrilgo Gorteak beren eskakizuna babestu eta Frantziako enbaxadoreari horrela eska ziezaion. Dena den, bakea

30. GAO, JD IM, 2-12-34 (1655).
31. GAO, R.37 (1697).

sinatu ondoren, eta batez ere Espainiako koroa 1700ean Borbondarrek eskuratu zutenean, arrantza-askatasunak aurrera jarraitu zuen[32].

Espainiako koroaren aldetik, *Conversa*k legez kanpoko merkataritzari (kontrabandoa eta urre eta zilarraren ateratzea) eskaintzen zizkion erraztasunak murriztea zen helbururik garrantzitsuena. Ondorioz, 1653an sinatutako hitzarmena beranduagoko *Conversa* hitzarmenetan berrindartzeko garaian, Estatu espainiarrak ez zituen 1653koaren artikulu denak onartu nahi izan. Ondorioz, 1667-1668 eta 1675ean Espainiako erregeak 1653ko *Conversa* osoa onar zezan, gestio korapilatsuak egin behar izan zituzten Gortean, erregearen nahia Lapurdiko zama-ontzien etortzeko askatasuna batzuetan neurriz murriztea eta bestetan galaraztea baitzen[33].

1695eko *Conversa* sinatzeko garaian, 5 eta 10. kapituluak ez zituen onartu nahi izan Espainiako erregeak. Dirudienez, "egokitze" horrek batez ere Baionako merkatarien legezko eta legez kanpoko merkataritza-jarduerak murrizten zituen. Ipar Euskal Herrikoak Hegoaldeko diputazioei igorri zizkieten beren kexak, eta gestio askoren ondoren, azkenik 1653ko *Conversa* bere osotasunean onartu zen[34].

3.3.2. Ipar eta Hego Euskal Herrietako biztanleen arteko gatazkak

Bi Estatuen antzera, Ipar eta Hego Euskal Herriek elkarren beharra zuten ekonomikoki. Batetik, jangaiei eta ontzi-eraikuntzako lehengaiei zegokienez, Gipuzkoan eta Bizkaian beharrezko ziren garau gehienak eta ontzioletan behar zituzten zenbait material Frantziatik zetozen. Bestetik, itsasoz haraindiko arrantzari zegokionez, Hego eta Ipar Euskal Herrietako arrantza-ontziteriak bateko eta besteko marinelez hornitzen ziren, Lapurdiko ontziteriaren neguko babesleku garrantzitsuena Pasaiako kaia zen, Gipuzkoako ontziteriak Frantziaren menpe zeuden Ternuako uretara joateko Frantziako baimenen beharra zuen, eta Lapurdiko ontziteriaren ekoizpen gehiena batez ere Bilbon gauzatzen zen[35]. Azkenik itsas merkataritzari zegokionez, XVI. mende amaieratik aurrera ontzi frantziarrak ziren Hego Euskal Herrira jangaiak eta, batez ere, ehun-produktuak ekartzen zituztenak, eta horien ordez artilea, burdina edo dirua eramaten zutenak, legez edo legez kanpo.

Dena den, elkarren arteko gatazkak ere ez ziren falta izan. Alde batetik arrain-ekoizpenak saltzerakoan elkarren arteko lehia zela-eta sortutakoak daude. 1646an Donostiako San Pedro kofradiako maiordomoak, urte horretan Bizkaiak Gipuzkoaren antzera Ipar Euskal Herrikoekin komertziatzeko baimena lortu ondoren, Bilbora Norvegiatik zetorren balea-saina eramaten zutela kexatu ziren; ziotenez, *Conversa*ren arabera Ternuatik ekarritako bakailao-barrunbeen koipea baino ezin zezaketen ekar[36]. Hau ez zen horrela, ordea, 1619az geroztik lapurtarrek ekarritako saina

32. GAO, JD IM, 2-12-56 (1697-1748).
33. GAO, JD IM, 2-22-41 (1674-1675).
34. GAO, JD IM, 3-8-52 (1693).
35. T. Guiard y Larrauri (1913: 385-406).
36. GAO, R.26 (1646).

bertakoa bezala kontsideratzen baitzen saltzeko garaian[37]. Urte batzuek geroago, 1669an Donostiako balea-ontzien jabeek Arrasateko Biltzar Orokorretan eskatu zuten beren sainak lehentasuna izan zezala Lapurdikoarekiko; baina biltzarrak ez zuen eskakizuna onartu, *Conversa*ren arabera saina libreki sal baitzezaketen Lapurdiko arrantzaleek[38]. Bestetik, dirudienez, hitzarmen horiek sinatuagatik ere, bateko edo besteko kortsarioek erasoak egiten zituzten aldizka; esate baterako, 1655ean Donostiako San Pedro kofradiako maiordomoa eta Gipuzkoako arrantza--ontzien jabeak La Rochelleko kortsarioen erasoez kexatzen ziren[39]. Kortsarioek edozein aitzakia nahikoa zuten erasotzeko; horrela, 1696an Hondarribiako Miguel de Yarzagaray kapitain kortsarioak Lapurdiko ontzi bat atzeman zuen, eta, kontrabandoa zekarrenez, harrapaketa ontzat emateko eskatu zuen. Aldiz, ontziaren jabeek *Conversa*ren arabera harrapaketa hori legez kanpokoa zela argudiatu zuten[40]. Egoera berdintsua gertatu zen urte horretan bertan Lazaro de Castillo Hondarribiako kapitain kortsarioak Baionako pinaza bat atzeman zuenean[41].

3.3.3. Lurralde bakoitzeko biztanleen interes ekonomiko desberdinen artekoak

Herrialde bakoitzeko biztanle guztiak ez zetozen bat *Conversa*k sinatzeko garaian, eta baziren hitzarmen horien aurka zeudenak ere. 1653an sinatuko zen *Conversa* lortzeko gestioak egiten ari zirela, 1644ko Hernaniko Biltzar Nagusietan herri batzuetako ordezkariak hitzarmenaren aurka azaldu ziren. Gainera, ezezagun batek Gortera txosten edo memorial bat igorri zuen *Conversaren* aurka, eta ondorioz, Diputazioak ikerketa bat hasi zuen ezezagun horren nortasuna jakin nahian[42]. *Conversa* sinatu eta urte gutxitara, 1657an Hondarribia izan zen Probintziari hitzarmenaren aurkako kexa gogorrak igorri zizkiona. Hondarribiako agintariek ziotenez, Gipuzkoak ez omen zuen Lapurdirekin *Conversa*rik egin beharrik. Lapurdiko biztanleek ez omen zuten gipuzkoarrek behar zuten ezer, eta *Conversa*z baliatuz, "*revendedores de lo ageno*" deitzen zituen, Lapurdiko biztanleek kontrabandoko gaiak ekartzen zituztelako. Horrez gain, jangaiak ekartzeko ere ez omen zen haien beharrik, Gaztelatik nahi adina ekar zitezkeelako edo bestela nahikoa zelako elikagaien jatorriko Estatu edo herrialderen batekin hitzarmen bat egitea. Gainera, horien ordez burdina edo bestelako gaiak eraman beharrean, urre eta zilarra eramaten omen zituzten. Haien arrantza-ekoizkinen beharrik ere ez omen zen, bertakoek nahi adina ekartzen baitzuten, eta gainera, gipuzkoarren laguntzarik gabe ez omen ziren gai izango jarduera hori egiteko, izan ere «aquella tierra se alimenta y puebla a la sombra, calor y regadíos de las conveniencias de VS». Bestalde, *Conversa* hitzarmena elkarren arteko liskarrak ezabatzeko omen zen, baina 11.

37. GAO, R.18 (1619).
38. GAO, R.31 (1669).
39. GAO, JD IM, 2-12-34 (1655).
40. Hondarribiako Udal Agiritegia, E-7-I-21-6 (1696).
41. Hondarribiako Udal Agiritegia, E-7-II-15-10 (1696).
42. GAO, JD IM, 1-10-45 (1644).

artikuluaren babesean ez zegoen benetako bakerik. Beren iritzian bakea egiteko bide bakarra Lapurdiko eta Frantziako gainerako biztanleei Gipuzkoako kaiak ixtea zen; orduan, pagotxa bukaturik, beren erregeari bakea sinatzeko eskatuko zioten, zeren «tienen paz firme con todo el mundo y con VS paz y guerra».

Azkenik; honelaxe zioten: «Ni es justo que por solos (a lo mas) vna dozena de mercadantes de los puertos del cuerpo de VS que interesan en la practica de esta *Conversa*, haya tanta ocasión de platicar con nota de la reputación española: y que no se tome medio y forma superior para emmendarla»[43]. Hau da, Hondarribiako agintarien arabera, kontrabando eta merkataritzaz gozatzen zuten merkatari gutxi batzuen gogoa zen *Conversa* sinatzea. Aldiz, hitzarmen hark onesten zituen baimen eta askatasunek Txingudiko itsas adarrean zuen jabegoa kolokan jar zezaketela ikusten zuen Hondarribiak. Agian, gainera, bertako biztanle gehienak itsasoz haraindiko arrantzatik bizi zirenez, ez zuten *Conversa*k baimentzen zituen artikulu guztien beharrik.

Jarduera ekonomiko desberdinen arteko desadostasun horiek garbiago azalduko ziren beranduago. 1695ean *Conversa* izenpetzeko gestioak egiten ari zirela, Espainiako erregeak, lehenago aipatu denez, 5 eta 10. artikuluak ez zituela onartuko esan zuen hasieran. Gipuzkoako ordezkariak eskaintza murriztu honekin bildu ziren Faisaien Uhartean Lapurdi eta Baionakoekin. Bilera hartako gorabeherak azalduz, Diputazioari txosten edo memorial bat idatzi zieten, esanez, Lapurdiko jarduera nagusiena itsasoz haraindiko arrantza izanik eta *Conversa*ren helburu nagusiak elikagaiak libreki ekartzea eta itsasoz haraindiko arrantza arazorik gabe egin ahal izatea zirenez, Lapurdiko biztanle eta ordezkariak prest omen zeudela *Conversa* murriztu hori sinatzeko, lehenbailehen Ternuara joan ahal izateko. Baina Baionako ordezkariek ez zuten murrizketa hori onartu eta, ondorioz, ez ziren akordiora iritsi *Conversa* bere osotasunean onartu arte. Gipuzkoako ordezkariek zioten Baionako merkatariek itsasoz haraindiko arrantzan ez zutela interes gehiegirik, eta beren jarduera nagusia Frantzian ekoizten ziren ehunak Espainia eta Portugalera saltzea eta horien ordez Nafarroatik espainiar artilea eramatea zirela (urtean 8.000 bat saka eramaten omen zituzten). Beraz, penintsulako arriskuetan murgiltzen zirenak Baionako zamaontziak izanik, haien jabeak omen ziren 5 eta 10. artikuluak izenpetzea nahi zutenak[44].

3.4. Conversa *hitzarmenen amaieraren arrazoiak*

Lehenago esan da 1695ekoa izan zela sinatu zen azken *Conversa*. Izan ere, XVIII. mendean euskal itsas ekonomiaren sistema eraldatuko zuten aldaketa sakonak gertatu ziren, *Conversa* hitzarmenen beharra ezabatuz:

43. Hondarribiako Udal Agiritegia, A-8-3-6 (1657-1685).
44. GAO, JD IM, 3-8-52 (1693).

1. Borbondarren dinastiak Espainiar koroa eskuratzeak mendeetako bi Estatuen arteko liskarrak bukatzea bideratu zuen; ondorioz, gerra-garaietako hitzarmenen beharrik ez zen aurrerantzean.

2. Utrecht-eko itunarekin (1713) Frantziak Ipar Ameriketako koloniak galdu zituen, eta hortik aurrera Ingalaterrak ez zien Gipuzkoako bakailao-ontziei Ternuara joaten uzten; beraz, lehenagoko Frantzian baimenak lortu beharra bukatu zen.

3. Dinastia berriak Armada indartzeko politika berria hasi zuen eta, besteak beste, Gipuzkoako marinelei Ipar Euskal Herriko arrantza-ontzietan itsasoratzea galarazi zien Diputazioaren onespenarekin 1719tik aurrera[45]. Beraz, amaitu egin zen Ipar eta Hego Euskal Herrietako marinelak libreki bateko edo besteko ontzietan ibiltzea.

Azken gertakari hori *Conversa*ren balio-ezaren adibide interesgarria da. Lapurdiko agintariek Gipuzkoakoei debeku hori kentzen saia zitezen eskatu zieten 1729an[46]. Baina eskaerak alferrikakoak izan ziren, zeren, lehenago aipatutako arrazoiez gain, Ipar Ameriketako kolonoen arrantza-konpetentziaren ondorioz, itsasoz haraindiko arrantza gainbehera baitzegoen Europa osoan[47], eta Gipuzkoako agintari eta itsas jardueretako inbertsoreak itsas ekonomiaren egitura aldatu behar zela ohartu ziren. Honela XVIII. mendearen hasieran egitura berriko itsas enpresa berriak sortu zituzten (*Compañía Guipuzcoana de Caracas*, *Compañía Ballenera de San Sebastián*), eta, noski, egitura zaharraren oinarriak —eta horien artean *Conversa*k— baliorik gabe geratu ziren.

Egia da, bestalde, aurrerantzean Frantziaren eta Espainiaren arteko liskarrak amaitu zirenez, Lapurdiko arrantza-ontziteriak ez zuela trabarik izan Pasaiako kaian babesten jarraitzeko; eta hala jarraitu zuten mendearen erdialdera arte[48]. Baina Lapurdiko biztanleek lehenago izan zituzten abantailak amaitu egin ziren. Adibidez, 1716an Donostiako udalak eskatuta, kaira iristen ziren ontzi denek elikagaien erdiak lehorreratu behar zituztela agindu zuen erregeak. Lapurdi eta Baionako ordezkariek neurri hori *Conversa* hitzarmenen aurka zihoala adierazi, eta kentzeko eskatu zieten Gipuzkoakoei; baina Donostian bildutako Biltzar Nagusiek ezinezkoa zela erantzun zieten[49]. Izan ere, gipuzkoarrentzat *Conversa*k iraganeko kontuak ziren ordurako. Dena dela, urte batzuek beranduxeago, 1735ean, Baionako gober-

43. Hondarribiako Udal Agiritegia, A-8-3-6 (1657-1685).

44. GAO, JD IM, 3-8-52 (1693).

45. Zumaiako Udal Agiritegia, Asuntos Locales: Marina, Milicia, Caja nº 161 (1719).

46. Hondarribiako Udal Agiritegia, E-6-I-1-1 (1729). / Pasaiako Udal Agiritegia, E-6-I-3-1 (1521-1750).

47. L. Turgeon (1983).

48. 1755ean *Compañía Ballenera de Baiona*-ren ontziek Pasaian jarraitzen zuten negua pasatzen. GAO, JD IM, 2-23-39.

49. GAO, JD AJF, Fotocopias 8, 7 (1716).

nadoreak *Compañía Ballenera de San Sebastian* zelakoaren ontziei pasaporteak ukatu zizkienean, Gipuzkoako agintariek elkarren arteko "*buena correspondencia*"-ren izenean horrelako trabarik ez egiteko eskatu zien Lapurdikoei[50]. Hau da, elkarren arteko harremanak ahalbideratzeko aurrerantzean hitzarmenon beharrik ez zelako, ez zen gehiago *Conversa*rik sinatu XVIII. mendearen hasieraz geroztik.

4. ONDORIOAK

Lan honetan ikusi denez, XVI eta XVII. mendeetan, batez ere Hego Euskal Herriko itsas enpresek jasaten zuten krisia eta desfasea nolabait konpondu nahian, foru-erakundeen eta legeriaren babesa eta Ipar eta Hego Euskal Herrien arteko harremanak sendotzen zituen ekonomia-sistema bat garatu zen. Sistema hori baliagarria izan zedin, nahitaezkoa zen bi lurraldeen artean hitzarmen batzuek sinatzea, eta horiexek dira *Conversa* izenez ezagutzen direnak. Beraz, euskal itsas ekonomiaren baitan hitzarmen horiek berebiziko garrantzi ekonomikoa izan zuten. Bestalde, ezin daiteke ahantz horien garrantzi politikoa; izan ere hitzarmenok Frantziaren eta Espainiaren absolutizatze- eta bateratze-garaian, elkarren arteko harreman berezien lekuko baitira, lan honetan ikusi denez.

Itsas ekonomia-sistema horretako interes desberdinak biltzen zituen *Conversa*k (erregea, merkatariak, arrantzaleak, eta abar). Eta sistema hori interes horientzako baliagarri izan zen bitartean, *Conversa* hitzarmenek tinko iraun zuten. Ordea, XVIII. mendean izandako aldaketa ekonomiko eta politiko sakonek interes horien antzaldaketa bideratu zuten. Beraz, interesen ondotik itsas ekonomiaren egitura eta antolaketak ere aldakuntza sakonak izan zituen, eta gainerako itsas jardueretan zihardutenek ez zuten *Conversa* haien beharrik; ondorioz, ez ziren gehiago sinatu.

BIBLIOGRAFIA

Alberdi, X. (1999a): "Conflictos de intereses en torno a la aplicación de las Pragmáticas de Fletes en Gipuzkoa entre mediados del siglo XVI y principios del siglo XVII", *Vasconia*, **31**, 7-19

————————, (1999b): "Proyecto de compañía de comercialización del hierro a principios del siglo XVIII", in *Oñatiko historia: XIV-XIX mendeak*, Oñatiko Udala, Oñati, 159-179.

Amador, F. (1927): "Les anciens Traités de Bonne Correspondance entre les basques de France et ceux d'Espagne. Tratado de 1653", *RIEV*, **XVIII**, 55-69.

Arocena, F. (1933): "Documento importante. El tratado de 1482 entre Guipúzcoa e Inglaterra", *RIEV*, **XXIV**, 89-93.

50. GAO, JD IM, 2-12-72 (1735).

Azpiazu, J. A. (1990): *Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI. Mercaderes guipuzcoanos*, Fundación Cultural Caja de Gipuzkoa, Donostia, 84-86.

Barkham, M. (1984): "La construcción naval en Zumaia, 1560-1600. Estructura y organización de una industria capitalista mercantil", in *Itsasoa*, III, Etor, Donostia.

Bilbao, L. M. (1979): "Transformaciones económicas en el País Vasco durante los siglos XVI y XVII", in *Historia del Pueblo Vasco*, 2., Erein, Donostia, 134-143.

Díez de Salazar, L. M. eta Ayerbe, M. R. (1990): *Juntas y Diputaciones de Guipúzcoa*, Gipuzkoako Biltzar Nagusiak – Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Fernández de Pinedo, E. (1974): *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco (1100-1850)*, Siglo XXI, Madril.

Gómez-Centurión, C. (1988): *Felipe II, la empresa de Inglaterra y el comercio septentrional (1566- 1609)*, Naval, Madril.

González González, A. F. (1994): *La realidad económica guipuzcoana en los años de superación de la crisis económica del siglo XVII (1680-1730)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Gorosabel, P. (1852): *Memoria sobre las guerras y tratados de Guipúzcoa con Inglaterra en los siglos XIV y XV*, Imprenta de la Provincia, Tolosa.

Guiard y Larrauri, T. (1913): *Historia del Consulado y Casa de Contratación de Bilbao y del comercio de la villa*, Bilbo, II. liburukia, 385-406.

Habasque, F. (1895): *Le traités de bonne correspondance entre le Labourd, le Biscaye et le Guipuscoa*. Paris.

Haring, C. H. (1979): *Comercio y navegación entre España y las Indias en la época de los Habsburgos*, F.C.E., Mexiko.

Huxley, S. (1984): "Los vascos y las pesquerías transatlánticas, 1517-1713", in *Itsasoa*, III, Etor, Donostia, 132-133.

———— eta Barkham, M. (1996): "Los Arriola de Urazandi: iniciativa empresarial marítima en Vizcaya y Guipúzcoa (c. 1540-c. 1630)", *Itsas Memoria. Revista de estudios marítimos del País Vasco*, **1.**

Lapeyre, H. (1981): *El comercio exterior de Castilla a través de las aduanas de Felipe II*, Valladolideko Unibertsitatea, Valladolid.

Odriozola, M. L. (1994a): "La industria naval guipuzcoana (1650-1730): ¿Crisis o auge del sector?", in M. Garate Ojanguren eta P. Martín Aceña (arg.), *Economía y empresa en el norte de España. (Una aproximación histórica)*, Cuadernos de Economía y Empresa - Sección Historia, Donostia, 19-58.

————, (1994b): "La industria naval guipuzcoana y la producción de navios para el Rey (1650-1799)", *Boletín de la RSBAP*, 3-41.

Otero, E. (1992): *Los corsarios españoles durante la decadencia de los Austrias: El corso español del Atlántico peninsular en el siglo XVII (1621- 1697)*, Naval, Madril.

Portillo, J. M. (1991): *Monarquía y gobierno provincial. Poder y constitución en las provincias vascas 1760-1808)*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril.

Turgeon, L. (1982): *Peches Basques en atlantique nord (XVIIe-XVIIIe siécle). Etude d'economie maritime*, Bordeleko Unibertsitatea, Bordele, 5.

————————, (1983): "La crise de l'armement morutier basco-bayonnais dans la premiére moitié du XVIIIe siécle", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*.

Yturbide, P. (1922): "Les anciens Traités de Bonne Correspondance entre les basques de France et ceux d'Espagne", *RIEV*, **XIII**, 179-220.

Aro Garaikidea

Historian barrena: historiografiaren arazoak[1]

Joseba Agirreazkuenaga
Euskal Herriko Unibertsitatea

1. SARRERA

XX. mendearen azken bi hamarkadetan, berriz ere, historiografia historiaren kinka larriaren zurrunbiloan sarturik dago. Mundu mailako historiografiaz ari naiz, historia globalaz. Baina ezin da ahaztu mundu mailan metahistoria desberdinak ditugula, eta arlo horretan mugatu eta ezarri behar dugula lehendabiziko desberdintasuna eta bereizketa. Gure metahistoriak Biblia du iturri nagusitzat, hots, tradizio judu-kristaua. Denboraren linealtasun zuzenaren erakusle, metahistoria horrek bere alfa eta omega ditu. Bukaera ona duen historian sinesten du, eta, arrazoiaren eta zientziaren nagusitasunaren etenik gabeko goratzearen ondoren, zoriona eta historiaren azkena lortuko direla aldarrikatzen du modernitateak. Ikuspegi horri jarraiki, kausak edo iturburuak, batetik, eta ondorioak, bestetik, begiratzera eta aurkitzera jotzen dugu; hau da, aurrerapenaren asmakizunaren ikuspegitik, geure azterketa mekanizistaren harian, mugimendu global baten aktore-morroi bagina bezala aritzen gara. Aldi berean, tradizioa ere unean uneko aurrerapenaren arabera asmatzen, sortzen edo berridazten dugu. Bakarra ote da tradizioak eta aurrerapenak osatzen duten binomioa, gure iragana eta oraina azaltzeko eta ulertzeko? Historia bera iraganeko zerbait bezala jotzen da, historiari buruzko azterketak egiteko unean. Beraz, ez da aski binomio horren ikuspegi mekanizista.

Gure euskal ingurunean eta herri honetan bizi dugun metahistoriaren oinarria ere oinarri berdinetan funtsaturik, garai batean Espainia eta Jainkoa salbatzeko —1936an—, eta bestean Euskal Herria eraikitzeko, gure herritarrak ez dira gelditzen eta asetzen jendea hiltzeak dakarren hondamendiaz. Atzo Ernest Lluch historialari trebea eta Euskal Herriaren aldekoa hil digute. Ez dakit zehazki espainiar batasunaren aldeko erreakzionarioek hil duten ala Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko omen direnak izan ote diren. Jakin dakidan bakarra da, gure gizartea txirotu egin dela eta geure askatasunerako grina mugatu. Hemen, areto honetan, pentsamolde desberdineko pertsonak egon arren, guztiak geratu gara espainiar nazionalismo berriaren kritikorik zorrotzena gabe, umezurtz, guztiok galdu dugu. Eta

1. Testu hau, hitzaldi gisa irakurri zen UEUk antolaturiko Historialari Euskaldunen I. Topaketetan, Aranzadi Zientzia Elkartearen egoitzan, Donostian, 2000. urteko azaroaren 22an.

jasaten ari garen indarkeria itsuaren giro honetan, Euskal Herriaren itsutzea eta hustutzea baino ez dute lortzen, beren burua salbatzailetzat dutenek eta haien lagunek, beren itsutasun beltzean. Jaioko dira berriak, jakina, baina gizarte guztiek, herri guztiek, gutxieneko ezaugarri moraletan oinarritu behar dute beren izatea eta iraupena, eta moralak ematen du arrazoibidearen abiapuntua. Ernest Lluch-ek, katalana izan arren, aspaldidanik ikasi eta aztertu zuen euskal historia; 1974an jadanik, gogoeta zorrotzak argitaratu zituen, eta laster batean idatzi beharko da euskal historiografiara berak egindako ekarpenaz.

Munduko beste gizarte batzuetan bestelako metahistoriak dituzte. Adibidez, Indiaren nondik norakoa, beste etsenplu batzuez azaltzen dute bertako liburu sakratuek; Txina eta Japoniakoetan edo bestelako kultura animistetan, Afrikan barrena eta abar, beste horrenbeste.

Globalizazio honetan, Bibliako metahistoria guztientzat baliagarria delako ustea dugu, baina beharbada ez da horrelakorik.

Horrez gain, historiak sortzen saiatzen gara, narrazioaz baliatuta, tropo literarioz beterik, gure tramaren eta egituraren abiapuntu eta ardatz gisa halako nazioa edo delako klasea edo pertsona hartuz. Beraz, zer-nolako diskurtsoa sortu nahi dugun, halako protagonista zehatza eta mugatua hartuko genuke, ondoren, paradigma aplikatuz, ondorioak eta azalpenak lortzeko. Berriz ere, ondoko galdera zehatza eta erradikala sortu zaigu.

2. EZAGUTZA HISTORIKOA POSIBLEA OTE DA?

Ez da galdera berria gure iragan intelektualean. Hiru esparru bereizten ditut: Historian aktoreak izan direnena, historialariena eta, azkenik, historialariak idatzitakoaren irakurleena edo ikasle direnena. Pentsa une batez ezen, hiru esparru horietan, guztiak direla eragile aktiboak ezagutza eta egia historikoaren bilakaeran.

Denboran barrena iraganari so, Peter Burke-k "Two crises of Historical conciousness" artikuluan (*Storia della Storiografia,* 33, 1998, 3-16) azaldutakoari jarraituz, Pyrrho Elis-ekoak (K. a. 360-270, III. mendean) ezagutzaren gaindi ezineko mugak predikatzen zituen. Jauzia emanez, XVII. mendean, historiografian, egiak eta gezurrak kezka bihurtu ziren, eta eszeptikoak ugaldu. Frogak behar ziren, eta ez uste erdi ustelak. Giro horretan, bazirudien egia eta ezagutza objektiboak eta errefusaezinak azaltzeko gai zela geometria (Pirre Daniel Huet); eta, hortik, eskoziar teologoak (John Craig) eta, besteak beste, Isaac Newton ere, iraganaren ikuspegiak aztertzeko historiaren ebidentziak aurkitzeko metodoetan eta arauetan saiatu ziren. Bertan, XVII. mendeko krisialdi sakona igarri zen. Hobbes-ek bere ezagutza lortzeko *things and speech* kontzeptuak bereizi zituen, gauzak eta hauen inguruko berbaldia, alegia. Gogora ditzagun, agirien kritikaren zehaztasunak: *De re diplomatica* (Jean Mabillon), *Ars critica* (Jean le Clerc), eta Frantziako liberti-

noak, horiek burubelarri saiatu ziren kritizismoan. Euskal Herrian ere Lekeitio--Mutrikun Bernardo Villarreal Berrizkoak eta beste batzuk ari ziren matematiketan eta horrelako kezketan. Garrantzitsuena, agiri argiak eta benetakoak lortzea zen, historia ona egiteko. Arnaud Oihenartek ere, XVII. mendeko sare intelektual horietan kokaturik, euskal historiografiaren ardatza eta abiapuntua den bere *Notitia Utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicae* idatzi zuen. Eta garai berean Leibniz-ek, nire ustez egokiro, historia eta gizateriaren ulermenean sakontzeko, egiaren mailak —egiaren probabilitate-neurriak— bereizi zituen.

XVIII. mendean, ziurtasunak gailendu eta ilustratuek beren burua argitzat hartu zuten. Historiari dagokionez, Voltaire-k eta bestek erudizioa eta diskurtsoa bereizi zituzten. Erudiziorik gabe ez dago historiarik, baina historia batez ere diskurtsoa dugu. Literatura-lanak —fikzio- edo poema-lanak, adibidez— sormen-lan itxiak diren bitartean, historiakoak, estatus zientifikoa dutenak, irekiak behar dira izan, halabeharrez, zientzia probisionala dugulako. Historia librea da; beti gaude berridazten geure iragana, historia esperientziaren eguneratzea delako. XIX. mendean, batetik, Leopold von Ranke historialari positibista-enpirikoa dugu, eta, bestetik Sir Walter Scott, historiako gertakizunez nobela historikoen idazlea. Iragana begiratzeko eta idazteko modu bi.

Euskal Herriari dagokionez, duela 200 urte, 1802an, Espainiako Historiako Errege-Akademiak Espainiako hiztegi geografikoa eta historikoa argitaratzeari ekin zion. Baina emaitza Hego Euskal Herriko herrialdeei buruz egindako lanetan agortu zen. Informazioaren arloan, ekarpen handiko hiztegiak ditugu, baina plangintza politiko-ideologiko baten sare barruan kokatu ziren. Hiztegiaren aleen sarrera orokorretan, akademikoek zuzen-zuzen jo zuten Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroan ordezkari bidez antolaturik zegoen erakundeetako boterearen aurka. Beraz, ohikoak ziren tesi politiko foralak kritikatzen saiatu ziren, azken batean, foru-erregimenaren edo sistemaren itzalpean indartu baitzen euskal botere publikoa; eta hura mugatzeko eta deslegitimatzeko, botereak, oinarrian, erregearengan zuela sorburu —eta ez beste inon— defendatu zuten. Godoy-ren orientabideei jarraituz, akademikoen diskurtsoak frogatu eta legitimatu egin behar zuen erregearen botere--nagusitasunaren defentsa, monarkia administratibo berritzailearena. Badirudi, 200 urte geroago, tresna eta joera berberak antolatzen direla, Espainiaren kontzeptua modu hertsi eta baterakoian aldarrikatzen baita, bestelakorik ez balego bezala. Horretaz, egoki-egokia dugu 1937an Bosch Gimpera historialari katalanak Valentziako Unibertsitatean Espainiaz egindako diskurtsoa gogoratzea. Espainia multiforme bati buruz aritu zen, eta Gerra Zibilean Espainiaren ikuspegi desberdinak buruz buru borrokan zeudela adierazi zuen argi eta garbi. Euskal Herrian ere, Espainiari buruzko diskurtso ugari garatu dira: ikuspegi baterakoiaren aldekoak, Espainiaren aurkakoak, erabat antiespainiarrak, eta tarteko beste ikusmolde batzuk ere hausnartu dira. Aztertzeko gaia da berau, euskaldunon artean Espainiari buruzko imajinarioak nola egon diren, alegia.

Baina une honetan XIX. mendeko historiografiaz ari naizela, ondoko urteetan, alde batetik, berez historialari ez zirenen eskutik legenda eta literatura historiko ugari zabaldu bazen ere, bestetik, historia zentzu kritikoarekin eta estatus zientifikoa irabazteko lehia ere bazegoen Euskal Herrian.

Zuzenbidean eta erakundetze publikoan ere, iraun egin zuen (gaur arte) konstituzio historikoaren islak edo eraginak Euskal Herrian. Beste era batera esanda, gure gaur eguneko erakundetze publikoan ere ageri zaigu iraganaren eta orainaldiaren arteko zubia. Adibidez, Nafarroan eta gainerako Hego Euskal Herrian, Batzar Nagusi eta kultura foralaren inguruan. Beraz, historiaren erabilerak agertzen zaizkigu, eta, gutxienez, hiru diskurtso sortu izan dira XIX. mendean, eta gaur egun ere ildo beretik ari gara: literatura historikoa, zuzenbide arloan indarrean dugun ordenamendu juridiko-politikoan islatzen dena, eta zientzia historikoaren baitakoa. Sarritan hirurak nahasturik agertzen zaizkigu, baina horiek desberdintzea komeni da. Hiruren artean loturak daude, imajinarioak indar handia duelako gure ikuspegia narrazio bidez azaltzen dugunean. Bachelar filosofo frantziarrak adierazten zuen bezala, lehenago amestu duguna bakarrik ikertzen dugu. Baina, bestalde, ezin genezake esan, dena zeinuz eta metaforaz beteriko literatura subjektibo hutsa baino ez dela.

Horregatik, gogora ditzagun historiaren diskurtsoak, fikziozko literaturetan adierazitakoak, bertsoz bertso ere emanak izan zirenak, eta XIX. mendeko kontakizun erromantikoetan hainbesteko garrantzia izan zutenak. Horietan azpimarratzekoa da narrazioan subjektu berria azaltzen zaigula, euskalduna edo euskaldun ona, juridikoki nortasunik ez zuena. Ipar Euskal Herrian "basques" kategoria landu zen, ondoren Hego Euskal Herrira hedatu zena. Hemen "bascongados" eta "navarros" ongi bereizten ziren, bi erakundetzeren ispilu zirenak. Fikziozko literaturan legendak ageri zaizkigu, eta bertan euskaldunak soil-soilik. Ikus adibideak ondoko autoreetan: A. Chaho, Navarro Villoslada, Goizueta, Arakistain, Mogel. Nobelaren generoan, bertsoetan edo koplakarien guduetan, eta Anton Abadiak jadanik 1851n Urruñan (Lapurdi) eta, ondoren, Euskal Herri osoan barrena antolatu zituen euskal jaietan, iraganaren eta garaian garaikoaren arteko euskaldunen errealizazioa edo eguneratzea egin zen. Euskaldun izateko modu bat kanonizatzen hasi zen, eta ondoren, antzeko jaietan eta *fiestas euskaras* izenekoetan errepikatu zen Hego Euskal Herrian. Azken batean, Euskal Herriaren imajinario historiko berria landu eta sortu zen. Eta beste hainbat lan historiografiko sakonek baino eragin handiagoa izan zuten jaialdi haiek.

Aldi berean, zuzenbide politikoan, historiaren eragina eta erabilera edo eguneratzea egin zuten Foruen inguruko autogobernu politikoaren defendatzaileek eta aurkariek. Baina historia horiek, Hego Euskal Herrian, herrialdez herrialde burutu ziren, herrialde bakoitzeko Batzar Nagusien teknikoak edo legegizonak zirelako idazleak. Baina, hala ere, "Irurac bat" delakoaren programa gero eta barneratuago

zegoen; hau da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren Batzar Nagusietako ordezkarien bilkura komunak indartu egin ziren XIX. mendean zehar. Mende hasieran, botere zentralaren aginduz, J. A. Llorente-k hiru herrialdeetako tokian tokiko botere publikoen ohiko diskurtso historikoaren aurka egin zuen, hots, autogobernuaren legitimitatearen iturburu zen diskurtsoaren aurka. Erantzunik ez zitzaion falta izan: horra Arangurenek sortu zuena eta ondoren 1829an P. Novia de Salcedok idatzia. Azken honek, hiru herrialdeetako historia landu zuen, eta zuzenbidezko ikuspegia gailendu zen beraren diskurtsoetan; azken batean, autogobernu politikoa, delako diskurtso historiko jakin baten araberako legitimitatean oinarritzen zuten. Baina bestelako eraginak ere agertu ziren; esate baterako, iraultza liberalaren garaikoak. Kasurako, Ibañez de la Renteriak eginiko testuetan borondateari edo nahiari iraganari bezainbesteko garrantzia eman zion. Adibidez, Novia de Salcedok idatzi zuen liburua hauxe izan zen: *Defensa histórica legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y Provincias de Álava y Guipúzcoa contra las Noticias históricas de las misma que publicó d. Juan Antonio Llorente y el informe de la Junta de reformas de abusos de la real hacienda en las tres Provincias Bascongadas*. Liburu hori ezin izan zuen argitaratu 1851. urtera arte. Bertan, besteak beste, hauxe esaten zen: «... Sea cual fuere la potestad o forma con que legítimamente fueron constituidos, el estado se formó y todos sus individuos tienen un derecho real y positivo a su observancia y conservación... Cual esta sea en las Provincias Bascongadas lo hemos demostrado ya, así como también su carácter de estados separados e independientes, y con esto sólo está plenamente probado el derecho que asiste a todos los pueblos para la observancia de sus fueros y leyes». Herri-eskubide kolektiboen adierazpena nabari dugu adierazpen horretan. Foralisten eta antiforalisten arteko diskurtsoetan, XIX. mendean, eta bereziki neofuerismoaren bidetik, hiru herrialdeen nortasun politikoaren indarra gero eta nabarmenago azpimarratzen zen, monarkiaren aniztasunaren baitan.

Aldi berean edo, hobeto esanda, pixka bat geroago, legenda eta historia kritikoaren arteko bereizketa nabarmendu zen. Historialari positibista eta enpiriko izan nahi zutenak beren ikerlanak idazten saiatu ziren, eta horrekin batera euskal historiaren eskolaren oinarriak jartzen ari ziren. Arturo Campion, Karmelo Etxegarai, Fidel Sagarminaga edo Jaurgainen ikerlanak beste tankera batekoak dira; historiari estatus zientifikoa ematen saiatu ziren, hau da, historia disziplina zientifikoaren estatusaren baitan sartzen. Karmelo Etxegaraik argitaratu zuen lehen lana legenda bat zen, euskaraz idatzia. Autore hori euskarazko historiografiaren aitzindaria dugu zalantza barik, lan ugari euskaraz eman zituelako. *Trabajos de un cronista* liburuan (1898an argitaratua) argi eta garbi adierazi zuen bere helburu historiografikoa: «la más constante y arraigada de mis aspiraciones: la de contribuir por mi parte a la renovación de los estudios históricos relativos al pais vascongado, a fin de que sean cada vez menos espesas las tinieblas que pretenden ocultarnos cual era la manera de pensar, de sentir y de obrar, cual era, en suma la manera de vivir de las generaciones que en la sucesión de los siglos ocuparon el solar euskaro

[...] la historia no es obra exclusiva de los grandes, de los próceres, de los caudillos, más que de ellos, es obra de los pequeños, de los desconocidos, de los anónimos, de los invisibles, de aquellos que constituyen lo que llamamos pueblo».

Esaldi horretan, egileak euskal historiografia berriztatu nahi zuela azpimarratu behar da. Berriztapena lortzeko, oinarrizko abiapuntua sorburu historikoak kritika zorrotzez aztertu beharra zegoen, eta, iturrien irakurketa berriak eginez, historia berriztatua sortuko zen; dokumentuek berez ez dute hitzik egiten, baina, bestalde, historiarik ezin daiteke burutu erudizio enpirikorik gabe. Horregatik, Etxegarai ez zen mugatu positibismo dokumentalistara edo sorburuen kritikaren teknikara. Frantziako Augustin Thierry izan zuen eredu, eta, beraz, ikerketa eginez, artistaren jitea ere erakutsi behar zela aldarrikatu zuen.

Arturo Campionek historia eta literatura landu zituen, biak aldi berean, nobela historiko onak idatziz. Garai bereko Miguel Unamuno ere gogoratu behar dugu, nobela historiko garrantzitsua idatzi zuelako: *Paz en la guerra.* Bertan intrahistoria kontzeptua landu zuen; hau da, azken batean herriko oinarrizko eta ezkutuko egituren azterketak egiten zuela aldi historiko jakin bat argitsu.

Etxegarai eta Labairuren lanak aitzakitzat hartuz, Unamunok hauxe idatzi zuen: «Si de los fugaces sucesos quieren sacarse los hechos permanentes, verdadero objeto científico de la historia, hay que reducir el orden cronológico del suceder al evolutivo del hacerse, y no caer en pragmatismo excesivo». Labairurena ez ezik, Unamunok goraipatu egin zuen Etxegaraik Euskal Herriaren Erdi Aroaz egindako lana, benetako historialari zintzo gisa; hala ere, lotuegia ikusten zuen garaian garaiko datu zehatzen esanahira, eta imajinazio gutxikoa zeritzon. Horregatik, informazio berberean oinarrituta, Unamunok bestelako interpretazio teorikoagoak egin zituen. Azken batean, liburuaz «obra meritísima» zela zioten, abiapuntu eta gogoeta berriak irekitzen zituelako historiaren arloan.

Hala ere, mitoek eta legendek indarra zuten, jendearen ohiko kosmoaren interpretazioarekin bat eginda zeudelako. Horregatik, Fermin Herran idazleak, *Biblioteca Bascongada* bildumako editoreak, hauxe adierazi zuen 1898an: «¡que no facilmente se arrancan de cuajo leyendas y tradiciones acariciadas por largos siglos y que tanto enaltecen a la tierra que uno quiere!».

Baieztapen honek erakusten digu ohiko mitologia historikoaren dogmek indarra zutela. Sabino Arana ere literatura mitologikoaz baliatu zen bere proposamen politikoak erakusteko unean. Baina ez ditugu nahastu behar biak. Nik neuk hemen historia zientzia modura lantzen zutenen ibilbide historiografikoa landuko dut. Beste gai bat litzateke politikarien eta fikziozko literatura idazten zutenen arteko ikuspegi historikoaren azterketa, alegia, Sabino Aranaren literatura historikoaren imajinarioa edo bestelako autore batzuena aztertzea.

3. EUSKAL HISTORIOGRAFIAREN ABIADAK XX. MENDEAN ZEHAR

XX. mendearen lehen herenean euskal historia estatus zientifikoan gihartu zen. Gizarte-zientzien bilakaeran zatiketa gertatu zen, eta arlo bakoitzean ikertzaile berriak nabarmendu ziren. Pertsona horien bidez, euskal historiografia aberastuz eta berriztuz joan zen. *Geografia general del Pais Vasco-Navarro* —entziklopedia gisa asmatua— garai hartako jakituria historiografikoaren eredua dugu. Horrez gain, Pablo Alzola eta Julio Lazurtegi aipatu behar dira. Antropologiaren arloan Jose Migel Barandiaranek ahozko iturrietan finkaturik biltzen zituen lege zaharreko azken usadioak. Bonifacio Etxegaraik sintesi historikoa idatzi zuen Espasa Entzikopediarako 1928an, "Vasconia" izenpean. Baina guztien artean zalantza barik berritzaileena Theodore Lefebvre-ren lana izan zen: *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*, 1933an Parisen argitaratua. Lan horrek metodologia eta teoria berria erakusten ditu. Euskal historiaren oinarri materialak aztertu zituen, eta, maisukiro, ildo berriko historian jardun zuen. Euskaldunen azken 1000 urteotako historia zehatza idatzi zuen, ingurumenak eta gizakiek sortu zituzten zibilizazio desberdinak agertuz. Horregatik, demografia, migrazioak eta eguneroko bizitzan garatu ziren zibilizazio material guztiak ondo deskribatu zituen, eta horien bilakaera azaldu zuen. Euskal Herri ia osoa (Enkarterriak eta Tutera aldea izan ezik) eta, kasu batzuetan, inguruko lurraldeak ere (Biarnoa) hartu zituen aztergai. Garaiko lan historiko garrantzitsuena izan zen ezbairik gabe, gure artean gutxi ezagutu eta landu den obra, tamalez. Beharbada, Lefebvre euskal historiografiaren erreferentzia nagusi bihurtuko zen gerra ostean, naziek Parisen hil izan ez balute, erresistentzian sarturik baitzegoen. Laburbilduz, mendearen lehen herenean, Eusko Ikaskuntzaren inguruan egindako Euskal Herriari buruzko ikerketek, estatus zientifikoa sendotu zuten, unibertsitaterik ez baitzegoen. Aldi berean, euskal abertzaletasunaren ikuspegi itxitik ere landu zen historia, Zabala, Bernardino de Estella eta Bernardo Estornes Lasaren testuetan.

4. FRANKISMO-GARAI LUZEKO ARGI-ILUNAK

Gerra ostean, 1939an, eten egin zen aurreko urteetan bideraturiko dinamika. Eusko Ikaskuntzaren inguruan erakundetzen hasitako azpiegitura zientifikoa desegin zen. Ipar Euskal Herrian J. M. Barandiaranek jarraitu zuen aldizkariak sortzen, eta 1948an Biarritzen Eusko Ikaskuntzen zazpigarren kongresua antolatu zen. Ipar Euskal Herrian *Eusko Jakintza* aldizkariaren inguruan ikerketak landu ziren, baina 1954an Baionan antolatu zen Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresuak dinamika horren amaiera erakutsi zuen. Bestalde, Hego Ameriketan ahaleginak egin ziren, Argentinan, Venezuelan eta Mexikon bereziki. Urrunetik euskal historiaren mistifikazio politikoak errazagoak ziren, baina ikertzaile finak ere izan ziren. Aipatzekoa da Ildefonso Gurrutxagaren lana, bereziki lehen gerra karlistari buruzkoa, bertan zuzenki kritikatzen zuelako Galindezek eta beste batzuk asmaturiko interpretazioa, non karlisten borroka euskal abertzaleena bihurtzen zen Galindezen artikuluetan.

Argentinan beste saiakera garrantzitsu bat argitaratu zen Euskal Herriko gerra zibilei buruz, Ramon Aldasoro errepublikarrarena. Askatasunaren kontzeptuaren inguruan artikulatu zuen bere diskurtsoa, azken bi mendeetan izandako bi gerren azalpena egiteko orduan.

Azkenik, Hego Euskal Herrian, Iruñean eta Donostian *Principe de Viana* eta *Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* izeneko aldizkarien inguruan antolatu ziren ikertzaileak, harik eta 1960-70 hamarkadetan unibertsitateetan historiazko ikasketak eratu ziren arte. Historia ikertzeko profesionalizazio-bidea ireki zen unibertsitateetan. Ordura arte, artxibozain eta bibliotekariak izan ziren historia-lanetan profesional gisa aritzea lortu zuten bakarrak.

Giro horretan, eta unibertsitatean ikasia izan arren, bere kabuz ikerketa-lanak eginez, Eusko Ikaskuntzaren eta CSIC erakundearen inguruan ibiliaz, euskal historia-ikerketek beste pertsonaia handi bat izan zuten: Julio Caro Baroja. Sarritan, historialariek ez dute beraren lana aintzatesten, antropologiatik hurbil dagoelako agian. Baina 1956 arte, zalantza barik, bera dugu historialari sozial garrantzitsuena. *Los Vascos* izeneko liburua, 1949an argitaratua, *Annales* aldizkarian —Parisen indartzen zegoen historiako paradigma berriaren ispilu zena— historia egiteko bultzaturiko modu berriaren erakusletzat aipatua izan zen.

Jakina, teoriari eta aukeraturiko ikerketa-esparruari egokiturik zuen bere metodologia. Julio Caro Barojaren lana ulertzeko, ezinbestekoa da Pío Barojaren ideiak eta nobelak ezagutzea. Píoren mundu-ikuskeraren baitan kokatzen dira ilobaren hainbat kezka intelektual. Baina nobelaren bidea hartu beharrean, ilobak saiakera eta ikerketa sakona erabili zituen. Berak aitortu zuenez, *La leyenda de Jaun Alzate* eleberriak bere etnografia-zaletasuna piztu zuen.

Batez ere 1940tik 1956ra bitartean ikertu zituen euskal gaiak. Ondoko lanak aurretik ikerturikoaz egindako gogoetak dira. Ordurako, antropologiaren kezkak bizi-bizirik zituen, eta, geroko urteetan, buru-belarri sartu zen historian, historia sozialean. Biografia, tokian tokiko historia zein baztertuen ibilbidea izan ziren gogokoen zituen gaiak. Bere bizitzaren amaieran, aldiz, kezka teorikoz jabeturiko lanak argitaratzeari ekin zion. Benetan harrigarria dugu jakintsu honek zenbat produzitu zuen ikustea. Zelako trebetasuna zeukan, bestalde, gaztelania bizkor, zehatz eta argia erabiltzean. Laster saiakeraren maisutzat izango da deskubritua, agian.

Dena dela, beraren ikerlanak ezagutu eta gero, ikerketa egiteko bide edo metodologia jakina nabari daiteke. Batzuen ustez, Julio Caro Barojak ez zuen metodorik. Eta, beharbada, egia da, metodo desberdinak erabili zituelako, eta bere bizitzan zehar bere ikuspegiak aldatu zituelako. Baina bere lanetan joera finkoak ageri dira: lehendabizi, hizkuntzari buruzko zehaztapenak egiten zituen, erabili behar zituen kategoria eta kontzeptuen erlatibotasuna azpimarratuz. Bigarrenik, kezka epistemologikoa planteatzen zuen, baina, berehala, filosofo greziarren

garaian ere kezka horien berri bazegoela adierazten saiatzen zen. Ondoren, bere diskonformitatea adierazten zuen, nahitaezko abiapuntua balitz bezala. Ikerketan aritzeko abiapuntu interesgarria da berau. Azkenik, datuak biltzen zituen, eta informazioa modu zuzenean jasotzen ahalegindu zen, bai inguru fisikoan, bai artxibategietan, baita literatura-produkzioan ere. Horrek guztiak garaian garaiko kontzeptualizazioan murgiltzeko aukera ematen zion, eta ekintzabideen, kontzeptuen eta usteen tenporalitatea —hots, *tempus* berezia— aurkitzen zuen. Bukaeran, ez zuen nahi izaten orokorpenean erortzea. Bere lanean espiritu etnografikoak zirauen, baina hori ez zen maila teorikoan kezkarik ez zuelako, erredukzionismo antzuan ez erortzeko baizik. Deskribapen soila eta formala gainditzen zuen, ikerketa teorikoan aukerak eginez, ez modu abstraktuan, enpirikoan baizik, eta berez zetorren ondorioa modu naturalean agerian utziz.

Soziologismo berriaren ekarpenak jaso zituen 1950ean, eta hurrengo hamarkadan, aldiz, psikologismoan murgildu zen. Heldutasun intelektuala irabazi ahala, kezkaturik agertu zen pertsonen —protagonisten— nondik norakoaz. Pertsonen grinen garrantziaz ere jabeturik zegoen. Horregatik, genero biografikoaz gogoeta jakingarriak idatzi zituen bere bizitzaren azken aldian, eta modu originalean aplikatu zituen bere buruaren azterketara.

Beraz, ikerketa egiteko moduaz, badugu zer ikasi Julio Caro Barojaren lanetan.

5. EGIA NAGUSIEN PARADIGMA EDO EREDU MEKANIKO GLOBALEN GAINBEHERA ETA HISTORIOGRAFIA BERRIAK

Hasieran aipatu dudan historiaren krisialdiaren kontzientzia, agerian dugu berriz argi eta garbi mende bukaeran; 1970ko hamarkadan jadanik, literatura-kritikarien mundutik, egia nagusien gainbehera etorri zen. Egituren azterketetan oinarrituriko historiografiak porrot egin zuen, eta *Annales* aldizkariaren eskolaren gainbehera etorri eta arlo historiografikoen ugaltzea hasi zen. H. V. White-k "*the fictions of factual representation*" adierazi zituen, historia guztiak, positibistena bera ere, erlatibizatuz. Azken batean guztiak zirelako artefaktu literarioak, eta egiak ezinezkoak zirelako. Orduan, hona hemen galderak: Egia batzuen lorpenak ez ote du garrantzirik? Guztia subjektibismo hutsa eta hutsala baino ez ote da? Pio Baroja nobelista handiak ere bere memorietan antzeko zerbait adierazi zuen:

> Yo intenté hace años conocer la Historia de la España de la primera mitad del siglo XIX. Durante mucho tiempo leí libros, folletos, papeles, para encontrar hechos exactos y demostrados. No hallé más que incertidumbre y oscuridad. Unos historiadores se copiaban unos a otros y el primero que exponía datos no indicaba donde los había encontrado. Por estas, y por otras muchas razones hay que pensar en la tendencia de los escritores a buscar el conocimiento de un país en la literatura y no en la historia; es mucho más exacto, aunque parezca lo contrario, que las de los

> políticos, que quieren hallar estos conocimientos en la historia y en la estadística. (*Memoria*, V. liburukia., 62-63 orr.)

Hala ere, euskal historiografiak azken hogeita bost urteotan berebiziko bilakaera eta aberastasuna izan du, eta asko eta asko irabazi du estatus zientifikoan. Jakinekoa da imajinarioen indarra edozein izkributan. Esperientziak —subjektuaren ikuspegitik, behintzat— biltzea eta jasotzea premiazkoa da.

Laburbilduz, XVII. mendetik XIX. mendera arte, benetako dokumentuen garrantzia azpimarratu zen: kronikak, diplomak, buldak eta abar. Beste era batera esanda, boterearen artxiboak ziren iturri nagusiak. XX. mendean kuantifikazio zientifikoak hartu zuen garrantzia, dokumentu seriatuak, kliometrismoak. Demokraziaren garaian, jende-oldeak historian sartzen dira. Beraz, politikagintza eta herrigintza ez dira eliteen arteko eztabaida hutsa. Baina, oraindik, eredu mekanikoak eta historia finalistak dira nagusi; hau da, arrazoiaren eta zientziaren aurreramenduak duen ikuspegi optimistaren ikuspegia. Aktoreak, indibidualak edo kolektiboak, gizarte programatu baten aurrerakadaren ondorio bihurtu dira. Eta azken hamarkadan, alde batetik, historiak idazteko moduak, eta, bestetik, iturri berriak sorraraztean —bereziki jende-oldeei so—, subjektu berriak asmatu dira, gai berriak, geure begirada behetik gorakoa bihurtu dugulako. Indibidualizazio--prozesua bizi dugu, jende-oldea erabat abstraktua gertatzen zaigu, eta talde bereziek eta, beraz, biografiak garrantzia hartzen dute berriz ere; baina oraingoan testuinguru soziala —jende-oldeena— hobeto ezagutzen dugu. Bestalde, ez gaude itsuturik modernitatearen mitoak ezarritako zamaz. Gogoeta eta asmo berriek eta iturri berriek diskurtso historiografiko berriztuak eragiten dituzte. Historiak —hau da, denboraren iraganaren nondik norakoa— garrantzia hartu du gizarte-zientzien teorietan. Gertakizunak eta arazoak beren historiaz jabetuz ulertu behar dira.

Interpretazio-bideetan, egin beharreko jauzia dugu fikziozko genero desberdinen arteko bereizketa; izan ere, ezin ditugu nahastu. Historiolariok ez dakigu bereizten garrantzitsua zer den eta zer ez den, eta aldaketaren aztertzaile nagusi bihurtu gara. Giro horretan, planteamendu berriak begi-bistakoak egiten zaizkigu, ikerkuntzan nahiz historiaren irakaskuntzan: Historiaren errepresentazioa eta gizartean duen funtzioa berriz baloratu behar dugu, ohiko memoriatik abiatuz (datu gisa), baina memoriatik at ere bai, historiaren ikuspegitik urrunago joanez, hau da, zientzia historikoen arloa landuz, zientzien esparruan.

Aldi berean, ikerketarako estrategiak ugaldu egiten zaizkigu: teoria berriez aberastuz, metodologian sakonduz, agiri eta iturri berriak arakatuz edo asmatuz, erudizio berriztatua lortu behar dugu; eta literaturaren ezagutzak ere aberastu egiten du zientzia historikoen esparrua. Hemen, aurkeztu diguten euskarazko historiografiaren behin behineko zerrendari[2], zenbait lan erantsi behar zaizkio; adibidez,

2. Argitaratzaileen oharra: Historialari Euskaldunen I. Topaketetan banaturiko euskarazko historia lanen zerrenda batez ari da.

Auspoa editorialak argitaratu dituen liburuak behetik gorako eta barru-barruko ikuspegi sozialen adierazleak baitira. Erudizio berriaren sortzaile izan behar dugu geure egitekoan, eta, horren baitan, historialariok adituak behar dugu izan denborak —arkaiko-mitikoa, kronologikoa, teknikoa— eta erritmoak bereizten.

6. BERBA BI HISTORIA NAZIONALEZ

Aurreko mahai-inguruan[3] bestelako gai garrantzitsua eztabaidatu da: tokian tokiko historia eta historia nazionalak. Gai honetaz zerbait eransteko, lehenbizi galdera bat egitea otutzen zait: Zerk bihurtzen du nazional historialarien diskurtso historikoa? Zein gai dira nazionalak? Politikagintzaren eta ideia intelektualen arlokoak edo kultur arlokoak soilik? Erantzunetariko bat hauxe izan daiteke: lurraldetasunak. Baina nork eta zerk markatzen du lurraldetasuna? Itsasbazterreko euskaldunentzat, itsasotasunak lurraldetasunak bezainbesteko garrantzia du. Bestelako erantzunak eman daitezke: Hizkuntzak? Ordezkaritza publikoaren bidez sortzen diren erakundeek, parlamentuek edo Batzar Nagusiek? Espazioa eta denbora erlatiboak dira, eta historian barrena jendearen ekimenez sortzen dira. Diskurtso nazionala, historiografiaren baitan, diskurtsoetariko bat baino ez da. Euskal Herriaren historiaren baitan, diskurtso nazional ugari bereizten ditugu, eta, beraz, historialariarentzat ezin daiteke bat bakarra izan benetakoa. Adibidez, geurean, euskaldunok diskurtso nazional desberdinen sortzaile izan gara, euskal nazioarenak, espainolarenak edo frantziar nazioarenak. Zein ote da jatorrena? Galdera hori, nire ustez, lekuz kanpo dago zientzia historikoen baitan, gizarte modernoan jatortasunaren diskurtsoaren ikuspegia baztertzailea delako. Egia da, euskal nazioaren ikuspegia, espainiar nazioaren zati edo bazter modura gerta daitekeela; edo, alderantziz, espainiar nazioaren kide edo aurkari, esklusio-ikuspegiz. Beraz, badaude diskurtso nazionalak euskaltzaleak direnak, eta beste batzuen partaide subsidiario soil bihurtu direnak, espainiar, frantziar edo europar ikuspegien baitan.

Estatu-nazioak XIX. mendean eraiki eta antolatu ziren, eta, berez, diskurtso nazionalak indarberritu ziren. Lehenago, Espainiaren historia lantzen aitzindari, euskaldun bat dugu: Esteban Garibai. Ukatu ere ukatu da, garai hartan euskal historiarik zegoenik. XIX. mendera jauzia eginez, Espainian nazio politiko bakarra zegoela adierazteko ekin zioten historia nazionalak idazteari, eta XIX. mende bukaeran Canovas del Castillo-k bultzatu zuen halako proiektua. Egon ziren bestelako asmoak ere, adibidez, Pi i Margall-ek idatziak, Espainiaren ikuspegi askotarikoa eta federala azpimarratzen zutenak.

Azken urteotan, aniztasunezko ikuspegia garatu da historialarien artean, gaur egun espainiar naziotasun bakarraren oldartzea nabarmena bada ere. Nire ustez, guztia ezin daiteke makurraraz historia nazionalaren ikuspegira. Ezin ditugu ekintza guztiak euskal abertzaleak *versus* beste abertzaleak delako ikusmirara lerrotu;

3. Argitaratzaileen oharra: Historialari Euskaldunen I. Topaketetan, aurreko saioan, historiografiaren eta euskal lurraldetasunaren arteko harremana izan zen hizpide.

edo, eskema dikotomikoan, Espainiako historiaren ispiluan arakatu. Garaiz kanpoko ikuspegia gerta liteke. Euskal Herriaren historia urratsez urrats gauzatu da azken mendeetan, idatziz asmatu da, Espainiakoa edo Frantziakoa bezalaxe. Historiaren ikuspegi nazionala garai batekoa da. Gaur egun, multinazionalen garaian, premiazkoa deritzot ikuspegi transnazionala eta europarra indartzeari; baina, jakina, nonbaiten sustraitu beharra dago, eta historialariok nonbaitetik eta norbaitzuentzat idazten dugu geure historia, esperientziaren harian. Horregatik, guztiz bideragarria eta komenigarria da, nire ustez, Euskal Herriaren historia lantzea eta sakontzea; ikuspegi transnazionala osatzeko, egitura nazionala —eta Euskal Herrikoa kultur esparruan eta politikoan, mendebaldeko hiru herrialdeetan behintzat, begi-bistako egitura dugu— datuen arteko beste zehaztapen bat gehiago da.

Baina herri baten fenomenologia aberatsa da, eta, nire ustez, ez da dinamika horretara sinplifikatu edo ahuldu behar gizarte aberatsaren historia. Ezkutatu ere ez da egin behar, ez balego bezala. XVI. mendeaz geroztik, Euskal Herriaren historian, berezitasun nagusienetakoa dugu, herrialde batzuk nortasun politiko kolektiboa landu zutela Batzar Nagusien inguruan; eta 1877 arte iraun zuen mendebaldeko hiru herrialdeetan, eta XX. mendean berriz lortu da. Foruen inguruko kultura politikoa aberatsa eta indartsua da. Baina euskal historia ezin da horretara mugatu.

Tokian tokiko historia zehatza, komunitate jakin batzuena, indarberritu egin da. Enpresaren historia, historia ekonomikoaren arloan, hutsune nagusia da. Eta azkenik, biografiaren arloak —besteak beste, diskurtso berri gisa eta herri nortasunaren adierazle gisa— ikuspegi indibidualaren eta kolektiboaren arteko tirabira ondo laburtzen duela deritzot.

XXI. mendean, Europa berriaren atalean, goi-mailako laburpen politiko instituzionalak egiteko unean, badaude erregionalismo transnazionalean oinarritu behar ditugun historia berriak; ahaztu gabe Pirinioak direla gure ardatza, eta gure historia piriniarren lerrotik eta itsasoak azken 1000 urteetan eman duen mundializaziotik abiatu behar dela gure historia. Euskaldunok mundializazio-prozesua hasi zen gunean jarraitzen dugu bizitzen XVI. mendeaz geroztik. Hortaz, mundializazioa ez da arazo berria geure artean, eta kostalde-ikuspegiko historia landu beharra dagoela deritzot.

Azpiegieturazko ikerlanen ondoan, nahitaezkoak ditugu diskurritzeko modu kontraesankorrak, horrek egiten duelako herria. Folklorean murgildu garenok badakigu tradizioa nahaste-borraste guztien bilgunea dela. Hiriguneetan ere orain gertatu da, modernizazioaren ondorioz. Diferentzia bakarra da, oraingo nahasteak askoz azkarrago gertatzen direla, abiadura handiagoa dutela aldaketak belaunaldien artean, eta, beraz, sarritan jasangaitzak gertatzen zaizkigula.

Gaia ez da hemen agortzen. Baina ikuspegi honek beste honetara eramaten gaitu, alegia, subjektu historiografikoen definiziora diskurtso historiografikoen baitan.

Euskal Herrian eta Europan edo Ameriketan, euskal esparruko jendeak daude. Ondorioz aurkitu beharreko subjektuetaz, protagonistetaz, hitz egin behar da, jendeek ez baitute izan identitate-dimentsio bakarra, ezta gutxiago ere. Gurean ezin dugu Euskal Herriko historiaren nondik norakoa mugatu, "exogenisten" eta "endogenisten" eskema interpretatibora (ikus, adibidez, 1970. urte inguruan klandestinitatean lantzen ziren eztabaida historiografikoak), hau da, euskal komunitatea bloke itxi eta trinko gisa ulertzera, Euskal Herritik at bestelako bloke trinko eta erasokorrak baleude bezala. Imajinario hori gainditu beharra dugu, Euskal Herria igarolekua izan delako eta itsasbazterrean zabal-zabalik egon delako. Eta gure iraganean, ez dira izan barnealdeko kontraesanak —endogenoak— soil-soilik; Monarkiak, Estatu nazionalak eta abar neutralak ez direlako. Horrela, bada, historiaren ikerkuntza eta irakaskuntza uste duguna baino irekiagoa da; eta inprebisioa, alternatibak eta, azken batean, historiaren ikuspegi irekia —probabilitatezkoa— landu behar ditugu.

7. EUSKAL HERRIARI BURUZKO HISTORIAREN OSOTASUNEZKO EZAGUTZA-MAILAK.

Gure erudizio-maila, entziklopedietan eta hiztegigintzan laburtzen duguna, mende bukaeran emendatu dela esan behar dugu. Azken 20 urteotan gehiago eta sakonago ezagutzen dugu. Hala ere, oraindik orain nabarmena da azpiegiturazko lanen gabezia. Ez dugu, adibidez, Euskal Herriko hiztegi biografiko onik. Espainiako gobernuak oraintsu erabaki du Espainiako Hiztegi biografikoaren proiektua burutzea. Gurean, berriz, ez dago horrelakorik, proiektua aspalditik ondo zehazturik eduki arren. Oraindik orain, euskal diaspora ez da sartzen ez txertatzen geure diskurtso historiografikoetan; eta horri premiazkoa deritzot.

Lan entziklopedikoetan, baten bat aipatzeko, Bernardo Estornes Lasak Auñamendiko entziklopedia asmatzen eta argitaratzen egin zuena azpimarratu behar da. 1970ko jakituria eta 1999ko ezagutza-maila desberdina dugu, eta, horregatik, amaitu berria den entziklopedia horretan desberdinak dira lehen liburukiak eta azkenak. Berriztu beharra dago, eta Eusko Ikaskuntzak hor du erronka handia eta benetakoa.

Bestalde, argi dago berriztapen epistemologikoak eta diskurtsiboak gertatu direla Euskal Herriko historia lantzeko eran; eta azken 20 urteotan asko, ondo eta sakon landu da euskal historia. Baina, oro har, azken urteotan, euskal historia egitean euskal subjektua nabarmenago asmatu dela esango nuke; nahiz eta Euskal Herrian lantzen den diskurtso historiografikorik aintzat hartu gabe egin den hori. XVII. mendean Oihenartek indartu zuen *Vasconia*ren ikuspegia; XIX. mende hasieran J. A. Zamakolak ere euskal nazio edo komunitateen historia landu zuen, gizartea abiapuntutzat harturik; eta XX. mendean Arturo Campion (idazlea), Karmelo Etxegarai ("euskal kronista"), Bonifacio Etxegarai (abokatua), Th. Lefebvre

(geografoa) eta J. Caro Baroja (historialari soziala) autoreen lanak dira obra orokor eta berritzaile nagusiak historiografiaren arloan. Gizarte-zientzien eragina historia lantzeko unean ageri da, eta aipatu ditudan azken hiru egileak, euskal historia idazten saiatu ziren, zientzia berrietako teoriak eta metodologiak aztertu ondoren.

Uztaro aldizkarian, liburu-aipamenen arloan, Euskal Herriko historiari buruzko gogoetak eta kritikak argitaratu zituen Iban Zalduak (*Uztaro* **27**, 1998). Aipamen horrek gaur egungo historiaren egoeran murgiltzeko aukera ematen digu, eta jakingarria bezain interesgarria dela deritzot; halaber, interesgarria da urte bi lehenago Mikel Aizpuruk beste liburu baten harira egindako gogoeta (*Uztaro* **19**, 1996). *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian ere, Euskal Herriko Historiari buruzko sintesiak edo ikuspegi orokorrak argitaratzen ari dira azken zenbakietan.

Bukatzeko, premiazkoa da euskarazko historiografia gehiago lantzea. Esan behar dut, euskaraz idazteak *plus* berezi bat ematen duela, eta euskarazko historiografia lantzeko ahaleginak hurrengo hogei urteetan erronka handia izan beharko lukeela —bestelako hizkuntzak baztertu gabe— ariketa hori premiazkoa duelako edozein ikertzailek, hizkuntza-erregistro desberdinak erabiltzeak aberastu egiten baitu geure diskurritzeko ahalegina.

Euskal Abertzaletasunaren historiografia[1]

Ludger Mees
Euskal Herriko Unibertsitatea

1. SARRERA

Historialariek eta bestelako gizarte-zientzialariek egin ohi duten ikerketen barruan, nazionalismoa aspaldidanik asko landu den punta-puntako gaia izan da. Gaur egun, nazionalismoari buruzko argitalpen enpiriko eta teorikoekin liburutegi handi bateko apalategiak bete daitezke. Ordea, ikerketen ugaritasunak ez du ahalbidetu gai horren inguruan sortu eta sortzen diren polemikak leuntzerik edo moteltzerik. Are gehiago esango genuke: historiografiaren eta gizarte-zientzien alorrean, aztergai gutxi dago nazionalismoak bezainbat desadostasun eta polemika sortu duenik. Hori, gainera, logikoa iruditzen zaigu, batez ere hiru arrazoirengatik. Lehenik eta behin, nazionalismoa iragan luzea duen fenomenoa dela gogoratu behar dugu. Azken berrehun urteotan, epealdi eta testuinguru oso desberdinetan sortu izan da, itxura guztiz aldakorrak —eta askotan kontrajarriak— garatuz. XVIII. mendearen bukaeran demokraziarekin erabat lotuta jaio bazen ere, beste zenbait garaitan mamu itsusiz jantzita agertu zaigu, diktadore, gerrazale eta hiltzaileen eskutik helduta. Nazionalismoaren konplexutasun historiko hori kontuan hartzen ez bada, nekez lortuko da polemika ustelik gabeko eztabaida zientifikorik.

Horixe bera esan daiteke aniztasun geografikoari buruz. Asiako mugimendu antikolonialista baten barruan agertzen den nazionalismo batek zer ikusirik ote dauka faxismoaren ideologia nazionalista zanpatzaile eta totalitarioarekin? Ezer gutxi; eta, halere, literaturan bata zein bestea sarritan "nazionalismo" hitza erabiliz aurkeztu eta aztertu dira. Kasu horretan ere, fenomenoaren aniztasunak eztabaida zientifikoa zailtzen du, objektu historiko berberari buruz ari garela uste dugunean, errealitatean gauza desberdinei buruz mintzatzen ari garelako.

---

1. Artikulu hau bi hitzaldiren fruitua da. Ideia nagusiak 1998ko uztailean Gironako Unibertsitatean eta urtebete beranduago Udako Euskal Unibertsitatean aurkezteko eta eztabaidatzeko aukera izan nuen. Eztabaida horietan parte hartu eta, horrela, hasierako zirriborroa hobetzen lagundu duten lagunei nire eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiet, gelditzen diren defizitak eta akatsak nireak direla gaineratuz, jakina.

Azkenik eta hirugarrenik —eta Euskal Herrian ez da aipatu ere egin beharrik— nazionalismoa, fenomeno historikoa izateaz gain, albisteak, eztabaidak eta polemikak egunero sortzen dituen fenomeno bizia ere bada. Nahitaez, historialariok ere gure gizartea eragiten eta mugitzen duen guztiaren menpe bizi gara, eta, ondorioz, nazionalismoari buruz pentsatu, sentitu, esan eta idatzi egiten dugunak beti eragile baldintzatzaile horiekiko lotura izaten du. Hori dela eta, eta ikuspuntu horretatik ikusita, gaur egun historialari batentzat ziur asko zailagoa da euskal nazionalismoari buruz idaztea, Zesarren garaiko Inperio Erromatarrari buruz idaztea baino. Are gehiago esango nuke: nazionalismoaren gaia beti gai korapilatsua izan bada, gaur egun ia ezinezko gaia bihurtu da, inork gutxik ulertzen duen ETAren bortxakeria itsuak eta gobernu kontserbatzaileak emandako erantzunak, historialariok behar dugun haize freskoa eta librea erabat kutsatzen ari direlako. Zentzu horretan, oso esanguratsua iruditzen zait Kataluniako historialari katedradun batek Madrilgo egunkari batean 2001eko urtarrilaren hasieran argitaratutako artikulua. Bertan, Borja de Riquer-ek Madrilgo "giro politikoari" buruzko bere susmoak azaltzen zituen. Susmo horien arabera, Espainiako hiriburuan gaur egun ez legoke girorik nazionalismoarekin zerikusia duen edozein gai eztabaidatzeko, nazionalismoa bera eta —bide batez— nazionalismoaren kutsua duen pentsamolde oro, goitik behera gaitzesteko ez bada bederen. Riquer-ek ETAren esku hildako Ernest Lluch-ek eta Miguel Herrero de Miñón-ek "eskubide historikoei" buruz aurkeztu zituzten ideiak hartzen ditu adibidetzat. Hil baino egun gutxi lehenago, Lluch-ek —etsita— kontatu omen zizkion historialari katalandarrari, aipaturiko gaia jorratzen zuen bere liburu berria Madrilen aurkeztu ahal izateko topatzen ari zen zailtasunak, oztopoak eta interes falta. Bat zetozen Lluch, Riquer eta hirugarren historialari bat ondoko diagnostikoan: «Azken urteotan, Madrilgo giroa nabarmenki aldatu da. Gaur egun, antza denez, Trantsizioaren garaian ia desagertu ziren jarrera esentzialista eta intrantsigenteak kementsu jaiotzen ari dira berriz ere».[2]

Madrilen ez ezik, esango nuke Euskal Herrian ere Riquer-ek ikusi duen arriskua badagoela, politikaren arloan, gizartean eta baita unibertsitateetan ere. Horren aurrean, zer egin dezakegu historialariok? Arrisku horretaz jabetzea eta kontzientziatzea, tranpa esentzialistan ez erortzeko ahaleginak egitea, eta ikertzen jarraitzea, besterik ez dago. Gainera, Euskal Herriko historia eta historiografiari so eginez gero, konturatuko gara gatazka politikoak beste zenbait garaitan ere eragin handia izan duela; nahiz eta, gaur egun, mugarik gabeko bortizkeriak ukitu bereziki mingarria eta tragikoa ematen dion eragin horri.

Beraz, ondoko orrialdeetan saiatuko naiz, azaldu ditudan gogoetetan oinarriturik, azken urteotan nazionalismoaren gainean egindako ikerketen berri ematen.

2. «Ernest, Joan y yo coincidimos en el diagnóstico: el ambiente de Madrid se había transformado notablemente en los últimos años y aquellas actitudes esencialistas e intransigentes que casi habían desaparecido durante la transición parecían rebrotar con brío», ikus Borja de Riquer: "Ernest Lluch y el 'ambiente' de Madrid", *El País*, 2001-I-8.

Irakurlea ez nahasteko, eta, gainera, guztiz alferrikako ahaleginetan ez murgiltzeko, ez ditut zehaztuko argitaratu diren lan guztiak; aitzitik, lerro nagusiak eta horien inguruko zenbait gogoeta baino ez ditut planteatuko. Oharrak gehiegi ez kargatzearren, artikuluaren bukaeran zehaztuko dut aipatutako liburuen eta beste zenbait lanen zerrenda. Hasteko, Euskal Herriko historiografiari buruz arituko naiz modu orokorrean, sarreratxo honetan aurkeztutako ideiak berrartuz eta sakonduz. Ondoren, gaia gehiago zehazteko asmoz, azken hamarkadetan euskal abertzaletasunaren inguruan ikerkuntzek eta argitalpenek izan dituzten nondik norakoak agertuko ditut. Azkenik, eta bukatzeko, hutsuneak non dauden galdetuko dut, etorkizunari begira ikerkuntzaren erronkak zein diren seinalatuz.

2. EUSKAL HERRIKO HISTORIOGRAFIA: AURRERAPAUSOAK ETA ARAZOAK

Herri guztiek merezi duten historiografia dute, edo, lehen erabili dudan modu aseptikoagoaz esateko, historiografia beti bere inguruko gizartearen fruitua edo produktua izan ohi da. Izan ere, historiografia jaio zen unetik, historialarion subjektibitasunaren eta objektibotasunaren arteko dialektika eztabaidagai izan baita etengabe. Jakina denez, Leopold von Ranke-k —historiografia modernoaren sortzaileak— eta bere ondorengoek uste zuten, historialari on eta iaio batek gai izan beharko lukeela bere testuingurua, bere interesa, pentsamoldea eta balio pertsonalak guztiz alde batera uzteko, eta, artxiboetako iturrietan murgildu ondoren, historia "gertatu zen bezalaxe" objektibotasun osoz berreraikitzeko eta kontatzeko. Gaur egun badakigu ideia hori inoiz erabat betetzen ez den ideal polita dela, historialari guztion beharra ideal horretara ahalik eta gehien inguratzea eta horretarako ahalegin guztiak egitea baldin bada ere. Izan ere, XIX. mendearen hasieran jaio zenetik, historiografia ez da inoiz bizi izan burbuila batean, gizartetik at, eta herritarren kezkei, itxaropenei eta bildurrei bizkar emanda. Are gehiago esan genezake: objektibotasunaren postulatuak eskatzen zuenaren aurka, XIX. mendean zehar, sortzen eta garatzen ari zen Estatu liberalaren barruan, Europako historiografiak funtzio legitimatzaile eta kohesionatzailea betetzen zuen. Elite berrien boterea ziurtatzeko tresna ezin hobea bihurtu zen historiografia. Halere, proiektu liberal eta burges berria sendotu zen neurrian, eta gizarte zibil autonomoa eta kritikoa garatu zen heinean, historiografiak eliteekiko menpekotasuna gainditzea lortu zuen; hortik aurrera, bere lanaren ezaugarri ilustratzaile, emantzipatzaile eta kritikoak azpimarratu zituen. Dena den, XX. mendean zehar ere baditugu adibide asko, historialari ospetsuen eta botere politikoaren arteko loturak erakusten dizkigutenak. Horra hor, esate baterako, eta adibide bakarra aipatzearren, oso gertu daukadan Alemaniako historiografia nazionalsozialismoaren garaian. Orain arteko paradigmak zioenaren arabera, Alemaniako historialari gehienek ez zuten Hitlerren erregimenaren aldeko jarrerarik erakutsi, ezta aurkakoa ere. Erbesteratu ziren historialarien kasu gutxi batzuk kenduta, historialari gehienak isildu eta egoera berrira egokitu ziren, eta

bakoitza bere lan profesionala ahal zuen moduan —politikaz gehiegi arduratu gabe— aurrera ateratzen saiatu zen. Horrela, faxismoaren garaitik bizirik eta "garbi" atera ziren zenbait historialarik, 60ko hamarkadaren bukaeran historiografia alemaniarraren berrikuntzari ekin zioten. Ikerketa berriek, ordea, paradigma hori zuzendu egin dute. Orain badakigu ezen, geroago ospe handikoak izan ziren zenbait historialarik naziek ezarritako ideologiarekin (antisemitismoa; arraza ariotarrari buruzko ikerketa sasi-zientifikoak) izan zuten konpromisoa, orain arte uste izan duguna baino askoz ere sakonagoa izan zela.[3]

Zergatik hori guztia hemen, Euskal Herriko historiografiari buruzko artikulu batean? Lehenago aurreratu dudanez, erantzuna oso sinplea da: historiografiaren eta gizartearen arteko lotura horren adibide ezin hobea delako Euskal Herriaren kasua; adibide ezin hobea, gaineratuko nuke, gehiegizko lotura horren ondorio kaltegarriak frogatzeko. Izan ere, XIX. mendeko lehen hamarkadan *Real Academia de la Historia* delakoak bere *Diccionario* edo hiztegia eta Llorente-k *Noticias Históricas de las tres Provincias Vascongadas*[4] izeneko lan ospetsua argitaratu zituztenetik, eta zenbait urte geroago Aranguren, Sobrado, Novia de Salcedo edo Zamakola bezalako foruzaleek Euskal Herriko historiari buruzko beren ikuspuntu alternatiboak aurkeztu zituztenetik, hemengo historia urte askotan zehar zuriz ala beltzez izan da margotua, eta bitarteko tonalitate gris guztiak ahaztuta gelditzen ziren. Foruen eta euskal partikularismoaren polemikaren ostean, nazio eta abertzaletasunaren inguruko polemika etorri zen; eta, berriro ere, interes politikoek instrumentalizatu egin zuten historia. Oso jende gutxi ohartu zen egoera kaltegarri horretaz. Gutxi horietako bat Koldo Mitxelena izan zen (1968): «Nadie, absolutamente nadie, sabe qué es y sobre todo qué ha sido nuestra historia [...] nada tenemos que merezca el nombre de historia vasca [...] la tal historia yace en el limbo de lo irreal, en espera de que alguien la libere de allí». Zortzi urte geroago, José Miguel de Azaola idazleak antzeko iritzia eman zuen: «La historiografía del País Vasco se encuentra todavía en pañales». Zergatik? Azaolak ikusten zuen arrazoia hauxe izan zen: «una interminable y apasionada polémica entre nacionalismos de signo opuesto»[5].

Ikusten den bezala, lehen aipatutako gizarte zibilaren garapena eta historiografiaren askapena oso berandu gertatu zen hemen, Euskal Herrian. Hori gerta zedin, ezinbestekoak izan ziren ondoko bi eragileak:

3. I. Haar (2000): *Historiker im Nationalsozialismus. Deutsche Geschichtswissenschaft und der "Volkstumskampf" im Osten*, Göttingen; L. Mees (1995): "Estatua, gizartea eta historia. Alemaniako historiografia historizismotik historia sozialera", *Jakin*, **88**, 93-116.; L. Mees (1996): "La 'Catastrofe Alemana' y sus historiadores", *Historia Contemporánea*, **13-14**, 465-484.

4. J. A. Llorente (1806-1808): *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas en que se procura investigar el estado civil antiguo de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya y el origen de sus Fueros*, Madril [4 liburuki]; *Diccionario Geográfico Histórico de España* (1802): Madril.

5. J. M. Azaola (1976): *Vasconia y su destino. II: Los vascos ayer y hoy*, Madril, I. liburukia, 155-160 [bertan dator Mitxelenaren aipua].

- Historiografiaren profesionalizatze- eta instituzionalizatze-prozesua. Prozesu honen hasiera 1960ko hamarkadatik aurrera jazo zen, Deustuan eta Iruñean lehenengo Letretako Fakultateak eratu zirenean hain zuzen. Ondoren, 70 eta 80ko hamarkadetan zehar, bilakaera horrek bultzakada nabaria jaso zuen Euskal Herriko Unibertsitateko eta ondoren Nafarroako Unibertsitate Publikoko Historia eta Giza Zientzien Fakultateen bidez.

- Honekin loturiko bigarren eragilea, Euskadiko Autonomia Estatutuaren garapena izan da, irakaskuntza eta ikerketak babesteko eta bultzatzeko behar ziren baliabide ekonomikoak eta azpiegitura zientifikoa ziurtatzen zituelako.

Gaur egun, eta bilakaera horri esker, hemengo historiografia sendoa, produktiboa eta aberasgarria dela esaten dudanean, iritzi horrekin ados dauden kanpoko aditu ugari aipa nitzake[6]. Osasun historiografikoaren frogarik adierazgarriena honako hauxe dela iruditzen zait: nahiz eta gatazka politikoa lehen baino gogorragoa eta mikatzagoa izan, eta sarreran aipatutako arriskua inoiz baino handiagoa den arren, zenbait salbuespen kenduta, oro har, euskal historiografiak ez du bere autonomia galdu, eta ez da itzuli politikaren morroia izatera. Halere, ez dago azpimarratu beharrik, historialariok eta gainerako zientzilariek behar dugun ideien arteko lehia demokratikoa eta irekia bertan behera geratzeko zorian dagoela, ETAren mehatxuek eta ekintzek komunitate akademikoaren gero eta kide gehiago —zenbait historialari tartean daudelarik— zuzenki eragiten dituzten neurrian.

Beraz, bortizkeriak ezarri dituen mugak eta baldintzak oso larriak baldin badira ere, Euskal Herriko gaur egungo historiografia gizarte zibil sendo baten partea da, eta ez da bizi proiektu politiko zehatz baten edo bestearen menpe. Gizartea bezalaxe, historiografia ere askotarikoa da. Nolanahi den, beste arazo bat ikusten dut etorkizunean, politikarekiko menpekotasuna bezain kaltegarria izan daitekeena: gure arteko eztabaida zientifikorik eza edo, gutxienez, eztabaiden eskasia. Hemen normalean edozein kritika, oso leuna eta zibilizatua baldin bada ere, pertsonaren aurkako erasotzat hartzen da, eta denok lagunak garelako, lagunak izaten jarraitu nahi dugulako, eta gainera gure karrera akademikoa baldintzatu nahi ez dugulako, sarri askotan kritikak, ezadostasunak edo interpretazio alternatiboak isildu egiten ditugu. Ez dakit konformismo hori ez ote den euskal partikularismoaren beste ezaugarri bat. Kataluniako historialariak askoz ere irekiagoak eta eztabaidazaleagoak direla iruditzen zait; eta zer esan tradizio akademiko luzeagoa duten Europako beste zenbait herriri buruz? Ni gogoratzen naiz, esate baterako, Alemanian dagoen Bielefeld-go Unibertsitateko historia-mintegietan ohitura izaten zela, bertako

6. Adibide bakar bat aipatzearren, hona hemen zer dioen Justo Beramendi katedradun galiziarrak Espainiako nazionalismo periferikoen historiografiaz: «La historiografía del nacionalismo vasco es probablemente la que más y mejor ha progresado en los ochenta», ikus. J. G. Beramendi (1992): "La historiografía de los nacionalismos en España", *Historia Contemporánea*, **7**, 135-154; aipua 148. orrikoa da.

eskola historiografikoaren aurkako etsairik gogorrenak gonbidatzea, eta publikoaren aurrean ezadostasunak eztabaidatzea. Bertako zenbait eztabaida benetan oso gogorrak eta polemikoak izanda ere, amaitutakoan campuseko tabernan —garagardo batzuk lagundurik— orduerdi bat lehenago hitzez elkar joka ibili zirenek bakea egiten zuten, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Eztabaida horiek jarraitzeko aukera izan genuenok asko ikasi genuen, edo behintzat, inpresio hori izaten genuen. Izan ere, aurrerapen zientifikoa bultzatzeko, ikerketek ekarritako emaitzen aurkezpena eta eztabaida kritikoa baita ezinbesteko baldintza. Eta hemen eztabaida kritikoa bere zentzu zabalean ulertu nahi dut, eztabaida hitzak ez baitu beti esan nahi beste baten lana mesprezatzea eta ez onartzea. Eztabaidatzea izan daiteke, halaber, lan horren alde onak balioetsiz eta hortik abiatuz, oraindik gutxi landu diren gai berriak planteatzea, eta etorkizuneko erronka teoriko eta metodologikoak zehaztea. Hori gure artean gehiago egingo bagenu, gure historiografiaren maila oraindik hobea izango litzateke, ziur asko.

3. NAZIONALISMOARI BURUZKO IKERKETEN GARAPENA

Euskal nazionalismoari buruzko lehen argitalpenak, zenbait salbuespen kenduta, II. Errepublikan agertu ziren, hala nola 1932ko lehen *Aberri Egunar*i buruzko liburua, besteak beste Eguileorrek eta Jemeinek idatzitako testuez osaturikoa[7]. Beste bi adibide ezagunak dira: Engracio Aranzadik ("Kizkitza") idatzitako liburua eta Jemeinek egindako Sabino Aranari buruzko biografia[8]. Ondorengo urteetan ere, Euzko Alderdi Jeltzalearen sortzaile eta "heroi nazionalak" bereganatu zuen bere jarraitzaileen interesa eta miresmena. Jarrera horren fruituak beste bi biografia izan dira: bata, nazionalismo erradikalaren liderra eta —1931 eta 1933. urteen bitartean— Gorteetako diputatua izandako Manuel Eguileorrek idatzitakoa[9]; eta bestea Agirre Lehendakariaren idazkaria izandako Pedro Basalduak egindakoa[10]. Azken hau Buenos Airesen argitaratu zen, Ixaka Lopez Mendizabalek eta Andrés María Irujok 1941 sortutako *Ekin* izeneko argitaletxean, hain zuzen[11].

7. *Aberri Eguna. Berbizkunde-Igandia 1932*, Bilbo 1932 [berrargitaratuta: Hendaia 1976].

8. E. Aranzadi (1935): *Ereintza. Siembra de nacionalismo vasco 1894-1912,* Zarautz [berrargitalpena: Donostia, 1980]; C. de Jemein (1935): *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin e historia gráfica del nacionalismo*, Bilbo [berrargitalpena: Bilbo, 1977].

9. M. Eguileor (1954): *Arana-Goiri'tar Sabin en la historia de Euzkadi*, Baiona.

10. P. Basaldua (1953): *El libertador vasco. Sabino de Arana Goiri. Biografía histórica*, Buenos Aires.

11. Ondorengo urteetan, argitaletxe horretako "Biblioteca de Cultura Vasca" delakoan ehun liburu baino gehiago argitaratu ziren. Hori dela eta, frankismoa euskal kulturaren arrasto guztiak ezabatu nahian zebilen unean, *Ekin* erbesteko "euskal enpresa kulturalik garrantzitsuena" bihurtu zen. Ikus. J. A. Ascunce (2000): "La cultura del exilio en castellano" in J. L. Abellán eta beste: *Memoria del exilio vasco. Cultura, pensamiento y literatura de los escritores transterrados en 1939*, Madril, 71-97 orr.; aipua 78. orrikoa da.

Euskal abertzaletasunak bizi zuen zatiketak eta 1960. hamarkadaz geroztik ezkerreko filosofia politikoek izandako gorakadak sortu zituzten lehen ezaugarri kritikoak nazionalismoaren literatura historikoaren barruan. Francisco Letamendia ("Ortzi"), Emilio López Adán ("Beltza") edo Jokin Apalategi bezalako idazleek ordezkatzen zuten euskal nazionalisten belaunaldi berriak bete-betean ezagutu zuen pentsamendu marxista-leninistaren eragina, eta, horrela, Trantsizioaren garaian batik bat, EAJ eta Eusko Jaurlaritzari buruzko oso liburu kritikoak argitaratzen hasi ziren[12]. Halere, haize berri horiek ez zuten lortu ohiko literatura historikoaren funtsezko akatsak bere oinarrietan zuzentzerik, lehen aipatutako argitalpenen maila ondu bazuten ere. Izan ere, aipaturiko argitalpen berri horietan ere, begi bistan baitago Justo Beramendi historialari galiziarrak «baieztapen nazionalaren erabateko nagusitasuna» («el abrumador predominio de la afirmación nacional») deitu duena[13]. "Ortzik", "Beltzak", eta, batez ere, Apalategik egindako lehen lanetan hauxe da gertatzen dena: saindu batenganako mirespenaren lekuan, beste saindu batenganako debozioa jartzen da. Sabino Arana eta EAJren ordez, "Euskal Herri langilea" eta ETAren nazionalismo iraultzailea ipini ziren, eta, horrela, euskal nazionalismoari buruzko liburuek liburu militanteak izaten jarraitu zuten. Jakina, ez dugu ahaztu behar funtsean argitalpen horiek militante bihurtu zituen eragilea ez zela izan marxismoa, frankismoaren esperientzia latza eta zanpatzailea baizik.

Izatez, argitalpen horiek guztiak ez ziren lan historiografikoak, *literatura historikoa* baizik[14]. Egileen asmoa ez zen izan historiaren arazo jakin bat argitzea eta ulerraraztea, helburu politiko eta ideologiko zehatz baten alde lan egitea baizik; hau da, nazionalismoaren zabalkuntzaren alde lan egitea, Sabino Aranaren pertsona goraipatzea edo —aitzindari horien ildoari beste ikuspuntu batetik eutsi ziotenen partetik— frankismoaren errepresioa salatzea edota abertzaletasun ezkertiarraren sorrera eta garapena txalotzea. Bi hitzetan, literatura historiko gisa sailkatzen ditugun argitalpenek —nahiz eta datu eta ikuspegi berriak eskaini— *ad probandum*

12. Beltza (1974): *El nacionalismo vasco 1876-1936*, Hendaia [berrargitalpena: Donostia 1976]; egile berarena (1976): *Nacionalismo vasco y clases sociales*, Donostia; (1975): *Del carlismo al nacionalismo burgués*, Donostia 1978; Letamendia (1975): *Historia de Euskadi. El nacionalismo vasco y ETA*; egile berarena (1976): *Los vascos. Ayer, hoy y mañana*, Hendaia; J. Apalategi (1979): *Los vascos. De la nación al Estado. PNV, ETA, Enbata*, Donostia [lehen argitalpena frantsesez: Baiona, 1977].

13. J. G. Beramendi (1984): "Aproximación a la historiografía reciente sobre los nacionalismos en la España contemporánea", *Estudios de Historia Social*, **28-29**, 49-76; aipua 66. orrikoa da.

14. Kontzeptu hau José Luis de la Granja-k egindako lan batetik hartu dut: «[...] una cosa es la historiografía militante y partidista, sea laudatoria o denigratoria del nacionalismo, y otra muy distinta es la historiografía sustentada en una investigación objetiva de las fuentes y una metodología científica a cargo de historiadores profesionales, en su mayoría profesores universitarios. En puridad, el nombre de historiografía se debería reservar en exclusiva para esta última, mientras que a aquella la denominamos literatura histórica», ikus J. L. de la Granja (1995): "Los estudios sobre el nacionalismo vasco: de la hagiografía a la historiografía", in *El nacionalismo vasco. Un siglo de historia*, Madril, 171-201, aipua 172. orrikoa da; egile berarena (1999): "La nueva historiografía vasca", in J. L. de la Granja, A. Reig Tapia eta R. Miralles (arg.), *Tuñón de Lara y la historiografía española*, Madril, 287-304.

egindako liburuen kutsua dute; hots, beren egileek aldez aurretik zituzten pentsamenduak eta ideiak frogatzeko idatzitako liburuak ziren. Ez dago esan beharrik, horrelako jardunbideak historiaren mitologizazioari ate guztiak zabaltzen dizkiola, eta, ondorioz, literatura historikoaren eta historiografiaren artean amildegi bat dagoela.

Baina ez dugu ahaztu behar, esparru politikoaren beste muturretik ere gauza bera egiten zela, eta, gainera, mundu nazionalistan baino lehenago. II. Errepublika baino lehen agertu ziren dagoeneko zenbait liburu euskal nazionalismoaren aurka jotzeko eta nazio espainiarraren alde egiteko. Hemen, Víctor Pradera, Juan Olazabal edo Gregorio Balparda bezalako idazleak —tradizionalistak edota liberal-monarkikoak— aipatu behar dira; edo, hobeto esanda, idazle bihurtutako politikariak aurkitzen ditugu[15]. Logikoa den bezala, Gerra Zibilaren ondorengo urteetan areagotu egin zen idazlan antinazionalisten kutsu eskuindarra edo eskuin-muturrekoa, euskal abertzaleek galtzaile aterako zen Errepublikaren aldeko apustua egin baitzuten. Horren adibiderik nabarmenena da 1941ean argitaratutako *Euzkadi. De Sabino Arana a José Antonio Aguirre. Notas para la historia del nacionalismo vasco* izeneko liburua. Egilea Ramón Sierra Bustamante izan zen, lanbidez kazetari monarkikoa zena. Erregimenaren garai faxista eta autarkikoan argitaratutako liburu hori eskuin-muturreko jarrera antinazionalista agresiboan oinarriturik dago, gerraren irabazleek berezkoa zuten jarreran, hain zuzen. Panfleto horrekin alderatuta, ezusteko ia atsegina da Maximiliano García Venero-k lau urte geroago plazaratu zuen liburua. Kazetari falangista horrek bere *Historia del Nacionalismo Vasco* egin zuenean, liburu hori euskal nazionalismoari buruz egindako lehen historia orokorra izan zen, eta Sierra Bustamante-renak baino informazio gehiago zekarren, horretarako idazkera lasaiagoa erabiliz. Akatsak akats, García Venero-ren liburua hurrengo urteetan informazio-iturri garrantzitsua izan zen, baita euskal nazionalistentzat ere, eta, oro har, frankismoaren aurkako edozein interesaturentzat. 1968an, García Venero-k liburuaren berrargitalpenarako hasierako testua zuzendu eta zabaldu zuen, eta horrela, hobekuntza nabarmena lortu zuen liburuak. Halere, ez zuen zuzendu ez gabezia historiografikoa, ezta inplikazio politikoa ere. Hori dela eta, García Venero itsutu egin zen bere ikuspegi politikoaren edukiarekin bat ez zetozen fenomeno guztien aurrean. Horrela, liburu hori bakarrik irakurtzen badugu, ez dugu jakingo ezer frankistek Gerra Zibilean egin zuten zapalkuntzari buruz, ezta Gernikako bonbardaketari buruz ere. Hala eta guztiz ere, orduan alternatibarik ez zegoenez gero, 70eko hamarkadan zehar gauzak aldatzen hasi bitartean, liburu hori ezinbesteko kontsulta-liburu bihurtu zen, euskal nazionalismoaz zerbait jakin nahi zuen edonorentzat[16].

15. V. Pradera (1917): *Regionalismo y nacionalismo*, Madril; J. Olazábal (1919): *Errores nacionalistas y afirmación vasca*, Donostia; G. Balparda (1918): *Errores del nacionalismo vasco*, Madril.

16. «Con todos sus defectos, las obras de García Venero marcan un punto de partida. En cierto sentido, el hecho de situarse fuera y contra su objeto de estudio le permite —o le obliga a— abandonar la perspectiva anterior del *self-representative discourse* para escribir unas historias, malas y

Euskal nazionalismoari buruzko historiografia profesionalaren gorakada frankismoaren desagertzearekin batera etorri zen. Gorakada horren lehen protagonistak Euskal Herritik kanpo ikasitako historialariak izan ziren, hemengo Letretako Fakultateak —ikusi dugun bezala— oraindik beren hastapenetan baitzeuden. Testuinguru horretan Stanley G. Payne historialari ipar-amerikarraren liburua aipatu behar da, *El nacionalismo vasco. De sus orígenes a la ETA* izenekoa hain zuzen[17]. García Venero-renarekin konparatuta —iturri berriak lantzeaz gain— Payne-ren idazkera hotzagoa, grina antinazionalista gutxiagokoa eta zientifikoki zorrotzagoa da. Dena den, hemen ere zenbait akats larri aurki daitezke, liburuaren ekarpena mugatzen dutenak.

Payne-ren liburuarekin batera agertu ziren Antonio Elorza-k euskal nazionalismoari buruz egindako lehen lanak. 1978an, egile horrek zenbait artikulu liburu batean bildu zituen. Elorza-ren *Ideologías del nacionalismo vasco, 1876-1937* delakoa ondorengo urte askotarako oinarrizko erreferentzia-liburu bihurtu zen. Bestalde, 70eko hamarkadaren azken urte horietan Jemeinen argitalpena nabarmenki gaindituko zuten Sabino Aranari buruzko bi biografia berri plazaratu ziren, Solozábal-ena lehena (1975) eta Larronde-rena ondoren (1977). Baina garai horretako benetako mugarria Javier Corcuera-ren liburua izan zen. Corcuera-k 1979an bere *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo (1876-1904)* delakoa kaleratu zuenean, arrazoi desberdinengatik epe berri bati eman zion hasiera. Alde batetik, esparru teorikoa eta ikerketa enpirikoa batzeko ahalegin handia egin zuen, historia politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala baztertu gabe. Bestetik, argitaratu gabeko iturri ugari (batez ere Luis Arana Goiriren artxibokoak) landu zituen. Eta hirugarrenik, Corcuera-ren liburua agertu ondoren, Euskal Herriko unibertsitateetan ikasitako historialariek protagonismo handiagoa bereganatu zuten nazionalismoaren inguruko ikerketetan. Ordutik aurrera, nazionalismoari buruzko argitalpenak ugaritu egin ziren, bai historialarien, nahiz beste gizarte zientzialarien aldetik (J. L. de la Granja, F. de Meer, S. de Pablo, J. Chueca, M. Ugalde, M. Aizpuru, G. Jauregi, A. Gurruchaga eta ni neu). Jakina, hemen ezin ditugu liburu eta artikulu horiek guztiak banan-banan aurkeztu eta aztertu. Gainbegirada orokor batekin konformatu beharko dugu, eta bertan, gure gaiari dagokionez, gaur egungo egoera historiografikoaren argitasunak eta itzalak non dauden adierazten saiatuko gara.

4. EKARPENAK ETA HUTSUNEAK

- **Nazionalismoa eta modernitatea**

Orain arte esandakoa kontuan hartzen badugu, irakurlea konturatuko zen dagoeneko, nazionalismoaren historian ondoen ezagutzen den eta oraindik interesa

hostiles, pero historias al fin», ikus Beramendi (1992, *op. cit*., 138). 1944an, García Venero-k Kataluniako nazionalismoari buruzko liburu bat ere argitaratu zuen.

17. Bartzelona, 1974.

sortzen duen garaia —baita hemendik kanpora ere— Sabino Aranaren bizitza eta nazionalismoaren hasiera dela (Barreca, 2000). Gainera, Larronde, Solozábal eta batez ere Corcuera-k egindako ikerketek frogatzen dute, Gellner, Smith edo Hroch bezalako teorialariek beste kasuetan baieztatu dutena: nazionalismoaren eta modernizazioaren arteko lotura estua. Gaur egun badakigu, euskal nazionalismoaren diskurtsoa errazago eta azkarrago zabaldu zela modernizazio sozioekonomikoak jota bizi ziren inguruneetan; hau da, ohiko gizarte-egiturak goitik behera aldatzen ari ziren lekuetan (Bizkaian, eta gutxiago Gipuzkoan). Pizgarri modernizatzaile horiek egon ezean, ordea, abertzaletasuna bezalako ideologia berritzaileentzat gizartean eta sistema politikoan errotzeko aukera gutxi izaten zen. Kontsentsu handi samarra dago gai honen inguruan, eta, nik dakidanez, bestelako iritzi bat plazaratu duen bakarra Jon Juaristi izan da[18]. Nazionalismoaren eta modernizazioaren arteko loturak ez du esan nahi, ideologia nazionalista bera ere "modernoa" eta berritzailea zenik. Izan ere, euskal abertzaletasunaren historian zehar funtsezko ezaugarririk bilatu nahiko bagenu, hori modernitatearen eta tradizionalismoaren arteko dialektika izango litzateke. Nazionalismoak, sozialismoarekin batera, bidea urratu zion gizabanakoaren parte-hartzeari, gaur egun ezagutzen dugun politika berriari ateak zabalduz. Ongi eta demokratikoki antolatutako alderdi bat osatu zuen, eta, mobilizatzeko errepertorio berriak erabiliz, gizabanakoa sistema politikoan sartzen hasi zen. Politika sozializatuz, eragile modernizatzaile eta demokratizatzailea izan da euskal abertzaletasuna. Halere, XIX. mendeko idazle foruzaleen lanen irakurketa berezia eginez[19], beren ideologiak urte askotan zehar guztiz tradizionala, integrista, antiliberala eta —neurri batean— arrazista izaten jarraitzen zuen. Dena den, funtzio berritzaile eta diskurtso tradizionalistaren arteko tentsioan datza euskal nazionalismoaren gako historikoa (Castells, 1997).

- **Klase sozialak**

Dialektika honen oinarria interklasismoa da. Izan ere, euskal abertzaletasuna modernizazioak eragindako klase ezberdinen arteko nahasketa da, eta nahasketa horren ondorioak, mugimendu abertzalearen politikan ere islatzen dira: bertan, aipatutako ideologia tradizionalista eta klerikala praktika bigun eta posibilistarekin ezkontzen da. Corcuera-k erakutsi duen bezala, Sabino Aranaren lehen jarraitzaileak Bilboko burgesia txikiaren eremuetatik etorri ziren, baina laster —Sabino oraindik bizirik zegoela— industria-burgesiaren partaide batzuk ere beren atxikimendua adierazi zioten Euzko Alderdi Jeltzaleari. Ondoren —arrazoi desberdinak zirela medio— gizartearen beste arlo guztietako ordezkariak barruratu zituen euskal abertzaletasunak; horien artean nekazariak, arrantzaleak eta baita in-

18. «Porque el nacionalismo vasco no fue en su origen (o lo fue solamente en sus aspectos más superficiales) una reacción a la industrialización del país y a la consiguiente crisis de la sociedad tradicional, como se ha dicho repetidamente, sino una consecuencia directa de la disolución del imperio», ikus J. Juaristi (1997: 33).

19. J. Juaristi (1987) eta (1992); J. M. Sánchez Prieto (1993); J. Fernández Sebastián (1991).

dustria-langileak ere. Azken horiek 1911n *Euzko Langileen Alkartasuna* sindikatu nazionalista sortu zuten[20]. Kanpoan gelditu ziren bakarrak langile ez-euskaldunak eta goi-mailako industria-oligarkak izan ziren —Sota y Llano-ren kasua kenduta—. Halere, nahiz eta lehen nazionalismoaren oinarri sozialei dagokienez aurrerapauso asko eman diren, gai horretan —nire uste apalean bederen— oraindik zehazgabetasun garrantzitsuak gelditzen dira, eta hori neurri handi batean kontzeptu teoriko marxisten aplikazio mekanikoaren ondorioa besterik ez da. Testuinguru honetan, Gramsci-ren idazlanetan oinarrituz Tuñón de Lara-k Espainian ezagutarazitako "burgesia ez-monopolistaren" kontzeptua aipatu behar dugu. González Portilla-k prozesu kapitalistari egindako azterketatik abiatuz[21], eta Ramón de la Sota y Llano ontzigile nazionalista handiaren adibidean pertsonifikatuz ("los sotistas"), Corcuera-k euskal nazionalismoa "beste burgesiaren" —alegia, burgesia ez-monopolistaren— tresna politikotzat jo zuen. Tresna horretaz baliatuz, burgesia horrek aldi berean helburu desberdinak lortzen zituen: Madrilgo gobernuaren aurrean politika librekanbista baten aldeko presioa egitea, Bizkaiko oligarkia monarkikoaren botere politikoa murriztea, eta langileria sozialista menperatzea. Ikusmolde hori ez zait oso egokia iruditzen, alde batetik, terminologia bera oso anbiguoa delako; bigarrenik, ideologia politikoak garatzeko garrantzitsuak izaten diren beste eragile ez-materialistak aintzakotzat hartzen ez dituelako; eta, hirugarrenik, Ramón de la Sota y Llano enpresari handia salbuespen deigarria zelako, euskal nazionalismoaren mugimenduaren barruan adibide bat izan beharrean. Oso berandu jota, Lehen Mundu Gerrako urteetan bereganatu zuen Sotak Bizkaiko gainerako industria-oligarkek zuten botere eta ospe berbera, eta, halere, 1936an hil arte nazionalista izaten jarraitu zuen[22]. Beraz, lehen nazionalismoaren oinarri sozialen nondik norakoak birplanteatu beharko genituzke, lan horretan orain arte gutxiegi balioetsi ditugun faktoreak kontuan hartuz, hala nola tradizio kulturalak, konfesionalak, hezkuntzari loturikoak, eta, baita ere, tokian tokiko beste elementu ez-estrukturalak (tradizio politiko familiarrak, edo jauntxoen eta "indar bizien" eragina). Zentzu horretan, Bermeoko abertzaletasunari buruzko bere ikerketan Ander Delgado-k tokian tokiko aldagaiak aztertu ditu arrantzaleen nazionalismoaren zergatiak ulertu ahal izateko. Delgado-ren tesiaren arabera, arrantzaleak EAJrengana bultzatzeko, jeltzaleen antolamendu eraginkorra eta erakargarria garrantzitsuagoa izan zen, arrantzaren krisia baino[23]. Horretarako behar-beharrezkoa dugu Bilbo eta "Bilbo Handiaren" historia sozial eta ekonomiko on bat izatea, Bilbo izan zelako lehen abertzaletasunaren erdigunea. García Merino-ren ikerketak hazkunde urbanistikoari

20. L. Mees (1992), bereziki 139-184. or.; L. Mees (1998); M. L. Garde (2001); B. Urkiza (1995).

21. M. González Portilla (1981): *La formación de la sociedad capitalista en el País Vasco*, Donostia [2 liburuki].

22. Sotaren inperio ekonomikoaren garapena ondoko liburuan jarrai daiteke: E. Torres Villanueva (1998).

23. A. Delgado (1998): *Bermeo en el siglo XX: política y conflicto en un municipio pesquero vizcaíno (1912-1955)*, Bermeo.

buruzko argibide ugari ematen dituen arren, bere liburua ez da —eta, gainera, ez du izan nahi— Bizkaiko hiriburuaren historia sozial bat[24].

• **Sabinoren oinordekoak: Borbondarren Berrezarkuntza-garaia**

Zer esanik ez dago, aipaturiko hutsune historiografikoak nabarmenki baldintzatzen duela Sabinoren heriotzaren (1903) ondorengo garairi buruzko ezagupena. Hemen, besteak beste, nik neuk egindako ikerketei buruz mintzatu beharko nuke, XX. mendearen aurreneko hogei urteek nire ikerkuntzen zutabe garrantzitsua osotu dute eta. Hori oso gustukoa ez dudanez gero, labur eta aseptiko izaten saiatuko naiz. Hona hemen, modu telegrafiko batez, garai horretako abertzaletasunaz historiografiak azaleratu dituen zenbait gai:

– ***Interklasismoa***

EAJren hastapenetan aurreneko urratsak norabide honetan eman baldin baziren ere, Sabino Arana hil eta gero gauzatu eta sendotu zen euskal abertzaletasunaren interklasismoa. Ikusten denez, Euskal Herriko kasuan berriz ere baieztatzen da nazionalismoari buruzko beste ikerkuntzek aurkitu dutena; alegia, ideologia nazionalistak gizartearen edozein alorretan sartzeko izan ohi duen gaitasuna. Esan bezala, interes sozial desberdinen arteko nahasketa eta lehiaren ondorioetariko bat inmobilismo ideologikoaren eta pragmatismo eta malgutasunaren arteko oreka izan da. Oreka zail eta ahul hori 1921ean apurtutako alderdiaren batasunaren ardatz nagusia izan da. Eguneroko pragmatismoa dela eta (ideologia tradizionalismoari lotuta egon arren), Sabino Aranaren ondorengoek konstituzionalista eta erreformazale bihurtu zuten alderdia, *de facto*; Berrezarkuntza-garaiko sistema politikoan erabat sartuta zegoena, hain zuzen. Antxustegik Koldo Eleizalderi buruz egindako lanari esker, orain hobeto ezagutzen dugu pragmatismo horren ideologo garrantzitsuenetako bat. Gainera, nahi duenak, Eleizalderen lanik mamitsuena irakurtzera jo dezake, 1914ko *Países y razas* delakoa orain dela gutxi berrargitaratua izan da eta[25]. Eskertzekoa litzateke eragin politiko handiagoa zuen Engracio Aranzadi ("Kizkitza") ideologo eta kazetari jeltzale moderatuaren biografia egingo balitz. Pragmatismoa eta moderazioa nagusi izan arren, Monarkiaren ohiko botere-eliteek ez zuten onartzen *status quo*aren inolako aldatze minimorik, eta jeltzaletasunaren aurkako politika baztertzaileari eusten zioten (horra hor, lehenengo kanpaina autonomistaren porrota, 1917 eta 1919. urteen bitartean). Hori zela eta, elite horiek lagundu egin zuten, gero "euskal arazoa" modura ezagutuko zen fenomenoa sortzen eta areagotzen.

24. L. V. García Merino (1987): *La formación de una ciudad industrial. El despegue urbano de Bilbao*, Bilbo; M. González Portilla (2001): *Los orígenes de una metrópoli industrial: la ría de Bilbao*, 2 libk., Bilbo.

25. L. Eleizalde (1999): *Países y razas*, Bilbo [lehen argitalpena: Bilbo, 1914]; E. Antxustegi (1998).

– ***Komunitate nazionalista***

Berrezarkuntza-garaiko ikerketek azaleratu duten beste puntu garrantzitsu bat, euskal nazionalismoak politika egiteko erabiltzen zuen era berria da. Izan ere, beste mugimendu nazionalista askotan gertatu ohi den bezala, Sabino eta bere oinordekoak beren alderdia gainerako alderdi politikoetatik bereizten saiatu ziren. Horrela, komunitate modura garatu zuten EAJ eta inguruko mugimendua; politikaren ohiko esparrua gainditzen eta jarraitzaileen bizimodua bere osotasunean eragiten zuen komunitatea, hain zuzen[26]. Politika, kultura eta soziabilitatearen alorretako ekimenak eta eskaintzak nahastuz, EAJ alderdi politiko arrunt bat baino gehiago izatera iritsi zen, komunitate nazionalistak identitate berri bat osatzeko eta sendotzeko aukerak ematen zituelako; eta hori —zer esanik ez dago— oso eskaintza erakargarria izan zen bere egiturak eta ohiko identitateak goitik behera aldatzen ari zen gizarte batean. Are gehiago, jauntxoak eta beraien alderdien politika tradizionala guztiz mespretxaturik zeuden garaian. Sare identitario nazionalista zabal horretan, emakume nazionalistek ere leku berezia zuten, *Emakume Abertzale Batza*ri (EAB) buruz egindako ikerketan Merche Ugaldek erakutsi duen legez. Politikaren arloan gizasemeen nagusitasuna EABko emakumeek zalantzan jartzen ez bazuten ere, epe luzean, emakumeak politikoki sozializatzeko ekarpen handia egin zuen EAB erakundeak (Ugalde, 1993).

• **Primo de Rivera-ren Diktadura**

Orain dela gutxi arte, 1923ko irailean zabaldutako zazpi urteko epealdi horri buruz izan dugun ezagupena hutsaren hurrengoa izan da, nazionalismoaren historiari dagokionez. Pare bat artikulutxo kenduta, inor ez da ausartu euskal abertzaletasunak diktaduraren menpean izandako bilakaera aztertzera. 1999. urtean argitaratutako *El Péndulo Patriótico* izeneko liburuaren atal batek argitasun gehiago eman dio gai horri (Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz, 1999). Garaiko dokumentu ezezagun ugari miatu eta ebaluatu ondoren idatzitako liburu horri esker, EAJren jarduera hobeto ezagutzen dugu orain. Urte zail horietan zehar, nazionalisten helburu nagusia beren alderdiaren egiturei nola edo hala eustea izan zen. Zatiketaren ondorioz, aurkako jarrera argia eta garbia plazaratzen saiatu zen diktaduraren aurrean 1921ean birsortutako EAJ, eta, hori dela eta, errepresioaren jomuga bihurtu zen. *Comunión Nacionalista Vasca* delakoaren buruzagiek, ordea, egoera berrira egokitzeko ahaleginak egin zituzten, beren agerpen publikoei ukitu politiko zuzen guztiak kenduz —batzuetan Diktaduraren agintariek behartuta, beste zenbaitzuetan, berriz, jeltzaleen autozentsuraren ondorioz—. Horri esker, alderdiaren oinarrizko egiturak gordetzea lortu zuten, baita *Euzkadi* izeneko egunkaria ere. Politikarik ezean, kulturaren alorrean egindako lanak nazio-kontzientziazioaren prozesua bultzatu zuen, eta prozesu honen fruituak zenbait urte geroago gelditu ziren agerian, Errepublika-garaian nazionalismoaren gorakada eman zenean, hain zuzen ere.

26. J. L. de la Granja: "Un modelo de partido-comunidad en el siglo XX: el Partido Nacionalista Vasco", in Granja (1995: 145-169).

- **Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila**

Sabino Aranaren garaiarekin batera, II. Errepublikakoa da nazionalismoa gehien ikertu den epealdi historikoa, zalantzarik gabe. J. L. De la Granja, S. de Pablo, J. A. Rodríguez Ranz edo J. M. Tápiz historialariak dira, besteak beste, urte horietako nazionalismoaren nondik norakoak aztertu dituzten historialariak. Dena den —eta, harrigarria baldin bada ere, *Annales* eskolak gure artean izan ohi duen eragina kontuan harturik—, aipatutako historialari gehienek abertzaletasunaren historia politikoa landu dute, batez ere. Beraz, hemendik aurrera ikerketa horiek kultura, ekonomia eta gizartearen alorretatik osatu beharko genituzke. Hain zuzen, epealdi honi buruzko ekarpen historiografikoei dagokienez, ondoko bi puntu hauek azpimarratuko genituzke batik bat. Alde batetik, José Luis de la Granja-ren argitalpenek erakutsi duten legez, Errepublikako urteetan zehar berriro ere baieztatu zen lehen Berrezarkuntza-garaian jadanik begi-bistan gelditu zen fenomenoa: hots, Euskal Herrikoa bezalako gizarte polarizatu batean proiektu politiko zubigileek zailtasun handiak zituztela garatu eta hedatzeko[27]. Horra hor, *Acción Nacionalista Vasca* delako alderdi nazionalista eta errepublikazalearen ezintasuna, minorien eremu mugatuetatik ateratzeko. Bestetik, eta lehen aipatu dudanaren ildotik jarraiki, aurreko diktaduran ereindako fruituak jaso zituen Euzko Alderdi Jeltzaleak II. Errepublikan, inoiz baino bozka gehiago eta eragin handiagoa lortuz. Gorakada horren arrazoietako bat, alderdiaren eta bere inguruko elkarte eta ekimenen antolamendu sendoa izan zen, José Mari Tápiz-ek (2001) erakutsi duen legez. Eragin hori operazionalizatzeko, Errepublikaren bigarren erdian eskuin-muturreko bere aliatuak abandonatu zituen EAJk, eta zentro politikoranzko bira burutu zuen. Agirre edo Irujo bezalako liderrek bultzaturik, bira horri esker, bere historiako saririk handiena eskuratu zuen EAJak, gerra piztu eta gero: Euskadiko lehen Autonomia-Estatutua.

- **Frankismoa eta Trantsizioa**

Gai honi buruz, esango nuke, berriro ere, hutsuneak ekarpenak baino handiagoak direla. Oso xelebrea iruditzen zait, esate baterako, ondoko baieztapena: Garmendia, Jáuregui, Clark, Waldmann, Sullivan eta beste zenbait historialarik eta giza zientzialarik egindako ikerketei esker, gaur egun askoz hobeto ezagutzen dugu ETAren historia, EAJren inguruko nazionalismo tradizionalarena baino; eta Comisiones Obreras edo LAB sindikatua (Majuelo, 2000) hobeto ezagutzen ditugu ELA sindikatu nazionalista baino; eta hori guztia, nahiz eta nazionalismo tradizionalak nagusitasuna eduki, frankismoa baino lehen zein Trantsizioaz geroztik. Trantsizioari dagokionez, Letamendiaren lan entziklopedikoak datu asko ematen baditu ere, lan horrek ez ditu inolaz ere ikerketa historiografiko sendoari eskatu behar zaizkion baldintzak betetzen. Izan ere, ETA aurreko historiari eskainitako atala guztiz zaharkiturik eta akatsez josita baitago, eta lanaren zama militanteak eta egitura nahasiak emaitza baldintzatzen dute (Letamendia, 1994). Prestatu dugun *El*

27. Ikus, batez ere, Granja-ren tesian oinarritutako liburua (1986).

Péndulo Patriótico liburuaren bigarren liburukiak —1936 eta 1979. urteen bitarteko epealdia jorratzen duen liburukiak, hain zuzen— horren gutxi ezagutzen dugun EAJren historiaren garai horri buruzko argitasuna ekartzea espero dugu. Argitaratu gabeko milaka iturri berritan oinarritutako gure ikerketa horrek epealdi eta gai desberdinak aztertzen ditu, argibide berri ugari emanez, eta orain arteko zenbait hipotesi zuzenduz. Berriki atera den liburu horretan EAJren historiari bere hastapenetatik itsatsita dagoen *penduluaren* mugimendua nola gauzatzen den ikusteko aukera du irakurleak, baita Gerra Zibilaren ondorengo hamarkadetan ere (Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz, 2001). Bestalde, nahi duenak Juan Carlos Jiménez de Aberásturi-ren liburu sakona bezain zabala eskura dezake, Gerra Zibilaren eta Bigarren Mundu Gerraren bukaeraren arteko euskal politika ezagutu nahi izanez gero, bertako ardatz nagusia EAJ eta hark zuzendutako —*satelizatutakoa*, Aberasturiren hitzetan— Euskal Jaurlaritza delarik (Jiménez de Aberásturi, 1999).

5. ETORKIZUNARI BEGIRA

Ikusten denez, sarreran aipatutako aurrerapen historiografikoa ez da nolanahikoa izan. Gainditu egin dira hasierako *literatura historikoak* jarritako mugak eta defizitak. Halere, etorkizunari begira, bete beharreko hutsune eta erronka metodologiko franko gelditzen dira. Horietako batzuk dagoeneko aipatuak izan dira; orain, eta bukatzeko, beste hauek gaineratuko nituzke:

- **Nazionalismoaren hauteskunde-soziologia**
  Hauteskundeetako bilakaera arrakastatsua aztertu beharra dago, bai Berrezarkuntza-garaikoa, bai Errepublikakoa. Horretarako, ezinbesteko aurreraldintza izango da hauteskunde-barrutiak definitzea, horietako bakoitzaren ezaugarri sozial, ekonomiko eta politikoak bereiziz. Aldagai horiek hauteskundeen emaitzekin gurutzatzeko, informatika dugu tresnarik baliogarriena. Hori guztia egingo balitz ere, ez dugu inoiz ahaztu behar, horrela lortutako emaitza historiografikoaren esanahia erlatiboa baino ez dela, Berrezarkuntza-garaiko hauteskundeek —eta dezente gutxiago Errepublikakoek ere— hiritarren borondate politikoa baino gehiago inguruko jauntxoena islatzen zutelako.

- **Nazionalismoaren inguruko elkarteak**
  Merche Ugaldek urratutako bidetik jarraituz, EAJko erakunde eta elkarte sateliteei buruzko ikerketa gehiago behar ditugu. Bukaerako bibliografia-zerrendak frogatzen duen bezala, oso lan gutxi dira elkarte horien historiaz argitaratutakoak (*Eusko Gaztedi*; *Mendigoizaleak*; Errepublika-garaiko nekazari-sindikatu nazionalistak; ELA sindikatua, 1923az geroztik).

- **Lurraldeka egindako ikerketak**
  Euskal Herriko lurraldeen izaera eta egiturak oso desberdinak izanik, ez da harritzekoa bertako mugimendu abertzalearen historia ere halakoxea izatea.

Mikel Aizpururen tesiak (Gipuzkoa) eta Josu Chueca-renak (II Errepublika Nafarroan) hainbat aurrerapen ekarri dizkigute, Santiago de Pablo-k Arabari buruz egindako lanak bezalaxe. Nazionalismoak Ipar Euskal Herrian izandako garapena nahiko ezezaguna izan arren, Jacobs-en liburua kalitate handikoa da, eta gaiaren lerro nagusiak —gainetik bada ere— ezagutzeko aukera eman digu[28].

- **Nazionalismoaren historia kulturala**
  Azken urteotan, nazioarteko historiografia sozialak nolabaiteko "bira kulturalista" eman du, lehengo gehiegizko estrukturalismo ekonomizista zuzendu nahian. Gure artean, nazionalismoari buruzko ikerketei dagokienez, bira horrek oraindik jarraitzaile gutxi ditu. Ikuspegi berri horrek planteatzen dituen galderak eta gaiak ugariak dira: aisialdia, eguneroko bizitza, jaiak, sinboloak eta mitoak, erlijio-tradizioak edota egitura familiarrak, eta horien guztien funtzioa mezu nazionalista hedatzeko eta erreproduzitzeko. Bira kulturalista hori gure artean garatzea ez da erraza izango, hemen askoz ere gehiago irakurri baitugu Marx eta Lenin, Max Weber edo Emile Durkheim baino; eta, horregatik, historia ekonomikoari eta politikoari arreta handiagoa eskaini ohi diogu, kulturak markatzen dituen baldintzei baino. Bestalde, ez dugu ahaztu behar, beste alorretako historiak garatu eta gero sortu dela Europako eta Estatu Batuetako historia kulturala. Beraz, euskal nazionalismoaren historia politikoan hutsune handiak dauden bitartean, ulergarria eta beharrezkoa da historialariok hutsune horiek betetzen saiatzea, bestelako ikerketei heldu aurretik.

- **Euskal nazionalismoaren eta espainiar nazionalismoaren arteko harremanak**
  Benetan harrigarria iruditzen zait ikustea ezen, nazionalismo espainiarraren inguruko debatea eta polemika pil-pilean egon arren, historialari gutxi ausartu direla fenomeno hori ikertzera. Izan ere, Euskal Herriko historia, neurri batean, bi nazionalismoren arteko lehia izan da (eta bada). Beraz, euskal nazionalismoaren izaera ulertu ahal izateko, beharrezkoa iruditzen zait bere lehiakidearen bilakaera ere aztertzea; bai euskal gizartearen barruan, eta bai Madrilgo alderdi politikoek euskal nazionalismoarekiko (eta, oro har, "euskal gatazkarekiko") izandako jokabideari dagokionez ere. Maila teorikoan, Borja de Riquer-ek zenbait hipotesi interesgarri planteatu ditu, eta ideia horiek euskal abertzaletasunaren sorrerarekin lotzen saiatu gara gu. Coro Rubio-k antzeko gaia eztabaidatu du nazionalismoaren aurrekari foruzaleen inguruan[29]. Debate hori abiapuntutzat hartuz, eta Alemaniako historia garaikideak modernitaterako hartu omen zuen "bide bereziari" bu-

28. J. E. Jacob (1994); S. de Pablo (1988, 1989 eta 1991); J. Chueca (1999); M. Aizpuru (2000).

29. C. Rubio (1996) eta nik neuk idatzitako "Estado y nación en España y Francia", in S. De Pablo, L. Mees eta Rodríguez Ranz, (1999: 5-20) [Bertan bibliografia gehiago dago].

ruzko polemikarekin lotuz, Espainiako historia garaikidea ere "bide berezi" modura aztertu dut. Izan ere, XIX. mendeko Europan nazio-estatuek bilakaera arrakastatsua ezagutzen zuten bitartean, eta inperialismoak mundua estatu horien artean banatzen zuen unean, Espainian kontrakoa gertatu zen: inoiz nazioarte-mailan estaturik indartsuena izan zena, krisi, ahulezia, legitimitaterik eza eta barneko zatiketak markatutako krisi latzean zegoen. Krisi horren ondoriotako bat nazionalismo periferikoen sorrera izan zen (Mees, 2000a). Halere, aipatutako ekarpen horiek guztiak beharrezkotzat jotzen dudan azterketa zabalago baten hastapenak baino ez dira.

- **Nazionalismo periferikoen arteko ikerketa konparatiboak**
  Berrezarkuntza-garaiaren bukaeran sortutako *Triple Alianza* zelakoa, II. Errepublikan *Galeuzca* izeneko paktua bihurtu zen. Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko nazionalistek burutu zuten hitzarmen hori, beren indarrak biderkatzeko eta nazio periferikoen interesak Madrilgo gobernuaren aurrean hobeto defenditzeko. Hirukotearen barruko desberdintasunak zirela medio, hitzarmen hori beti makal eta ahula gelditu zen, operatibitate politiko eskasa baitzuen. Nolanahi den, erbestean nolabaiteko jarraipena izan zuen paktu honen garapenak zenbait historialariren arreta bereganatu du[30]. Hori horrela izanda ere, hurrengo urratsa emateke dago, oso lan gutxi baitaude hiru mugimendu nazionalisten arteko (edo horietako biren arteko) konparaketa egiten dutenak[31]. Ezbairik gabe, metodologia konparatzaileak —historiaren beste arloetan bezalaxe— asko lagunduko liguke, bai nazionalismoaren fenomenologia orokorra hobeto ezagutzen, bai mugimendu bakoitzaren ezaugarri bereziak argitzen ere. Alex Ugaldek (1996) egin du pauso bat norabide honetan, euskal nazionalismoak zeuzkan kanpo-harremanak —baita beste nazionalismoekikoak ere— aztertzen.

- **"Sintesirako beldurra"** (C. Forcadell)
  Historiografia espainiarrari buruzko argitalpenetan, sarritan aipatzen da ikerketen zatiketa eta dispertsioa, alde batetik, eta ekarpen puntual horiek guztiak elkarrekin lotzeko eta sintesi batean biltzeko omen dagoen zailtasuna, bestetik. Artikulu honen abiapuntu diren hitzaldiak eman nituenean, Katalunian ere baieztatu den tesi hori[32] aplikatu nuen euskal nazionalis-

30. X. Estévez (1991); J. L. de la Granja (1989) eta (2000): "Las alianzas políticas entre los nacionalismos periféricos en la España del siglo XX", *Studia Histórica. Historia Contemporánea*.

31. D. Conversi (1997); L. Mees (2000a); X. M. Núñez (1999).

32. «Hay una clara huida hacia la superespecialización, en buena parte como respuesta a la confusión global existente: el resultado es la excesiva fragmentación de los campos de análisis, la tendencia a la atomización de las investigaciones y a la dispersión en esfuerzos múltiples pero dispares. Parece que no se logran hacer síntesis realmente nuevas que incorporen todo el enorme volumen de nuevos conocimientos acumulados», ikus. B. de Riquer (1992): "Apogeo y estancamiento de la historiografía contemporánea catalana", *Historia Contemporánea*, **7**, 117-134;

moaren kasuan. Beldur hori gainditu beharra zela esan nuenean, neure buruari ere horixe eskatzen ari nintzaion. Eskaera honen ondorioa, EAJren historiari buruz argitaratu den lehen sintesi zabal eta zientifikoa da. Goian jadanik aipatutako *El Péndulo Patrióticoren* lehen liburukia 1999ko azaroan aurkeztu genuen, eta bigarrena kalean dago iaztik (2001). Liburu horien egilea naizenez, ez dagokit niri lan hori baloratzea. Interesaturiko irakurleak prentsan eta aldizkari espezializatuetan agertutako hainbat aipamenetara jo dezake, kritikek zer dioten jakiteko (berak liburua(k) irakurri eta gero, jakina). Halere, egileok bigarren liburukiaren hitzaurrean azpimarratzen dugun bezala, gure asmoa izan da EAJren historia politikoa egitea; beraz, etorkizunean, guk aurkezten ditugun ondorioak eztabaidatzeaz gain, historiografiak nazionalismoaren historiaren beste arloetako sintesiak landu beharko lituzke, inoiz guztiz lortuko ez dugun "erabateko historia" edo "historia totala" begi bistatik ez galtzearren.

- **"Gure egunetako historia"**
  Etorkizunean ere, iruditzen zait, historialariok gehiago landu beharko genukeen arloa "gure egunetakoa" deiturikoa dela. Orain arte soziologoei eta politologoei utzi diegu ardura hori. Dena den, guztiz onuragarria deritzot ikerketa hauetan ere dimentsio historikoa sartzeari, eta, horrela, ikerketen ikuspegia zabaldu eta sakontzeari. Hemen ere saiatu naiz proposamen hori aintzakotzat hartzen, eta nire partetik ekarpen berri apala egiten. Horretarako lehenengo pausoa eman dut hemengo nazionalismoa, biolentzia eta bake-prozesuari buruzko idazlan bat aurkeztuz (Mees, 2000b). Zernahi gisaz, lan horren adibideak argi eta garbi erakusten ditu historialari batentzat gure egunetako historia lantzeak dakartzan arriskuak. Izan ere, ETAren su-etena bukatu baino lehen eta hilketarik gabeko urte luze horretan eginda daude ikerketa eta idazlana. Su-etena apurtu ondoren, berriz, lehenago ezagutzen ez genituen argibide berriak agertu ziren, lanaren zenbait hipotesi zalantzan jartzen dituztenak hain zuzen. Beraz, gure egunotako historiak gaurkotasun handiagoa ekartzen badu ere, mugatu egiten du historialariok geure aztergaiekiko behar izaten dugun aldea edo distantzia. Arrisku horretaz kontziente izatea eta gure hipotesien behin-behinekotasuna azpimarratzea dira arrisku horren aurkako botika bakarrak.

Euskal nazionalismoaren historiografiaz egindako gainbegirada honen bukaeran ikusten den bezala, historialariok azken hamarkadetan erantzun asko aurkitzen saiatu baldin bagara ere, erantzun horiek beste galdera anitz sortu dituzte. Beraz, ez dago lanik gabe gelditzeko arriskurik; bai, ordea, politikaren zurrunbiloetan itotzekoa.

---

aipua 128. orrikoa da. Zenbait urte geroago, de Riquer-ek ez du aldaketa nabarmenik ikusten Kataluniako historiografian («la investigación super-especializada»; «necesidad de difundir síntesis globalizadoras»), ikus (1999): "Panorama actual de la historiografía catalana", in J. L. de la Granja, A. Reig Tapia, R. Miralles (arg) *op. cit.* 279-285.

EUSKAL ABERTZALETASUNARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA AUKERATUA[33]

Aizpuru, M. (1990): *Eta tiro baltzari. Abertzaletasuna eta jauntxokeria Bermeon 1899-1914*, Bilbo.

————, (2000): *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): Orígenes, organización y actuación política*, EHU, Bilbo.

Antxustegi, E. (1998): *Luis de Eleizalde, un vasco polifacético*, Bilbo.

Apalategi, J. (1979): *Los vascos. De la nación al estado. PNV, ETA, Enbata...*, Donostia.

————, (1985): *Los vascos. De la autonomía a la independencia*, Donostia.

Barreca, N. (2000): *Il pensiero politico di Sabino Arana. Il nazionalismo basco*, Sevilla.

Basaldua, P. de (1977): *El libertador vasco. Sabino de Arana Goiri. Biografía histórica*, Bilbo [lehen argitalpena: Buenos Aires 1953].

"Beltza" (1976): *Nacionalismo vasco y clases sociales*, Donostia.

————, (1976): *El nacionalismo vasco, 1876-1936*, Donostia

————, (1977): *El nacionalismo vasco en el exilio, 1937-1960*, Donostia.

————, (1978): *Del carlismo al nacionalismo burgués*, Donostia.

Beriain, J. (1997): "La construcción de la identidad política vasca", in R. Cruz eta M. Pérez Ledesma (arg.), *Cultura y movilización en la España contemporánea*, Madril, 137-168.

————, (1998): *La identidad colectiva: vascos y navarros*, Iruñea.

Camino, I. eta Guezala, L. (1991): *Juventud y nacionalismo vasco. Bilbao (1901-1937)*, Bilbo.

Castells, L. (1997): "El nacionalismo vasco (1890-1923): ¿una ideología modernizadora?", *Ayer*, **28**, 128-162.

Chueca, J. (1999): *El nacionalismo vasco en Navarra durante la II República (1931-1936)*, Bilbo.

Clark, R. P. (1980): *The Basques: the Franco Years and Beyond*, Reno.

————, (1984): *The Basque Insurgents. ETA, 1952-1980*, Wisconsin.

Conversi, D. (1997): *The Basques, the Catalans and Spain*, London.

Corcuera, J. (1979): *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, Madril.

Diez Medrano, L. (1999): *Naciones divididas: clase, política y nacionalismo en el País Vasco y Cataluña*, Madril.

Eleizalde, L. (1999): *Países y razas*, Bilbo [lehen argitalpena: Bilbo 1914].

Elorza, A. (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco, 1876-1937. De los euskaros a Jagi Jagi*, Donostia.

————, eta beste (2000): *La historia de ETA*, Madril.

33. Euzko Alderdi Jeltzaleari buruzko bibliografia osoa *El Péndulo Patriotico* izeneko bi liburukien eranskinetan aurki daiteke.

Estévez, X. (1991): *De la Triple Alianza al Pacto de San Sebastián (1923-1930). Antecedentes del Galeuzca*, Donostia.
Fernández Sebastián, J. (1991): *La génesis del fuerismo. Prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País Vasco, 1750-1840),* Madril.
Fusi, J. P. (1979): *El problema vasco durante la II República*, Madril.
García de Cortázar, F. eta Azcona, J. M. (1991): *El nacionalismo vasco*, Madril.
García Venero, M. (1969): *Historia del nacionalismo vasco*, Madril (1.: 1945).
Garde, M. L. (2001): *ELA a través de dos guerras, 1936-1946*, Iruñea.
Garmendia, J. M. eta Elordi, A. (1982): *La resistencia vasca*, Donostia.
————, (1995): *Historia de ETA*, Donostia (1.: Donostia 1983).
González Portilla, M. eta Garmendia, J. M. (1988): *La postguerra en el País Vasco. Política, acumulación, miseria*, Donostia.
Granja, J. L de la (1986): *Nacionalismo y II República en el País Vasco*, Madril.
————, (1989): "La alianza de los nacionalismos periféricos en la II República: Galeuzca", in J. G. Beramendi eta R. Villares (arg.), *Actas Congreso Castelao*, Santiago de Compostela, **I**, 321-347.
————, (1990): *República y Guerra Civil en Euskadi. Del Pacto de San Sebastián al de Santoña*, Oñati.
————, (1995): *El nacionalismo vasco: un siglo de historia*, Madril.
————, (2000): "Las alianzas políticas entre los nacionalismos periféricos en la España del siglo XX", *Studia Historica. Historia Contemporánea*, XVIII, 149-175.
Gurruchaga, A. (1985): *El código nacionalista vasco durante el franquismo*, Bartzelona.
————, (1996): *Del PNV a ETA. La transformación del nacionalismo vasco*, Donostia.
Heiberg, M. (1991): *La formación de la nación vasca*, Madril.
Jacob, J. E. (1994): *Hills of Conflict: Basque Nationalism in France*, Reno.
Jauregui, G. (1981): *Ideología y estratégia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*, Madril.
Jemein, C. De (1977): *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin e historia gráfica del nacionalismo vasco*, Bilbo [lehen argitalpena: 1935].
Jiménez de Aberásturi, J. C. (1999): *De la derrota a la esperanza: políticas vascas durante la segunda guerra mundial (1937-1947)*, Bilbo.
Juaristi, J. (1987): *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Madril.
————, (1992): *Vestigios de Babel. Para una arqueología de los nacionalismos españoles*, Madril.
————, (1997): *El bucle melancólico. Historias de nacionalistas vascos*, Madril.
Landa, C. (1996): *Jesús María de Leizaola. Vida, obra y acción política de un nacionalista vasco (1896-1937)*, Bilbo.

Larronde, J. C. (1977): *El nacionalismo vasco: su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*, Donostia.
————————, (1994): *El movimiento eskualerrista (1932-1937): nacimiento del movimiento nacionalista vasco en Iparralde*, Bilbo.
Letamendia, F. (1975): *Historia de Euskadi. El nacionalismo vasco y ETA*, París.
————————, (1990): *Euskadi, pueblo y nación*, Donostia [7 liburuki].
————————, (1994): *Historia del nacionalismo vasco y de ETA*, Donostia [3 liburuki].
Majuelo, E. (2000): *LAB sindikatuaren historia. Langile Abertzale Batzordeak (1975-2000)*, Tafalla.
Martínez Peñuela, A. (1989): *Antecedentes y primeros pasos del nacionalismo vasco en Navarra*, *1878-1918*, Iruñea.
Meer, F. de (1992): *El Partido Nacionalista Vasco ante la Guerra de España (1936-1937)*, Iruñea.
Mees, L. (1991): *Entre nación y clase. El nacionalismo vasco y su base social en perspectiva comparativa*, Bilbo.
————————, (1992): *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*, Bilbo.
————————, (1994): "Langileak ba al dauka aberririk? Euzko Langileen Alkartasuna sindikatuaren sorrera eta garapena", *Uztaro*, **11**, 29-36.
————————, (1998): "Social Solidarity and National Identity in the Basque Country: The Case of the Nationalist Trade Union ELA/STV", in P. Pasture eta J. Verberckmoes (arg.), *Working-Class Internationalism and the Appeal of National Identity: Historical Debates and Current Perspectives*, Oxford - New York, 43-81.
————————, (2000a): "Der spanische Sonderweg. Staat und Nation(en) im Spanien des 19. und 20. Jahrhunderts", *Archiv für Sozialgeschichte*, **40**, 29-66.
————————, (2000b): "The Basque Peace Process, Nationalism and Political Violence", in J. Darby eta R. Mac Ginty (arg.), *The Management of Peace Processes*, Houndmills - Basingstoke, 154-194.
Núñez, X. M. (1999): *Los nacionalismos en la España contemporánea (siglos XIX y XX)*, Bartzelona.
Otaegui, M. (1981): "Organización obrera y nacionalismo: Solidaridad de Obreros Vascos (1911-1923)", *Estudios de Historia Social*, **18-19**, 7-83.
Pablo, S. de, Granja, J. L. de eta Mees, L. (arg.) (1998): *Documentos para la historia del nacionalismo vasco. De los Fueros a nuestros días*, Bartzelona.
Pablo, S. de, Mees, L. eta Rodríguez Ranz, J. A. (1999): *El Péndulo Patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I: 1895-1936*, Bartzelona.
————————, ———————— eta ———————— (2001): *El Péndulo Patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, II: 1936-1979*, Bartzelona.
Pablo, S. de (1985): *Álava y la autonomía vasca durante la Segunda República*, Gasteiz.

————————, (1988): *El nacionalismo vasco en Alava (1907-1936)*, Bilbo.
————————, (1989): *La Segunda República en Alava. Elecciones, partidos y vida política*, Bilbo.
————————, (1991): *El nacionalismo vasco en la postguerra. Alava, 1939-1955*, Bilbo.
————————, (arg.) (1995): *Los nacionalistas. Historia del nacionalismo vasco, 1876-1960*, Gasteiz.
Payne, S. G. (1974): *El nacionalismo vasco. De sus orígenes a la ETA*, Bartzelona.
Pérez Agote, A. (1984): *La reproducción del nacionalismo: el caso vasco*, Madril.
Ramos, C. (1987): "El nacionalismo vasco entre la Dictadura de Primo de Rivera y la II República", *Espacio, Tiempo y Forma*, **1**, 275-312.
Rubio, C. (1996): *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*, Madril.
San Sebastián, K. (1984): *Historia del Partido Nacionalista Vasco*, Donostia.
Sánchez Prieto, J. M. (1993): *El imaginario vasco: representaciones de una conciencia histórica, nacional y política en el escenario europeo, 1833-1876*, Bartzelona.
Sierra, R. (1941): *Euzkadi. De Sabino Arana a José Antonio Aguirre*, Madril.
Solozábal, J. J. (1979): *El primer nacionalismo vasco. Industrialismo y conciencia nacional*, Donostia [lehen argitalpena: Madril 1975].
Sullivan, J. (1988): *El nacionalismo vasco radical 1959-1986*, Madril.
Tápiz, J. M. (2001): *El PNV en la Segunda República: organización interna, implantación territorial y bases sociales*, Bilbo.
Torres, E. (1998): *Ramón de la Sota, 1857-1936. Un empresario vasco*, Madril.
Ugalde, A. (1996): *La acción exterior del nacionalismo vasco (1890-1936): historia, pensamiento y relaciones internacionales*, Bilbo.
Ugalde, M. (1993): *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza, 1906-1936*, Bilbo.
Urkiza, B. (1995): *El sindicalismo nacionalista en Euskadi. Solidaridad de Trabajadores Vascos en la II República*, EHU, Leioa [doktoretza-tesia].
Waldmann, P. (1990): *Militanter Nationalismus im Baskenland*, Frankfurt.
————————, (1997): *Radicalismo étnico. Análisis comparado de las causas y efectos en conflictos étnicos violentos*, Madril.
Zirakzadem, C. E. (1991): *A Rebellious People. Basques, Protests and Politics*, Reno.

Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: hurbilpen historiografikoa

Iñaki Zabaleta Imaz, Idoia Fernandez, Arantza Uribe-Etxebarria eta Pauli Davila
Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Herriko hezkuntzaren historiografiak guztiz adierazgarritzat har daitekeen eta bitxia suerta daitekeen egoera baten aurrean jarriko gaitu. Lehenik eta behin, aipatu behar da ezen, historiografiara hurbilduz gero, norbaitek jaso dezakeen aurreneko inpresioa honako hau dela: Euskal Herriko hezkuntzaren historiaz hitz egiteko oraindik ere bide luzea jorratu behar da. Baina, aldi berean, jatorri eta planteamendu teoriko eta metodologiko ezberdineko lan, monografia edota ikerketak daude; hots, historiografiaz hitz egin daiteke.

Egoera horrek itxaropena pizten du, ezerezaren aurrean ez gaudelako: osorik deskubritu gabeko eremu bat da Euskal Herrian hezkuntzaren historia; hau da, neurri batean bederen "egiteke" dago, eta ez "badago" ere, "egiterik" badago; izan ere, historia egiten den zerbait da, eta ez berez den edo ez den zerbait. Alde horretatik, historia horren ardatz nagusiak zein diren zehatz daiteke, baina bereziki —inoiz hezkuntzaren historia Euskal Herrian izango bada— erronka baten aurrean gaudela azpimarratu behar da.

Euskal Herriko hezkuntzaren historia une honetan zein egoeratan dagoen jakiteko, ezinbestekoa da aipatutako historiografia horretara hurbiltzea, gure jakintza-arloak hor aurkituko baitu azken finean oinarrizkoa duen justifikazioa, eta baita aurrerantzean jarrai ditzakeen bideak ere. Azterketa historiografiko honi ekiteak, gainera, Euskal Herri osoa kontuan hartuko duen historia egitea eskatzen du, nahiz eta errealitate politiko-administratibo ezberdinek batasuna izan dezakeen historia zaildu (ukatzerik ez dagoen zailtasuna, edozein eratan). Izan ere, hezkuntzaren eremuan koka daitezkeen fenomeno eta gertakari askok muga horiek gaindituko dituzte, hizkuntzarekin, kulturarekin eta, zenbaitetan, erakundeekin lotuta dauden ezaugarriengatik.

Bestalde, nahiko berriak diren arloak ere kontuan hartuko ditugu, zeren hezkuntzaren historiografia urte askotan erakundeekin edota politikarekin zerikusia zuten gertakarietan zentratu bada ere, azken hamarkadetan ikergune berrien agerpena ikusi ahal izan dugu, eta, ezinbestean, geure euskal testuinguruetara ere

aplikatuko ditugu. Ildo horretan, erakundeen eta hezkuntza-politikaren historiatik aparte, besteak beste, alfabetatzeari, haurtzaroari, generoari eta pentsamendu pedagogikoari ere erreparatu beharko diegu, Euskal Herriko hezkuntzaren historia gaur egungo zientzia historikoaren parametroetatik ikertu nahi badugu, bederen.

Euskal Herria bere osotasunean hartzea eta historiaren objektu berrietatik abiatzea artikulu honen lehenengo irizpideak izan badira ere, badugu hirugarren irizpide bat gehitu beharra, batez ere, irakurleari egoeraren ulerkuntza errazteko. Zentzu horretan, eta irizpide gisa, denborari dagokionez, bi momentu edo garai zabal bereizi ditugu: Erdi Aroan eta Aro Berrian gertatutakoaren inguruan jardun duen historiografia, alde batetik, eta azken bi mendeetan jazotakoari buruz aritu dena, bestetik.

1. HEZKUNTZA EUSKAL HERRIAN. ERDI AROA ETA GARAI MODERNOAK

XIX. eta XX. mendeei buruzko historiografiak azken bi mende hauetan Euskal Herrian hezkuntzak izan dituen ezaugarri nagusiak ezagutzea ahalbidetzen badigu ere, ezin da esan gauza bera Aro Berriari dagokionez —edo, ikuspegi historiografikotik behintzat, egoera askoz ere pobreagoa dela aitortu beharrean gaude—; are gutxiago, Erdi Aroari buruz ari baldin bagara. Aurkitzen ditugun lanak oso sakabanatuak dira, eta askok ez dute ezer berezirik eskaintzen, edota oso ikuspegi mugatua dute.

Lehenengo eta behin, garai honi buruzko halako lan sistematiko bat egiteko ahaleginean, Joxe Azurmendiren lan bat azpimarratu behar da (Azurmendi, 1985). Bertan, Erdi Arotik XIX. mendearen atariraino doan irakaskuntzaren historia aztertzen du, bere kezka nagusia euskal kultura izaki. Ildo honetako sintesi-ahaleginetan, Nafarroako Erresumako hezkuntzaren historiako adibide bat ere badugu, IX. mendetik XVI.ean Gaztelako Erresumak azpiratua izan arteko tarteari dagokionez (J. Vergara, 1992). Garai luze eta zabal honen inguruko historiografia, edozein eratan, bi mailatan aritu da bereziki: Berpizkundeko unibertsitateak eta beste eratako hezkuntza-erakundeak aztertu ditu, batetik, eta pentsamendu pedagogikoa, bestetik. Lehenengoei dagokienez, Oñati, Iratxe eta Iruñeko unibertsitateak, Orthez-ko unibertsitate protestantea[1], Iruñeko eta Lizarrako lehen letretako eskolak, Iruñeko kolegio sekularrak eta Jesusen Konpainiako kolegioak[2] bezalako erakundeen

1. B. Estornes (1968): lan honek Euskal Herrian unibertsitate eta goi ikasketei buruz sorturiko egitasmo eta gauzatzeak biltzen ditu, Parisko Navarra Kolegiotik (1304) gaur egungo UPV/EHUko aurrekari zuzena den Bilboko Unibertsitatea (1968) sortu arteraino. M. Fornells-ek (1995) erakundearen bilakaerari baino gehiago, osagai arkitektonikoen azterketari jarri dio arreta. J. A. Morales Arce (1999); J. A. Lizarralde (1930); J. Arocena (1962); M. A. Ibarrondo (1982); M. Ugalde (1988); J. L. Orella (1977); L. Jorcano (1968); J. M. de Olaizola (1993).

2. J. Laspalas (1987); J. M. Jimeno Jurio (1993); J. Goñi (1946); J. Goñi (1970); G. Lopez de Gereñu (1961); J. Vergara (1991).

inguruko lanak daude. Pentsamendu pedagogikoaren alorrean, ekarpen humanistari buruz ere zenbait lan egin dira; horra hor Joanes Uharte Donibanekoa, Inazio Loiolakoa, Juan Zumarragakoa, Bartolome Karranza edota Azpilikueta bezalako pertsonaiak eta horien inguruan egin diren lanak[3]. Esan behar da, azkenik, interes historiografikoa piztu dutela zenbait kaligrafo euskaldunek ere —Juan de Yciar-ek eta Pedro de Madariaga-k[4], esate baterako—, alfabetatzearen historiaren inguruko halako ikuspegi interesgarria jorratzeko aukera eskaintzen baitute.

Baina, zalantzarik gabe, *Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* (RSBAP) delakoa da lan gehienen ardatz nagusia. Lan ugari egiteko aukera eskaini dute Bergarako Errege-Mintegiaren sorrerak eta bilakaerak eta "euskal" ilustrazioko pertsonaia garrantzitsuenen planteamendu pedagogikoek, eta erakunde horien ekarpena ezagutzea posible da XVIII. mendearen bukaerako heziketaren eszenatokian[5]. Hala, horien garrantzi sozialaz zein ideologikoaz gain, RSBAP haren inguruan mugitu ziren erakundeak ezagut ditzakegu, besteak beste, marrazketa-eskolak edota haren zaindaritzapean bultzatu ziren lehen letretako eskolak. Pertsonaiei dagokienez, Peñaflorida eta Elhuyar anaiak[6] dira historiografiaren aztergai nagusiak; alde horretatik, adibidez, Ibañez de la Renteria, Iriarte, Foronda edota Agirreri buruzko monografiak egiteke daude, nahiz eta horien inguruko zenbait aipamen adierazgarri eta ekarpen aberats ez diren falta; alde horretatik, besteak beste, Recarte-ren eta Areta-ren lanak aipatu beharko lirateke[7].

Alfabetatze-prozesuek ere ez dute oraindik azterketa sistematikorik ezagutu, baina nahiz eta lan sakabanatuak izan, eremu horrekin lotura zuzena duten gai batzuk ikertuta daude, hala nola zenbait inprentaren sorrera, zenbait pertsonaia ospe-

3. Joanes Uharte Donibanekoari buruz oraindik ere funtsezko lana honako hau dugu: M. de Iriarte (1948). Pedagogo garrantzitsu horri buruzko lan eguneratugorik: J.M. Gondra (1993) eta L. Rey (1995). Loiolako Inaziori buruz bibliografia oso zabala dagoenez, honako hau aipatuko dugu bakarrik: J. Caro Baroja (zuz.) (1991). Juan Zumarragakoaren *Regla cristiana breve* obraren argitalpen berriak frantziskotar horren hezkuntzarekiko kezka azalarazi du; bibliografikoki ondo hornitu eta gaurkotutako azterketa da: C. J. Alejos-Grau (1992). Azpilikueta nafarraren inguruan: F. Salinas (1986) eta E. Tejero (1986). Azkenik Azpilikueta eta Karranzari buruz: F. Salinas (1991).

4. E. Amezaga (1994): ez da, zehazki, kaligrafo hauen inguruko azterketa, baizik eta euskal jatorria dutenen zerrenda, zeinetan, hori bai, azterketarako bibliografia eskaintzen den.

5. Dagoen bibliografia zabal horretatik, hezkuntza-arloei begira eginiko lan hauek azpimarratuko ditugu: M. Recarte (1990), eta R. Letamendia (1987). Lehen letretako eskolen azterketa zehatzago baterako, ikus: J. Benito (1990), eta pentsamendu pedagogikoaren inguruan, L. M. Areta (1990). Horiez aparte Xabier Palacios-ek aztertu duen J. J. Rousseau-ren eta Manuel Ignacio Altuna Portu-ren arteko adiskidetasunak agerian utzi digu RSBAPek genebarrarekin zituen harremanak eta eraginak: J. J. Rousseau [X. Palacios, prestatzailea] (1996).

6. I. Pellon eta R. Gaga (1994). Ekarpen zientifikoari buruz ikertzeko, ikus L. Silvan-ek 1945tik 1987era buruturiko lanak, bereziki L. Silvan (1953).

7. M. de Aguirre (1974) A. Elorza-ren argitalpen eta sarrerako ikerketa-lanaz; J. Agirreazkuenaga (1994); C. Ribechini (1993).

tsuren liburutegiak, Leizarragaren itzultzaile-eskola, Larramendiren lan literarioa eta euskararen aldeko lana, alfabetatze-mailak Oñatin (protokolo notarialetatik abiatuta)[8], etab. Gauza bera esan daiteke haurtzaroaren historiari buruz, nahiz eta argitaratu diren Valverde-ren (1994) eta Ramos Martínez-en (1989) lan garrantzitsuak aipatu behar diren, bietan haurtzaro abandonatua ardatz nagusitzat hartu delarik.

2. XIX ETA XX. MENDEAK

Garaiko hezkuntzaren historiografiari buruz hitz egiteko garaian, egoki iruditu zaigu geure eremuko arlo ezberdin batzuk kontuan hartzea, historiografiaren egoera zein den hobeto ikusteko, eta bakoitzari heltzeko, banan-banan. Arloak honako hauek dira: hezkuntza-politika eta erakundeak, alfabetatze-prozesuak, haurtzaroaren azterketa eta pentsamendu pedagogikoa. Arestian esan dugun bezala, azken bi mende hauen inguruko lanak, beste garaiekin konparatuz gero, "ugariak" dira, nahiz eta, aro garaikide honetan heziketak izan duen bilakaera egoki eta zorrotz ezagutu ahal izateko, sintesi-lan orokorra falta zaigun oraindik[9].

2.1. Hezkuntza-politika eta erakundeak

Egindako ikerketak eta argitaratutako lanak aztertuz gero, antzeman daiteke ezen, Foruak indarrean zeuden garaiari buruz (alegia, 1876ra arte herrialde "baskongadoetan", 1844ra arte Nafarroan, eta Frantziako Iraultzara arte Ipar Euskal Herrian) eta hezkuntza-politika eta lehen hezkuntzari dagokionez, Arabako, Nafarroako, Ipar Euskal Herriko eta Gipuzkoako kasuei buruzko lantxo batzuk baditugula[10]. Xehetasunez josiriko lanak ditugu; beraz, halako ikuspegi orokorrik bereganatu ez dutela esango genuke, eta gehienek jorratu dituzten gai nagusiak udal-politika, irakasleria, ikuskaritza, eskolatzea, etab. dira. Bizkaiari buruzko lanik, tamalez, oraindik ez da egin, nahiz eta hutsune hori nolabait bete lezakeen lan orokorra badugun (Davila, 1995a). Lan horietan Euskal Herriko hezkuntza-politikaren eta lehen hezkuntzaren ezaugarri diferentzialak aztertzen dira, estatuekin izandako harremanen tenorean beti ere. Arlo horretan, eta aipatutako epea gainditu arren, irakasleriaren

8. J. Madariaga (1987). Erreformak eta Kontrarreformak Euskal Herrira ekarritako herri xeheari begirako heziketa eta alfabetakuntzaren inguruan, zinez interesgarriak deritzegu honako lan hauei: J. Intxausti (1995) eta egile beraren (1994). Iparraldeko alfabetatzeaz F. Furet eta J. Ozouf (1977). Frantsesaren ezarpenari buruz, M. De Certeau, D. Julia eta J. Revel (1975).

9. Horrelako sintesirako hurbilketa-ahalegin bat honako liburu honetan aurki daiteke: J. Arpal eta beste (1982). Baita klasikotzat jo daitekeen Lasaren lana, zeinean, lurralde historiko guztiak tratatzen diren arren, sistematizazio-falta antzeman baitaiteke: J. I. Lasa (1968). Honetaz aparte ikus: M. Zalbide (1990). Dena den, lan horien idazketaz gerotik, hezkuntzaren historiaren ikerkuntzaren zabalkunde garrantzitsua suertatu den neurrian, sintesi-lanaren beharra areagotu egin dela azpimarratuko genuke.

10. J. Benito (1994), (1999); R. Berruezo (1986); P. Hourmat (1973); R. Letamendia (1988).

prestakuntzari buruzko ikerkuntza eginda dagoela esan dezakegu, herrialde ezberdinetako irakasle-eskolen ikerketei erreparatzen badiegu behintzat[11].

Foruen galeraren garaitik eta II. Errepublikara iristen den aldiari dagokionez (estatuko hezkuntza-sistemaren ezarpen mailakakoa, euskara eta euskal kulturaren aldeko defentsa eta haren ezarpenari jarritako erresistentziak —Hego Euskal Herrian—, eskola-eredu berriak, irakaskuntza elebiduna, unibertsitatea...), baditugu zenbait lan: Bizkaiko auzo-eskolak, lehenengo euskal nazionalismoaren hezkuntza-ideologia, Euzko Ikastola Batzaren esperientzia, eta Eusko Ikaskuntza edota Deustoko Unibertsitateari buruzkoak[12]. Nafarroari dagokionez, badugu Errepublikaren garaiari dagokion hezkuntza-politikaren azterketa (Berruezo, 1991b). Baita Valladolideko unibertsitate-barrutiari buruzkoa ere; bertan 70eko hamarkadara arte —Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa sartzen ziren neurrian— aintzat hartu behar da Martin-en lana (Martín, 1994). Gerra-garaiari dagokion hezkuntzaz ere, badugu arreta jarri duen lanik, hain zuzen ere, oraintsu aurkeztu den doktorego-tesi bat (Rekalde, 2000), eskola eta haurtzaroa bere baitan biltzen saiatu den lan zabal eta ondo dokumentatua. Egindako lan monografiko horiez guztiez gain, ikertzaileentzat garrantzitsuak diren beste tresna baten berri ere eman behar dugu, zeren Bizkaiko eta Arabako kasuan eskuragarri baititugu hezkuntza gaitzat hartuta prentsan argitaraturiko artikuluen bibliografiak[13].

Baina azken aldiko garaia izan da —frankismoa eta frankismoaren ondorengoa, alegia— ikuspegi historiografikotik interes handiena piztu duena, bereziki ikastolen sorrera eta bilakaerari dagokionez. Gertakari eskolar honen inguruan egiten diren interpretazioak ez datoz bat, gainera, zeren egile batzuk gerra aurreko esperientzien jarraipen soil baten antzera aurkezten duten bitartean, beste batzuek ikastolen mugimendua gertakari berritzat jotzen baitute, hain zuzen ere, testuinguru jakin batean ekoitziriko eskola-proposamen berritzat[14]. Ikastolen gertakaria ikuspegi orokorretik aztertzen duten lan horiez gain, azken urteotan ikastola ezberdinetako historia monografiko ugari argitaratu direla azpimarratu behar da, eta tokian tokiko historia itxura hartuz joan da[15]. Aipatu ere, ikuspegi metodologiko

11. Askoren Artean (1981); M. E. Guibert (1983); B. Marín (1985); D. Reboredo (1992). Irakasleen prestakuntzari buruzko ikerketa bere orokortasunean, eta Gipuzkoako Eskola Normalen azterketa bereziki, honako honetan aurki dezakegu: P. Davila (1993b). Honetaz aparte, frankismoaren garaian eginiko irakasleen garbiketak ere ikertu dira: M. Ostolaza (1996).

12. G. Arrien (1983), (1987); I. Estornes (1983); B. Goikoetxea eta I. Drabasa (1985); C. Saenz de Santamaria (1978); I. Zabaleta Imaz (1998).

13. G. Arrien, K. Perez eta beste (1987); J. M. Astigarraga eta beste (1994); Urrutia, M. N. eta beste (1990); K. Perez (1994).

14. X. Aranburu (1990), (1991); G. Arrien (1993); I. Fernandez (1993), (1994b); M. C. Garmendia, (1985).

15. Ikastoletako historiari buruzko lan hauek monografikoak izan ohi dira, ikastola bakoitzaren XXV. urteurrena betetzean prestatu izan dira eta ikastolarekin zerikusia izan duten pertsonek eginak izan ohi dira. Zer esanik ez, diren ikastolak baino gutxiago egin dira, baina sorta polita direla

batetik, iturri idatzien gabezia dagoelako, eta, berez, analisirako aukera apartak eskaintzen dituelako, ahozko historiak gero eta indar handiagoa du, eta beraren ekarpena oso interesgarria da historiografiaren berrikuntzari dagokionez[16].

Aipatutakoaz gain, ikastolei buruzko artikulu eta lan soziologiko nahiko aurki daitezke han-hemenka, gai zehatzak aztertuz edota gizartearen interpretazio orokorragoaren osagai interpretatzailetzat hartuta. Ez gara horietan luzatuko, ez baitiote ekarpen esanguratsurik egiten aipatutako lanetan esaten denari. Zernahi gisaz, eta azken hamarkadetan ikastolen mugimenduak berebiziko garrantzia izanda ere, gainerako eskola-sareetan euskara eskola-hizkuntzatzat hartu izanak, gaur egungo egoeraren azterketa holistikoagoak egitera bultzatu ditu ikertzaileak, eta ildo horretatik lan interesgarriak daude[17].

Egin diren ekarpenak gutxietsi gabe, antzeman daitekeenez, oraindik ugariak dira hutsuneak, aztertzen ari garen hezkuntza-politika eta oinarrizko irakaskuntzaren atal honetan. Hutsune horiek lehenengo eta bigarren gerra karlisten arteko garaian eta II. Errepublikan —Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabari dagokionez—nabarmentzen dira, zeren Nafarroaz badugu azterketa osaturik (Berruezo, 1991b).

Gure herrian ospe handia bereganatu zuten bigarren hezkuntzako erakundeei buruz, hutsuneak dauden arren, baditugu burutu berri diren ikerketen emaitza interesgarriak, eta beste horrenbeste esan behar dugu irakaskuntza pribatu erlijiosoaren eta euskal nazionalismoaren ideologia pedagogikoari buruz[18]. Azkenik, lanbide-

ukatzerik ez dago. Orain arte eginikoak ondoko herrietakoak izan dira, argitarapen urtea atxiki diogularik: Deustu (1988), Gasteizko Olabide (1988), Lauaxeta-Zornotza (1988), Santutxu-Bilbo (1989), Irun-Hondarribia (1989), Bermeo (1990), Donostiako Herri Ametsa (1990), Donostiako Amossarrain (1991), Lasarte-Oria (1991), Urnieta (1991), Zarautz (1991), Galdakao (1992), Oñati (1992), Oiartzun (1992), Mungia (1993), Donostiako Aitor (1993), Sopela (1993), Legazpi (1993), Tolosa (1993), Donostiako Zurriola (1993), Ermua (1994), Anoeta (1994), Arrasate (1994), Etxarri-Aranaz (1994), Arantzazuko Ama Eskola (1994), Leioa-Erandio (1994), Azkoitia (1995), Basauri (1995), Ibarra (1995), Lizarra (1995), Usurbil (1995), Iruñako San Fermin (1996), Iñigo Aritza (Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain-1997), Laudio (1997), Agurian (1999), Iruñako Jaso (1999). Hauetaz aparte, ikastola gertakariak bere isla izan du Euskal Herriko muga zehatzak gaindituz erbesteko euskal komunitateetan ere, Caracas-ko Euzkadi-Venezuela ikastolako kasuan batik bat —I. Fernandez eta beste (1999)—.

16. Ildo honetatik, ikertzaileek beren ikerketa-lanetarako erabilitako metodologiaz gain, ekinbide haundinahikoena EHIH (Euskal Herriko Ikastolaren Historia) proiektua izan da, zeinak, zalantzarik gabe, zerikusia izan baitu goian aipatutako monografiekin. Zoritxarrez, horrelako egitasmo zabalek diru-iturri egonkor eta mamitsuak behar dituzte, eta ez dira beti iristen amestutako helmugara. Gai honi buruz ikus: J. Intxausti (1991).

17. F. Basurko (1989); F. Basurko eta P. Iztueta (1993); P. Castoreo (1993); Askoren Artean (1990); P. Iztueta (2000a); S. Mateos (1999); F. Rodriguez (1999). Ezin da aipatu gabe utzi bere izaera bereziagatik, agertu berri den Paulo Iztuetaren azken liburua, zeinean euskal hezkuntza garaikidearen azterketa historikoa eta analisi soziologiko eta erkatua uztartuz, etorkizun globalizaturako proposamenak zehazten diren (Iztueta, 2000b).

18. Askoren Artean (1980); M. Ostolaza (2000); I. Zabaleta Imaz (1998).

-heziketaren arloan ere ekarpen berriak daudela gaineratu behar dugu, eta, zorionez, lehenagoko joera deskriptiboetako lanak (xehetasunez beteak baina ezer gutxi aztertzen dutenak) gaindituz, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lanbide-Eskoletako azterketa testuinguratua eskaini digu P. Davila irakasleak bere azken liburuan[19]. Hutsuneak hor daude, bereziki azpimarragarriak kokagune geografikoan Ipar Euskal Herriko errealitateari buruz, eta, gaiei dagokionez, berrikuntza pedagogikoan; baina begi-bistakoa da aurrerapen nabariak egin direla.

2.2. Alfabetatze-prozesuak

Alfabetatze-prozesuei buruzko historiografia zenbait fruitu interesgarri eskaintzen ari da, azken urte hauetan erdal eta euskal alfabetatze-prozesu ezberdinei dagozkienak. Arlo horretan oso ikuspegi berriekin lan egiten ari da, alfabetatzearen fenomenoa muga estuegietatik atera, eta kultura, ideologia eta euskararen erabilerak osaturiko parametroen barruan kokatzeko ahalegina eginez, XIX. mendearen erdialdetik gaur egunera arteko epeari dagokionez. Zentzu horretan aztertu dira alfabetatzearen eta eskolatzearen arteko harremana, helduen alfabetatzea, herri-kultura eta alfabetatzea, eliteen kultura, euskararen erabilerak, etab[20]. Ikerketa horien ondorio gisa, euskal alfabetatzearen ereduaren ezaugarri garrantzitsuenak zehatz daitezke, herri elebidun baten alfabetatzeak dituen oinarriak jasoz.

Nolanahi den, hurbilpen historiko horien balioa inola ere lausotu gabe, idazlan honetan zehar "falta denari" ere erreparatu diogunez, ezin dira aipatu gabe utzi egiteke dauden lanak; besteak beste: euskarazko irakurketa eta idazketaren historia, hizkuntzaren normalizazio-prozesuek alfabetatzearekin dituzten harremanena, erdarek eskoletan izan duten "sarreraren" inguruko tokian tokiko historiak, elizak euskararen ahozko erabileraren inguruan izandako garrantziari buruzkoak, prentsan eta literaturan euskarak izandako presentziaren ingurukoak, edota irakaskuntzaren arloko testuliburuei buruzkoak[21].

2.3. Haurtzaroaren ikerkuntza

Haurtzaroari buruz jarduteko garaian, arlo hori nahiko berria dela esan behar da, eta azken urte hauetan zenbait lan —hauetako asko emakumeek egindakoak— egiten ari direla horren inguruan. Berrikuntza sozialaren gaia jorratzean zenbait

19. M. Aloy (1987); P. Davila (1997).

20. P. Arregi (zuz.) (1992); I. Basterretxea (1997); P. Davila (1995b); P. Davila (1993a); A. Eizagirre (1993); irakasle honek berak *"Euskal alfabetatzearen historia"* izenburupean aurkeztear du bere doktoretza-tesia; I. Zabaleta (1993). Eliteen jokaeraz ondoko hau dugu: P. Iztueta (1996). Ahozko literaturaren inguruan: J. M. Lekuona (1982). Euskararen egoeraren azterketa historikorako, honako lan hau ikus daiteke: J. Intxausti (1990).

21. Euskarazko argitalpenen katalogoen agerpenak erraztu egin behar lituzke ikerketa-mota horiek: J. Diaz Noci (1994), J. M. Torrealdai (1993) eta P. Davila (1996).

lanek ez dituzte ahanzten haurtzaroari eta emakumeei zuzendutako asistentzia--bideak, eta giza talde horien inguruko diskurtsoa eta trataerak.

Zentzu horretan, aro garaikidean garrantzi handia izan du Foru Aldundietan benefizentziaren eskuduntza mantentzeak, horrek, hain zuzen, interesa, gizartearekiko gertutasuna eta ikerketarako bideak pitzarazi baititu. Zentzu horretan Gipuzkoako Foru Aldundiak Aurrezki Kutxa Probintzialarekin estu loturik bultzatutako erreformismo sozialerako egitasmoan, haurtzaroari zuzendutako zenbait ekintza aipa daitezke, hala nola *Gota de Leche* izenekoa, Fraisoroko Ama-etxea eta Esposito-etxea, amatasun-asegurua, asistentzia soziala, aurrezkia, etxebizitza, etab. Gai horien inguruan badugu lan sistematikorik, baita Bizkaiko lehenengo industrializazio-kasuari dagokionez familia-estrategiak eta genero-harremanak ardazten dituen azterketarik ere [22].

Haurtzaro hitzaren adiera ezberdinak aintzat harturik —arriskupeko haurtzaroa eta haurtzaro arriskutsua, alegia—, ohiko terminologiari jarraiki, ume abandonatuez eta ume gaizkileez mintzatzen direnak izan ohi dira hasiera bateko historialarien interesa piztu dutenak; agian, hezkuntza-zientzien arloan sortu diren gizarte-hezkuntza eta pedagogiaren zabalkundearen ondorioz. Haurtzaroa ardatz nagusitzat hartzen duen historia horrek, gainera, badu honako alde interesgarri hau ere: mentalitateen historian eta historia sozialean kokatzen dela, eta hospizioen edota adingabetuen epaitegiak bezalako erakundeen analisiez gain, familia, emakumeen egoera —batez ere emakume langileena—, inudeak eta generoaren eraikuntza sozio-historikoaren aldagai horiekin loturiko lan-harremanen atalak ere uztartzen dituela. Ikuspegi ezberdinetatik egin diren arren, Nafarroako, Gipuzkoako eta Bizkaiko haur abandonatuei buruz eta haur horien jasoketaz, hazkuntzaz eta hezkuntzaz arduratzen ziren erakundeei buruzko lanak baditugula esan behar dugu, tamalez Araba eta Ipar Euskal Herria arlo horretan aztertu gabe ditugularik[23]. Era berean, eta arriskupeko haurtzaroari dagokionez espresuki, haurtzaroaren historian bertan ekoitzi ez, baina gertakari honen ulerkuntzarako baliagarriak zaizkigun beste ekarpen batzuk ere jarri behar ditugu mahai gainean, zehazkiago medikuntzaren historiaren ikuspegitik Bizkaian kokatutako haurren jasoketa helburutzat zeukaten zenbait erakunderen azterketak[24].

Haurtzaroaren ikerkuntzari buruz zerbait onuragarririk aipatzekotan, horren inguruan sortu den disziplinartekotasuna dugu. Zentzu horretan, eta mentalitateen historiaren interesgunetik abiatuta, ezin ditugu ahaztu Euskal Herrian tradizio zientifiko luzea duen etnografiaren ekarpen garrantzitsuak, bereziki *Etniker* taldeak egindako lana, zeinean jaiotza, bataioa, puerperioa, lehen haurtzaroa, gaztaroa, ezkontza eta ezkontzatik kanpo sortutako umeei buruzko adiera, ohitura eta erri-

22. M. A. Martinez Martin (1996); M. R. Roquero (2000); P. Perez-Fuentes (1991).
23. L. Valverde (1994); A. Uribe-Etxebarria (1994), (1996); P. Unda (1991).
24. M. L. Basagoiti (1995); M. M. Varillas (1999).

tuak azaltzen diren (Etniker Taldea, 1998). Zer esanik ez, hor harrobi garrantzitsua aurki dezake haurtzaroa iker-objektutzat hartzen duen edonork.

Haurtzaroaren babesaren inguruan ardazturiko historiografian, berau eta arlo eskolarra kontuan hartzen duen lan bat aipatu nahi dugu: hain zuzen ere, Donostiako udal-eskoletan derrigortasuna eta asistentzia bultzatzeko erreforma eskolarrari heltzen diona (Uribe-Etxebarria, Fernandez, Eizagirre, 1998), zeren haurtzaroaren "normalkuntzan" parte hartzen duten jarduera ezberdinen adibidea aurkezten baitigu. Azkenik, ikertzaile askoren gogoa piztu duen gerra-garaiko haurtzaroaren problematika makina bat lanen sorburua izan da, eta, gure kasuan, milaka haurren ebakuazioari eta Europarra eta Ameriketara erbesteratzeari buruzkoak, bereziki; eta, ondorioz, horri buruzko azterketa osatu eta sakona dugula baieztatuko genuke[25].

Orain arte aipatutako lanen kezka nagusia, haurren babesa izan delarik, ezer gutxi gainera dezakegu haurtzaro arriskutsuaz edo elbarriaz. Lehenengoari buruz, badugu hurbilpen interesgarri bat, baina oraindik behar bezainbeste sakondu ez dena. Izan ere, Estatu Espainiarreko adingabetuen lehenengo epaitegia Bilbokoa dugu, eta, datu soil horrekin, industrializazio-erritmo azkarraren ondorioak pairatzen zituen populazioaren kontrol sozialerako gizarte-hezkuntzak izan zuen garrantzia begiztatzen dugu[26]. Haurtzaro elbarriaren historian (gormutuentzako eta itsuentzako erakundeak zein irakas/ikas-metodologiak, haur atzeratuen erakunde espezifikoak, problematika horien inguruan egon den txertaketa soziala eta bilakaera ideologikoa...) edo haur-literaturan datzan mentalitatearen analisian, oraindik landu gabe daude esparru zabalak[27].

Esan dugun bezala, haurtzaroaren azterketarako ikertzaileak erabiltzen ari diren egitura analitikoetan, aldagai ezberdinak gurutzatzen ari dira gertakari honek duen konplexutasunari aurre egin nahian. Haurtzaroaren esparrura garamatzan historia sektorial garrantzitsu bat, besteak beste, emakumeen historia da; eta, abiapuntu horretatik, eta, batez ere, euskal emakume nazionalisten esparrutik, zenbait lan egin dira, bai haurtzaroaz eta hezkuntzaz darabilten diskurtsoaz, baita eraturiko ekintzaz ere[28].

Laburbilduz esan dezakegu, Euskal Herriko haurtzaroaz eginiko ikerketa historikoak baduela kalitate-maila aipagarria, nahiz eta gaika eta kronologikoki gorabeheratsua izan; eta, gure aburuz, azterketa sistematiko eta orokorrerako aukera ematen digu horrek, honezkero.

25. J. J. Alonso Carballes (1998); G. Arrien (1983); I. Rekalde (1996); D. Legarreta (1984); H. Kesten (1956); I. Fernandez eta beste (1999); Azken lan hau euskaraz: I. Fernandez eta beste (argitaratzear).

26. P. Davila, A. Uribe-Etxebarria eta I. Zabaleta (1991a) eta (1991b); F. Salinas (1971); J. Gorrochategui (1981).

27. R. Berruezo (1991a); S. Calleja eta X. Monasterio (1988).

28. I. Fernandez (1994a); I. Fernandez eta beste (1998).

2.4. Pentsamendu pedagogikoa

Gure iritziz, ikerketaren beharra bereziki azpimarragarria da pentsamendu pedagogikoaren arloan. Agian, salbuespena da Unamunoren kasua, bibliografia zabala duelako. Argi utzi nahi dugu, arazoa ez dela hezkuntzaz pentsatu eta idatzi duen egilea ez egotea, baizik eta hauen ekarpenari buruzko azterketa sistematiko eta sakonik oraindik egin gabe egotea. Azkenaldian, Belaustegigoitia, Landeta eta Eleizalderi buruzko lan batzuk argitaratu dira, eta han-hemenka Juan de Zaragüeta, Sabino Arana, Pablo de Alzola, Elbira Zipitria, Julene Azpeitia, Agustin Paskual Iturriaga, Arturo Campion, Leoncio Urabayen, Luis Astigarraga, F. Iturzaeta, Jose Antonio Moguel edo Rikardo Arregiri buruzko artikuluak edota omenezko liburuak eta elkarlanak aurki daitezke; baina, lerro hauetan zehar esatera gatozen moduan, ez dira oraindik gauzatu ikuspegi pedagogikotik eta ikerkuntza historikoak behar duen sakontasun eta konplexutasunaz. Beraz, horra hor euskal hezkuntzaren historialariontzako erronka berria.

BIBLIOGRAFIA

Askoren Artean (1980): "Le Lycée de Bayonne, 1879-1979", *Société des sciencies, Lettres et Arts de Bayonne* [ale monografikoa].

————, (1981): *L'Ecole Normal de Lescar et ses maîtres, 1845-1977*, Amicales des anciens éléves de L'Ecole Normal de Lescar, Paue.

————, (1990): *10 años de enseñanza bilingüe*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Agirre, J. (1998): "Hezkuntza Gasteizen XIX. mendean", *Uztaro*, **24**, 29-47.

Agirreazkuenaga, J. (1994): "Contribución al pensamiento político de José Agustín Ibáñez de la Renteria (1751-1826)", *RIEV*, **42.2**, 405-427.

Aguirre, M. de (1974): *Cartas y discursos del Militar Ingenuo al Correo de los Ciegos de Madrid; precedido de Sistema de Sociedades Patrióticas y de Seminario o Casas de Educación,* Donostia.

Alejos-Grau, C. J. (1992): *J. de Zumarraga y su "Regla cristiana breve" (México, 1547)*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Alonso Carballes, J. J. (1998): *Los niños vascos evacuados a Francia y Belgica. Historia y memoria de un éxodo infantil, 1936-1940*, Asociación de Niños Evacuados del 37, Bilbo.

Aloy, M. (1987): *Historia de la formación profesional en el siglo XX, en Vizcaya, Guipúzcoa y Álava*, EHU, Leioa [lau liburuki].

Amezaga, E. (1994): *Calígrafos vascos*, Hilargi, Areeta (Bizkaia).

Aranburu, X. (1990): "Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola)", *Cuadernos de Sección: Educación*, **3**.

————, (1991): "Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean", *Cuadernos de Sección: Educación*, **4**.

Areta, L. M. (1990): "Las ideas pedagógicas en el País Vasco bajo el reinado ilustrado de Carlos III", in *Las ideas pedagógicas de los ilustrados vascos*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Arocena, J. (1962): *La universidad de Oñate*, Madril, [argitaratu gabeko lizentziatura-tesina].

Arpal, J. eta beste (1982): *Educación y sociedad en el País Vasco*, Txertoa, Donostia.

Arregi, P. (zuz.) (1992): *Euskal alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak, 1960-1990: Letrakit* [argitaratu gabeko ikerketa-txostena].

Arrien, G. (1983): *La generación del exilio. Génesis de las Escuelas Vascas y las Colonias Escolares (1932-1940),* Onura, Bilbo.

————, (1987): *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía. 1898-1936),* Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

————, (1993): "Bizkaiko ikastolak, 1957-1972. Beren hasiera eta antolaketa", *Cuadernos de Sección: Educación*, **6**, 7-298.

————, Perez, K. eta beste (1987) "Bibliografía de la educación en Bizkaia a través de los periódicos (1931-1936)", *Cuadernos de Sección: Educación*, **2**.

Astigarraga, J. M. eta beste (1994): "Bibliografía de la educación en Bizkaia a través de los periódicos (1913-1923)", *Cuadernos de Sección: Educación*, **7**.

Azurmendi, J. (1985): "Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian", in J. Intxausti (zuz.), *Euskal Herria. Historia eta Gizartea. Historia y sociedad*, Lankide Aurrezkia-Jakin, Donostia, 357-386.

Basagoiti, M. L. (1995): *Historia de la Casa de Maternidad de Vizcaya 1888-1985*, Bilbo [EHUn aurkeztutako doktoretza-tesia].

Basterretxea, I. (1997): *Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzaileren ahotan: 1960-1990*, Labayru Ikastegia, Bilbo.

Basurko, F. (1989): "La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca", *Historia de la Educación*, **8**.

————, eta Iztueta, P. (1993): *Euskal eskola berria*, EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila, Donostia.

Benito, J. (1990): "La Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y las escuelas de primeras letras (1771-1793)", in *Las ideas pedagógicas de los ilustrados vascos*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

————, (1994): *La enseñanza de las primeras letras en Gipuzkoa (1800-1825)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

————, (1999): *Mujer e instrucción pública. Origen del magisterio femenino en Guipúzcoa (1800-1833).*

Berruezo R. (1986): "La Junta Superior de Educación del reino de Navarra, 1829-1836", *Príncipe de Viana*, **177**, 113-222.

————————, (1991a): "Acción de la Diputación Foral de Navarra en educación especial, antecedentes 1904-1942", *Príncipe de Viana*, **194**, 121-143.
————————, (1991b): *Política educativa en Navarra, 1931-1939*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
Calleja, S. eta Monasterio, X. (1988): *La literatura infantil vasca. Estudio histórico de los libros infantiles en euskara*, Mensajero, Bilbo.
Caro Baroja, J. (zuz.) (1991): *Ignacio de Loyola, Magister Artium en París 1528-1535. Libro homenaje de las Universidades del País Vasco y de la Sorbona con motivo del V Centenario de su nacimiento*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
Castoreo, P. (1993): "Langue basque et enseignement en France, de 1789 a 1993", Paueko Unibertsitatea [argitaratu gabeko doktoretza-tesia].
Davila, P. (1993a): "Euskal alfabetatzearen ereduaren eraiketarako osagaiak", *Uztaro,* **9**, 153-160.
————————, (1993b): *La profesión del magisterio en el País Vasco*, EHU, Leioa.
————————, (1995a): *La política educativa y la enseñanza primaria en el País Vasco. 1860-1930*, EHU-Ibaeta Pedagogia, Donostia.
————————, (1995b): *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglo XIX y XX,* EHU-Ibaeta Pedagogia, Donostia.
————————, (1996): "Los libros escolares en euskara", in A. Escolano (arg.), *Historia ilustrada de los libros escolares en España*, Germán Sánchez Ruipérez, Madril, 599-620.
————————, (1997): *Las Escuelas de Artes y Oficios y el proceso de modernización en el País Vasco. 1879-1929*, EHU-Ibaeta Pedagogia, Donostia.
————————, Uribe-Etxebarria, A. eta Zabaleta, I. (1991a) "Haurtzaroaren babesari buruzko ikuspegi historikoa", *Tantak*, **6**.
————————, ———————— eta ———————— (1991b): "La protección infantil y los tribunales tutelares de menores en el País Vasco", *Historia de la educación,* **10**, 227-252.
De Certeau, M., Julia, D. eta Revel, J. (1975): *Une politique de la langue. La Révolution francaise et le patois*, Gallimard, Paris.
Díaz Noci, J. (1994): *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken erroldea (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
Eizagirre, A. (1993): "Euskal alfabetatzea: euskararen erabilerak (1970-1990)", *Uztaro*, **9**, 27-58.
Estornes, B. (1968): *Los vascos y la universidad (I, II eta III)*, Auñamendi, Donostia.
Estornes, I. (1983): *La Sociedad de Estudios Vascos,* Eusko Ikaskuntza, Donostia.
Etniker Taldea (1998): *Euskalerriko Atlas Etnografikoa. Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia*, Labayru Institutua eta Eusko Jaurlaritza, Bilbo.
Fernandez, I. (1993): "Gerraondoaren historia luzea: euskal eskolagintza", *Uztaro*, **9**, 59-88.

————————, (1994a): "Emakumea, hezkuntza eta nazioa Euskal Herrian", *Jakin*, **83**, 29-47.
————————, (1994b): *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, UEU, Bilbo;
————————, eta beste (1998): "La transmisión de contenidos nacionalistas en el contexto familiar (País Vasco, 1940-1970)", *Historia de la Educación,* **16**.
———————— eta beste (1999): "El exilio vasco y la educación: el caso de Venezuela", in C. Lozano (arg.), *1939, el exilio pedagógico*, PPU, Bartzelona, 159-186.
————————, eta beste [argitaratzear]: "Euskal erbesteratzea eta hezkuntza: Euzkadi-Venezuela Ikastola", *Cuadernos de Sección: Educación, Ikastaria.*
Fornells, M. (1995): *La universidad de Oñati y el Renacimiento*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
Furet, F. eta Ozouf, J. (1977): *Lire et écrire*, Minuit, Paris.
Garmendia, M. C. (1985): *Les ikastolas en Pays Basque D'Espagne. La question du bilinguisme scolaire*, Estrasburgo [argitaratu gabeko doktoretza-tesia].
Goikoetxea, B. eta Drabasa, I. (1985): "Tolosa: gerra aurreko ikastola (1922-1936)", *Cuadernos de Sección: Educación*, **1**.
Gondra, J. M. (1994): *Huarte de San Juan: precursor de la moderna psicología de la inteligencia*, 1993-94 ikasturtearen irekiera-ekitaldiko irakaspena, EHU, Leioa.
Goñi, J. (1946): "El estudio de la Gramática de Estella en la segunda mitad del siglo XVI", *Príncipe de Viana*, **25**, 767-776.
————————, (1970): "La fundación del colegio de los jesuitas en San Sebastián", *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, 189-228.
Gorrochategui, J. (1981): *La educación de inadaptados y delincuentes juveniles en Euzkadi en el primer tercio del siglo XX*, Salamanca [Filosofia eta Hezkuntza-Zientzien Fakultatean aurkeztutako lizentziatura-tesina].
Guibert, M. E. (1983): *Historia de la Escuela Normal de Navarra (1831-1931)*, Príncipe de Viana, Iruñea.
Hourmat, P. (1973): *L'enseignement primaire dans le Basses-Pyrénées au temps de la Monarchie*, Sociéte des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Angelu.
Ibarrondo, M. A. (1982): *Universidad 'Sancti Spiritus' de Oñate: una visión histórica*, Salamanca [argitaratu gabeko lizentziatura-tesina].
Intxausti, J. (1990): *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
————————, (1991): *Euskal eskolaren iraganaz, Historia baten bila. EHIHren proiektua*, Irargi, Bergara.
————————, (1994): "Euskarazko Biblien historiaz: Elizen arteko Biblia-ren argitalpena dela-eta", *Euskara*, **XXXIX**, 299-314.
————————, (1995): "Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma-Kontrarreformetako ilun-argitan", *RIEV*, **40**, 119-160.

Iriarte, M. de (1948): *El Doctor Huarte de San Juan y su examen de ingenios. Contribución a la historia de la psicología diferencial,* CSIL, Madril.

Iztueta, P. (1996): *Intelligentsia kimatuaren orbelak*, Kutxa Fundazioa, Donostia.

————, (2000a): *Euskal Irakaskuntza Autonomi Aroan (1983-1994)*, Utriusque Vasconiae.

————, (2000b): *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae.

Jimeno Jurio, J. M. (1993): "Escuelas de primeras letras en Estella (siglos XVI-XIX)", *Príncipe de Viana,* **199**, 431-451.

Jorcano, L. (1968): *Orígenes y desarrollo de las instituciones docentes de Iratxe*, Bartzelona [argitaratu gabeko lizentziatura-tesina].

Kesten, H. (1956): *Los niños de Gernika*, Nova, Buenos Aires.

Lasa, J. I. (1968): *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*, Auñamendi, Donostia.

Laspalas, J. (1987): *Escuelas y maestros de primeras letras en Pamplona durante el Siglo de Oro* [argitaratu gabeko lizentziatura-tesina].

Legarreta, D. (1984): *The Gernica Generation Basque. Refugee Children of the Spanish Civil War*, University of Nevada Press, Reno.

Lekuona, J. M. (1982): *Ahozko euskal literatura*, Erein, Donostia.

Letamendia, R. (1987): "Ideario pedagógico de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y sus realizaciones en Alava", *Separata del Boletín de RSBAP,* **1-2-3-4**.

————, (1988): *Educación y sociedad en Alava en el siglo XIX (1833-1868)*, Oviedo [argitaratu gabeko doktoretza-tesia].

Lizarralde, J. A. (1930): *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñati*, Tolosa.

Lopez De Gereñu, G. (1961): "La enseñanza primaria en la montaña alavesa", *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*, **1-2**, 155-172.

Madariaga, J. (1987): "El País Vasco del siglo de las luces. Inercias y cambios mentales", in *Euskal Herria historiaren aurrean. Euskadi ante la historia*, IPES, Bilbo.

Marín, B. (1985): *La escuela normal de maestros de Vizcaya*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

Martín, I. (1994): *El sistema educativo de la Restauración en el distrito universitario de Valladolid (1875-1900)*, Junta de Castilla y León, Valladolid.

Martínez Martín, M. A. (1996): *Gipuzkoa en la vanguardia del reformismo social. Beneficencia, ahorro y previsión (1876-1936)*, Kutxa Fundazioa, Donostia.

Morales Arce, J. A. (1999): *La formación intelectual de los vascos. La universidad de Oñati desde las reformas ilustradas a su supresión definitiva (1772-1842)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Mateos, S. (1999): *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza publikoa: ikastolen publifikazioa*, EHU [argitaratu gabeko doktoretza-tesia].

Olaizola, J. M. de (1993): *Historia del protestantismo en el País Vasco*, Pamiela, Iruñea.

Orella, J. L. (1977): *La universidad vasca*, Itxaropena, Donostia.

Ostolaza, M. (1996): *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*, EHU-Ibaeta Pedagogia, Donostia.

————————, (2000): "Entre religión y modernidad. Los colegios de las congregaciones religiosas en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea, 1876-1931", *Historia Contemporánea*, EHU.

Pellón, I. eta Gaga, R. (1994): *Historia de las Cátedras de Química y Mineralogía de Bergara a finales del siglo XVIII,* Bergarako Udaletxea, Bergara.

Perez, K. (1994): "Bibliografía educativa a través de libros y folletos de Bizkaia, 1900-1936", *Cuadernos de Sección: Educación*, **7**.

Pérez-Fuentes, P. (1991): "El discurso higienista y la moralización de la clase obrera en la primera industrialización vasca", *Historia Contemporánea*, **5**, 127-156.

Ramos Martínez, J. (1989): *La salud pública y el Hospital General de la ciudad de Pamplona en el Antiguo Régimen*, Nafarroako Gobernua Hezkuntza eta Kultura Saila, Iruñea.

Reboredo, D. (1992): *Escuelas y maestros en Alava (Un siglo de formación de los docentes alaveses)*, Txertoa, Donostia.

Recarte, M. (1990): *Ilustración vasca y renovación pedagógica: la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, Universidad Pontificia de Salamanca-RSBAP, Salamanca.

Rekalde, I. (1996): "La protección de la infancia en tiempos de guerra. El caso de Euskadi" in *IX. Coloquio de Historia de la Educación: El curriculum: historia de una mediación social y cultural*, Granada, **2**. liburukia, 549-560.

————————, (2000): *Escuela, Educación e infancia durante la guerra civil en Euskadi* [Salamankako Unibertsitatean aurkeztutako doktoretza-tesia (2000-X-6)].

Rey, L. (1994): "Juan Uharte de San Juan. Un egregio pensador navarro en la Europa del siglo XVI", *Sancho el Sabio*, **4**, 149-177.

Ribechini, C. (1993): *La ilustración en Vizcaya. El lequeitiano Ibañez de Renteria*, Donostia, Txertoa.

Rodríguez, F. (1999): *Construir o destruir naciones. El sistema educativo en el País Vasco*, Besatari, Bilbo.

Roquero, M. R. (2000): *La beneficencia en San Sebastian*, Gizpuzkoako Kutxa, Donostia.

Rousseau, J. J. (1996): *Instruction d'un pere a son fils sur la maniere de se conduire dans le monde*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua [lau hizkuntzatako edizioa, X. Palacios (prestatzailea)].

Saenz de Santamaria, C. (1978): *Historia de la Universidad de Deusto. (1886-1961)*, Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

Salinas, F. (1971): *El padre de Huérfanos***,** Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea.
————————, (1986): "El Doctor Martín Azpilicueta en la Universidad de Coimbra", *Príncipe de Viana*, **179**, 609-640.
————————, (1991): *Navarros universales. Sancho el Fuerte, Bartolomé de Carranza, Martín Azpilicueta y Francisco de Javier J. de Arbolancha*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea.
Silvan, L. (1953): *Los estudios científicos en Vergara a fines del siglo XVIII*, Itxaropena, Zarautz.
Tejero, E. (1986): "Relevancia doctrinal del Doctor Navarro en el ámbito de las ciencias eclesiásticas y en la tradición cultural de Europa", *Príncipe de Viana*, **179**, 571-608.
Torrealdai, J. M. (1993): *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1900-1992)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
Ugalde, M. (1988): "Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatea", *RIEV*, **33**, 55-67.
Unda, P. (1991): "La exposición en Vizcaya en el siglo XIX: nacimiento y problemática financiera de la Casa de expósitos de Bilbao", in *Enfance abandonnée et société en Europe XVI-XX siècle*, Ecole Francaise de Rome, Erroma, 1153-1167.
Uribe-Etxebarria, A. (1994): "Haurtzaroaren babesaren instituzionalizatze prozesua Euskal Herrian (1900-1930)", *Tantak*, **11**, 97-112.
————————, (1996): *Marginalidad «protegida». Mujeres y niños abandonados en Navarra 1890-1930*, EHU, Leioa.
————————, Fernandez I. eta Eizagirre, A. (1998): "Haurtzaroaren babesa eta derrigorrezko eskolatzea: Donostiako Udal-eskoletako erreforma XX. mendearen lehenengo hamarkadetan", *Tantak*, **20**, 47-60.
Urrutia, M. N. eta beste (1990): "Bibliografía de la educación y la cultura en Álava a través de los periódicos (1930-1936)", *Cuadernos de Sección: Educación*, **4**.
Valverde, L. (1994): *Entre el deshonor y la miseria. Infancia abandonada en Guipúzcoa y Navarra. Siglos XVIII y XIX*, EHU, Leioa.
Varillas, M. M. (1999): *Historia de la Casa de Expósitos de Vizcaya 1883-1984*, Bilbo [EHU-n aurkeztutako doktoretza-tesia].
Vergara, J. (1991): *Colegios seculares en Pamplona (1551-1734). Estudio a la luz de sus constituciones*, Eunsa, Iruñea.
————————, (1992): "La educación en Navarra", in B. Delgado (arg): *Historia de la educación en España y América*, SM-Morata, Madril, 392-401.
Zabaleta Imaz, I. (1993): "Helduen alfabetatze-euskalduntzea: erakundetze polarizatua (1981-1990)", *Uztaro*, **9**, 5-26.
————————, (1998): *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*, EHU, Leioa.
————————, (2000): *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera (1895-1923)*, UEU, Bilbo.
Zalbide, M. (1990): "Euskal eskola, asmo zahar bide berri", in *Euskal Eskola Publikoaren lehen Kongresua,* Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Berrezarkuntza-garaiko (1876-1923) historiografia Hego Euskal Herrian. 1988-1998 bitarteko produkzioaren azterketa bibliometrikoa eta kualitatiboa (gizartea eta politika)

Mikel Aizpuru
Euskal Herriko Unibertsitatea

1. SARRERA

Historiografia hitzak adiera desberdinak ditu. Bi dira ezagunenak. Alde batetik, historialariok idatzitako lanen bilduma osoa adierazi nahi du. Bestetik, lan horiei buruzko hausnarketaz ari da. Bigarren kasu horretan, bi eratan landu daiteke: garai jakin batean idatzitako lanen azterketaren bitartez, iturriak, eragina eta abar ikertuz, edo garai horri buruz idatzi diren argitalpenak arakatuz eta beraien inguruko gogoeta eginez. Azken hau da ondoko orrialdeetan erabiliko duguna. Hots, Berrezarkuntza-garaiko Hego Euskal Herriari buruz, bertan eta kanpoan, argitaratutako lanak izango ditugu hemen hizpide[1].

Lan honetan jorratutako garaia Berrezarkuntza da. Begi-bistara etortzen zaigun lehen arazoa, denbora-epe horren egokitasuna dugu. Izan ere, sailkapen--mota honek kategoria politiko jakin batzuei erantzuten die; eta, oso zaharra izan arren, ez du aldaketarik jaso, historiografian berrikuntza nabarmena gauzatu den garai honetan. Izan ere, denbora-muga horiek ez dituzte finkatzen bakarrik garai baten sailkapena edota izena. Eragina dute, halaber, aztertu beharreko edukia finkatzeko orduan. Aukera honen egokitasunik eza, bereziki, gizartea eta ekonomia jorratzen duten lanetan islatzen da; kategoria politiko horiek ezer gutxi esaten dutelako jakintza-arlo horien zalantza-guneak argitzeko orduan[2].

Aurrean izan dugun bigarren arazoa, kronologia zehatzarena da. Historialarion artean zalantzak daude garai horren hasiera eta bukaera zehazteko orduan;

1. Aukera honek kanpoan uzten du Nafarroako Unibertsitatean Ignacio Olabarriren eskutik garatzen ari den azterketa historiografikoaren eskolaren emaitzak.

2. C. Forcadell Álvarez (1996): "De la Revolución democrática a la Restauración: El horizonte de una historia social", in A. Morales Moya eta M. Esteban de la Vega (arg.), *La Historia Contemporánea en España*, Universidad de Salamanca**,** Salamanka, 103. or.

baina II. Gerra Karlistaren amaiera eta Primo de Rivera-ren diktadura azterketatik kanpo utzita, 1876 eta 1923. urteen tartera mugatu dut azterketa. Lanetik kanpo geratzen da, era berean, Ipar Euskal Herriko produkzio bibliografikoa, III. Errepublikaren garaia (1871-1945) Hego Euskal Herriko epe bereko historiarekin parekatzea tentagarria izan arren. Tokiko historia gisa ezagutzen dugun historia ere, gure analisitik kanpo utzi dugu, gehienetan jorratutako denbora-epeak Berrezarkuntza gainditzen duelako, maiz garai honetara heldu ere egiten ez delako, eta, sarritan, gure ildo nagusietako bat —Historia politikoa—baztertzen duelako[3]. Jakinaren gainean gaude, dena den, beste herrialde batzuetan bezala, hemen argitaratutako lan gehienen esparrua eremu hurbil eta mugatua dela, udalerria gehienetan[4].

Bestalde, lanak hiru atal desberdin izango ditu. Lehen atalean aztertuko ditut Aro Garaikideko euskal historialariek Berrezarkuntzari buruz idatzitako lan historiografikoak eta kritika. Bigarrenean, Berrezarkuntzari buruzko produkzio bibliografiaren analisi bibliometrikoa landuko dut. Eta hirugarrenean, ikerketaren lerro nabarmenenak azalduko ditut. Bide honetan, aurrera dezadan, joera nagusien azterketa ikerketa-eremuen arlora zuzenduko da, eta ez argitalpen horien oinarri teoriko edota metodologikoak arakatzera, norberaren mugak direla medio.

2. AZTERKETA HISTORIOGRAFIKOAREN GABEZIAK GURE INGURUAN

«Historiografiaz buruturiko gogoetak urriak ditugu». Horrela hasi zuen 1989ko azaro-abenduko *Jakin* aldizkarian bere idazlana Joseba Agirreazkuenagak[5]. Esaldi hori historia ekonomikoari lotuta bazegoen ere, aldizkari horretan parte hartu zuten beste egileek antzeko baieztapenak egin zituzten. Helburu, kalitate eta emaitza desberdineko lanak bildu zituen *Jakin*ek "Euskal Historiografia" izenburupean. Hamar urte geroago, 1999ko urriko *Larrun*en 26. zenbakian, antzeko hitzak erabili zituen Emilio Majuelo-k egoera azaltzeko: «historiografia historia eta historialari horien lanei buruz historia bat egitea da. Alde horretatik euskal historiografia oso

3. Euskal Herriko XX. mendearen hasierako tokiko historiari buruzko hausnarketa interesgarri bat honako artikulu honetan ikus daiteke, J. Agirreazkuenaga (1992): "Euskal historiografiaren barrena: gizarte arazoen kezka eta azterketa XX. mendeko tokiko historiografian", *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía*, **19**, 11-31.

4. Euskal Herrian egiten den tokiko historiari buruzko hausnarketak ikusteko, hona hemen zenbait lan interesgarri: J. Agirreazkuenaga (1998): "Històries locals i microhistòries, un altre camì per a la recerca", *Plecs d'història local*, **78**, 44-46; J. Chueca (1998): "Apunts sobre la història local al País Basc", *Plecs d'història local*, **78**, 47-48 eta J. Gracia Cárcamo (1998): "Les 'borses de treball' d'historia local de Biscaia, cap a la culminació d´un ambiciós projecte historiogràfic", *Plecs d'història local*, **78**, 49-56.

5. J. Agirreazkuenaga (1989): "Historia ekonomikoaz: Eraberritzearen urratsak", *Jakin*, **55**, 49-67. Bertan argitaratutako beste lanak: J. Apalategi (1989): "Bizitza politikoa eta abertzaletasuna euskal historiografian (1960-1988)", *Jakin*, **55**, 81-127; R. López Atxurra (1989): "Euskal historiaren historiografiaz", *Jakin*, **55**, 9-38; E. Majuelo (1989): "Euskal Herriko historia sozialari buruzko gogoetak", *Jakin*, **55**, 69-80; J. Urrutikoetxea eta A. Artzamendi (1989): "Euskal demografiaren historiaz", *Jakin*, **55**, 39-47.

atzeraturik dago». José Luis de La Granja-k bildutako zerrenda bibliografikoak arakatuz, nabarmena da euskal historiografiari buruzko hausnarketaren gabezia; eta Berrezarkuntza garaia ez da salbuespena. Hutsune horrek, besteak beste, kanpoko ereduekiko morrontza adierazten du[6].

Salbuespenak salbuespen, oro har, euskal historialariok iritzi baikorra planteatu izan dugu geuk landutako historiografiari buruz. Baieztapen horren arrazoia, nire ustez, ikerketa-arloan nagusi eta buru den belaunaldiaren ezaugarrietan dago. Talde hori, berrogeita hamar urte ingurukoa, duela hogeita bost urte heldu zen ikerketaren mundura, eta frankismoaren garaiko ustezko hutsunearekin egin zuen topo[7]. Marxismoaren eta *Annales*en, edota bien eraginpean, ez zuten loturarik abertzaletasunaren inguruan erbestean garatutako lanekin, edo gutxietsi egiten zituzten. Are gehiago, hizkuntzaren eta kulturaren eremuan abertzaletasunaren berrikuntza gauzatzen zen bitartean, historia baztertuta , historialari haiek, ia guztiak erdaldunak, ekonomiaren eta gizartearen eremura bideratu zituzten beren ahaleginak. Berrikuntza historiografikoa unibertsitatean garatu zen bitartean, bestelako lerroak eta joerak agortzen joan ziren, edo baztertuta geratu ziren[8]. Laburbilduz, historia akademikoak mundu propioa garatu zuen, espezializazioak eskatzen dituen arauei jarraituz, eta, horregatik ere, beste diziplinetatik aldenduta. Mundu propioa, babestua, lurralde eta arau markatu batzuk dituena[9], baina garapen izugarriarekin laurogeiko hamarkadan. Ez da harritzekoa, beraz, norbaitek lan historiografiko bat idazten zuenean/duenean, 1975. urtearen aurreko lanei buruz aipamen ezkorrak azaltzea: «rancia bibliografía vasca adocenada por las medidas pretorianas del régimen o degenerada por la verborrea y épica nacionalista»[10]; eta egindakoa baikor balioestea, ohartu gabe ezen hogeita bost urte luze pasa direla Franco hil zenetik, eta produkzioa bera eta inguruko historia-lanak izan beharko luketela euskal historiografiaren erreferentziak. Satisfazio-giro horren ondorioa dugu, ezbairik gabe, gure artean azterketa historiografikoen urritasuna eta kritikaren gabezia.

---

6. G. Pasamar Alzuria (1997): "Teoría y metodología de la historia: Recientes aportaciones españolas", *Hispania*, **LVII/1**, 339-347. Egoerak alde nabarmena dauka Espainiakoarekin alderatuta. Forcadell-en ustetan «pocos profesionales se reunen con tanta frecuencia para reflexionar, hacer balances de lo hecho, descripciones de lo que se está haciendo o proyectos sobre lo que hay que hacer», C. Forcadell Álvarez (1995): "La historiografía contemporánea española actual: Síntesis y microanálisis", *Revista de Historia Jerónimo Zurita*, **71**, 48.

7. Aragoiko kasuan ere, aurreko ikerlanen produkzioa desitxuratzeko joera egon zen. Ikus C. Forcadell Álvarez (1999): "El despliegue de una historiografía regional. Pasado reciente y presente de la investigación contemporaneísta en Aragón", *Huarte de San Juan. Geografíe e Historia,* **6**, 59-78.

8. Galiziako bilakabideak, ezaugarri propioak eduki arren, antzeko bidea jarraitu zuen. R. Villares (1996): "La historiografía gallega actual", in J. Agirreazkuenaga eta M. Urquijo (arg.), *Perspectivas de historia local: Galicia y Portugal*, EHU, Bilbo, 18-20.

9. M. Crozier (1984): *No se cambia la sociedad por decreto*, Instituto Nacional de Administración Pública, Alcalá, 47. or.

10. Carlos Larrínaga-ren hitzak dira, 1997an *Mundaiz*en argitaratutako aipamen batean adieraziak; baina beste edonorenak izan zitezkeen.

Egoera horrek nabarmen kontrastatzen du Espainiakoarekin eta, guretzat interesgarriagoa dena, antzeko ezaugarriak (hizkuntza, nortasun berezia eta autonomia) dituen Kataluniakoarekin. Azken herrialde horretan badira urte batzuk zenbait gairi buruzko kezka sakona zabaldu zela: hau da, ikerketaren nondik norakoei buruzkoa[11], historia-lanen zabalkundeari buruzkoa eta irakaskuntzaren munduan bizi zen/den giroari buruzkoa[12]. Bertako historiografiaren kalitatea ezagutzen dugunok harriduraz irakurri genituen Riquer-rek esandakoak: Historiografia katalaniarra beste gizarte-zientzietatik bakartuta zegoela, txokokerian erortzeko arriskuan, konparazio gutxi egiten zuela, ikerketa-eremu nagusia bertakoa zela, atzerriko berrikuntza metodologiko eta teorikoen onarpena berandu eman zela eta azalekoa zela, ikerketaren eta zabalkunde-lanen arteko urrunketa zegoela, eskuliburu zaharkituak erabiltzen zirela, ikerketek norabide garbirik ez zutela, eta abar[13]. Badirudi, dena den, azken urte hauetan, balorazio baikorragoa egiten ari direla Kataluniako historialariak, eta une honetako kritikak leunagoak direla, garai bateko eztabaida garratzen emaitzen urritasuna ikusi ondoren[14].

Gure artean ez zegoen horrelakorik. 1991n Donostiako Udako Ikastaroetan egin zen Historiografiari buruzko mintegian, eta ondoren argitaratu zen *Historia Contemporánea* aldizkariaren 7. zenbakian, ez zeuden euskal produkzio bibliografikoari buruzko bi artikulu baino gehiago, bata nazionalismoaren historiografiari buruzkoa zena eta bestea langile-mugimenduari buruzkoa[15]. Hauekin batera, bi artikulu interesgarri zeuden euskal tradizio historiografikoari buruz, Joseba Agirreazkuenaga eta Manu Montero-ren eskutik[16]; baina esanguratsua da jakitea, bien arteko eztabaidaren jarraipena iragarri arren —mintegi baten bitartez egitekoa zena—, ez zela horrelakorik egin.

Une horretatik aurrera, ikertzaile gutxi izan dira azterketa historiografikora zuzendu direnak, eta, are gutxiago, Berrezarkuntza langaitzat izan dutenak[17].

11. 1983an egin zen Bartzelonan gai honi buruzko lehen mintegia. G. Pasamar (2000): *La Historia contemporánea. Aspectos teóricos e historiográficos*, Síntesis, Madril, 246 or.

12. Ikus Askoren Artean (1990): *La historiografia catalana. balanç i perspectives,* Cercle d´Estudis històrics i Socials, Girona.

13. B. Riquer i Permanyer (1992): "Apogeo y estancamiento de la historiografía contemporánea catalana", *Historia Contemporánea*, **7**, 117-134. 1999an argitaratutako balantze berri batean Riquer-ek leundu egin zuen bere kritika eta azken urteetako ekarpenak nabarmendu zituen. B. de Riquer i Permanyer (1999): "Panorámica actual de la historiografía catalana", in J. L. de la Granja, A. Reig Tapia eta R. Miralles (arg.), *Tuñón de Lara y la historiografía española*, Siglo XXI, Madril, 279-286.

14. E. Pujol (1995): "Pau i treva en la historiografia catalana", *El Contemporani*, **6/7**, 5.or.

15. J. L. de la Granja (1992): "El nacionalismo vasco: de la literatura histórica a la historiografía", *Historia Contemporánea*, **7**, 209-236 eta R. Miralles (1992): "Historiografía del movimiento obrero en el País Vasco", *Historia Contemporánea*, **7**, 237-255.

16. J. Agirreazkuenaga (1992): "La tradición historiográfica vasca: su desarrollo en el marco de las ciencias sociales", *Historia Contemporánea*, **7**, 257-281 eta M. Montero (1992): "La invención del pasado en la tradición historiográfica vasca", *Historia Contemporánea*, **7**, 283-294.

17. Kronologia errespetatuz, J. M. Donezar (1993): "La presencia de la Historia Contemporánea en la revista Príncipe de Viana", *Príncipe de Viana*, **200**, 621-635; J. F. Karasusan (1994): "Las élites

Argitalpen asko, gainera, gehiago dira aipamen eta bilduma bibliografikoak hausnarketa historiografikoak baino. Ez da egin eztabaida historiografikoaren izena merezi duen polemika edo argitalpenik.

Bost dira, azken urte hauetan, Berrezarkuntzari buruzkoak izanik, arreta berezia merezi duten lan historiografikoak. Lehena, 1996an argitaratutako *Itsas memoria* aldizkariaren lehen zenbakia da: Euskal Herriaren itsas historiari buruzko ikerketen gaur egungo egoera aztertzen zuen, ikuspegi zabal batetik, ikerketaren bide berrien arazoak planteatuz[18]. Bigarrena, urtebete geroago, Félix Luengo-k argitaratu zuen, azken urteetako liburu garrantzitsuenen aipamena eginez[19]. Bere interes nagusia lehen orrialdean dago. Bertan, gehiegizko baikortasunaren aurrean arreta jarri behar zela azpimarratzen zuen EHUko katedradunak. Hauek ziren, beraren ustez, euskal ikerketa produkzioaren gabezia eta hutsune agerikoenak: Espainian zeuden eztabaida historiografikoetan euskal ekarpenik ez egotea, berrikuntza metodologikoa motel eta, kasu batzuetan, berandu egitea, eta zenbait gaik (abertzaletasuna, foruzaletasuna) eta garaik (Errepublika, Berrezarkuntza, Gerra Zibila) ikertzaileen interesa kontzentratzen zuten bitartean, beste batzuetan hutsune nabarmenak egotea. Luengo-k berak idatzi zuen 1999an hausnarketa berri bat *Huarte de San Juan* aldizkarian[20]. Bertan historiografiaren ohiko errepasoa egiteaz gain, hurrengo atalean jorratuko dugun auzi bat lantzen zuen, hots, historia nazional eta nazionalistarik eza Euskal Herrian. *Huarte de San Juan* aldizkariaren zenbaki berean, azken hogei urteetako Nafarroako historiografia aztertu zuten Pilar Erdozainek eta Fernando Mikelarenak[21]. Arlo desberdinetako lanik bikainenak aipatzea izanik lanaren muina, esanguratsua da ikustea nola erakusten dituzten, lehen atalean, Nafarroako historiografiari buruz dauden eskola eta taldeak, eta baita erakundeen aldetik duten babes desberdina ere.

---

contemporáneas en Navarra. Un vacío historiográfico" (299-302) eta J. M. Ortiz de Orruño, "Las élites en la historiografía vasca: una cuestión todavía pendiente" (309-314) in P. Carasa Soto, *Elites. prosopografía contemporánea*, Universidad de Valladolid, Valladolid; E. Alonso Olea (1996): "Para repensar el concierto Económico: de 'migaja' a Derecho Histórico", *Historia Contemporánea*, **13-14**, 431-464; L. Mees (1996): "Historia social y política del País Vasco contemporáneo", *Studia Histórica*, **13-14**, 239-250 eta S. Anaut Bravo (1997): "La demografia histórica en Navarra. Apuntes sobre el estado actual", *Estudios de Ciencias Sociales*, **10**, 37-58.

18. M. Montero (1996): "Itsas-gaiei buruzko ikerketen gaur egungo egoera Euskal Herrian. Aro garaikidea (I): ekonomi mundua", *Itsas memoria*, **1**, 90-109; F. Luengo (1996): "Itsas-gaiei buruzko ikerketen gaur egungo egoera Euskal Herrian. Aro garaikidea (II): gizartea", *Itsas memoria*, **1**, 110-122 eta J. Gracia (1996): "Arrantza-sektorea Euskal Herriaren historian: egungo ezagueren zirriborroa eta etorkizuneko ikerketa historiografikoaren arazoak", *Itsas memoria*, **1**, 168-214.

19. F. Luengo (1997): "Recientes aportaciones a la historiografía política contemporánea en el País Vasco", *Cuadernos de Alzate*, **16**, 177-184.

20. F. Luengo (1999): "Algunas reflexiones sobre la historiografía vasca contemporánea", *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, **6**, 109-123.

21. P. Erdozain Azpilkueta eta F. Mikelarena Peña, (1999): "La historiografía contemporaneista navarra de los últimos veinte años. Un repaso bibliográfico", *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, **6**, 79-108.

1999an bertan kaleratu zen garai horretako azken lana, José Luis de la Granja-ren eskutik[22]. Euskal historiografia biltzen eta sistematizatzen saiatu den historialari honentzat, gure produkzioaren ezaugarri nagusiak honako hauek lirateke: aro garaikidearen nagusitasuna (XX. mendeak gero eta garrantzi handiagoa hartuz), sintesi-lanen falta, probintzializazioa, urteurrenen menpekotasuna, oinarri teorikoaren txirotasuna, elkar-truke gutxi egotea beste gizarte-zientziekin, eta hemengo historiari gehiegizko arreta ematea, kanpoko egoerekin konparatu gabe. Ikusten denez, behin eta berriz errepikatzen diren gaiak aipatu zituen.

Eztabaida historiografikoaren ahuleziaren arrazoi nagusiak, nire ustez, bi dira. Alde batetik, historialariok ez ditugu gustukoak norberaren lanari buruzko kritikak, eta, ahal den neurrian, saihestu egiten ditugu. Bigarrenik, lan hori egiteko baliabideak oso urriak dira. Izan ere, Euskal Herrian argitaratzen diren historia-aldizkari gehienek toki urria edo hutsa gordetzen dute liburuen-aipamenentzat. Liburu-aipamenak daudenean, ia beti, liburuak goratzeko izaten dira, eta ez beraien alde ilunak edota kritikagarriak plazaratzeko. Lau dira joera honetatik, nolabait, aske geratzen diren aldizkariak. *Mundaiz* dugu lehena, eta nahiz eta historiako aldizkaria bakarrik ez izan, hainbat lani buruzko aipamenak argitaratu ditu. Esanguratsua da, dena den, ia beti egile berek egin izan dituztela aipamenak, EUTGko Letren Fakultateko bi bekadunek, hain zuzen, Pedro Barrusok eta Carlos Larrinagak. *Uztaro* dugu bigarren kasua; Gizarte-Zientzien aldizkaria izan arren, liburu-aipamenen atalak Historiari buruzko kritikak argitaratzeko balio izan du nagusiki, eta, beste argitalpen batzuetan ez bezala, izaera kritikoa izan dute[23]. *Gerónimo de Uztaritz* erakundearen buletinak ere lan egokiak kaleratu ditu. *Historia Contemporánea* aldizkariak, azkenik, garaien arabera garrantzi desberdina eman dio arlo honi; kontuan izanik gainera, ez dela mugatu Euskal Herrira. Azpimarratzekoa da, ildo horretan, Juan Gracia-ren lana azken zenbakietan. *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkariak ere egiten du 1998tik aurrera kritika-lan hori, eta, horrez gain, lan bikaina egiten ari da Euskal Herriko produkzio zientifikoaren berri ematean.

3. BERREZARKUNTZARI BURUZKO PRODUKZIO HISTORIOGRAFIKOA

Sarreran aipatu dudan moduan, bigarren atal honek Berrezarkuntzari buruzko produkzio historiografikoa aztertuko du. Bibliometriaren erabilera ez da oso arrunta gure inguruan, nahiz eta Manex Goihenetxek gogorarazten duen moduan, ezinezkoa izan azterketa historiografikoak burutzea kuantifikaziorik gabe[24]. Ez naiz datu estatistikoen erabilerak sortzen dituen arazo eta susmoen inguruan luze

22. J. L. de la Granja (1999): "La nueva historiografía vasca", in J. L. de la Granja, A. Reig Tapia eta R. Miralles (arg.), *Tuñón de Lara y la historiografía española*, Siglo XXI, Madril.

23. Kritika eredugarri bat ikusteko, Antonio Rivera-k zuzendutako eta Lur argitaletxeak argitaratutako *Euskal Herriaren Historia*ri egindakoa irakur dezakegu: Iban Zaldua, *Uztaro*, **27**, 1998, 107-125.

24. J. Goyhenetche (1998) *Les basques et leur histoire*, Baiona, Elkar, 13.

arituko, jakinaren gainean bainago bibliometriak ezer gutxi esan dezakeela jarduera zientifikoaren berrikuntza-graduari buruz, eta maila teorikoari buruz; baina asko esan dezake produkzioaren bolumen, joera, apurketa eta norabide orokorrei buruz[25]. Hemen aurkezten dena, beraz, lehen hurbilpen bat baino ez da, ariketa-mota honek zehaztasun gehiago eskatzen baitu. Izan ere, zenbait arazo azaldu zaizkit azterketa lantzen nuen bitartean, banan-banan aipatuko ditudanak.

Laginaren mugak finkatzea izan zen lehena; hots, noiztik hasi behar nuen bibliografia biltzen. Banuen horretarako tresna baliotsu eta garrantzitsu bat, 1987an argitaratzen hasi zen "Bibliografia sobre la Historia Contemporánea del País Vasco" delakoa José Luis de la Granja, Joseba Agirreazkuenaga eta beste historialari batzuen eskutik ateratakoa. Lehen atalak *Historia Contemporánea* aldizkarian argitaratu ziren, eta azken bi bildumak *Vasconia* aldizkarian; 1998 izan zen argitaratu zuten azken urtea[26]. Gogora dezagun, bestalde, 1985-1989 bitartean honako kongresu hauek egin zirela: *Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII, XIX y XX*, *Primer Congreso General de Historia de Navarra*, *Euskal Herriaren Historiari buruzko Biltzarra*, *II. Euskal Mundu Biltzarra*, eta *Gizarte aldaketak eta modernizazioa* izenburuko kongresua. Bilera hauek, neurri handian, Euskal Herriko[27] ekoizpen historiografikoaren heldutasuna markatu zuten. Zilegi bekit, beraz, urte horiek hausnarketa honen abiapuntutzat hartzea.

Bigarren arazoa Berrezarkuntzako produkzio bibliografikoaren barruan zer sartu erabakitzea izan da. Hots, liburu edo artikulu baten gaiak 1876-1923 bitarteko muga kronologikoa gainditzen badu, zer puntutaraino sar daitekeen multzo honetan. Subjektibitateak, esan beharrik ez dago, toki handia hartzen du lan bat sartu eta beste bat kanpoan uzteko orduan. Antzeko arazoa planteatu zitzaidan lanen sailkapenari ekiteko orduan. Bi dira azaldu zaizkidan kezkak: alde batetik, oso luzera desberdineko lanak batera daitezkeen edo ez argitzea. Kontu hau saihesteko, adibidez, Almuiña-k orriak zenbatu zituen; baina bere kasuan aldizkari bakarra zuen ikergai[28]. Sortutako desorekaz jabetu arren, biak batzea erabaki nuen, ezinezkoa zelako, formatu eta tamaina desberdineko lanak zenbatu eta neurtzea, denbora-arazoak medio.

Buruhauste handiagoa eman zidan, bestalde, gaikako banaketa prestatzeak. Izan ere, bilketa bibliografikoko lan gehienek, bereziki liburuek, gai bat baino ge-

25. A. Niño, C. Saez, R. Sánchez eta M. Santi (1994): "Análisis bibliométrico de la investigación realizada en el Departamento de Historia Contemporánea", *Cuadernos de Historia Contemporánea*, **16**, 185-204.

26. Esker berezia eman beharrean nago Santiago De Pablo-ri, oraindik kaleratzetu gabe dagoen 1998ko zerrenda nire eskuetan jartzeagatik, *Vasconia* aldizkariaren **31**. zenbakian argitaratuko dena hain zuzen.

27. Euskal Mundu Biltzarrak Euskal Herri osoa, edota, gutxienez, Hego Euskal Herria, hartzen zuen bitartean, historiografia akademikoak askoz gehiago errespetatu edota bultzatu ditu muga juridikoak.


28. C. Almuiña Fernández (1990): "Hispania, revista de historia (1940-1989). Análisis y evolución de contenidos", *Hispania*, **L/2**, 393-416.

hiago jorratzen zuten, eta zaila zen erabakitzea zein esparrutan sartu. Sistematikoki, atal bakarrean sartu ditut. Gaiei dagokienez, Almuiña-k *Hispania*rentzat prestatutako zerrenda hartu dut abiapuntutzat, aldaketa txiki batzuekin egokituta. Hona hemen lortutako emaitzak:

Gaikako bilakaera kronologikoa

Gaiak	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	Guztira
Politika	1	29	11	15	14	13	8	17	25	22	19	7	181
Kultura		6	6	11	2	8	6	10	5	35	19	53	161
Ekonomia	2	16	4	11	10	12	8	18	18	15	18	5	137
Gizartea		9	1	7	2	8	12	13	9	11	19	5	96
Biografia		2	2	4	5	5	13	5	1	17	5	11	70
Hiria	1	2		4	3	6	12	5	1	7	10	2	53
Prentsa	1	7	5	8	3	2	5	5	8	4		1	49
Demografia	4	3	3	5	2	4	2	8	7	6	4		48
Lana	1	12	1	10	7	3	1	5		1	6	1	48
Iturriak		8	1	2	3	3	3	4	1	6	9	5	45
Hezkuntza	4		2	1	1	3	2	5	5	2	4	2	31
Erakundeak		2	1	1	4	1	1	2	7	4	4	1	28
Historiografia	5		2		2	1		4	2	7			23
Garraioa				1	3		4	7	3	4			22
Erlijioa		8	2	1		2	1		3	1			18
Armada						3		4	2	5	2		16
Emakumea					1		2	1	1	2	4	2	13
Lurraldea	1			1	2			1		1			6
Guztira	20	104	41	82	64	74	80	114	98	150	123	95	1045


Ugariak dira koadro horretatik atera daitezkeen ondorioak. Hurrengo orrialdeetan bakar batzuk aipatuko ditut.




Bilakaera kronologikoari erreparatzen badiogu, produkzioaren hazkundearena da aterako dugun lehen ondorioa. Hain zuzen, 1987an baino ia bost aldiz gehiago argitaratu da, gure laginaren azken urtean. Bigarren ondorioa, ekoizpena aldakorra izan dela ikustea da, nahiz eta goranzko joera bat egon den. Ezaugarri hau are, nabariagoa izan da garai honen hasieran. 1988an argitaratu ziren, adibidez, Euskal Mundu Biltzarreko aktak eta Nafarroako Historiaren Kongresu Orokorrekoak. EAEn neurri horretako beste batzarrik egin ez den arren, Nafarroan nabaria da horrelako ekintzen eragina. Urteurrenen eragina ere azpimarragarria da. Horretaz, 1999ko datuak edukiko bagenitu, ziur naiz berriro ere hazkunde garrantzisua ikusiko genukeela. Izan ere, 1898ko gertakizunen urteurrenak indar handia eman die Berrezarkuntzari buruzko argitalpenei. Alde horretatik, ez dut uste kezkatzekoa denik azken bi urteetako jaitsiera.

Gai bakoitzeko argitalpenak


Politika	181
Kultura	161
Ekonomia	137
Gizartea	96
Biografia	70
Hiria	53
Demografia	48
Prentsa	49
Lana	48
Iturriak	45
Hezkuntza	31
Erakundeak	28
Historiografia	23
Komunikazioak	22
Erlijioa	18
Armada	16
Emakumea	13
Lurraldea	6





Euskal historialariek landu dituzten gaiak aztertzen baldin baditugu, horien kontserbadurismoa ikusiko dugu, ohiko gaiek eta ohiko tratamenduek pisu nabaria baitute. Politika, kultura eta ekonomiarekin lotutako lanen batuketak produkzio osoaren %45 gainditzen du. Politikak eta ekonomiak, gainera, nagusitasun nabarmena izan dute urtez urte; kulturaren kasuan, ordea, azken hiru urte hauetan ezagutu du berebiziko igoera, Unamunoren eta, oro har, 98ko urteurrenaren hurbiltasunaren ondorioz.

Ondoren datozen bi arloek (biografia eta hirien historia) lan gutxiagoren interesa jaso arren, hazkunde interesgarria izan dute azken urteotan, nahiz eta erregulartasunik ez eduki. Joera horiek orokorrak dira inguruko historiografian. Gure kasuan, hazkunde honetan lagundu duten bi faktore daude. Alde batetik, euskal kulturan eragina izan duten pertsonen biografia laburren argitalpena bultzatu du Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak. Bestalde, euskal hirien biztanleriaren hazkundeak eta, bereziki, Bilbok izan duen berpizteak eragina izan dute beren inguruko lanen kopurua indartzeko. Beste kasu batzuetan bezala, joera hori hazi egin da azken urteetan.



Badago hirugarren multzo bat, prentsak, demografiak eta lan-munduak osatutakoa. Kopuru aldakorrak dituzte urte batetik bestera, baina beti ere kopuru txikitan, %5en azpitik hirurek. Hortik aurrerako gaiak oso era bakanean agertzen dira. Nabarmentzekoa da, hiru gai oso desberdinen agerpen urria. Bata erlijioa da, kontuan izanik gure herrian izan duen pisua. Bigarrena emakumea da, ia-ia azken gaia baita, azken urteotan lan gehiago argitaratu diren arren; ezin da esan beste herrialde batzuetan lan-kopuru garrantzitsua biltzen duen arloak interes handirik sortu duenik gure artean. Bestalde, kontzientzia-eragozpenak eta intsumisioak hainbesteko eragina izan duten lurraldean, esanguratsua da zein gutxi ezagutzen dugun bertako antolaketa militarra eta —zuzenean Berrezarkuntzari buruz hitz egiten dugunez— derrigorrezko soldaduskaren ezarpena gure inguruan nola gertatu zen.

Azterketa kuantitatiboarekin batera, beharrezkoa dugu produkzioaren kalitatea behatzea. Hurrengo atalean ikusiko dugu hori. Aurrera dezadan, orain dela hamabi urte baino askoz ere hobeto ezagutzen dugula Berrezarkuntza, nahiz eta begi-bistakoa izan hutsune garrantzitsuak daudela.

4. IKERKETEN LERRO NAGUSIAK

Bi izango dira hemen erabiliko ditudan tresnak, gaur egun lantzen diren lerro nagusiak azpimarratzeko orduan. Azken urteetako lan aipagarrienen iruzkina egingo dut. Horren aurretik, eta, gure irudiko, bide horren subjektibotasuna saihesteko, 1994. urtetik aurrera irakurri diren doktoretza-tesien azterketa egingo dut.

4.1. Doktoretza-tesien azterketa

Doktoretza-tesien azterketa unibertsitateko ekoizpenaren adierazle egokia izan ohi da. Horien garrantzia ahuldu den arren, tesiak historialari baten lan nagusia izaten jarraitzen du, eta, nahiz eta ez beti, historialarien ondorengo ikerketen norabi-

dea azaltzen digu maiz. Ikertzaile gazteen eta beraien zuzendarien kezka intelektualen berri ematen digute lan-mota honetan egon daitezkeen aldaketak. Aldi berean, joerak azaltzen, interes-guneak erakusten eta ikerketa-produkzioaren bilakaera kuantitatiboa bilatzen laguntzen digute. Guztira 37 tesi bildu ditugu[29].

Doktoretza-tesien urtez urteko banaketa

1995	12
1996	6
1997	12
1998	5
1999[30]	2

Batez beste, zazpi tesi aurkeztu dira urteko; baina bilakaera aldakorra izan da. Are gehiago, atzera jotzen badugu: 1993an 8 tesi izan zirelako eta 6 tesi 1994an. Edozein kasutan, joerak kezkagarria dirudi, 1998 eta 1999. urteetan jaitsiera nabarmena egon delako. Badirudi, bide horretan, beste lurralde batzuen antzeko bilakaera dagoela, nahiz eta atzerapen txiki batekin izan. Madrilgo Universidad Complutense delakoaren Historia Garaikidearen kasuan, ikasle-kopuruaren gorakada, ikerketa-beken eskaintza, unibertsitate-irakasleen beharra eta irakaskuntza ertaineko irakasleen beherakadarekin lotu da hazkunde-garaia (1983-1993)[31]. 1993tik aurrera, ordea, jaitsiera nabamena egon zen Madrilgo unibertsitate horretan. Beraien ustez, beken aurrekontuen murrizketa eta unibertsitateko irakasle izateko aukeren desagerpenaren ondorioz. Gure artean, agian oraindik goizegi izango da arrazoiak zehazteko, baina ez dirudi oso desberdinak direnik.

29. Hauen bilketa egiteko erabilitako iturriak, J. L. de la Granja eta S. de Pablo (1994): "Tesis doctorales sobre Historia del País Vasco (siglos XVIII, XIX y XX), leídas en 1994", *Historia Contemporánea*, **11**, 333-353; J. L. de la Granja Sainz, S. De Pablo Contreras eta C. Landa Montenegro (1998): "Bibliografía y tesis doctorales de Historia Contemporánea del País Vasco (1995-1996)", *Vasconia*, **25**, 417-476; J. L. de la Granja Sainz, S. De Pablo Contreras eta C. Landa Montenegro (1999): "Bibliografía y tesis doctorales de Historia Contemporánea del País Vasco (1997)", *Vasconia*, **29**, 187-228 eta *RIEV* aldizkariaren **43, 1/2** (1998), **44, 1/2** (1999) eta **45, 1** (2000) urteetako tesien bildumak.

30. Urte horretako datuak agian ez dira osoak izango, nahiz eta 2000. urteko *RIEV* aldizkariaren lehen zenbakia erabili den datuak biltzeko. Zenbait aldizkari edota datu-baseren atzerapena (TESEOrena, adibidez) oztopo larria da era honetako azterketak burutu ahal izateko.

31. L. T. Gil Cuadrado, R. Lillo Sánchez eta E. Rodríguez López (1997): "Análisis bibliométrico de las tesis leídas en el departamento de Historia Contemporánea de la UCM (1969-1996)", *Cuadernos de Historia Contemporánea*, **19**, 234-235.

Doktoretza-tesiak gaika

Ekonomia	11
Nekazaritza	3
Politika/erakundeak	5
Gizartea/demografia	5
Hirigintza	1
Artea/kultura	5
Euskara/Nortasuna	7

Guk aztertu ditugunak Complutense-ko datuekin alderatzen jarraitzen badugu, aldaketa esanguratsuak ditugu. Garrantzitsuena Historia Ekonomikoaren nagusitasuna da, 11 tesirekin. Aurrekoei gehituz gero, nekazaritzako hirurak, demografiako beste hirurak eta hirigintzarekin lotutakoa, guztira 18 ditugu (tesien multzoaren %48,6), Madrilen %7 diren bitartean. Historia Ekonomikoan, enpresen historia hartzen ari den garrantzia azpimarratuko dut. Gure zerrendako bost tesik enpresa edo enpresario ezagun baten ibilbidea aztertu dute, eta besteek inbertsioak landu dituzte. Aipagarria da, halaber, elektrizitatearekin lotutako hiru tesi irakurri direla azken bost urteotan. Bestalde, Nafarroako nekazaritza aztertu dute XIX. mende hasieratik XX. mendearen erdirainoko nekazaritzari buruzko hirurak.

Kulturarekin erlazionatutakoak Madrilgo sailaren kantitate berean daude, %13. Haien kasuan, historia-mota honek jarraitzaile gutxi izan ditu azken urteetan, gure inguruan hazkunde nabarmena izan duen bitartean. Beste datu adierazgarria euskara eta euskal/nafar nortasuna ikertzeko egindako tesien ugaltzea dugu, 1995--1998 bitartean. Horietako batzuek harreman estua dute politikarekin, baina nahiago izan dut multzo berezia osatu horiekin, joera honen garrantzia azpimarratzeko. Historia Politikoari dagokionez, gutxi ezagutzen genituen arloetan sakontzeko balio izan dute. Bi tesi abertzaletasunarekin lotuta daude, beste bi Nafarroako hauteskundeekin, eta azkena, Arabako aldundiarekin. Langile-taldeak eta behartsuen mundua aztertzen dituzte gizarte-historiari buruzkoek.

Gaiak urtez urte

GAIA	1995	1996	1997	1998	1999
Ekonomia	3	2	2	3	1
Nekazaritza	1	1	1		
Politika/Erakundeak	3	2			
Gizartea	2		3		
Hirigintza	1				
Artea/Kultura			3	1	1
Euskara/Nortasuna	2	1	3	1	
GUZTIRA	12	6	12	5	2

Laginaren tamaina txikiak ez du aukera gehiegi ematen ondorio sakonak ateratzeko. Dena den, Historia Ekonomikoaren erregulartasuna eta azken urteetan kulturak, hizkuntzak eta nortasunak hartu duten tokia azpimarratuko ditugu, Historia Politiko hutsaren kaltetan.

Jorratutako eremu geografikoa

Nafarroa	14
Bizkaia	8
Gipuzkoa	5
Araba	3
Euskal Autonomia Erkidegoa/ Euskal Herria	7

Begi-bistakoa da Nafarroari buruzko produkzioaren garrantzia. Beste hiru probintzien presentzia, ikuspuntu demografikotik, nahiko orekatua baldin bada ere, Erresuma Zaharrak bizitasun esanguratsua azaltzen du. Bertan dauden unibertsitateen arteko lehia, batetik, eta egoera politikoa, bestetik, izan daitezke sormen--iturri horren abiapuntua. Badago, dena den, azpimarratu beharreko beste datu bat: ikuspegi orokorreko tesien urritasuna. Zazpi baino ez dira sartzen multzo horretan, eta esanguratsua da ikustea, horietako hiru abertzaletasunaren ibilbidearekin lotuta daudela zuzenean. Beste batek hizkuntzaren eta industrializazioaren arteko harremana jorratzen du; bosgarrenak Azkue aztertzen du musikologo moduan, seigarrenak Aurelio Arteta pintorea eta zazpigarrenak elektrizitatearen sektorearen garapenean euskal kapitalek izandako eragina aztertzen du. Azken lau horiek ez lukete arazo handirik izango Bizkaiko multzoan sartzeko. Ondorio nabarmena atera daiteke, beraz, koadro honetatik: probintziako lurraldeak jarraitzen du izaten tesien ikergunea oraindik, eta ez du, ez Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko ikuspegirik, ezta Euskal Herrikorik, gaiak berak eskatzen ez badu, behintzat.

Tesien irakurketako unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)	17
Deustuko Unibertsitatea	5
Nafarroako Unibertsitatea	5
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)	4
Zaragozako Unibertsitatea	3
Beste unibertsitateak	3

Bi ondorio desberdin atera daitezke unibertsitateen azterketatik. Lehena EHUren nagusitasuna, tesi guztien %45 irakurri direlako bere sailetan. Dena den, unibertsitate bakoitzaren ikasle-kopurua, Historiarekin lotutako ikasketak, irakasle-kopurua eta bitartekoak aintzat hartzen baditugu, nagusitasun hori murriztu egiten da. NUPean adibidez, ez dago Historia lizentziaturarik, eta unibertsitate osoan 10.000 ikasle inguru daude —EHUren seitik bat—; baina lau tesi irakurri dira. Bigarren ondorioak lotura dauka aurreko iruzkinean azaldutakoarekin. Hots, bizi dugun probintzializazio-prozesua nabaria da, bereziki Nafarroako kasuan. Izan ere, Nafarroako unibertsitateetan irakurri diren 9 tesietatik 8 Nafarroari buruzkoak izan dira. Zaragozako hirurek Nafarroako nekazaritzarekin dute lotura. EHUn eta Deustuko unibertsitatean herrialde desberdinak biltzean, prozesua ez da hain nabarmena, baina joera antzekoa da. Honek ez du esan nahi, eremu horretan egindako lanek ez dituztenik ezagutzen historiografiaren azken ekarpenak. Galderak planteatzeko orduan, ikerlan horiek inguruko herrialdeetan sortutako auziak ere hartu dituzte kontuan.

Tesien azterketa laburbilduz, egoera nahasiarekin egiten dugu topo. Irakurtzen ari diren tesien kopuruak behera egin du azken urteotan. Gaien aldetik nabarmena da ekonomiaren pisua, nortasuna, hizkuntza eta kulturarekin lotutako gaien garapena eta lurraldeen mugetarako atxikimendua. EHU izanik gunerik emankorrena, Nafarroako bizitasuna azpimarratu behar da, Berrezarkuntzari dagokionez behintzat.

4.2. Azken urteetako lerro nagusiak

Azken urteetako produkzio osoa aztertzea ezinezkoa izanik, argitalpen nagusietara mugatuko gara, gure ustez lan eta lerro interesgarrienak direnak aipatuz.

Historia politikoaren ezaugarri nabarmenena 1980ko hamarkadaren bukaeran finkatutako paradigmen sendotasuna da. Hots, Luis Castells-ek eta Félix Luengo-k Gipuzkoari buruz emandako azalpenek edota Antonio Rivera-k Gasteiz-Arabari buruz emandakoek horretan diraute. Ekarpen berriek ñabardurak gehitu dituzte, baina ez dira gai izan ezagutza historikoan aldaketa sakonak sortzeko. Nafarroan eta Bizkaian, bestalde, ikuspegi orokorraren gabezia dago, azken lurralde horretan bereziki. Nafarroan, asko dira erakunde publiko, hauteskunde eta alderdien ezaugarriei buruz idatzitako lanak; Angel García-Sanz-en prosopografia eta hauteskun-

deen azterketa-lanetatik hasi, eta Ignacio Olabarriren bultzadapean Nafarroako Unibertsitatean gauzatutako azterketak, besteak beste. Azken urteetako lanik mardulenak María del Mar Larraza-rena (1997) eta Cesar Layana-rena (1998) dira. Lehenak Iruñeko gizarte eta hauteskunde-politika aztertu du 1890 eta 1923. urteen bitartean. Bigarrenak sufragio zentsitarioaren garaia jorratu du Nafarroa osoan. Bizkaiko kasuan, hutsuneak askoz ere handiagoak dira, ez baitago lurralde horri buruzko azterketa berezirik, Javier Real-ek bere garaian egindakotik kanpo. Argitaratu diren lanen arteko emankorrena, Ander Delgado-k egindakoa dugu (1998). Bermeoko egoeratik abiatuz, Bilbo eta Ezkerraldeko eraginetik kanpo dagoen Bizkaiko eremuaren azterketa da Delgado-rena, politikaren sozializazioa nola gertatu zen arakatuz. Argitaratu berri dira, bestetik, Larraza-ren eta Rivera-ren lanak (2001), jauntxokeriaren garaiko gorteetarako hauteskundeak aztertuz; baina oraindik politika-munduaren ikuspegi orokorra falta zaigu.

Alderdi politikoen azterketak ez du historialari askoren arreta jaso azken urteotan, eta hutsune nabariak daude, hala nola errepublikanismoaren inguruan edo alderdi dinastikoen bilakaeraren azterketan. Azpimarra daitezkeen lanen artean, interesgarria da María Obieta-k Gipuzkoako alderdi integristari buruz egindakoa (1996). Erakundeen historiari dagokionez, gutxi aurreratu da: Arabako Diputazioari buruzko doktoretza-tesia argitaratu du Díaz Hernández-ek (1995), eta Kontzertu Ekonomikoaren nondik norakoak arakatu ditu Alonso Olea-k (1995). Berrezarkuntzaren mugak gainditu arren, Agirreazkuenagaren lan bat sartu behar dugu hemen, Diputazioen batzarrak biltzen dituena (1995). Hipotesi erakargarri eta ausarta da, gaurko giro politikoan batik bat, zeren EHUko katedradunak bertan planteatu baitzuen, ezen euskal lurraldeen batasun politiko eta administratiboaren bilaketa ez dela abertzaletasunaren jardueraren ondorioa, askoz ere zaharragoa baizik. Arrazoi ekonomiko, politiko eta kulturalei erantzuten zien bilaketa horrek, Euskal Herriak Espainiar estatu liberalean integrazio egokia eduki zezan.

Pentsamendu eta ideologien historiari dagokionez, arlo honetako lanik interesgarrienak azken urteotan irakurritako doktoretza-tesietatik datoz, eta bereziki Nafarroatik. Hain zuzen, nafar nortasunaren eraikuntza lantzen dutenek horren baitan eman diren aldaketak azpimarratu dituzte. Iñaki Iriarte López-ek hasierako *navarrismo*aren eta *euskaro*en arteko antzekotasunak azpimarratu ditu; mito, gertaera historiko eta zenbait pertsonaiaren inguruan beren diskurtsoak eraikitzean ikusten da antz hori, nahiz gero eta kontrajarriagoak izan diskurtsoak. Urruntze eta enfrentamendu horren lekuko genuke euskalduntasunaren aurkako jarreren agerpena, autonomia-estatutuaren auziaren barruan, eta, bereziki, Trantsizioko urteetan. Foralitatea indartzea (iragan historikoen erreferentziarekin eta erlijioarekin batera), nafar izaeraren oinarri bilakatu zen Gamazadaren garaitik aurrera, Aliende-ren ustez (1999). Diputazioak bere ospea handitu zuen Estatuaren mehatxuen aurrean eta Nafarroako gizartean ematen ari ziren zatiketak ekidin nahian. Agerian geratzen da, bestetik, Diputazioaren beraren lana elementu horiek gizarteratzeko orduan.

López Anton-ek (1998) Arturo Campión-i buruz eta Nieva-k euskaroei buruz idatzitakoak ere, multzo honetan sartu behar ditugu.

Historialariok arreta eskasa eskaini ohi diogu euskarari. Nabarmendu beharra dago, beraz, gai horren inguruan kaleratu diren bi lan interesgarri. Lehenak, Blanca Urmenetarenak (1997), Nafarroako erakundeek, gizarte-taldeek eta zenbait pertsonak euskararen inguruan azaldutako jarrera eta jokabideak aztertu ditu, euskararen aldeko mugimenduak deskribatuz eta gaztelaniaren zabalkundearen bideak erakutsiz. Guztiz bestelakoa da Xabier Erizeren liburua (1997). Nire ustez, gai horri buruz azkeneko urteetan idatzi den lanik biribilena da. Erizek euskararen atzerapena ikertu ordez, euskararen iraupena aukeratu zuen ikergaitzat, erantzuna euskaldunen komunitatean bertan aurkituz, Uitzin, hain zuzen. Eskola, merkataritza eta soldadutzaren bitartez gaztelania ezagutu arren, herri horretako biztanleek euskara gorde dute, beraientzako baliagarria zelako eta berezko ospea zuelako. Euskararen inguruko lanen artean kokatu behar dugu, azkenik, Javier Diaz Noci-rena (1995), prentsaren inguruan.

Hezkuntzaren esparruaren bazterketa nabarmena egin da Gaur Egungo Historia "letra larriz" ikertzen duten (dugun) historialarion aldetik. Maiz, arlo hori lantzen dutenen izenak aipatu ere ez dira egiten Aro Garaikideko berrikuste bibliografikoetan. Hiru dira nabarmenduko ditudan egileak. Pauli Davila izan da hezkuntzaren historia era sistematikoan bultzatu duen lehen egile garrantzitsua. Bere lanen artean lehen hezkuntzari eta alfabetizazioari buruzkoak dira garrantzitsuenak (1995), nahiz eta maisu-maistren prestaketa edota Lanbide-Heziketa ere jorratu dituen. Iñaki Zabaletak (1998) XX. mende hasierako abertzaletasunak zituen hezkuntzari buruzko ikuspegiak landu ditu. Lortutako ondorioak zorrotzak dira, zorrotzegiak nire iduriko. Beraren ustez, abertzaletasuna ez zen hezkuntza-sistema nazionala definitzera iritsiko, eta «hezkuntza sistema espainiarraren adar berezia sortzea izango du helburu». Maitane Ostolazaren tesia da azpimarratu beharreko hirugarren lana (2000). Erlijio-kongregazioek Gipuzkoan sortutako eskolen jarduera aztertu du bertan, eta lortutako emaitzak goraipatzen ditu. Bere esanetan, Elizaren hezkuntza-sarea oso garrantzitsua izan zen lurraldearen modernizazio sozioekonomikorako, gizartearen premiei hurbiletik erantzun baitzien.

Erlijioa da gutxi jorratutako beste arlo bat, historiografia akademikoan behinik behin. Hamarkadaren hasierakoak izan arren, bi lan aipatuko ditut. Anton Pazos-ek (1990) Iruñeko elizbarrutiko apaizei buruz egindako azterketa da bata. Bigarrena, ia-ia konturatu gabe pasatu da gure artetik, agian luzeegia delako. Joaquín Perea-ren liburu mardulek (1991) Gasteizko elizbarrutiaren jarduera arakatzen dute era sakon eta zehatzean, apaiz eta Elizako agintarien ekintza desberdinak erakutsiz. Nahiz eta Elizaren zeregin politikoa ez baztertu, bigarren mailan jartzen du, eguneroko jardueraren atzetik.

Gizartearen egiturak eta lan-mundua aztertzean, Historia Politikoan ez bezala, asko dira egon diren berrikuntzak, garrantzitsuena ikuspegiaren aldaketa izanik. Aurreko hamarkadetan ikergaia langile-mugimendua eta bere gatazkak baldin baziren, azken urteetako argitalpenek langilea eta bere inguru hurbila —lantokia zein bizilekua— aukeratu dituzte. Berrezarkuntzari lotuz, ikuspegi berri horren adibide garrantzitsuena Ruzafa-ren lana dugu (1998). Bere azterketak gai ugari ukitzen ditu 1841-1891 bitartean: ogibide bakoitzaren ezaugarriak, eguneroko bizitza, emakumeen lana, irakaskuntza, aisialdia, elkarteetan parte-hartzea. Hiru dira Ruzafa-k bereizten dituen langile-taldeak: artisauak, langile ez-gaituak eta lantegietako langileak, bakoitza bere ohitura, tradizio eta ezaugarriekin. Barcenilla-k (1999) ere lan-mundua hartu du ardatz gisa Errenteria modernoaren sorrera aztertzean, liburuaren zatirik handiena historia ekonomikoaren barruan sartu behar baldin bada ere. Eusko Ikaskuntzaren Historia Sailak antolaturik 1999ko abenduan egindako Jardunaldiak —"Lana Euskal Herrian" lelopean— joera berrien beste adibide interesgarria dira (*Vasconia,* **30**, 2000). Gatazkei buruzko komunikazioak bigarren mailan geratu ziren, kultura, etxebizitza, haur eta emakumeen lana, eta abar jorratzen zituztenen atzean. Nekazarien munduak ez du arreta gehiegirik jaso ikuspuntu horretatik, nahiz eta noizean behin lanen bat azaldu den, bereziki Nafarroan, lurren inguruko eztabaida azalduz edo kooperatibismoaren inguruan, Majuelo-ren lanak (1991, 1992) adibidez.

Gizartearen egiturari dagokionez, Nafarroari buruz ez dago gauza handirik. Aipa daitezkeenen artean Javier Echeverría-ren lan bat dago (1994). Egile honek XX. mendearen hasierako Nafarroako gizartea aztertu zuen, bertan emandako eraberritzeko ahalegina azpimarratuz, "geldialdiaren" teoria baztertuz, nahiz eta garaiko krisi ekonomiko desberdinek eragin nabarmena eduki. Bereizketa interesgarria planteatzen du, bestetik, *burguesía patrimonial* eta *burguesía funcional* deritzenen artean. Gizarte-egituraren azterketaren bidean —baina asmo eta lorpen zabalagoekin— kokatu behar ditugu Luis Castells-ek eta Antonio Rivera-k elkarrekin argitaratu dituzten zenbait lan (1995, 1998). Gizarte-historiaren korrontean integratuz, Berrezarkuntza-garaian izandako aldaketak aztertzea da haien helburua. Era horretan, EAEra mugatutako azterketan, "masa-gizartearen" agerpena azaltzen ari dira, bere agerpenaren ondorioekin: giza mugikortasuna, hirien handitzea eta berrantolaketa, indar politiko eta sozial berrien agerpena, boterearen inguruko borrokak eta hitzarmenak, ohitura berrien zabaltzea eta garapena, etab. Azken finean, gizarte-lokarriak definitu eta baldintzatzen dituzten elementuen ezaugarriak atzeman eta deskribatu nahi dituzte. Aipatutako aldaketekin batera, euskal gizartearen konplexutasuna eta aurreko egoera eta taldeen eta portaeren jarraitzeko gaitasuna azpimarratu dituzte bi egile horiek, nahiz eta talde eta ohitura berriak nagusitu. Bestalde, Castells-ek zuzendu du 1999an argitaratu zen *El rumor de lo cotidiano* liburua. Bertan gizarte-historiaren arlo desberdinak azaltzen dira, gizarte-boteretik hasita, soziabilitatea, emakumeen historia, eliza eta antiklerikalismoa, jaiak eta abar agertuz.

Berrikuntza-giro horretan, baina demografiatik hurbilago dago Pilar Pérez-Fuentes-en lana (1993). Bestalde, 1989an Josetxo Urrutikoetxeak demografiaren garapenaren inguruan itxaropen eskasa eduki arren, diziplinak aurrerapen nabaria egin du azken urteotan, bai zuzenean demografian, baita familiaren azterketan ere[32]; eta gehiago egingo du mendearen hasiera honetan, zenbait lan argitaratzen direnean. Guztien ondorio komuna izango da euskal ereduen aniztasuna eremuen arabera azpimarratzea, alde bakarreko ikuspegiak baztertuz: adibidez, familia tronkalaren erabateko nagusitasuna. Ereduen banaketa egokitu beharraren ondorioa izango da. Industrializazioaren eraginak aldaketa-prozesu bizia bultzatu zuen, nahiz eta zenbait eremutan, denbora luzez mantendu ziren eredu tradizionalak. Demografiari buruzko ikerlanen hazkundean zerikusi erabakiorra izan du EHUren Garaiko Historia Sailak sortu duen Demografia Historikoaren Laborategiak. Bertan, González Portilla-ren zuzendaritzapean, lan ugari kaleratu dira, besteak beste, haurren bizitza edota emigrazioei buruzkoak (1996). Talde horren lanen artean, Pérez-Fuentes-en liburua bereiziko dugu, genero-ikuspegiaren aitzindaria izan delako gure artean. Bere ondorioen arabera, meategi inguruko emakumeen zeregina oso garrantzitsua izan zen familiak aurrera atera ahal izateko, lanaren banaketa oso estua izan arren, eta emakumeak meategietatik kanpo mantendu arren. Nafarroako kasuan, lan asko argitaratu dira azken urteotan bertako biztanleriaren barne-ezaugarriei buruz (ugalkortasuna, hilkortasun orokorra eta haurrena, ezkontza-tasa, eta abar), eta familiaren historiari eta mugimendu migratorioei buruz[33]. García-Sanz-en lanen ondotik, Fernando Mikelarena eta Sagrario Anaut dira, une honetan, egilerik garrantzitsuenak. Nabarmentzekoak dira, bestetik, haur abandonatuei buruzko ikerketak: Lola Valverde-ren azterketaren ondoren, Arantza Uribe-Etxeberriak 1890 eta 1930. urteen bitarteko egoera landu du bere doktoretza-tesian (1996). Horiez gain, ongizatea eta gizarte erreformismoa dira Ascensión Martínez-en lanaren muina (1996), Gipuzkoako txiroen babesa eta kontrola aztertuz 1876 eta 1936. urteen bitartean.

Gizartea, politika eta ekonomia elkartuz azken urte hauetan garapen nabarmena izan duen beste arlo bat hirien historiarena dugu, bereziki hiriburuen kasuan. Gasteizek Rivera-ren (1992) eta Imízcoz-en (1997) lanak jaso ditu, eta Donostiak Artola-k zuzendutako historia (2000). Iruñeak Ugarte-ren (1998) eta Larraza-ren lanak (1997) ditu, nahiz eta ez eduki zuzenean helburutzat hiriaren historia egitea. Bilbok aipamen berezia merezi du. Batetik, 1995ean Berrezarkuntza-garaia betebetean hartzen zuen lan garrantzitsua kaleratu zelako, Manuel González Portilla-ren zuzendaritzapean (1995). Bertan, Bilboko bilakaera ekonomikoa, aldaketa demografikoak, familia-egitura eta estrategiak, hirigintzaren arazoak eta garraioaren

32. Ikusi *Vasconia*, **28**, 1999, "Familia Euskal Herrian". Gai honi buruzko argitalpenen inguruan, M. González Portilla, eta J. Urrutikoetxea (1999): "Familia vasca e historia: entre el cambio y las resistencias", *Cuadernos de Alzate*, **20**, 205-218.

33. S. Anaut Bravo (1997): "La demografía histórica en Navarra. Apuntes sobre el estado actual", *Estudios de Ciencias Sociales*, **10**, 37-58.

garapena landu ziren, XVIII. mendearen bukaeratik frankismoaren hasierara arte. Azken urte hauetan, bestetik, Bizkaiko hiriburuarekin lotutako argitalpenek hazkunde nabarmena izan dute[34]. Bi dira fenomeno horren atzean dauden arrazoiak: Bilbok berak bizi izandako indartze-prozesua (Metroa, Guggenheim, Euskalduna) da bat, eta, bestea, bere udalak Bidebarrieta liburutegiaren inguruan kultura arloan egindako aldaketa. Kulturgune horretan, eta Joseba Agirreazkuenagaren eskutik, urtero kongresu bat ari dira antolatzen Bilbo, historia eta kulturaren inguruan. Gainera, 1996ean argitaratzen hasi zen *Bidebarrieta. Bilboko Giza eta Gizarte Zientzien Aldizkaria,* eta horrek ere lagundu du Bilbori buruzko produkzioa gehitzen. Bestalde, Berrezarkuntzari dagokionez, azpimarratu beharrekoak dira *Hermes eta Bilbo* eta *Unamuno eta 98ko euskal herritarrak* izenburuko zenbakiak.

5. EUSKARAZ IDATZITAKO PRODUKZIOA

Gaztelania da Euskal Herriko Historia lantzeko orduan gehien erabiltzen den hizkuntza. Eusko Jaurlaritzak kaleratu berri duen azterketa batean, EHUko Geografia eta Historia Sailetako irakasleek 1994-1998 bitartean argitaratutako liburu guztien %8,7, liburu-atalen %11,2 eta artikuluen %4,9 baino ez zeuden euskaraz idatzita[35]. Gutxi dira, beraz, gure hizkuntzan idatzitako lanak, eta, are gutxiago, ikerketa--lanak direnak. Tokian tokiko historian, zuzenean edota itzulpenen bitartez, euskaraz argitaratutako lanak ugariak baldin badira, ez da gauza bera gertatzen ikerketaren munduan. Izan ere, euskara existitzen dela justu-justu dakite askok; ez dute hizkuntza beren ikerketan erabiltzen, are gutxiago beren gaiaren inguruan egon daitezkeen lan apurrak. Lanen kalitatea kideek finkatzen duten neurrian, eta zenbat eta aipu gehiago jaso hainbat eta hobea denez, euskarak atzera egin du; baita beren hasieran lanak euskaraz idatzi zituztenen (genituenen) artean ere. Hiru irtenbide daude arazo hori konpontzeko. Lehena ikertzaile-irakasleen lana sendotzea da, lanpostuaren (oposizioen) ardura desagertzen den neurrian (lortu delako edota lortzeko modurik ez dagoela garbi dagoelako), gaztelaniaz argitaratzeko urgentzia hori desager daiteke; gutxienez ikerketa hutsa ez diren lanetan. Haietan, ziur asko, gaztelaniaren ordez, ingelesa nagusituko da hamar bat urte barru. Bigarren konponbidea, irakurle euskaldunen kopurua handitzea izango da. Pixkanaka-pixkanaka aukera ematen ari da (eta emango da), euskaraz idatzi arren oihartzuna jasotzeko. Azken irtenbidea erakundeen bultzada izan daiteke. Hots, ikertzaile euskaldunak edota euskaraz idatzitako lanak eskatzen diren neurrian, horien kopuruak gora egingo du. Ez dirudi, dena den, hau denik erakunde publikoen jarrera azken urteotan.

34. J. Agirreazkuenaga (1996): "Iraultza garaia Bilbon barrena: Bilboren agerkundea objetu eta kategoria historiografikoen eremuan", *Bidebarrieta*, **1**, 139-155; eta M. Montero (1996): "Bilbao. Estudios e investigaciones sobre el siglo XX: Futuras líneas de trabajo", *Bidebarrieta*, **1**, 157-170.

35. Askoren Artean (2001): *Euskal Herriko Unibertsitatearen Humanitate eta Giza Zientzien arloetan egindako ikerlanaren ebaluazioa*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

Euskarazko bibliografia-produkzioak izan dezakeen bigarren arazoa autoerreferentzialtasuna da. Hau da, euskaraz idatzitakoak *corpus* itxia osatzea, bere erreferentziak beste euskaldun batzuek idatzitakoan aurkituz. Ez da horrelakorik gertatu; izan ere, euskarazko idatziak gure diziplinak garatu duen metodologia, oinarri, hipotesi eta paradigmen barruan kokatzen dira, onerako eta txarrerako.

6. EUSKAL HISTORIA, HISTORIA NAZIONALA, HISTORIA PROBINTZIALA ALA PROBINTZIANOA

Euskal historiografiari buruzko hausnarketa ia guztiek azpimarratzen dute, euskal historialari gehienak ez direla abertzaleak (norbait "guztiak" esatera ausartu da); ordea, badira "profesionalak" eta "zientifikoak". "Historiografia abertzalea", antza, egon badago, baina inoiz ez da egiten aipamen zuzenik; ondorioz, zaila da jakitea, zehatz-mehatz, zer ulertu behar dugun kontzeptu horren azpian. Azken urteotan, gainera, zenbait liburu argitaratu dira, espresuki, "Euskal Estatuaren" historiaren alde desberdinak jorratuz, Nafarroako konkista bereziki, integrazio-prozesuaren samurtasuna kolokan jarriz[36]. Liburu horiek deskalifikatuak izan dira, besteak beste, ustez egile nazionalisten eskutik etorri direlako. Ez naiz, dena den, liburu horiei buruz hitz egiten hasiko, ezta beraien kalitateari edota kalitaterik ezari buruz, gure garaitik oso urruti kokatzen direlako, salbuespenen bat kenduta. Dena den, bada inoiz agertu den kontua. Hots, euskal historiaren erreferentzia-markoarena.

Hitzez, behintzat, euskal historialari gehienek uko egiten diote historia nazionalistari edota nazionalari:

> En general, nuestra historiografía se ha movido al margen de los esquemas conceptuales que se plantean la existencia de caracteres nacionales, sean vascos o españoles.
>
> […]
>
> No es una historiografía nacionalista, pero tampoco niega el concepto de nación vasca (que ni siquiera se plantea) y por el contrario, en lo sustancial, la historiografía vasca se afirma exclusivamente como tal, por su objeto de estudio[37].

Haien helburua, euskal gizartearen arazoak argitzea da, eta aurretik jar zitezkeen lurraldearen eta nazioaren definizioak tokiz kanpo omen daude. Eta hala dirudi, beraien burua ez-abertzaletzat duten askok, Ipar Euskal Herria eta Nafarroa kontuan hartzen dituzten lan kolektiboetan parte hartzen dutenean[38]. Anekdotatik

36. Liburu hauei buruzko aipamen laburra, dituzten hutsuneak azalduz, Angulo Morales, A. (1999): «Los claroscuros de una renovación historiográfica. Balance de los estudios históricos sobre la Edad Moderna en el País Vasco y Navarra en la década de los noventa», *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, **6**, 44.

37. M. Montero (1998): "La enseñanza de la historia de España en el País Vasco", *Ayer*, **30**, 174.

38. F. Luengo (1999): "Algunas reflexiones sobre la historiografía vasca contemporánea", *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, **6**, 112.

harago, hauxe gogoratu behar da: «No existe una historia "neutral", no nacionalista, esterilizada y aséptica de España, ni de Cataluña, ni del País Vasco»[39].

Historialarion lana da gaur egungo egoerara nola heldu garen azaltzea. Gure kasuan, ezin da euskal historia nazionala eraiki, gustuko diren gertakariak bakarrik jasoz; benetako edo ustezko erasoen gainean bakarrik edota Espainiarekin ditugun elementu komunak isilaraziz. Baina, era berean, historia zuzen batek Espainiarekin ditugun diferentziak ere adierazi behar ditu. Bide horretan joanda, esanguratsuak dira euskal historiografia "profesionalaren" hutsune batzuk. Berrezarkuntzaren kasuan, euskal lurraldeak Espainian integratzeko prozesua 1876an burututzat jotzen da, tentsiorik gabe, armadaren papera eta gerra-egoera ahaztuta. Zenbait lanetan, gainera, lupa erabili behar da, euskaldunen hizkuntza zein zen eta liberalismoaren garaian horren bilakaera eta zapalkuntza zein izan ziren jakin ahal izateko.

Nabaria da, bestetik, euskal historialariok ez dugula problematizatzen gure lanen espainiar izaera. Euskal markoaren hautaketa ez litzateke, halabeharrez, gaur egungo autonomia politikoaren ondorioa izango, ikerketa historikoaren behar metodologikoen luzapena baino; azterketa-eremu txikien eta gizarte zehatzen analisia bultzatu baitute azken urteetako korronte historiografiko nagusiek[40]. Urrun gaude, Pere Anguera-k salatutako "balkanizazioaren" arriskutik[41]. Izan ere, historialari katalanararentzat historiografiaren joera gaur egun indarrean dauden autonomien mugekin bat egitea litzateke, bere inguruan sortutako bibliografia erabiliz eta ikuspegi orokorreko lanak baztertuz. Gure kasuan, eta bereziki Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, ez dugu lortu oraindik ikuspegi autonomikoa edukitzea; are gutxiago, nazionala izatea.

Espaniar izaeraren ondorio logikoak, ordea, huts egiten du, neurri batean bederen. Izan ere, euskal produkzioa espainiar historiografiaren barruan kokatzen da zentzu bikoitzean: Euskal Herriko historia garaikidea Espainia garaikidearen ezaugarrien arabera aztertzen da; eta, halaber, espainiar historiografiaren partaide sentitzen da. Ikerketa-prozesuaren bilakaerak, ordea, hemengo erreferentzialtasuna bultzatu du. Horretaz jabetzeko, bada euskal historiografiaren aztertzaileek jorratu ez duten ikuspegia bat; hots, zein den horren eragina hurbileko historiografian eta, zehazkiago, Espainiako Berrezarkuntzari buruzko historialarien artean. Ikuspuntu hori lantzeko, azken hamarkadan Espainian argitaratu diren zenbait hausnarketa arakatu ditut, eta emaitzak ezin adierazgarriagoak izan dira:

39. J. B. Culla eta B. de Riquer (1998): "La enseñanza de la historia desde una perspectiva catalana", *Ayer*, **30**, 164.

40. C. Forcadell Álvarez (1999): "El despliegue de una historiografía regional. Pasado reciente y presente de la investigación contemporaneísta en Aragón", *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, **6**, 63. or.

41. P. Anguera (1992): "L'endocentrisme en la història contemporània de Catalunya: un fals nacionalisme", *Afers*, **13**, 19. or.

EGILEA	Aipamenak guztira	Euskal lanen aipamenak	1990 baino gerogoko euskal lanen aipamenak
GÓMEZ OCHOA, 1991[42]	110	5	2
FORCADELL, 1996[43]	80	4	0
OLABARRI, 1996[44]	60	3	2
SUAREZ CORTINA, 1997[45]	492	5 (32)[46]	1 (17)
RIQUER, 1999[47]	26	0	0

Euskal historiografiak, antza, zeresan gutxi dauka Espainiako ikuspegi orokorra lantzen duten egileentzat. Badago, beraz, historiografia "probintzianoa" bultzatzeko arriskua, Espainiako zenbait autonomia-erkidegotan gertatzen ari den moduan.

Euskal historiografiak badauka, bestetik, Espainiako kasuan salatzen den arazo bera, hots, sintesi eta lan orokorren falta. Sintesiaren arazoa, euskal produkzioaren hazkundearen eta zatiketaren ondorioa dugu, ikerketaren espezializazioak oztopatu egiten baitu sintesia.

7. ONDORIOAK

Espainiako historiografiaren antzeko ibilbidea egin du Berrezarkuntzari buruzko euskal historiografiak, arlo batzuetan aurreratuz, eta beste batzuetan atzetik ibiliz. Horrela, 1990. urtean Ignacio Olabarrik nabarmendu duenez, arlo ugari garatu dira gure artean[48]. Hala nola, ekonomia, biografia, pentsamendua, artea, hezkuntza eta kulturaren historia. Azken hamar urte hauetan, aldiz, Historia Politikoan —gure

42. F. Gómez Ochoa (1991): "La crisis final de la Restauración (1917-1923) en la historiografía española", in G. Rueda (arg.), *Doce estudios de historiografía contemporánea*, Universidad de Cantabria, Santander**,** 183-209.

43. C. Forcadell Álvarez (1996): "De la Revolución democrática a la Restauración: El horizonte de una historia social", in A. Morales Moya eta M. Esteban de Vega (arg.), *La Historia Contemporánea en España*, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanka**,** 103-123.

44. I. Olabarri (1996): "La España invertebrada durante la crisis de la Restauración (1914-1931)", in A. Morales Moya eta M. Esteban de Vega (arg.), *La Historia Contemporánea en España*, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanka, 125-144.

45. M. Suárez Cortina (1997): "La Restauración (1875-1900) y el fin del imperio colonial. Un balance historiográfico", in M. Suárez Cortina, *La Restauración, entre el liberalismo y la democracia*, Alianza Editorial**,** Madril, 31-107.

46. Guztira 37 aipamen daude, baina horietatik 32 euskal abertzaletasunari buruzkoak dira.

47. B. de Riquer i Permanyer (1999): "Consideraciones sobre historiografía política de la Restauración", in J. L. de la Granja, A. Reig Tapia eta R. Miralles (arg.), *Tuñón de Lara y la historiografía española*, Siglo XXI**,** Madril, 123-142.

48. I. Olabarri (1990): "El peso de la historiografía española en el conjunto de la historiografía occidental (1945-1989)", *Hispania***, L/2**, **175**, 417-437.

historiografiak gehien lantzen duen arloan, alegia— ez da aldaketa nabarmenik gertatu, zenbait eremu eta gertakizun hobeto ezagutzen badira ere; eta erakundeen historiaren esparruan edota erlijioaren, armadaren eta gerraren historian ez da egon aldaketa handirik izan. Gogora dezagun Niño-k esandakoa Madrilgo Universidad Complutense delakoari buruz: bere sailaren irudia kontserbadorea zen, Historia Politikoaren nagusitasuna agerikoa baitzen eta gai jakin batzuen inguruko kontzentrazioa begi-bistakoa. Gure kasuan, beraz, sentipen bikoitzarekin egiten dugu topo: alde batetik, beste herrialdeekin konparatuta atzeratuta dagoen historiografia osatu dugu; bestetik, ahalegin handia egiten ari gara atzerapen hori gainditzeko. Nabarmena da, adibidez, euskal historiografiaren garapena gizarte-historian eta demografia historikoaren arloetan. Tokiko historiak, dena den, garrantzi handia du edozein ikergaitan.

Errealitate hori ikusita, bidezkoa dirudi euskal historiografia bigarren berrikuntza-garaian sartu dela esatea. 1970eko hamarkadan hasitako epean jarritako oinarriak sendotu ondoren, eta, horiei eutsiz, ikerketa-lerro berriak ireki dira eta zenbait berrikuntza gauzatu dira, bai teoriaren aldetik, baita ikuspuntu metodologikoetatik ere; zer esanik ez, iturrien erabilerari dagokionez. Egoera horretan, euskal historiografiak, abiadura galdu nahi ez badu, bere tokia bilatu edo birdefinitu behar du. Horretarako, ezinbestekoa da euskal historialarien arteko elkarrizketa, baita Espainia eta Europako beste historialariekikoa ere.

Elkarrizketa eta truke horietan, ordea, gure lanen menpekotasun-egoera oso nabarmena da. Espainiako Berrezarkuntzako historiografian ikusi dugunez, euskal produkzioaren tokia oso txikia da. Menpekotasuna errepikatu egiten da, hemengo historialariok erabilitako metodo eta hipotesiei dagokienez; mailegu gutxi egon direlako beste eremu geografiko batzuetara, eta bai, ordea, alderantziz. Euskal historialariok Espainiako produkzioan dugun eragina oso apala da. Beste alde batetik, gutxitan, ia inoiz, ez dugu eman estatuaren historia jorratzeko jauzia, Espainiaren bilakaeraren ikuspegi propioa lantzeari uko eginez. Norbaitek pentsa dezake, agian, Euskal Herriari aplika diezaiokegula Carlos Barros-en analisia eta geure ahultasuna indar bilakatu[49]. Barros-en ustez, globalizazioaren garaian zentro bakar bat ez dagoenean, eskola historiografiko propio baten hutsunea, ikertzaileen gai, metodo eta oinarrietan erabateko eraldakuntzen gabezia eta izaera periferikoa, horiek guztiak desabantailak izan beharrean, baldintza egokiak dira historiografia espainiarraren garapenerako. Ez dut uste hori denik euskal historiografiaren egoera, hemen ikerketa-talde indartsuak badaudelako, nahiz eta mugatuak izan. Kontua beste bat da. Alegia, historialarien artean giza berrikuntza geroz eta txikiagoa denean, zer nolako mekanismoak osatuko ditugu talde txiki horiek bereganatutako joera, metodo eta teknikak zabaltzeko?

49. C. Barros (1996): "Inacabada transición de la historiografía española", *Bulletin d'Histoire Contemporaine de l'Espagne*, **24**, 469-493.

Edozein kasutan, sarreran aipatu dudan moduan, orrialde hauek behin-behineko izaera dute eta hausnarketa-prozesu orokor baten hasieran kokatu behar ditu irakurleak. Berrezarkuntzari buruzko euskal produkzio historikoak hazkunde nabarmena izan du azken hamahiru urteotan. Orain askoz hobeto ezagutzen dugu garai hori. Baikorren eta ezkorren arteko lehian, nire ustez, zalantza gutxi dago lehen taldea kokatzeko orduan; baina, hori gorabehera, ezin utzi gure muga eta ahuleziak nabarmendu gabe. Teoriari, metodologiari eta, bereziki, historiografiaren azterketari arreta gehiago eskaini behar diegu, geure diziplinak aurrera egitea nahi badugu. Gaurko nire gaia izan ez arren, aipatutako lan hori egitea premiazkoagoa da XX. mendeko historialariei dagokionez, gaur aztertutakoei buruz baino. Zenbait topiko behin eta berriz errepikatzen direlako, oinarri gutxirekin, sumatzen dudanez. Ezin ahaztu, amaitzeko, historialarion lan, kemen eta ezinegonaren ondorioa dela historiografiaren inguruko kezka; eta, beraz, bizirik dagoen izate bat erakusten digula.

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Agirreazkuenaga, J. (1995): *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

Aliende, A. (1999): *Elementos fundantes de la identidad colectiva navarra. De la diversidad social a la unidad política, 1841-1936*, NUP, Iruñea.

Alonso Olea, E. (1995): *El Concierto Económico (1878-1937). Orígenes y formación de un Derecho Histórico*, EHU, Leioa.

Artola, M. (arg.) (2000): *Historia de Donostia-San Sebastián*, Donostiako Udala, Donostia.

Barcenilla, M. A. (1999): *La pequeña Manchester. Origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano. Errenteria (1845-1905)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Castells, L. eta Rivera, A. (1995): "Vida cotidiana y nuevos comportamientos sociales", *Ayer*, **19**, 135-163.

————————, (1998): "Representación política y poder social en el País Vasco durante la Restauración", in Askoren Artean, *Poder económico y poder político*, Biblioteca Historia Social, Valentzia.

Castells, L. (arg.) (1999): *El rumor de lo cotidiano. Estudios sobre el País Vasco contemporáneo*, EHU, Bilbo.

Davila, P. (arg.) (1995): *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en el País Vasco*, EHU, Leioa.

Delgado Cendagortagalarza, A. (1998): *Bermeo en el siglo XX. Política y conflicto en un municipio pesquero vizcaíno (1912-1955)*, Eusko Ikaskuntza, Bilbo.

Díaz Hernández, O. (1995): *La administración provincial en España durante la*

Restauración: La Diputación de Alava (1876-1923), EHU, Leioa.
Diaz Noci, J. (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
Echeverria Zabalza, J. (1994): "Antecedentes de la Navarra actual. Algunos elementos sobre la estructura social de Navarra de los dos primeros tercios del siglo XX", *Gerónimo de Uztariz*, **9/10**, 31-54.
Erize, X. (1997): *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936). Soziolinguistika historikoa eta hizkunta gutxituen bizitza*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
González Portilla, M. (arg.) (1995): *Bilbao en la formación del País Vasco Contemporáneo: (Economía, población y ciudad),* Fundación BBV, Bilbo.
———— eta Zarraga, K. (arg.) (1996): *Los movimientos migratorios en la construcción de las sociedades modernas*, EHU, Leioa.
Imízcoz, J. M. eta Manzanos, P. (1997): *Historia de Vitoria*, Txertoa, Donostia.
Iriarte, I. (2000): *Temas de identidad, literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960)*, Biblioteca Nueva, Madril.
Larraza, M. (1997): *Aprendiendo a ser ciudadanos. Retrato socio-político de Pamplona, 1890-1923*, EUNSA, Iruñea.
————, (2001): "Navarra", in J. Varela Ortega (arg.), *El poder de la influencia. Geografía del caciquismo en España (1875-1923)*, Marcial Pons Historia-Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 433-453.
Layana, C. (1998): *Elecciones generales en Navarra 1876-1890*, NUP, Iruñea.
López Antón, J. J. (1998): *Arturo Campión entre la historia y la cultura*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
Majuelo, E. (1992): "Movimientos sociales contemporáneos en Navarra 1808-1936", *Príncipe de Viana*, Anejo **16**, 619-635.
————, eta Pascual, A. (1991): *Del catolicismo agrario al cooperativismo empresarial*, Madril.
Martínez, M. A. (1997): *Gipuzkoa en la vanguardia del Reformismo Social. Beneficiencia, Ahorro y Previsión*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
Obieta Villalonga, M. (1996): *Los integristas guipuzcoanos: desarrollo y organización del Partido Católico Nacional en Guipúzcoa (1888-1898)*, Instituto de Derecho Histórico de Euskal Herria, Donostia.
Ostolaza, M. (2000): *Entre religión y modernidad*, UPV, Bilbo.
Pazos, A. M. (1990): *El clero navarro (1900-1936). Procedencia social, procedencia geográfica y formación sacerdotal*, EUNSA, Iruñea.
Perea, J. (1991): *El modelo de Iglesia subyacente en la pastoral del clero vasco (1918-1936)*, Desclée de Brouwer, Bilbo.
Pérez Fuentes, P. (1993): *Vivir y morir en las minas. Estrategias familiares y relaciones de género en la primera industrialización vizcaína (1877-1913)*, UPV, Lejona.
Rivera, A. (1992): *La ciudad levítica. Continuidad y cambio en una ciudad del*

interior (Vitoria, 1876-1936), Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

————————, (2001): "País Vasco", in J. Varela Ortega (arg.), *El poder de la Influencia. Geografía del caciquismo en España (1875-1923)*, Marcial Pons Historia-Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 455-495.

Ruzafa, R. (1998): *Antes de la clase. Los trabajadores en Bilbao y la margen izquierda del nervión, 1841-1891*, EHU, Bilbo.

Ugarte, J. (1998): *La nueva Covadonga insurgente. Orígenes sociales y culturales de la sublevación de 1936 en Navarra y el País Vasco*, Biblioteca Nueva, Madril.

Uribe-Etxebarria, A. (1996): *Marginalidad protegida: mujeres y niños abandonados en Navarra, 1890-1930*, EHU, Leioa.

Urmeneta, B. (1997): *Navarra ante el vascuence. Actitudes y actuaciones (1876-1919)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Zabaleta Imaz, I. (1998): *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1865-1923)*, EHU, Leioa.

Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Eta tiro baltzari. Abertzaletasuna eta jauntxokeria Bermeon
Mikel Aizpuru
1990ean argitaratua
ISBN: 84-86967-22-8

Historia: Zientzia ala literatura? Historiari buruzko gogoeta sorta
Pruden Garzia eta Iban Zaldua
1995ean argitaratua
ISBN: 84-86967-66-X

Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan
Karmele Artetxe (arg.)
2001ean argitaratua
ISBN: 84-8438-016-5

Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Hezkuntza Gasteizen XIX. mendean
Agirre, J., *Uztaro* **24**, 29-47.

Abertzaletasuna Araban: Legutianoko jelkideak XX. mendearen lehen herenean
Aizpuru, M., *Uztaro* **39**, 53-61.

Frantziako iraultza: modernitate eta tradizionalismoaren artean
Aldekoa, I., *Uztaro* **0**, 21-35.

Euskal federalismo foruzalea Seiurteko Demokratikoan (1868-1873)
Alfaro, I., *Uztaro* **40**, 37-62.

Esklabo iraultzak erromatar errepublikoaren krisialdian: gizarte gatazken eredu bat
Alvarez, D., *Uztaro* **36**, 25-39.

Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketarako erbesteratzea. Ikuspegi orokor bat (1898-1940)
Alvarez, O., *Uztaro* **13**, 69-86.

Kontrabandisten aurkako neurriak XVIII. mendeko Euskal Herrian: "leku sakratuen" desagerpena
Angulo, A., *Uztaro* **21**, 45-67.

Arrantza-merkatuan Gasteizko merkatariek izandako partaidetza eta inbertsioak (XVII. mendearen hasieran)
Angulo, A., *Uztaro* **28**, 37-58.

Makiak Euskal Herrian
Apaolaza, U., *Uztaro* **37**, 105-118.

Euskal Herriko inprentaren historia
Arana, J. A., *Uztaro* **12**, 37-53.

Basoa Euskal Herriko historian zehar
Aragón, A., *Uztaro* **29**, 28-38.

Enirio-Aralar mendietako abereen eta basoen ustiapena aro berrian zehar
Aragón, A., *Uztaro* **38**, 19-32.

Bengoetxeako Anbrosio. 1552-1625
Aranburu, P. J., *Uztaro* **20**, 17-69.

Demokrazia Heletan Frantziako iraultza aintzin
Arbelbide, X., *Uztaro* **2**, 103-117.

Europa bakarra, Europa anitzak
Arregi, J., *Uztaro* **15**, 55-66.

Goi paleolitoaren hasierako faseak
Arrizabalaga, A., *Uztaro* **1**, 53-75.

Frantziako kexu-koadernoen azterketa bat
Chueca, J., *Uztaro* **2**, 119-128.

Faxismoa Nafarroan 1936.az geroztik
Chueca, J., *Uztaro* **6**, 77-87.

Faxismoa Frantzian: 1918-1930.
Garzia, P., *Uztaro* **5**, 31-45.

Europako langile-mugimenduaren protohistoria: Ingalaterrako eta Frantziako langile--elkarteak Erregimen Zaharraren bukaeran eta Aro Garaikidearen hasieran
Gracia, J., *Uztaro* **7**, 55-75.

Pobrezia eta gizarte laguntza XVIII. mendean Bizkaian
Gracia, J., *Uztaro* **14**, 3-20.

Bigarren *Aintzina*
Hernández, A., *Uztaro* **15**, 37-53.

Nazionalismoaren historia eta ideologia
Kintana Goiriena, J., *Uztaro* **25**, 3-26.

Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hitz neurtuetan (1823-1840)
Kintana Goiriena, J., *Uztaro* **30**, 61-84.

Euskal federalismo foruzalea Seiurteko Demokratikoan (1868-1873)
Kintana Goiriena, J., *Uztaro* **40**, 37-62.

Bizkaitar eta gipuzkoar nekazariak 1718ko matxinadan
Lamikiz, X., *Uztaro* **33**, 21-41.

Erdi Aroko gizartea gaisotasunaren aurrean: erantzunak eta jarrerak
Lema, J. A., *Uztaro* **18**, 17-39.

Aintzinako Erregimeneko herri baten giza ekonomi azterketa: Villaverde de Trucios, 1753 urtean
López, E., *Uztaro* **10**, 33-59.

Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea
López, E., *Uztaro* **23**, 45-63.

Nazionalismoa eta bere teoria
Mees, L., *Uztaro* **11**, 15-27.

Langileak ba al dauka aberririk? Euzko Langileen Alkartasuna sindikatuaren sorrera eta garapena
Mees, L., *Uztaro* **11**, 29-36.

Paleolito ondorena Metal-arora arte Euskal Herrian
Mujika, J., *Uztaro* **4**, 33-84.

Metal aroak Euskal Herrian. Eneolito, Brontze eta Burdin Aroa
Olaetxea, C., *Uztaro* **1**, 77-103.

Hamarrenak Euskal Herrian: Calahorrako eliz barrutia XI-XIII. mendeetan
Riaño, E., *Uztaro* **8**, 35-52.

Euskal Herriko bilakaera geomorfologikoa
Ugarte, F. M., *Uztaro* **4**, 25-31.

Nafarroako sorginkeria berriro eztabaidagai
Zabala, M., *Uztaro* **39**, 39-52.

Euskal nazionalismo motak, nazioaren ikuskeraren arabera
Zabalo, J., *Uztaro* **26**, 27-46.

Ekonomi historiaren historia: sarrera bat
Zaldua, I., *Uztaro* **6**, 59-75.